



2015
60, 1

EUSKERA

2015
60, 1

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



18 €

Euskera 2015, 60, 1, 1 - 396, Bilbo. ISSN 0210-1564

EUSKERA



2015
60, 1
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefona: 94 415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

e.posta: info@euskaltzaindia.eus • web gunea: www.euskaltzaindia.eus

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoko edo mekanikoko, fotokimikoko, elektrooptikoko, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Preimpresioa: Composiciones Rali, S.A.

Costa, 12-14, 7º izda. – 48010 Bilbo

Inprimategia: Imprenta RGM, S.A.

2016ko urrian inprimatua

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

***Euskera* agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:**

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean
- Dialnet datu-basean

Kalitate adierazleak:

CIRC (2016): C maila

MIAR (2015): 4.477 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurrirá a expertos externos.

La revista *Euskera* esta disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography
- Base de datos Dialnet

Indicadores de calidad:

CIRC (2016): Categoría C

MIAR (2015): 4.477 (ICDS)

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography
- Base de données Dialnet

Indicateurs de qualité :

CIRC (2016): Catégorie C
MIAR (2015): 4.477 (ICDS)

Euskera is the official journal of *Euskaltzaindia* and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database
- Dialnet database

Quality indicators:

CIRC (2016) : group C
MIAR (2014) : 4,477 (ICDS)

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Idazkari teknikoa: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS.
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA.
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA.
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI.
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE.
Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila. Gasteiz

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE
CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea.
Tolosa, Okzitania.

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT
Perpignango Unibertsitatea. Perpignan

XARLES BIDEGBAIN
Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea.
Baiona

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE
Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

JOSE IGNAZIO HUALDE
Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

XABIER ITZAINA
CNRS, Centre Emile Durkheim,
Sciences por Bordeaux. Bordele

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU
CNRS, Paris. Kolombiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI
Eusko Jaurlaritzza. IZOko burua. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Batzorde teknikoa: PRUDEN GARTZIA (Euskaltzaindia. Bilbo).

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo).



E U S K E R A

AURKIBIDEA

EKITALDIAK:

- **Koldo Mitxelenaren mendeurrena**

[17] *Sarrera*

[19-48] *Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola*
ZALBIDE, Mikel

JARDUNALDIAK:

- **Etxeitaren heriotzaren mendeurrena**

[53-54] *Sarrera*

[55-65] *Jose Manuel Etxeita (1841-1915). Oharrak bizitzaz eta literaturaz*
KORTAZAR, Jon

- **Piarres Larzabalen jaiotzaren mendeurrena**

[69-71] *Sarrera*
TOLEDO LEZETA, Ana M.

[73-89] *Piarres Larzabal: biografía (1915-1988)*
LANDART, Daniel

Euskera. 2015, 60, 1. 7-11. Bilbo
ISSN 0210-1564

[91-105] *Larzabal eta taulagaina*
LUKU, Antton

• **XX. Jagon jardunaldiak: Euskara hedabideetan:**

[109-115] *Kronika*

[117-135] *Irakurleak eta ikus-entzuleak epaile. Euskarazko hedabideen euskararen erabilerarako eraginkortasunaz*
BAZTARRIKA, Patxi

[137-141] *Ondorioak*
Euskaltzaindiaren Sustapen batzordea

AGIRIAK:

• **Euskaltzaindia. Batzar-agiriak**

[147-152] *Osoko bilkura*
Bilbon, 2015eko urtarrilaren 30ean

[153-156] *Ageriko bilkura*
Bilbon, 2015eko urtarrilaren 30ean

[157-162] *Osoko bilkura*
Gasteizen, Goiuri jauregian, 2015eko otsailaren 27an

[163-169] *Osoko bilkura*
Azkoitia, Intsausti jauregian, 2015eko martxoaren 27an

[170-171] *Ageriko bilkura*
Azkoitian, 2015eko martxoaren 27an

[172-175] *Osoko bilkura*
Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2015eko apirilaren 24an

- [176-184] *Osoko bilkura*
Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2015eko maiatzaren
29an
- [185-192] *Osoko bilkura*
Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatea,
Baionako Campusa, 2015eko ekainaren 26an
- [193-199] *Osoko bilkura*
Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2015eko
uztailaren 17an
- [200-205] *Osoko bilkura*
Elizondo, Baztango Udaletxea, 2015eko irailaren 25ean
- [206-208] *Ageriko bilkura*
Elizondon, 2015eko irailaren 25ean
- [209-214] *Osoko bilkura*
Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015eko urriaren
30ean
- [215-218] *Ageriko bilkura*
Donostian, 2015eko urriaren 30ean
- [219-224] *Osoko bilkura*
Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2015eko azaroaren 27a
- [225-230] *Osoko bilkura*
Bilbo, Udaletxea, 2015eko abenduaren 18a

- **Euskaltzaindiaren arauak**

- [233-234] *Euskaltzaindiaren araugintza 2015ean*

IRIZPENAK ETA TXOSTENAK:• **Onomastika**

- [239] *Artikaberri*
- [240] *Azotz*
- [241] *Arabako Batzar Nagusiak*
- [242-243] *Jungitu*
- [244] *Ollaran*
- [245-248] *Sobre el topónimo Azoz / Azotz*
SALABERRI ZARATIEGI, Patxi
- [249-258] *Informe sobre el nombre Bolibar*
GORROTXATEGI NIETO, Mikel
- [259-266] *Valle de Olo / Ollaran*
SALABERRI ZARATIEGI, Patxi
- [267-268] *Valle de Egüés / Eguesibar*
ANDRES, Iñigo
- [269-276] *Arartekoaren 2015eko uztailaren 14ko ebazpena. Berrizko toponimia mapan ageri den baserri baten izenari buruz*

ADIERAZPENAK ETA HITZARMENAK:

- [279-281] *Euskaltzaindiaren adierazpena Iparraldeko kolegioen erreformaz*
- [283-292] *Euskaltzaindiak 2015. urtean zehar hainbat lankidetzaz-hitzarmen sinatu ditu*

BERRIAK:

[295-321] *2015eko albisteen kronika*

OMENALDIAK:

[325-332] *2015ean omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak*

HILBERRI TXOSTENAK:

[335-339] *Emile Larreren hilberria (1926-2015)*

JANBATTIT, Dirassar

[341-344] *Juan Garmendia Larrañagaren hilberria (1926-2015)*

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari

[345-354] *Joshua A. Fishman-en hilberria*

ZALBIDE, Mikel

[355-359] *Josep Kaminoren hilberria (1927-2015)*

ARBELBIDE, Xipri

[361-366] *Suzuko Tamura gogoan (1934-2015)*

HAGIO, Sho

[367-374] *Jan Braun-en hilberria (1926-2015)*

KINTANA, Xabier

* * *

[377-380] *Euskera agerkariaren idazketa arauak*

[381-384] *Normas de redacción de la revista Euskera*

[385-388] *Normes de rédaction de la revue Euskera*

[389-392] *Writing guidelines for the journal Euskera*



Ekitaldiak

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Koldo Mitxelenaren mendeurrena
Donostian, 2015eko urriaren 30ean

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

Urriaren 30ean, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena hizkuntzalari, kulturegile eta euskaltzaina omendu zuen, haren jaiotzaren mendeurrenean.

Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundian egin zen; amaieran, bi erakundeon izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Markel Olano ahaldun nagusiak Diputazioaren beiratearen irudia duen oroigarria eman zioten Koldo Mitxelena zenaren Rafa semeari. Honela dio: «Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren jaiotzaren mendeurrenean. 2015-10-30».

Mikel Zalbide eta Joseba Lakarra euskaltzainak izan ziren Koldo Mitxelenak utzi digun ondare aberatsa aztertu zutenak. Zalbidek «Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola» mintzaldia eman zuen eta Lakarrak «Koldo Mitxelena, euskalaria euskaltzaleen artean» izenekoa.

Hasierako hitzak, baina, Markel Olanorenak izan ziren. Bilkura horretan egotea «ohorea» dela esan ostean, Koldo Mitxelenaren bi ezaugarri nagusi azpimarratu zituen: «bere konpromisoa bere herria eta bere hizkuntzarekin, batetik, eta Euskal Herrian bere irudiak ikasgai franko dakartzala, bestetik».



Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola

ZALBIDE, Mikel
Euskaltzain osoa

Errenteriako seme eta Euskal Herriko plazagizon ageri, gogoetagile sakon eta solaskide zorrotz, euskaltzain oso eta unibertsitate-esparruko irakasle handi izanik dugu Koldo Mitxelena. Jaio zeneko mendeurrena izanik aurren, ugarituz doaz han-hemen bere gorazarretan antolaturiko ekitaldiak. Ez da gaurko hau lehenengoa, dakidalarik hirugarrena baizik, eta ez da seguruenik azkena izango.

Esker ona erakusteaz gainera gogoeta egin nahi du gaurkoan Euskaltzaindiak, ageriko bilkuraz eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat eginik, bere kide suhar, aztertzaile gailen eta argi-emaile handi izandako Koldo Mitxelenaren lanaz eta oihartzunaz. Bere ekarri akademiko-intelektualaz jardun nahi du Akademiak ekitaldi honetan, Koldok utzi digun ondare aberatsa bi aldetatik arakaturik: gure arteko ikuspegi soziolinguistikoen sorreran eta bilakaeran Mitxelenak izandako lekua eta pisua jorratu nahi da batetik; hizkuntzaren corpusa eguneratu eta bateratzeko saioetan Errenteriako euskaltzain linguistak izandako giltzarri-izaera azpimarratu nahi da bestetik. Lehen atala jorratzea eskatu dit Euskaltzaindiak. Pozik eta esker onez natorkizue: ohore handia da niretzat, atsegin izateaz gainera, Mitxelenaren gorazarretan antolatu den ekitaldi honetan nire jakite-esparruko gogoetaren bat edo beste, xume eta labur, zuen artean jaulki ahal izatea. Koldoren beraren esaldi ezaguna eskaini dit puntu-jartzaileak, hitzaldia nola landu eta nola enfokatu zedarriztatzeko: «Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean:

Euskera. 2015, 60, 1. 19-48. Bilbo
ISSN 0210-1564

handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia»¹.

Poz-atseginaz gainera beldur-puntua ere badut ene baitan, azalpen hau aurkezteko orduan. Garbi esango dizuet zergatik. Mitxelenaz jendaurrean hitz egiterakoan, aurreko batean adierazia dudanez², arriskua daukagu gure burua biografo ordeztu hagiografo bihurtzeko. Haren laudoriotan esatekoak neurritz kanpora atereaz, azterketa kritiko pausatua zenbait eskakizun, haizeak orbela bezala, noraezean uxa dezakegu. Egia da arrisku hori apalagoa dela Koldoren kasuan: bere ekarpen zientifiko-akademikoen handiak eta aberatsak berme biziak dute, gehiegizko okerbidera neurritz gain murtzeko. Arriskua hor dago, ordea, eta ez genuke gutxietsi behar. Bere esan-eginak analizatu eta baloratzerakoan hagiografo gisa jokatu bagenu Koldo bera izango genuke seguruenik, bizi izatera, mintzen eta atsekabetez lehena. Mintzeaz gainera ez luke agian halako okerrik, bekatari nabarmenari hitz-ereditxo bat esan gabe, onartzen asmatuko. Jakin badakigu guztiok jenioz biziak genuela Koldo: hain begiko zuen Xenpelarren Pasaiako zeren igerilaria bezain bizi. Nor ez da gure artean, alde edo moldez, inoiz edo behin bere bizitasun hark eragindako eztenkaden testigu, pizgarri edo jomuga izan? Neurritz jokatu nahi genuke beraz, maisu handiari zor diogun errespetuak agintzen duen gisan, Mitxelenaren ekarpen soziolinguistikoen analisi-saio xume hau egiterakoan. Aitorturik bego hortaz kezka, eta argi adierazirik asmoa. Gatozen, besterik gabe, harira.

Mende luzea daramagu euskaldunok, euskara nola indarberritu aztertzen eta eztabaidatzen³: aztertzen, eztabaidatzen eta, ahal izan denetan, diagnosti-

¹ Euskaltzaindiak 1978an argitaratu emandako *Euskararen Liburu Zuria*-n, bertako hitzaurrean zehazki, dator Mitxelenaren esaldi hori. Izenburu hau du euskarazko hitzaurreak: *Euskararen bide luze bezain mallarrak*. Gaztelaniaz (jatorrizko idazkeran?) *El largo y difícil camino del euskara*.

² 2015eko irailean, EHUren Donostiako Udako Ikastaroetan, Mitxelenaren gorazarretan irakurritako txostenean azaldurik dugu hori.

³ Ohar bi egin behar dira hemen: a) lehenagoko hainbat saioen aipamena eta azterketa alde batera utzi da gaurkoan, gaiak hala eskaturik; b) aniztasun etnokulturalaren eta hizkuntzen elkarbizitzarako *pluribus*-filosofiaren aldeko euskaldun euskaltzaleon jardunaz egin da langintza hori, baina euskaldun-euskaltzaleak ez dira alor horretako eragile bakar: ez bakar eta ez, hainbatean, bilakaera soziolinguistiko globalaren bidegile nagusi. Hor daude, izan ere, kanpoko zenbait aditu-

ko bateratura iritsi eta, elkar hartuz, adostutako egitasmoak osatzen. Ez gara munduan bakarrak, ahuldutako egoeran gaudenak eta, hizkuntza bizirik gordeko badugu, konponbideren bat asmatu, zehaztu, adostu eta aplikatu beharra daukagunak. Milaka hiztun-elkarte dago mundu zabalean, arriskupeko hiztun-elkarteen sailean. Milaka horietarik gu baino egoera erosoagoan daude batzuk, gure parean-edo dabilta beste zenbait (demagun, galestarrak) eta, azkenik, gu baino nabarmen okerrago daude ahuldutako hiztun-elkarte gehienak. Nabarmen okerrago dauden horiek galdurik dituzte normalean beren behinolako mintza-esparru nagusiak, are han-hemengo arnagune gehienak, XX. mendeko modernizazio- eta globalizazio-prozesuekin, berrikuntza soziokulturalekin edota integrazio politiko-operatibo zein ekonotekniko bortitzekin. Soziokulturalki autorregulatzeko ahalmena galdu izanaz gainera debaui etenik dute belaunez belauneko transmisioa, adin batetik beherakoen artean, eta bizimodu arruntaren sostengu diren erabilera-eremu gehienak (etxea, auzoa, lagunarte hurbila,...) galdurik edo galtzeko puntuan dituzte, kide gazteenen artean bereziki. Aldiz gu baino egoera hobe(xeago)an dauden ahuldutako hizkuntzek bizkorrago dute beren hizkuntza propioaren belaunez belauneko transmisioa, demolinguistikoki (hiztun-kopuruz eta hiztun horien kontzentrazio-mailaz) indartsuago dabilta eta espazio soziofuntzionalan, hitzez eta idatziz, gureak baino hedadura zabalagoa dute beren hizkuntza propioek. Mendebalde honetan ez dira asko, nolana ere, ahuldutako egoeran egonik euskaldunok baino nabarmen osasuntsuago ageri direnak. Batzuek eta besteek, gu baino osasuntsuago eta gu baino larriago dauden hiztun-elkar-teek, ikasbide ernagarria eskaintzen digute euskara indarberritu nahi dugun herritar, aditu eta erakundeoi. Begiak gora zein behera itzuliz badugu horiei eskerrak, gure eginbeharrari ekiterakoan, nori begiratu eta zer ikasi: batzue-tatik (gorago daudenetatik) adina besteetatik (osasunez nabarmen larriago daudenetatik) ikas dezakegu, zenbaitek besterik uste badu ere. Konparazio-eta kontraste-aukera aparta eskaintzen digute, azkenik, gure parean-edo dauden hiztun-elkar-teek.

ren eta hainbat euskalariren saioez gainera, mintzajardunaren bestelako gizarte-moldaera izanik dutenak amets: tartean, nola ez, euskararen etorkizunaz aparteko kezkarik agertu izan ez dutenak edota, halakorik egitekotan, euskararen belaunez belauneko iraupenaren kontra agertu diren hainbat euskaldun eta erdaldun, banaka zein taldean.

Ez gaitezen ordea engaina. Munduan bakarrak ez izan arren, eta auzo-koen hainbat saio argigarri izanik ere euskaldunontzat, nekez konponduko ditugu gure gaitzak eta ajeak, besterik pentsa bageneza ere, auzoko sandiari edo haren alboko urliari zerk ondo funtzionatu dion eta zerk oker azertu hutsarekin. Beste aldi eta beste lekuetan emaitza ona ekarri izan duen botika ez dugu maiz, damurik, etxeko gaixoaren osasunak hobera egin dezan egoki, are gutxiago fidagarritasun beteko osasun-berme. Gure-gurea den hainbat ezaugarri bekokian iltzaturik daramagu euskaldunok, mintzajardunaren giza arteko moldaerari dagokionez. Gure bereizgarri horiek kontuan izango dituen sendabidea behar dugu, ez norbaitek noizbait eta nonbait asmatu botika unibertsal miresentzako. Gure etxerako egokia den, hemen eta orain aplikatu litekeen, irtenbide⁴ zuhurrena bilatu, zehaztu, adostu eta aplikatu beharrean gertatu gara horregatik, behin eta berriro, XX. mendean. Ez da noski lan erraza: Oihaneko Legeari aurre egingo dion hiztun-herrri handien eta txikien arteko gizabidezko elkarbizitza adosteak berez duen zailtasun jeneralari, gure «hic et nunc» bihurriaren berezitasunak erantsi behar zaizkio ezinbestean. Horrek egin eta egiten du gure lanbidea, bestela ere aski baldar eta nekagarria, delikatuago eta, ondorio-aurreikuspenei dagokienez, duda-mudakoago. Eztabaida-iturri luze, sarritan mikatz eta ia beti unagarri bihurturik ditugu, horrexegatik, honako bi galdera hauek: a) euskara nora eraman, noraino jaso, nahi dugu?, eta b) hain ahuldurik dagoen hizkuntza nola indarberritu?

Etxeko eta kanpoko asko izan ditugu, 1900etik 2000ra bitartean, korapilo hori askatzen saiatu direnak. Alde batera utziko ditugu gaurkoan⁵ euskararen indarberritzea begi onez ikusi edo ikusten ez dutelarik amore ematea gomentatzen dutenak: hots, gurea bezalako gizarte-bizitza moderno, globalizatu eta

⁴ Zehazkiago, irtenbide-sorta. Azpeitian eta Durangon ezin da egitasmo berbera aplikatu, itxurazko etekinik atera nahi bada. Are gutxiago Markinan, Zumaian edo Leitzaan batetik eta Irunen, Donibane Lohizunen edo Maulen bestetik. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko plan orok oso kontuan izan behar du lekuan lekuko egoeraren aldakortasun hori, «plangintza orokor» delakoaren lilura hutsalak itsutuko ez badu saioa, eta ondorio makurrera eraman hainbat ilusio eder eta hainbat eginahal bizi.

⁵ Kontzeptu-lanketaren aldetik badute halere interesik aski beren jardunak, motibazioak, azalpen hurbilak eta azken xedeak.

supraetniko batean egin litekeen gauzarik zentzuzkoena «amets txoroak behingoz baztertuz» nahikunde hutsal baizik ez omen diren jomuga nostalgikoak alde batera uztea komeni dela diotenak⁶. Herritar edo ordezkari horiek aho batez babesten duten *unibus*-asmoaren gaintetik, edota horren eskuz esku, *pluribus*-filosofia soziokulturala aldarrikatzen dugunongan zentratuko gara hortaz, gaurkoan. Aniztasun soziokulturalaren aldeko herritarrok, adituok eta herri-aginteok goiko bi korapilo horiek askatzeko asmatu, zehaztu, partez adostu eta hein batean aplikatu izan ditugun neurriak izango dira gaurkoan aztergai. Koldo Mitxelena-ren berrogei urteko gogoeta jorien eta eztabaida bizen argitan aztertu nahi dugu hori. Aztergai dugun urte-epea ongi mugarizaturik dago: aurrelan bat edo beste tartean izanik ere badakigu, bibliografiaren argitan, 1950 inguruan hasia dela Mitxelena-ren jardun nagusia, linguistikan zein hizkuntza-soziologiaren esparru teoriko-praktikoan, eta 1987ra arte eginbehar bikoitz horri bizi-bizirik eutsi ziola.

Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioen esparruan, linguistikan bezala, Mitxelena ez zen hutsetik abiatu zale: erdal esapide ezaguna gurera aldatuz, «Mediterraneorik deskubritzen» ibiltzea ez zuen Koldok gogoko. Aurrekoek esandakoak eta, bereziki, han-hemengo adituek arrazoibide zehatzez adierazitakoak sakon aztertu ohi zituen, aitzitik, eta, probetxuzko irizten zien neurrian, begitarte arraiz bereganatzen eta aplikatzen zituen. Begirune handiz jokatu ohi zuen horrelakotan. Besterengandik jasotako ideiak, irizpideak eta, bereziki, datu zehatzak nondik hartuak zituen garbi adierazi ohi zuen eta, aitormen espres horiei eskerrak, badugu orain bere ekarpen erraldoia osoago eta zehatzago ulertzeko lagungarri aberatsik. Jakin badakigu, horrela, hizkuntza-soziologiaren XX. mendeko kontzeptu eta termino giltzarri asko (batez ere 1950etik 1975era artekoak⁷, ahal izanik iturritik beretik⁸ jaso ohi zituela. Itxuratxarki aldatu gabe jaso ohi zituen

⁶ Zeharbidezko datuen argitan jokamolde hori uste duten ugariak eta, bereziki, argi eta garbi bide horri ekitea gomendatzen duten bakan-ausartagoak.

⁷ Ikus Zalbide 2015b.

⁸ Iturritik beretik edo, dokumentua idatzita zegoen hizkuntza eragozpen larri zuenean edo bestelako trabaren bat tartekatzen zenean, beretzat garantia handiko beste norbaiten arartekaritaz jardun ohi zuen eskuarki.

horiek guztiak eta, batez ere, kontzeptualki aski era koherentean aplikatzen. Hori bakarrik ez zuen halere, «bakarrikako» hori asko izanik nolana, Mitxelenak egin. Besterenak zintzo eta sakon hausnartzeaz gainera, bere-berea duen kontzeptu-sare eta formulazio-mundu aberats-kiribila eraiki zigun errenteriarrek, hizkuntza-soziologiaren sailean. Hori paratu zigun, konkretuki, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioen formulazio-esparru teorikoan. Horren alde eman litezkeen frogantza ugarietako bat aipatuko dugu hemen, gainerakoen lekuko: 1951ko bere *Euskal literatura-ren etorkizuna*⁹. Ebaluaziozko hausnarketa orekatua eta aurrera begirako bideberritze-saioa eskaintzen ditu bertan. Gogoeta-lan jakingarria da oso, 1950 inguruko gogo-giroaz eta zaharberritze-asmoez jabetzeko. Asko dago bertan aurreko bidegileetarik jaso: ikus, adibidez, kaletarren bizimoduak berezko dituen eginkizunetara egokituriko hizkuntza-eredu berria landu beharraz dioena. Lizardiren eragina, distira eta oihartzuna bizi-bizirik dago hor, tupiki ozenez sendotua¹⁰. Aurrekari argiak ditu lan horrek, hortaz, baina idazlana berria da osorik: alderik alde berria eta ardatz-sorkuntza, sintesi zein formulazio aldetik arnasbide handikoa. Horrelakorik gehiago ere badu Koldok, azalpen guztiak hain hizkera jaso, sarkor eta hunkigarritz adierazi izan ez baditu ere. Dotorezia handiko azalpen landuetan, orobat zorrotz emandako zenbait erantzunetan, ukaezina da ondorioa: gizar-te-egoera berrira egokituriko paradigma trinko baten sortzaile dugu Mitxelenena. Hizkuntza-soziologiaren jakintza-esparruan bide-urratzaile. Jakintza-esparru zabalean eta, batez ere, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko eginkizun posibleen zehaztapan-lanean¹¹ oinarri-eraikitzaile eta estrategia-definitzaile izanik dugu errenteriarra.

Gatozen beraz, aurrekari horiek hor ditugula, aspaldiko ildoari eutsiz gaurkoan argitu nahi genituzkeen puntu nagusietara. Gorago azaldu dugunez galdera bi ditugu, batez ere, erantzun eske: nora eraman, noraino jaso nahi dugu euskara?; nola indarberritu behar dugu euskara, begiz jotako mai-

⁹ Jatorrizko iturria: *Egan* 1951, 17-21.

¹⁰ Hori bakarrik ez: espresuki aipatzen du Lizardi, behin eta berriro, bere gogoeta-saio horretan.

¹¹ Zehazkiago esanik, eginkizun alternatibo posibleen eta, bereziki, beraien lehentasun-neurrien zehaztapan-lanean.

la horretara eramateko? Ez dira galdera biak, bistan denez, zeharo bereiz eta elkarren arrotz. Puntu amankomun bat baino gehiago dute, eta kausa-on-doriozko loturarik ere ez da beraien artean falta. Badute batak zein besteak beregaintasunik aski, ordea, berariaz lantzeko. Banan-banan aztertuko ditugu hortaz, ondoko lerroetan¹².

I. Euskara nora eraman, noraino jaso, nahi dugu?

Ahuldutako hizkuntza indarberritzea denez helburu, euskararen gizarte-estatusa, etorkizun hurbil edo ertainean, noraino jaso nahi genukeen zehaztea eskatzen digu horrek. Xehago ere planteatu liteke galdera: «gutxienez noraino jaso behar dugu gure hizkuntza ahuldu hau, belaunez belaunezko jarraipen-katea eten ez dakion eta, ahal delarik, euskarazko mintzajardun bizia hiztun-multzo, leku-eremu, jardungune eta agerbide berriak irabazteko gai izan dadin?».

Gaia ez da batere erraza, eta nekez bilatuko dugu errenteriarraren baitan (gainerako guztietan bezala) inor asebeteko duen formulazio teoriko-kutsukorik. Gehienez ere, galdera horrek gizarte-bizitzan (are euskaltzaleen artean) aski erantzun desberdinak dituela dioen aitormen leiala. Honela ikusten zuen Mitxelenak gutxienezko langa-jartze horren kontua 1975ean: «Baroja aipatuz gero, berez dator euskarak gure artean behar lukeen lekuaren auzia. Bizirik irauteko adinbat den leku opa diogu, gutxienez, baina hori aitortzea ez da aski, X-ek, aita Mokoroak eta nik ipiniko genituzkeen mugak ez baitira berdinak zabal-meharrean.» (*Anaitasuna*,

¹² Iturri askotxotan bila litezke, berez, Mitxelenaren gai horiei buruzko azalpenak. Bere idazlanak (zehazkiago: oraingo edo lehengo perspektiban hizkuntza/gizarte binomioaz diharduten bere idazlanak) azterturik ditut berrikitan: ikus EHUren udako ikastaroen baitan irail hasieran emandako hitzaldirako prestatutako txostena. Gaurko ekitaldi honi ezarri zaion enfokea aintzakotzat hartuz, hala, ez naiz dokumentazio osoaren analisi sintetikoan zentratu. Aitzitik, gaiari aurrez aurre erantzuteko balio-indar berezia duten (hala dutela iruditzen zaidan) artikulua eta elkarrizketa jakinetan pausatu ditut oraingoan begiak. Batez ere hauetan: *Euskal literaturaren etorkizuna* (1951); *Euskararen bide luze bezain malkarrak* (1978); *Muga* aldizkariak eginiko elkarrizketa (*Muga* aldizkaria 13, 1981: 30-43); «Elkarrizketa», (*Argia* urtekaria, 1987, 20-32 or. Ikus orobat MEIG IX, 66-85).

1975-I-15). Hots, bizirik irauteko adinbat den leku opa behar zitzaion euskarari, lehenik eta behin, eta, pausoz pausoko gorabidean¹³, hortik aurrera egiteko aukera eman.

Erraza ez izateak ez du esan nahi, jakina, eginkizun hori ezinezkoa denik erabat. Perspektiba teorikotik posible da berez, eskuartean dugun denbora-mugak eta gaiaren elkorrak hartarako aukera handirik ematen ez digun arren, kontzeptu-argitze bati ekitea. Joshua A. Fishman-en 1967ko *Bilingualism with and without diglossia; Diglossia with and without bilingualism* famatua eskumutil harturik hona, labur-labur, lehen hurbilbide gisa egin litekeen mugarriztatze-lana¹⁴.

Diglosiari¹⁵ bere dimentsio kolektiboa atxikiz batetik, eta elebitasuna hitzunen atributu pertsonal gisa hartuz nagusiki¹⁶, lau egoera

¹³ Pausoz pauso joan beharraz ikus, adibidez, *Muga* aldizkariak argitara emandako elkarriketan dioena.

¹⁴ Hitzun-elkartearen (edo bere baitako hitzun-talde edo harreman-sare jakinen) diglosia hartu behar da horretarako kontuan, alde batetik, eta norbanako hitzunen elebitasuna arakatu behar da bestetik. Galdera bi hauei erantzun behar zaie horretarako: a) Hitzun-elkarte horretan (edo bertako hitzun-talde edo harreman-sare jakinetan) ba al dago hizkuntza biren luze-zabaleko konpartimentazio soziofuntzional egonkorrik?; b) Hitzun-elkarte horretan (edo bere baitako hitzun-talde edo harreman-sare jakinetan) elebakar al dira norbanako hitzunak, ala elebidun?

¹⁵ Elearteko diglosiaz (nahiago bada Heinz Kloss-en *exodiglosiaz*) ari gara hemen, ez beste zenbait kontutarako interes bizikoa dugun elebarnekoaz, *endodiglosiaz*, alegia. Ferguson-en 1959ko *classical / vernacular* formulazio dikotomikotik hurbilago lebilke endodiglosiazko formulazio hori, oro har. Estuki harturik ez da ordea, inola ere, baliokide huts: *classical* aldaeratik urrun dago euskara batua, egungo egunean; lehenaldian, berriz, erdara batek (latinak, gaztelaniak, gaskoi-erdarak, frantsesak...) bete izan du sarrien *H status* hori.

¹⁶ «Elebitasun» eta «diglosia» kontzeptuen mugarrizte-aukera terminologiko hori ez du unibertsa- la; bere lanketa akademikoak joan den mendean izan duen ibilbidean aho batez onarturikoa ere ez. Egon badago, ordea, aspaldixkotik gainera (demagun Ronjat-en 1913ko *Le développement du langage observé chez un enfant bilingue*, azpimarra gurea), nagusiki hitzunen elebidunez eta gizarte diglosikoez hitz egiteko joera zabala. Joera zabala bai, baina ez erabatekoa. Adiera-banaketa terminologiko zabal horren formulazio alternatibo baterako ikus Josiane F. Hamers-en eta Michel Blanc-en 1983ko *Bilingualité et bilinguisme*, orain ere jarraitzailek falta ez duena; horietariko baten hitzetan «alors que la notion de bilinguisme s'apparente à la notion d'aménagement linguistique du fait qu'elle réfère à l'état d'une société où deux langues sont employées; la bilinguisme est un concept psycholinguistique du fait qu'elle réfère à la manière dont un individu, qui a accès à

ideal¹⁷ gerta litezke hiztun-elkartean (elkarte osoan edo bertako hiztun-talde edo harreman-sare jakinetan), hiztun-elkarte hori hizkuntza biz¹⁸ baliatzen denean bere baitako harremanetan: a) diglosiarik eta elebitasunik gabeko moldaera (adibidez, guztiok euskaldun elebarkar); b) diglosia bai baina elebitasunik ez duen moldaera (hiztun batzuek A hizkuntzan; besteak B-n, batean zein bestean elebarkar izanik hiztunak); c) diglosia eta elebitasuna dituen moldaera: hiztun-elkartearen espazio soziofuntzionala bitan banaturik, espazio horren zati batean, bestean edo (askozaz nekezago) bietan ari direnak elebidun izanik; eta d) diglosiarik gabeko baina elebitasunezko moldaera (irauenezko konpartimentazio soziofuntzionalik ez duen baina une horretan hiztun asko (parte ohargarria, gehienak, guztiak...) elebidun dituen moldaera. Hona, xeheago eta gurera hurbilduz, lau irtenbide teoriko horien zenbait ezaugarri:

plus d'un code linguistique pour communiquer» (El Euch). Ondotxoz lausoagoa da norbanako planoaren eta talde-dimentsioaren bereizbidea «elebidun / zweisprachig / bilingue / bilingüe» terminoan. Bietan (norbanako planoan eta talde-dimentsioan) erabiltzen da sarri hitz hori, batean zein bestean «aniztasun»-adierazle generiko ere badelarik maiz horko «bitasun» hori. Demagun, berriro, Sonia El Euch irakaslearen azalpena: «un individu dit bilingue peut, en réalité, utiliser plus de deux langues et une société dite bilingue peut, dans les faits, être caractérisée par la présence ou usage de plusieurs langues». Aldeak alde eta joerak joera, dimentsio indibidualetik (norbanakoaren hizkuntza-gaitasunetik, eta gaitasun-maila jakina eskuratzeko bideak berariaz aztertzen dituen psikolinguistikatik edo, are, neurolinguistikatik) hurbilago dabil *elebitasun* kontzeptua oro har, eta hiztun-elkartek (edo bere baitako hiztun-talde edo harreman-sare jakinek) talde edo sare barneko mintzabeharrak asetzeko hizkuntza bi edo gehiago erabiltzeko moldeez arduratzen den hizkuntza-soziologiatik arras hurbilago *diglosia*. Goiko hori ez da, beraz, terminologiazko hautu unibertuala, bai ordea Fishman-en eta, bere bidetik, hizkuntza-soziologiaren alorrean ari (izan) diren aditu askoren formulazio operatibo argia.

¹⁷ Fishman-ek berak argi azaldu izan duenez, eguneroko errealitatea era askotako nahas-egoerez beterik egon ohi da sarri. Nahas-egoera horiei dagozkien ñabardura ugariak lauok zati-banatzeko «logiko»a baino egoera konplexuagoak sortzen dituzte askotan. Eredu huts da berez lau ataleko formulazio teoriko hori: hots, errealitatearen adierazpen abstraktu eta sinplifikatua. Beste era batera esanik, oinarri-oinarrizko sailkapen-saioa da 1967ko hura, beraz. Aplikazio konplexuei buruz han-hemen eginik ditu saio jakingarriak: ikus, adibidez, diasporako judu-hizkuntzei buruzko azalpen soziolinguistikoko zehatzak.

¹⁸ Hizkuntza biz edo gehiagok, ohiko definizio-bidetik: ikus azken-aurreko oin-oharra.

a) *diglosiarik ez, elebitasunik ere ez*. Hots, hiztun-elkartearen edo bertako hiztun-talde edo harreman-sare jakinen giza arteko mintzajardunean diglosiarik eta elebitasunik ageri ez deneko moldaera. Zenbaiten esanean ia ezinezko egoera da hori, gizarte garatuetan: lehentxeago edo beranduxeago bereizi egiten dira bertako hiztunen mintza-beharrak eta, horrek eraginik, dibertsifikatu egiten da azkenik hiztun-elkarte horren aldaera-sorta. Teorikoki hiztun-herri elebakar edo diglosiagabetzat hartu izan dira halere, lehen hurbilketa moduan, Portugal eta Islandia.

Gurera etorri, eta ñabardurak ñabardura, honelako formulazio praktikoa lekarke diglosiarik eta elebitasunik gabeko moldaerak: hiztun-elkarte barruko mintzajardunari dagokionez, guztiok erdaldun elebakar edota guztiok euskaldun elebakar. Euskaltzaleon perspektibatik, euskara hutsean oinarrituriko egitasmoa. Hots, erdararik gabeko Euskal Herria. Gaur egun (partez, oso nekez erabat) euskaraz dihardugun herritarrok eta gehiengo zabala osatzen duten erdaldunak, formulazio honen arabera, euskara hutsez bizi izango ginateke aurrerantzean, erabat edo oso nagusiki, Euskal Herri horren barne-jardunean¹⁹. Gero, arrotzekiko lotura-bideetan, handik haranzko mintza-harremana eskatzen duten goi-mailako jakintza-esparruetan, hiztun-herri batzuen eta besteen arteko saleroste kontuan, turismoan, Internet-en eta kultura-kontsumo supraetnikoan (zineman, pop-musikan, goi-mailako edo salmenta zabaleko literaturan...) *Language of Wider Communication (LWC) edo zabalkunde handiko hizkuntza* batez (gazelan/frantsesaz) edo gehiagoz (demagun, aurrekoaz gain, ingelesaz) baliatuko liriateke elebidun batzuk. Moldaera hori gauza izango litzateke, definizioz, euskal hiztunen belaunez belauneko jarraipen osoa segurtatzeko eta, hiztun-elkartearen barneko harremanetan, hiztun-elkarte barruko mintzabehar guztiak (edo gehien-gehienak) euskaraz mamitzeko. Aldezle ugari izanik du formulazio horrek XX. mendeko euskaltzaleen artean: bai mende-hasieran, Koldo Eleizalderen ahotan²⁰, eta bai gero, 1956 ingurutik aurrera bereziki. Eleizalderen 1918ko azalpena gogoangarria da orain ere: «hemos de plantear y

¹⁹ Ez atzerritarrekiko harremanetan.

²⁰ Ikus Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren 1918ko sorrera-ekitaldian, *Restauración del Euzkera* txostenean (bereziki 431. orrian) azalduakoa. Eleizaldetar Koldobika ez dugu, gure artean, asmo hori

resolver ese problema de tal suerte que el euzkeldun pueda recibir en su propio idioma todas las enseñanzas posibles, desde la más elemental hasta la más superior, desde el deletreo primario hasta el cálculo de una órbita planetaria por el método de Gauss. (...) Cuando ese momento llegue – y llegará si queremos– el euzkeldun de cultura media o elemental no necesitará más que su propio idioma para la generalidad de los casos de la vida, y el euzkeldun de cultura superior necesitará uno o varios idiomas extranjeros, exactamente en el mismo grado y forma en que los necesita hoy un francés, un inglés o un alemán de análoga cultura; pero cuando tal momento llegue, es evidente que la lengua ordinaria, usual y corriente del euzkeldun de alta cultura será el Euzkera (...) (Eleizalde, 1919-20: 431).

«Tarta soziofuntzional eta demolinguistiko osoa»ren aldeze ditugu, beraz, 1918ko Koldo Eleizalde eta 1956tik honako hainbat euskaltzale. Horien ustez, oro har, hortik beherako helburuak ez du balio: kopuruz hain urri izanik euskaldunok, eta hain ugari erdaldunak, gainerako egitasmoak engainagarri huts dira. Euskararen agonia zertxobait luzatzeko balio dute, ez gaixoa sendatzeko: horretarako«tarta osoa» behar da.

Arazo gordin bi, zein baino zein gordinago, ditu «tarta soziofuntzional eta demolinguistiko osoa»ren formulazioak: a1) Haur-eskolatik hasi eta unibertsitatearen goreneko mailaraino euskaraz ikasten duten ikasleak, gutxiengoa izanik ere oraindik, gero eta ugariago dira. Irakaskuntzaren behe- eta erdi-mailetan, unibertsitate-atarirainoko ikasbidea ($HH+LMH+DBH+Batx$) bere osoan hartuta, gehiengo argia. Eleizalderen prognosi hura betetzeko bidean den edo ez konprobatzeko egoeran gaude, beraz, hein handi batean; asmoaren balio-indarra enpirikoki ebalua liteke parte ohargarriz, Eleizaldek planteamendu ausart hura egin zuenetik handik ia ehun urtera. Zer dio errealitateak? Goren mailako ikasbide horiek azken hamarkadotan ugartuz doazen arren, maila horretan egiten ari garen aurrerapen argia ez da, urrundik ere, belaunaldi berrion eguneroko mintzajardun arruntean parez pareko euskalduntze sakonik eragiten ari. Oraingoz ez da egia «cuando tal momento llegue, es evidente que la lengua ordinaria, usual y corriente del euzkeldun de alta cultura será el Euzkera». Kontrakoa, aldiz,

aldezten lehenengoa izana. Horretan ere bere maisu Sabino Aranarekin duen zorra nabarmena da. Horretaz jabetzeko ikus, adibidez, Zalbide 2015.

maiz entzuten zaio unibertsitateko irakasle euskaltzale bati baino gehiagori²¹ eta, oro har, bide beretik doa hainbat soziolinguistaren, euskaltzale askoren eta guraso gehienen eguneroko esperientzia praktikoa²². Teoria soziolinguistiko sendoenak aspalditxo azaldu zuenez, belaunez belauneko jarraipena²³ ez dago, bere hutsean eta bere baitarik, eskolaren (are gutxiago unibertsitatearen) esku. Oso bestelako indargarriak ezarri behar lirateke mintzajardunaren giza arteko moldaeran, belaunaldi berrien euskara hutsezko bizimodua zabaldu, zurkaiztu eta jeneralizatzeke. Aspertzearaino esplikatutik dago aspaldi luzean, inor gutxik kasu egiten badio ere letania horri, eskola bidezko indarberritze-saioak muga-baldintza gotorrak dituela berekin eta, eskolaren indarberritze-saioak luze-zabaleko mintzaldaketa eragingo badu, gizarte-bizitzaren bestelako guneetan eragin beharra dagoela haurrak eskolara bidali aurretik, eskolan diren artean eta eskolatzeko-aldia amaitu ondoko urte-sail luzean. a2) Eragozpen sektorial horri estatus-plangintzaren perspektiba globaleko balioespena erantsi behar zaio²⁴: egungo egoeran eta begien bistako etorkizunean euskaldun elebazarrez bakarrik osaturiko Euskal Herririk ez da inondik inora, *Prokrustes-en ohatze* ezin lazgarriagorik gabe, aplikagarri: ez euskaldungoaren kokapen-marko politiko-operatiboaren aldetik, ez gizarte-sektore zabalaren perspektiba ideologikotik eta ez, bereziki, bertako biztanle gehien-gehienen osaera eta bilakaera demolinguistiko eta soziokulturaletik. Formulazio teoriko gisa hor dago; bertatik bertarako aplikazioari dago-kionez ez da «hemen eta orain» egingarri.

b) diglosia bai, elebitasunik ez. Hots, norbanako planoan elebitasun nabarmenik ageri ez duen baina plano kolektiboan hizkuntza biren erabilera

²¹ Ikasgelatik atera orduko erdaraz ari dira euskal adarretako ikasle asko. Euskara bezainbat, edota euskara baino areago, gaztelania dute beren «lengua ordinaria, usual y corriente».

²² Ikasketa guztiak D erduan egindako hainbat gazte (40 urtetik gorakoa da zenbait, dagoeneko) erdarazko harreman-sareetan txertaturik bizi da partez edo osoz. Hori du bere L-esparruko mintzo nagusia.

²³ Zer esanik ez inoiz galdutako L esparrua berreskuratzea: *revernacularization* edo arbaso-hizkuntza etxekotzea.

²⁴ Bertako gertakarien orain arteko esperientzia, mundu zabaleko ebidentzia enpirikoa eta horren guztiaren argitan eraikitako formulazio teorikoa dira, gure ustez, balioespen global horretarako oinarri hobereena. Amets egitea eta itxaropen-egarriari mugarik ez jartzea zilegi dela diotenek gogoan izan behar lituzkete Samuel Johnson handiaren hitz hauek: «A lost cause is a cause whose adherents permit hope to take precedence over experience.»

konpartimentalizatuaz diharduen gizarte moldea. Behinolako²⁵ sistema hierarkizatu-itxiak ditugu moldaera soziolinguistiko horren prototipo ezagunak: herri xehe elebakarra A hizkuntzan²⁶ eta elite (orobat elebakarra) Bn ari izaten zireneko sistemak, tarte-bitarteko zubi-lana itzultzaile jakinen bizkar joan ohi zelarik sarri. Honelako moldaera berri bat (berr)eratuko balitz aurrera begira, eta gure artean aplikatu, ondorio probableena hau genuke: Euskal Herriko hiztun batzuk (batez ere jardungune edo harreman-sare batzuetakoak) erdaldun huts izango lirateke oro har²⁷, eta beste batzuetakoak euskaldun huts. Hiztun-talde bien arteko zubi-lana egingo lukeen gutxiengoa, orain ere, elebidun genuke²⁸. Mundu zabaleko hainbat antolamendu kolonialetan eta gure arteko ingurumen jakinetan²⁹ indarrean egondako moldaera teoriko hori ere bideraezina da, praktikan, XXI. mende-hasierako Euskal Herri honetan: eskuera ditugun datu demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboen argitan ezinezkoa eta, globalizazio-joerak azken mende-laurdenean daraman bidearen argitan, hurrengo hamarkadetan are bideraezinago. Hau ere formulazio posiblea da teoria hutsaren aldetik, aurrekoa bezala. Baina ez da aplikagarri. Euskaltzaileen zein euskal detraktoreen gogoko ere ez. Inork nahi ez duen eta, gaur-gaurkoz zein begien bistako etorkizunean, aplikaezin den formulak etorkizun meharra du.

²⁵ Europan, oro har, I. Mundu Gerra aurreko: ikus Fishman, 1982: 128 or.

²⁶ A-elebakar izan ohi zen maiz herri xehea, eta B-elebakar elitea: B bakarrik edota B+C (ez B+A) zekiena. Gurera etorritz gogoratu, adibidez, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako hainbat apaiz nafarrek itzultzaile-lanean nola jardun behar izaten zuen, aginte-esparrutik argibide eske etorritako Bdunek Adunen informazio zuzena eskuratu ahal izateko.

²⁷ «Erdaldun huts» edota, argiago esateko, «euskaraz ez dakien erdaldun»: eskuartean dugun auzirako berdin du zinezko erdal-elebakar den ala, hirugarren edo n-garren hizkuntza baten ildotik, erdal-erdal elebidun.

²⁸ Ama-hizkuntzaz erdaldun edo euskaldun izango litzateke, horretan ez dago alde zurretiko langa-mugarik, gutxiengo elebidun hori.

²⁹ Demagun Gipuzkoako *det-* eta *dut-*esparruetan, Nafarroa Garaian eta Beherean. Gainerako lurralde-eremuez (nagusiki Bizkaiaz eta Arabaz) ez dugu hain segurtasun dokumental handirik. Jakin badakigu, halere, *dot-*esparruko Ezkarain horrelatsu zirela kontuak, goren mailako onarpen espresaz antza, XIII. mendean.

c) *diglosia bai, elebitasuna ere bai*. Gizartean oro har, edota gizartearen atal zabal batean, diglosiazko eta elebitasunezko moldaeran banaturiko formulazioa. Hiztun-elkartearen espazio soziofuntzional, geoterritorial edo demolinguistiko osoan (edota espazio horren zati batean, bestean edo bietan) ari diren hiztunak³⁰ elebidun³¹ dira oro har. Hizkuntza edo aldaera batez (Az) ala bestez (Bz) egitera bultzatzen duen konpartimentazioa ondoko dimentsio hauek erabaki ohi dute sarri: kale/baserri dikotomiak, formal/informal/intimo bereizkundeak eta, zenbaitetan, ama-hizkuntza A ala B den. Gogoratu, nolanahi ere, nagusiki *uses variety* direla diglosiaren aurrez aurreko A eta B, ez *users variety*³². Paraguay hartu izan da, maiz asko, estatu mailako moldaera horren hurbileneko prototipotzat. Estatu-atal bati dagokionez, berriz, Suitzan aleman-dialektoz³³ mintzo den kantoi-multzoa.

Zer esan nahi luke diglosiazko eta elebitasunezko moldaera horrek hemen, gure artean? Planteamendu ezagunetara³⁴ bagoaz, formulazio honek ez du euskararen nagusitasun-moldaera argiko «tarta» fisiko-territorial osoa bereganatzea planteatzen; ez doa Aturritik Ebrorainoko lurralde-eremu osoa euskara hutsezko esparru bihurtzera. L funtzioan euskararen menderik mendeko nagusitasun-moldaera nabarmenari (partez edo osoz) bizirik eutsi dioten lu-

³⁰ Zenbait kasutan, Suitza germanofonoan adibidez, hiztun-idazle elebidun: suitzera-alemanez mintzo dira oro har, eta aleman batuaz idazten dute sarrien. Bada azken urteotan, dena den, nederlandizazio-joerarik ere esparru horretan. Joera horrek, aurrera egingo balu, diglosia-galtze argia lekarke noski. Suitzeraz egingo lukete azkenik, hitzez eta idatziz, joera azken burura eramanez gero. Irakurri dugun bibliografia teknikoaren zuzen baldin badabil ez dago oraingoz, urrundik ere, aleman batua H alorrean desagertzeko arrisku hurbilik. Berrehun urte inguruko diglosia egonkor horren pitzaduraren sakonaz eta zabalaz ez dugu informazio zehatzagorik.

³¹ Zehazkiago esanik, bi hizkuntzaz edo hizkuntza bereko bi aldaera bereziz baliatzen dira hiztun horiek, mintzaira batz ala besteaz baliatu situazio soziolinguistikoak erabakitzen duelarik.

³² Dikotomia horretarako ikus, iturburura hegaldatur, Halliday, M. A. K., A. McIntosh eta P. Stevens (2007 [1964]) «The users and uses of language». In Webster, J. J. (ed.) *Language and Society*, 5-37. London and New York: Continuum.

³³ Zehazkiago esanik, dialekto batu-bakarra baino areago dialekto-multzo zabal-nabarra den (eta berrikitan arte idatziz kasik erabili izan ez den) *Schwizerdütsch*. Azken urteotako joera berriaz, zenbaitek (buruz ari naiz) *nederlandizazio* deiturikoaz, bada bibliografia jakingaririk.

³⁴ Ez dago halakorik asko, dakigularik. Gure ekarpenei dagokienez ikus, besteak beste, Zalbide 2015 eta Zalbide argitaratzeko bidean.

rralde-esparruak ditu aplikazio-gune nagusi. Lehenik eta behin arnaguneak, baina ez horiek bakarrik: horien bilgune diren herriburuak ere oso kontuan hartzekoak dira. Diglosiazko lurralde-eremu horietako euskaldunak elebidun dira eta, *ghetto* isolatuan bizi ez direnez³⁵, erdaraz jardungo dute aurrerantzean ere erdaldunekin (hegoaldean gaztelaniaz, iparraldean frantsesez), eta komunikazio-ahalmen zabaleko LWC³⁶ batean (gaurko egunean nagusiki ingelesez) zenbaitetan. Hizkuntza bitan oinarrituriko moldaera horrek gai izan behar du, bai euskal hiztunen belaunez belauneko jarraipena segurtatzeko eta bai, horren parez pare, ahalik eta jardungune eta rol-harreman gehienetan (esate baterako, senar-emazteen etxe barruko jardunean) *eus* > *erd* norabidean doan mintzaldaketa eragozteko. «Gizarte berri» honetako L esparru arruntenak, batez ere etxe-, kale- eta auzo-giro arruntean euskarari nagusitasun argia atxikitzen diotenak, lehenetsi beharreko jomuga dira. Udaleko hirigintza-sailean arkitekto-planoak euskaraz egotea ez da euskararen kalterako, bistan da; aipatu ditugun lehentasunetan ez daude ordea plano horiek, inola ere, aurreneko puntan: eguneroko mintzajardunari indartsuen eragiten dioten prozesuak, erabilera-esparruak eta harreman-sareak euskararen mende izatea da funtsezkoen, beharrezkoen eta premia larrieneko. Belaunez belau-neko hizkuntza-transmisioaren funtsezko oinarri dira horiek, lan-esparruarekin batean. Ez oinarri bakar, inola ere³⁷, baina bai funtsezkoen eta, batez ere, bere zailean askogatik egingarrien.

d) diglosiarik ez, elebitasuna bai. Euskara-erdaren konpartimentazio territorial eta soziofuntzional egonkorrik gabeko formulazioa. Hau da, seguruenik, 1978-82 epean eraiki genuen lege-markoaren oinarri ardatza. Ez dago dudarik euskararen aldeko hainbat ekimeni irtenbide zabala eman diola: ikusi besterik ez dago eskola esparruan (A, B eta D eredu bilakaera

³⁵ Gaur egun ez dira *ghetto* batean bizi, eta aurrerantzean gutxiago. Ez dago hor *ghetto*-arriskurik, jakinaren gainean adostutako konpartimentazio soziofuntzionala baizik.

³⁶ Hizkuntza-soziologian aspaldidanik kotsakraturiko terminoaren arabera, *Language of Wider Communication* da LWC.

³⁷ Kultura-kontsumo inprimatua, ikus-entzunezkoa, sare sozialetakoa eta, oro har, telematikoa egunetik egunera indartuz doaz hiztun gehienon artean: eskuera ditugun datuen argitan (ikus Xabier Bengoetxea, 2012) erdara jaun eta jabe da gaur, kontsumo horri dagokionez, arnagune gehienetan ere.

estatistikoan) zenbateko zabalkunde-eztanda eragin duen. Hiru belaunaldi-ko perspektiban oso bestelako panorama eskaintzen du ordea. Trantsiziozkoa, iraganbidekoa da definizioz, beti eta nonahi, *diglosiarik gabeko elebitasun zabalduaren* egoera hori. Ezin du belaunez belaun iraun. Hizkuntza bietako bat gailentzera, eta bestea baztertzeraz, darama formula horrek. Teoriaz euskal ele-bakartasuneranzko iraganbidea marka dezake berez, jakina. Orain arteko esperientzia ezagunaren argitan³⁸ beste norabidea du, ordea, kontuak: hizkuntzaren geroa indartsuen markatzen duten eguneroko jardungune, harreman-sare eta estilo informal-espontaneo-arruntetan erdara ari da nagusitzen. Erdal elebakartasuneranzko iraganbidearen aurrerapausoa da hori. Joera horri ezin zaio frenorik jarri ahuldutako hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-eragile ez diren prozesuetan eraginez bakarrik.

Horra beraz, Fishman-en zatiketa laukoitzaren aplikazioa, gure errealitatearen argi-ilunak ahalik eta zuhurren kontuan hartzen saiatuz prestatu duguna. Zer dio horretaz guztiaz Koldo Mitxelenak? Gatozen bere idazlanetara. Oro har gutxi zehazturiko gaia du hori: *huntax eta hartax* zenbat (eta zein goi-mailan) jardundakoa den kontuan izanik, zinez gutxi landurik utzi digu funtsezko esparru hori. Ezin esan liteke, ordea, gai nagusi horretaz ezer esan gabea denik. Heldu izan dio gaiari han-hemen eta, halakorik egin duenean, aski erantzun argia eman izan dio bertako zenbait punturi. Gogoan hartzekoak dira, bereziki, honako hiru hauek:

- Euskara hutsezko (soil-soilik euskaldun elebakarrez osaturiko) Euskal Herririk ez du posible ikusten, inondik inora, begien bistako etorkizunean³⁹. Euskal Herri elebakar hori (hemen eta orain) hobestekoa denik ere ez du uste⁴⁰. Kanpoan uzten du beraz, deskuidorako zirrikiturik gabe, goiko a) alternatiba.

³⁸ Aurrez aurreko konstelazio etnokultural bakoitzari egotzitako ordainsarien eta zigorbideen araberakoa izan ohi da esperientzia hori, hemen eta nonahi.

³⁹ «Opa diogunaz osorik jabetuko balitz ere (gure hizkuntza), ez lituzke erdarak erabat baztertuko: erdarez ari naiz, eta ez erdaraz» (*Anaitasuna*, 1975-I-15).

⁴⁰ Ikus gorago azaldutako aipamena.

- Euskarari belaez belaeuko jarraipena bermatuko dion moldaera planteatzen du, bestalde, argi eta garbi: goiko d) alternatiba baztertu-rik du beraz, praktikan, hasieratik beretik.
- Goiko b) alternatiba (*diglosia bai, elebitasunik ez*), beste edonork beza- la, planteatu ere ez du egiten. Bistan da zergatik: mende joanetako egoera hierarkikoei dagokien moldaera-modu zurrun hori bideraezina da, gorago esan dugunez, XXI. mende-hasierako Euskal Herri hone- tan. Eskueran ditugun datu demografiko, ekonotekniko, soziokultu- ral eta politiko-operatiboen argitan ezinezkoa eta, globalizazio-joerak azken mende-laurdenean daraman bidearen argitan, hurrengo ha- markadetan are bideraezinago.

Bistan da, beraz, Mitxelenaren azalpen horien argitan c) aukera bakarrik gelditzen dela eskueran: *diglosia bai, elebitasuna ere bai*. Ez, jakina, behinola- ko diglosia molde zaharra, azken hatsa gure begien aurrean ematen ari dena. Bai, ordea, luze-zabaleko konpartimentazio soziofuntzional (eta, agian, de- moterritorial) argiz euskarari ingurumen jakinetan bere lekua segurtatuko diona, euskaldun-jendearen belaez belaeuko jarraipena segurtatzeko gai izango dena eta, hortik abiatuz, bestelako zabalkunde-lanari oinarri-aukera argirik eskainiko diona.

Aukera hori ez da batere erraza, hainbat motiborengatik: batetik, eta nagusiki, horrelako konpartimentazio soziofuntzional eta fisiko-territorial batek lege aldetik, lurraldearen ordenazio aldetik, askatasun pribatuen eta eginbide publikoen arteko liskar-arrisku potentzialen aldetik, bideragarritasun ekonoteknikoaren aldetik eta hauteskundetako iragazki-filtroaren al- detik zer eskakizun eta zer ondorio izango lituzkeen zehazten inor saiatu ez delako gure artean. Badu gainera alternatiba horrek, azkenik baina ez az- ken, osagarrizko eragozpena: *diglosia* hitzaren orain dela hiruzpalau hamar- kadetako erabilera partianoak lau haizetara barreiatu-rik du, euskaltzale askoren artean atximurka bizia eginik, sasi-adiera arras peioratiboa⁴¹. Arras zaila izateak ez du esan nahi, ordea, alde batera uztekoa denik: funtsezko auzigai teoriko baten aurrean gaude hor, eta honetan ere teoria ez da (zen-

⁴¹ Jardunik gara gai horretaz, zabalkiro, hain aspaldi ez dela: ikus *Bat* aldizkariaren 79-80 zenbakia.

baitek besterik uste izan badezake ere) eguneroko errealitatean ondorio zorrotzik ez duen denbora-pasako jolasa.

Mitxelenaren ustez, diglosia kontuarekin ez zen nola-hala jardutea komeni: aho biko ezpata izanik da diglosia, mende luzez, guretat eta gurea bezalako beste hainbat hiztun-elkarterentzat. Hori dela medio, kalte nabarmenez gainera bizi-iraupenerako berme-oinarri sendorik izanik du bere baitan. Mitxelenaren hitzetan «menderen mende iraun du euskarak, diglosia hori gorabehera eta iraun du jendearen ahoan, izkribuz ez bazen ere, hori izan delako lehen hizkuntza, beste guztien parean «gurea», ez «gureena» (MIG, X: 96). Horren ondorioz gomendio espres hau eman zigun 1978an, euskararen bide luze bezain malkarrak aztertu ondoan aurrera begirako proposamen konkretua egiterakoan: «Diglosiaren purgatoriotik ihesi goazela ez gaitzela ghettoaren ifernuan eror. Hizkuntza integrakuntza beste ezein bezain beharrezkoa dugu» (Mitxelena, 1978: 25). Hots, bera ez zen euskal elebakartasun territorial hutsaren aldeko. Aitzitik, terminologia teknikoaren arabera «diglosia whith bilingualism» delakoaren babesle agertu zen behin eta berriz. Aurrera begirako diglosia horrek, bistan da, ezin du diglosia zaharraren jarraipen huts izan, beste zerbait baizik: eskolan, administrazioan eta komunikabideetan, esate baterako, behar adinako sarbidea behar du euskarak, indarberrituko bada eta belaunez belauneko jarraipen-katea gero eta osoago segurtaturik izango badu. Euskara indarberritzeko orduan ezinbestekoak izanik ere, elementu horiek ez dira ordea, aurrerago ikusiko dugunez, Mitxelenarentzat konponbidearen muin eta lehentasunetan lehentasun.

2. Euskara nola indarberritu liteke?

Gauza bat da nora joan nahi genukeen argi (samar) izatea, eta beste bat hara iristeko zer egin behar genukeen ondo argitzea. Bigarren pauso horretarako aurrean zehatz bat dago, ordea, eginkizun: egungo egunean non gauden jakitea. «Atik Bra nola joango gara?» galderak ez du B hori ongi zehaztea bakarrik eskatzen: *boutade* modukoa badirudi ere, gurea bezalako egoeretan dauden hiztun-herri askotan «nora joan nahi dugu?» galderari erantzun egokia bilatzea bezain garrantzitsua da «non gaude?» galderari da-

gokion erantzun fidagarria eskueran izatea, on-beharrezko eta maitasun itsuzko liluramendurik gabe.

Gutxik egin du gure artean, esplizituki eta era sistematikoan, Mitxelena-ren pareko saiorik galdera horri erantzun betea emateko. Analisi deskriptiboari zinetikoa erantsirik dio Koldok, erantzun-lanketa horretan: zer pauso eman ditugu azken hamarkadotan eta, pauso horiei eskerrak, non gaude gaur? Kontu-errendatze horretan gogoan izanik ditu, gainera, hizkuntzaren giza arteko erabilera (A), hiztunen euskarazko gaitasun-maila (B) eta hizkuntzaren barne-osaera (C). Hona, bere azalpenak laburbilduz eta gure terminologia erantsiz, Koldo Mitxelena 1976an zein ondoriotara iritsi zen⁴².

(A): Hizkuntzaren erabilerak azken berrogei urtean (batez ere azken hogeitau urtean) izandako atzera-aurrerak. Lau alor hauetan bederen aldaketa handiak gertatu dira, onerako edo gaitzerako, eta horiek guztiak kontuan hartzen saiatzen da bera:

- Menderik mendeko bilakaerak hainbat transformazio demolinguitiko eragin badu ere han-hemen⁴³, ohiko dikotomia territorialak bizirik jarraitu izan du euskal mintza-esparruaren muingunean, XIX. mendearen hondarrera arte bederen⁴⁴. Ohiko dikotomia territorial hori galduz joan da ordea XX. mendean. Mitxelena-ren hitzetan «gaur gure herrian ezin berez daitezke, [gerra garaiko] Estatutoan egiten zen bezala, eskualde euskaldunak eta erdaldunak. (Dikotomia) honek, due-

⁴² Kontu-ateratze hori 1976an egin zuen Koldo Mitxelena, itxuraz, baina horren berri ematen zuen artikulua handik bi urtera argitaratu zen, *Euskararen Liburu Zuriaren* hitzaurre gisa. Urte biko tarte horrek ez du funtsezko ezer aldarazten, gure ustez, ondorio-emaitzen balio-indarrari dago-kionez. Laburregia da tarte, hizkuntza-soziologiaren perspektiban, horrelako aldaketarik gertatzeko.

⁴³ Euskal mintza-esparru tradizionalak kanpo-mugetatik eta, partez, hiriburuetatik izandako lur-galtze ohargarrien ondorioz gertatu izan da, bereziki, atzerabide hori.

⁴⁴ Hala gertatu izan da, XIX. mendea aski aurrera joan arte gutxienik, Gipuzkoako eta Iparraldeko eskualde gehienetan, Nafarroako ipar-mendebaldean, Bizkaiko erdi-ekialdeetan eta Arabako Aramaion. Horren ondorioz, eguneroko bizimodu arruntean euskaraz egin izan da hitzez (gutxitan, aldiz, idatziz), erabat edo nagusiki, mintza-esparru horretan; bestean, berriz, erdaraz egin izan da beti edo ia beti, hitzez eta idatziz.

la urte asko Julio Caro Barojak igarri zionez, ez du, hizkuntzari gagozkiola, muga jakinik, ez geografiaz (irizpideak oraindik bere balioa galdu ez duen arren⁴⁵), ez soziologiaz». Hots, gure terminologia teknikora bilduz euskal hiztun-elkartearen behinolako izaera territorial sendoa apurtuz joan da; izaera territorial hartatik arnaguneak baka-rik ari zaizkigu bizirik gelditzen.

- Euskararen galera territorialari belaunez belauneko atzerabidea erantsi zaio garai bertuan⁴⁶, hainbat eskualdetan. Belaunez belauneko atzerabide galgarri horri, ama-hizkuntzaren jarraipen-haustura larriari alegia, euskaltzaletasunaren eraginez batez ere, freno jarri zaio hein batean. Mitxelenaren esanean: «lehen aldiz historian, egitekoaren larriaz ohartu garela esan daiteke eta beronek dakartzan eskakizunak onhartu ere ditugula. Hortik ere dator, hein batez, Karlos Santamariak aipatu ohi duen “factor recesivo en la transmisión” delakoaren geraraztea». Garrantzi handia eman ohi zion Koldo Mitxelenak, 1975-1980 inguruan, mintzaldatzearen gerarazte horri: episodikoa izanik ere kontua, gogoratu garai-inguru hartako egutegi ezagun batean, bere aurpegi-argazkiaren oinarrian, iltzatu zuen «katea ez da eten» esaldi famatu hura.
- Mintzaldatzeari freno jartzeaz gainera, zabalkunde sendoa eragin da (idatzizko jardunean bereziki) euskarak luzaro debeku izandako zenbait jardungunetan: sarbide zuzena izan du bertan, ordura arteko konpartimentazio-arauak gaindituz. Bere hitzetan esanik «gogoan hartu behar dugu ere, eta bere egiazko indarrean neurtu, euskararen sarrera lehen, agerian nahiz isilean, debekatuak zituen toki, ataka eta barrutietan. Hau nabariagoa da, eta honela aitortu beharko, hizkuntza idatziari gagozkiola». Zabalkunde soziofuntzionalaren esparru horretan sartu behar da, bereziki, azken hamarkadetako liburu- eta aldizkarigintza, urtetik urtera (orduan) gora zihoana. Mitxelenaren

⁴⁵ Horko letrakera etzana gurea da, aurreraxeago arnagunez dioguna hobeto ulertzeko.

⁴⁶ Luze-zabaleko mintzaldatze edo *language shift* delakoaren argitan hobe da, jakina, atzerabide territorial hori «belaunez belauneko jarraipen-katea eten izanaren ondorioz» gertatu dela esatea.

hitzetan «argitaldarien lana Errepublika garaian baino joriagoa izan da: orduan baino liburu gehiago argitaratu da, eta irakurleak ere ugariagoak dira».

- *Zweckprosa* delakoak⁴⁷ aurrera egin du euskaldunen artean. Bere hitzetan esanik «gure artean hainbeste kalte eragin duen bikaintasun nahiarekin batean⁴⁸ (...) literatur ederra soilki lantzeko gogo hura aienatu da». Hor dago «gaurko lan askoren izate praktikoa, estetizismo gabea: esku liburuak argitaratzen dira, ikaspideak, hiztegi bereziak, e.a., azken helburu bezala maila guztietako irakaskuntza dutela». Bide beretik doa Koldoren beste gogoeta hau: «aldizkariak (...) askoz hobeak dira egungo egunean, bai ikutzen dituzten gaien zabaltasunagatik, bai berauek gero eta trebeago erabiltzeko moduagatik».

(B): Hainbat euskaldunen hizkuntza-gaitasunak hobera egin du 1936-1976 epean (batez ere azken hogeitun urtean), zenbait barrutitan. Lehengo euskaldun arrunten eta oraingo euskaldun landuen artean hainbat alde antzematen du: tartean, eta ez da hori bere ustez gauza txikia, ongi alfabetaturiko multzoa, oraindik txikia baina eragingarria, ari da burua jasotzen; euskaldun berriek, gainera, berariazko pisua dute multzo horretan. Hona bere hitzak:

- «Egungo egunean, lehen aldikoz gure artean, bere hizkuntzan analfabeto ez den minoria ugaria dago».
- «Liburu hutsetan ikasi ez duen euskaldun berria gero eta ugariago eta eragileagoa da gure herrian».
- Elite edo protoelite euskaltzalearen osaeran aldakuntza nabarmena eragin du luze-zabaleko alfabetatze- edo euskalduntze-lan horrek. Gerra aurrekoek baino formazio soziokultural sendoagoa dute oraingoek, antza. Bere hitzetan esanik «gure kultur gidariak litezkeenen

⁴⁷ Funtsezko kontzeptu horren adieraz jabetzeko ikus Heinz Kloss-en 1953ko *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800*. München. Euskarazko azalpen-saio baterako ikus Zalbide 2002.

⁴⁸ Arantzadi «Kizkitza»-ren 1935eko *Ereintza* (bertako atal baten sarrerakoa) aipatzen du Mitxelenak, hitzez hitz, dioenaren lekuko.

prestakuntza (ez gara gizarteko etorkiaz ari) oso bestelakoa da noiz-paitekoaren aldean».

(C): Hizkuntzaren beraren barne-osaerak 1936-1976 artean (batez ere azken hamar urtean) hobera egindako barrutiak interes biziz aipatzen eta, inoiz, goraipatzen ditu:

- adituek *elaboration*- edota *cultivation*-lanketa esaten dioten prozedurak aurrera egin du, euskararen bateratze-bidean. Aurrerapen handia irizten dio horri. Bere hitzetan esanik «harrigarria da, kazetaritzan adibidez, gero eta nabariago den batasuna, are elkarren kontrako diren aldizkarietan ere. Ez dira oztopo guztiak gainditu, ez eta gutxiago ere, baina prosa arruntaren mailan gero eta xeheagoak dira berezkuntzak, zenbait handiagoa izanagatik.»
- Gerraurrean «literatura ederra»-ren eta, are, *Kalevala*-ren edo *Mireio*-ren pareko *epos* nazionalaren bila ibiltzetik Heinz Kloss-en *Zweckprosa*, zerbitzuko prosa arrunta, lantzera doan bideberritze zabalak, gorago esan denez euskarazko ikasmaterialen eta gainerako lagungarrien produkzioa dibertsifikatzeaz gainera, mesede egin dio hizkuntzaren beraren lanketa-mailari.

Berriro diogu: «nora joan nahi den» jakitea ez da aski, «zer bidetatik jo» erabaki ahal izateko. «Non gauden» ere argi jakin behar da horretarako: «nora joan nahi den» bezain argi. «Egindakotzat, gauza jakintzat» ematen da analisi hori, hizkuntza-plangintzazko hainbat saiotan. Oker nabarmena da hori. Aparteko ekarpena eginik du Mitxelenak, azterbide deskriptiboz eta zinetikoz, gerraurreko eta gerraondoko egoera soziolinguistikoaz zuen ezagutza zehatzaz baliaturik. Gutxitan aitortu izan zaio bere 1978ko lan hari merezimendu osoz dagokion lekua eta garrantzia, luze-zabaleko plangintza egiteko saio ugarien esparruan. Nahiak nahikunde huts izango ez badira, «non gauden» jakitea «nora joan nahi dugun» erabakitzea bezain funtsezkoa da.

Demagun, beraz, badakigula non gauden eta nora joan nahi dugun. Zer pauso eman ordea, gauden egoeratik iritsi nahi genukeen hartara ahalik arinen, kostu edo kalte txikienaz eta etekin hoberenaz hurbiltzeko? Hori da,

esan bezala, gaurko aztergaiaren bigarren atala, oraingoan ere Mitxelenaren hobespen-irizpideen argitan analizatu nahi genukeena. Besteak beste direla, honako sei erantzun hauek eman izan zaizkio gure artean, XX. mendean, «euskara nola indarberritu liteke?» galderari⁴⁹:

Hizkuntza bera (bere barne-osaera) gizarte berri(tu)aren premietara egokitzea.

- Literatura ederraren eta xede arrunteko idazlangintzaren bidez hizkuntza landu, irakurle-jendea ugaritu eta euskalgintza osoa duintzea.
- Euskaraz (egiten, irakurtzen, idazten) ez dakitenei hizkuntza erakustea: batetik haur, gazte eta heldu erdaldunak euskalduntzea; bestetik, berriz, etxetik euskaldun diren haurrak, gazteak edota helduak alfabetatzea.
- Aginpidez, edo bestelako indar-neurriz, jendea euskara ikastera eta, are, jendaurreko eginbehar zenbaitetan euskaraz egitera bultzatzea.
- Dezakeen jendeak bere etxeko, lagunarteko eta jendaurreko jarduna euskalduntzea, herritar xeheak jokaera-arau berri horretara bilduko diren itxaropenaz.
- «Community fostering» edo ohiko euskal giro arrunta babestu eta suspertzea, eguneroko hitzun aktiboen belaunez belauneko jarraipena segurtatuz lehenik eta hortik aurrerako zabalkunde-aukerak (demo-territorialak eta soziofuntzionalak) indartuz gero.

Kontu ezagunak dira horiek guztiak, eta pauso-neurri bakoitzaren deskribapen xeheak luzeegi joko luke gaurkoan⁵⁰. Gatozen, beraz, puntuz puntuko aipamen laburrera. Ohar batekin, halere, ekingo diogu ebaluazio moduko horri: lehenengo pausoaz (euskara gizarte berri(tu)aren premietara egoki-

⁴⁹ Bistan da «sei» erantzunen kontu hori konbentziozko formula dela hein batean: berdin jar liteke hor «lau», edo «zortzi», segun eginbeharren bereizbidea sare larriz edo xehez iragazi nahi den. Inoiz, esate baterako, sailkapen laburragoa emanik dugu. Kopurua gorabehera, antzekoa da muina.

⁵⁰ Pauso bakoitzaren on-gaitzez ikus, sintesi gisa-edo, 2002ko gure *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*

tzeko lanaz) ez dugu ezer esango, Joseba Andoni Lakarra euskaltzain-lagunak argitzekoa baitigu kontu hori. Gatozen, beraz, beste bostetara.

Zerrendako bigarren puntuaz, hasteko, badugu zer esanik aski: diogun, labur beharrez, puntu horretan zentratu agertu zitzaigula Mitxelena 1951ko artikuluan, eta gai horren garrantzia argi azpimarratu zuela bizialdi osoan: etxeoketan Lizardi izan zuen, lehen eta gero, eredu argien⁵¹.

Zerrendako hirugarren puntuari, bere belaunaldiko euskaltzale gehienek bezala, aparteko itzala eta balio-indarra aitortu zion beti Mitxelenak. Haur, gazte eta heldu erdalduak euskalduntzea eta, batez ere, etxetik euskaldun zirenak alfabetatzea funtsezko eginkizuntzat hartu ohi zuen: diogunaren lekuko ikus, batetik, 1968ko Arantzazuko bere txostenean, sarrerakoan preseski, zer dioen; ikus, bestetik, «zer egin dugu eta non gaude» galderari erantzunez 1978ko *Euskararen Liburu Zuria*-n argitara emandako diagnostikoa.

Gatozen zerrendako laugarren puntura: aginpidez edo bestelako indar-neurriz, jendea euskara ikastera eta, are, jendaurreko eginbehar zenbaitetan euskaraz egitera bultzatzea du puntu honek xede. Sei puntuetatik hori izan zen, dakigun neurrian, Koldok gutxien landu zuena eta, landu zuenean ere, aparteko prebentzioz tratatu zuena. Ikus Irlandako Hizkuntza Politikarako arduradunarekin (1965 inguruan) izandako harreman zuzenetik ateratako gomendio-ondorioa: inoiz aginte-ahalmena eskuratzera iristen bazarete euskaldun euskaltzaleok, ez zaitezte hizkuntza kontuan herritar-jendea behartu zaleegi izan.

Gatozen bosgarren puntura: dezakeen jendeak bere etxeko, lagunarteko eta jendaurreko jarduna euskalduntzea planteatzen du bide horrek, herritar xeheak «goiko»en jokaera-arau berri horretara bilduko diren itxaropenaz. Tradizio handia izanik du filosofia horrek gure artean, Iruñeko Estanislao

⁵¹ Kanpokoetan, aldiz, Pragako Eskolako zenbait kideren oihartzuna aurkitu uste izan diogu zenbaitetan. Joskera alorreko malgutasun-kontuetan ikusi uste izan dugu, besteak beste, antzekotasun hori. Ez gara, ordea, ondorio zorrotzegirik ateratzera ausartzen.

Arantzadi legegizonaren garaitik hasita⁵². Bide beretik ibiliak dira, handik gutxira, Koldo Eleizalde, Pierre Broussain hazpandar *midikua* eta beste zenbait euskaltzain, zerrendan azkena Krutwig izanik. Italiako Vilfredo Paretok eta beste zenbait soziologok eliteez eraikitako teoriatik hain urrun ez dabilen emulaziozko hurbilbide horrek bere eragina izanik du, gure ustez, Mitxelenaren baitan: bere zenbait artikulutako pasarte xumeetatik halakorik ondoriozta litekeela deritzogu. Euskara indarberritzeko jardunbide hori ez du ordea Mitxelenak, bere esan-eginak ondo ulertzen baditugu, inoiz helburu nagusi izan.

Seigarren pausoa gelditzen zaigu, azkenik: *Community fostering* edo ohiko euskal giro arrunta babestu eta suspertzea, euskara jaun eta jabe deneko lekuak eta jardunguneak berariaz zainduz eta, arnagune horien bidez, eguneroko hiztun aktiboen belaunez belauneko jarraipena segurtatuz lehenik eta hortik aurrerako zabalkunde-aukerak (demo-territorialak eta sozio-funtzionalak) indartuz gero. Seber Altube izanik dugu, askogatik, eginbehar horren zentraltasunaren lehenengo eta goreneko bozeramaile. Bai bozeramaile ozen eta bai, bereziki, teorizatzaile argi. Horren dudarik lukeenak ikus bitza orain ere balio-indar bizia duten 1933ko «La Vida del euskera» eta 1936ko «Más sobre la vida del euskera» saiakera-artikulu zabalak. Deigarri da puntu honetan Mitxelenaren baitan ageri-edo dena. Hamarkada luzez ez zuen (ez diogu halakorik aurkitu) gai hori berariaz azpimarratu izan. Aldiz gero, justu aginte-marko autonomoa sortu eta handik berehala, goitik behe-rako plangintzaren aukerabideak zabaltzen ari ziren unean, Altuberen ia 50 urte lehenagoko postulatueta bildu zen erabat. Euskalgintzaren lehentasun nagusia *Community fostering* horretan finkatu zuen argi eta garbi. Elka-

⁵² Ikus, adibidez, 1902an Bilboko *Centro Vascon* emandako hitzaldia, izenburuz *Reconstitución del pueblo euskeldun en la lengua*: «En todas partes la decadencia de las lenguas ha principiado de arriba abajo (..) para la reconstitución en el país en que aún predomina ó se deja oír (..) basta con que las familias acomodadas y pudientes, especialmente las procedentes de territorio en que se habla el euskera que residen en Bilbao, San Sebastián, Pamplona y Vitoria, en lugar de interesarse como lo vienen haciendo en que sus hijos aprendan el erdera, pongan de su parte lo poco que necesitan hacer para que antes aprendan el euskera. (..) En todas partes es ley de la naturaleza que las clases superiores creen ó reconstituyan y el pueblo conserve, y que el pueblo acabe por abandonar lo que aquéllas abandonen.» (Arantzadi, 1902: 32-44)

rrizketa mamitsua egin zion Xabier Letek *Muga* aldizkarian, 1981ean. Hona Xabierren galderak eta Koldoren erantzunak.

Galdera: Ante este hecho, y cara a una recuperación, es por lo que hablábamos de priorizar unos ámbitos de utilización. En este grave momento de emergencia cultural cuáles tendrían que ser, según tu criterio, los ámbitos fundamentales de utilización del euskera? Yo propondría, como urgentes, el ámbito administrativo, el de la enseñanza, el de los medios de comunicación social.

Koldo Mitxelena: Sigo pensando que, con todo, el antiguo ámbito familiar y el de la comunidad local sigue siendo esencial. Y sin eso, tenemos que convencernos de que no hay nada que hacer, de que todo lo demás es cuento. (...) creo que hay ciertos ámbitos, los tradicionales, de uso familiar, amistoso, coloquial, de comunidad local, que es necesario cultivar. Y que eso es fundamental.

Kontura gaitezen, lehen esan dudana gorabehera «sigo pensando» dioela hor Koldo Mitxelena. Funtsezko iritzi hori ez zuen, antza, azken orduko bide-aldatze baten fruitu, are gutxiago ziaboga larri baten emari. Badirudi, aitzitik, oinarri-oinarrizko puntu horretan aspaldi samarretik izanik dela Mitxelena Seber Altuberen jarraitzaile. Zail da, izan ere, kasu honetan kanpoko teoriaren baten eraginaz hitz egitea: Fishman-en *Reversing Language Shift*, bete-betean bide horretatik doan formulazio teoriko-praktiko famatua, 1991koa da eta Mitxelena-ren aitormena («sigo pensando» moduan azaldua) 1981ekoa⁵³.

Azken hitz:

Gizon zentrala, giltzarri eta erabakigarri izanik da Mitxelena Euskal Herrian, goren mailako linguista izateaz gainera, XX. mendearen bigarren erdialdean. Hala izanik da errenteriarra, zenbait hamarkadaz, gure panorama soziokulturalean eta gero instituzionalean. Linguistikan bezalako lan-ekar-

⁵³ Izatekotan *Language Loyalty in the United States* izango zukeen argi-emaile, baina horren arrasto argirik ez dugu bere idazlanetan aurkitu.

pen zabalik egin ez bazuen ere kopuruz⁵⁴. Hizkuntza-soziologiaren esparruan ere aski gizon jantzia izan genuen Koldo: J. M. Sánchez-Carrión «Txepetx»-ekin batera, dudarik gabe, gure artean gogoetagine eta teoria-sortzaille landuena. Horrezaz gainera, inor gutxik bezalako jakituria eta ibilbide akademiko-profesionala zuen: Parisen, unibertsitatean, soziolinguistika-irakasle izanik da Koldo Mitxelena.

Formazio akademiko sendo horrezaz gainera euskara-erdaren historia sozialari buruzko ezagutza sakona, inork baino sakonagoa oro har, zuen errenteriar maisuak. Oraingo hainbat egoera soziolinguistiko perspektiba kronologiko zabalagoan proiektatzeko aukera ematen zion ezagutza horrek, eta bere ondoriok beti izan ohi ziren jakingarri. Euskara-erdarek XX. mendeko gizarte-bizitzan ageri zituzten moldaera bihurri, desorekatu eta egonezinezkoen jakitun zen oso, bestalde, aurrekoetan ez bezala kontu honetan bidelagun askotxo zuelarik bertako euskaltzale zintzo eta eragileenen artean. Bera baino euskaltzain zaharragoen artean estimu handitan zituen Koldo Eleizalde eta, goraipamen argirik inon irakurri ez diogun arren, funtsezko adostasun teoriko-kontzeptual batzuen argitan baita Seber Altube bera ere⁵⁵.

Kanpotik eskuratutako jakituria teorikoa eta bertako jardunean lortutako ezagutza praktikoa oso era pertsonal eta berezian uztartu zituen Mitxelena, aski goiz hasita: 1951ko bere *Euskal literaturaren etorkizuna* ezin alboratuzko dokumentua da orain ere, batetik, eta Xabier Letek 1981ean egin zion elkarrizketan adierazitako lehentasun-eskema oso da argigarri, bestetik. Seber Altube euskaltzainaren 1933ko eta 1936ko formulazio-bidearen aldeko agertu zen Mitxelena, lehentasun-eskema hori eskaintzerakoan. Joshua A. Fishman-ek 1991ko bere *Reversing Language Shift* famatuan dioenarekin bat dator, horrenbestez, muinaren muinean. Zeharo bat dator Mi-

⁵⁴ Hain emaitza zabala eskaini ez bazigun ere esparru horretan, arras deigarria da hizkuntza-soziologiaren alorrean agertu zuen ezagutza teoriko eguneratua eta, zenbaitetan, gure egoerari begirako ikuspegi zuhurra. Horri guztiari buruz ikus EHUren aurtengo uda-ikastaroen barnean, Mitxelena-ren gorazarretan egin berri den jardunaldian, aurkeztu dugun txostena, laster argitara nahi genukeena.

⁵⁵ Horrek ez du kentzen, beste zenbait puntutan (galdegaiarenean-eta, demagun) aski bide banatatik ibili izana bata eta bestea.

txelena, euskara indarberritzeko lehentasunen alorrean, bai Seber Altuberekin eta bai Joshua A. Fishman-ekin.

Euskaltzale suhar, langile nekaezin, konstelazio etnokultural txikien eta handien artean gizalegezko elkarbizitza eratzearen aldeko bozeramaile ozen eta, ororen buru, punta-puntako linguista izateaz gainera soziolinguistika alorrean ere goi-mailako aditu izan genuen Koldo Mitxelena. Gure esparruari dagokionez nabarmena izan zen bere eragina, itzala eta irismena formulazio teoriko globalen muin-muineko alor gehienetan. Besterik da, hemen ere, aplikazio konkretuen barrutia: hizkuntza-soziologiaren aplikazio-eremu konkretu den hizkuntzaren estatus-plangintzan ondotoxoz esku-hartze mugatuagoa izan zuen. Aldiz gogoeta-lan aberatsa utzia digu eginik, iradokirik edo seinalaturik hizkuntza-soziologiaren alorrean aurrera egin nahi dugunoi: hori dugu bere altxor-ondarea, denboraren joanak nekez hutsalduko duena. Aspaldixko esanik dago, eta han-hemen sarri errepikatua: «there is nothing so practical as a good theory». Esaldi horren benetako izaeraz eta balio-indarraz jabetzeko aukera paregabea emanik digu Koldok, behin eta berriz: aski da bere lanak xehekiro aztertzea.

Datu biltzen eta sailkatzen, kontzeptu lantzen eta teoria osatzen egindako ekarpen zabal eta sakonagatik, bai eta beste hainbat motiborengatik, orain ere eredu argi, gogoeta-iturri emankor eta jakinbide fidagarri dugu Koldo. Guri dagokigu orain, begirunez baina lausengu alferrik gabe, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko alorrean hark zabaldutako perspektiba jenerala xehekiro aztertu, hainbat azalpen tekniko datu berrien argitan berrikusi eta bata zein bestea, hala dagokion heinean, eguneratzea. Gogo-pizgarri da langintza hori, bihurriaz gainera. Eginkizun dago oraindik, aski neurri zabalean, euskara noraino eta nola indarberritu zientzia-arauz argitzea. Argitze-lan horretan ezin baztertuzko argi-iturri dugu Koldo Mitxelena. Bere uzta ez da agortu.

Bibliografia:

Altube, Seber, 1933: «La Vida del Euskera» in *Euskera*, 1933-IV: 299-397 or.

———, 1936: «Más sobre la Vida del Euskera», in *Euskera*, 1936-I-IV: 1-217 or.

Arantzadi «Kizkitza», Engrazio, 1935: *Ereintza*. Zarautz.

Arantzadi, Estanislao, 1902: *Reconstitución del pueblo euskaldun en la reconstitución de la lengua*. Bilbo, Jose Astui.

Bengoetxea, Xabier, 2012: «Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa». *Bat* 85 zkia., 75-118 or.

Eleizaldetar Koldobika, 1919-20: *Metodología para la Restauración del Euzkera*. Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren 1918ko sorrera-ekitaldian, irakurritako txostena.

Fishman, Joshua A., 1966: *Language loyalty in the United States; The maintenance and perpetuation of non-English mother tongues by American ethnic and religious groups*. The Hague: Mouton & Company.

———, 1967: «Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism», in *Journal of Social Issues*, Volume 23, Issue 2, 29-38 or.

———, 1982: *Sociología del Lenguaje*. Madrid, Cátedra.

———, 1991: *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon: Multilingual Matters.

Halliday, M. A. K., A. McIntosh eta P. Stevens (2007 [1964]) «The users and uses of language», in Webster, J. J. (ed.) *Language and Society*, 5-37. London and New York: Continuum

Hamers, J. F., & Blanc, M. (1983). *Bilingualité et bilinguisme*. Bruxelles: Mardaga.

Kloss, Heinz 1953: *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800*. München: Pohl.

Lete, Xabier, 1981: «Entrevista con Koldo Mitxelena» (*Muga* aldizkaria 13, 30-43);

Mitxelena, Koldo, 1951: «Euskal literaturaren etorkizuna», *Egan* 1951, 17-21

———, 1975: «Begiarmen Sei idazle plazara», in *Anaitasuna*, 1975-I-15.

———, 1978: «Euskararen bide luze bezain malkarrak / El largo y difícil camino del euskara», in *Euskararen Liburu Zuria / El Libro Blanco del Euskera*.

———, 1987: «Elkarrizketa», in *Argia* urtekaria, 1987, 20-32 or. *Ikus orobat MEIG IX*, 66-85).

Ronjat, J., 1913: *Le développement du langage observé chez un enfant bilingue*. Paris: Champion.

Zalbide, Mikel, 2002: «Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?», in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*. Donostia: EHIK.

———, 2011: «Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka», in *BAT* 79-80 zkia., 13-152 or.

———, 2015a: «XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan». *Hermes* aldizkaria, 50. zkia., 10-29.

———, 2015b: «Koldo Mitxelenaren ekarpen soziolinguistikoa». 2015eko irailan, EHUren Udako Ikastaroetan, Mitxelenaren gorazarretan irakurritako txostena. Argitaratu gabe.

———, Aurten argitaratzeko bidean: «Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak».

Jardunaldiak

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Etxeitaren heriotzaren mendeurrena
Mundakan, 2015eko uztailaren 10ean

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

2015eko uztailaren 10ean, Mundakako Udalak eta Euskaltzaindiak Jose Manuel Etxeita omendu zuten, bere heriotzaren 100. urteurrenean.

Jose Manuel Etxeitaren heriotzaren 100. urteurrena gogora ekartzeko hainbat ekimen antolatu ziren Mundakako herrian, Etxeitaren jaioterrian. Mundakako Udal Liburutegiak Jose Manuel Etxeitaren izena darama, eta hain zuzen ere, liburutegian bertan Etxeitaren inguruko erakusketa egon zen ikusgai.

Esan bezala, uztailaren 10ean, Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeak omenezko jardunaldia antolatu zuen, Jose Manuel Etxeitaren ekarpen literarioa gogora ekartzeko. Jardunaldi horren xedea, Jose Manuel Etxeitaren unibertso pertsonalera eta unibertso literariora hurbiltzea izan zen.

Jon Kortazarrek, Euskal Literaturako katedradun eta Literatura Ikerketa batzordeko kideak, «Josetxo eta Etxeitaren biografia» hitzaldia eskaini zuen. Jon Kortazarrek hainbat artikulua eta argitalpenetan aztertu du Etxeitaren ekarpena, eta 1999. urtean *Jose Manuel Etxeita* (BBK, 1999) liburua argitaratu zuen. Sarrera honen ostean argitaratu du Euskaltzaindiak hitzaldi honi dagokion txostena, Mundakan esandakoak erreparatuz eta osatuz.

Ana Toledok, euskaltzain eta Literatura Ikerketa batzordeburuak, «Ardibasotik Ardibasorako joan-etorria» hitzaldia eskaini zuen, Etxeitaren eleberrigintzara hurbilduz. Ana Toledok XX. mendearen lehen erdian euskal

eleberrigintzan eginiko urratsak aztertu izan ditu sarri, eta hitzaldi honetan ere Etxeitaren ekarpena testuinguru horretan kokatu zuen. Hitzaldi honi ikerketa artikulu moldea eman dio Ana Toledok eta Akademiak bere ager-
kariko ikerketa zenbakian argitaratu du (*Euskera* 2015, 2, 535-563 or.).

Honetaz gain, Etxeitaren testuen irakurraldia eskaini zuen Gurutze Beitia aktoreak. Hitzaldietan zehar tartekatu ziren testu-irakurketa horiek, Etxeitaren ekarpena ezagutzearekin batera, Etxeitaren sormen-lana ere lehen eskutik ezagutzeko aukera izateko.

Jose Manuel Etxeita (1841-1915). Oharrak bizitzaz eta literaturaz

KORTAZAR, Jon

UPV/EHUko Euskal Literatura katedraduna eta euskaltzain urgazlea

Lan hau Eusko Jaurlaritzako Ikerketa Talde Iraunkorren Sarean kokatzen den LAIDA (IT 1012-16) Ikerketa Taldearen emaitza da.

OHARRAK BIZITZAZ

Jose Manuel Etxeitaren bizitzara hurbiltzeko iturri klasiko bi egon dira euskal literaturaren historian: Gregorio Mujikaren (1915) eta Eusebio Erkiagaren lanak (1962). Hortxe ditugu jakin izan diren daturik nabarmenak. Horrez gain, idazlearen autobiografia deiturikoa, *Amoríos de Juana y Manuel* (Etxeita 1886) liburuaren kopia bat aurkitu nuenean eta haren laburpena eman –sendiak ez baitzidan edizio zuzena egiten utzi–, gure idazlearen bizitzaren ezagutza handiagoak lortu genituen. Beste horrenbeste esan dezakegu bere gutuneria utzi zidanean familiak, eta horren bidez, Jon Kortazar Billelabeitia historiagileak (2008) haren arazo ekonomikoen berri eman zuen. Ondoren Joseba Gabilondok (2013) ekin dio gure idazlearen ikuspegi literarioa eta ideologikoa adierazteari.

Ez da zalantzarik Labayru Ikastegiak lan handia egin duela Jose Manuel Etxeitaren lanak berrargitaratuz eta hitzaurre sendoz hornituz, eta lan horretan nabarmendu dira Adolfo Arejita (1982), zein Aitor Etxebarria (1982) edo Iñaki Sarriugarte. Mundakan eta Busturia inguruan mugitzen zen Txaxti argitaletxeak ere eman zuen argitara *Amoríos de Juana y Manuel* (2003), lan ezezagun hori irakurleen eskuetan utziz.

Gaurkoan, iturriok jarraituz Etxeitaren bizitzaren berri eman dezakegu. Jose Manuel Etxeita Mundakan jaio zen 1841eko abenduaren 14an, eta ez, orain arte esaten edo idazten zen moduan, 1842an. Jaiotza data aldatu

beharra dugu bada. «Echaita» idatzita ageri da bataio dokumentuan. Eta aitaren izena ere horrela ageri da, zalantzarik gabe, errakuntzaz, zeren beste dokumentu guztietan, zein anai-arreben bataio agirietan «Echeita» ongi idatzita agertzen da abizena. Aitaren aldetik Garai herrikoak ziren eta Jose Luis Lizundiak laster argitaratuko duenez, aitaren baserriaren irudikapenak badu *Jayoterra Maitea* liburuaren sormenarekin loturarik.

Mundakatik Manilara

Amoríos de Juana y Manuel (Etxeita 1886) autobiografian kontatzen duenez, hamar edo hamaika urterekin hasi zen itsasoratzen arrantzale gisa, itsas lanerako baliokoa zen ala ez ikusteko gurasoak agindurik. Hamaika urterekin (1852) ikusi zuen lehen aldiz Juana, eta idazleak dioskunez, une horretan sortu zitzaion maitasunaren garra, denborarekin indartzen joan zitzaiona. Hamabi urterekin Donostiara joan eta «ganbera-mutil» gisa ontziratu zen eta abiatu Kubara. Hiru urtetan ibili zen ontzi hartan eta Amerikako, Ingalaterrako, eta Frantziako portuetan atrakatu zuen. Hamabost urteko (1856) zela itzuli zen berriz Liverpooletik herrira. Urte horren udagoienean Bilbora joan zen pilotu lana ikastera. Hiru ikastaro egin ondoren (1859) Pilotu Peritu titulua lortu zuen. Bide batez, Etxeitaren musikazaletasuna indartu egin zen gitarra eta bandurria jotzen ikasiz.

Uda horretan Juana eta Manuel Natxituko Kontsolazioaren Amarengana pelegin joan ziren, (eta gainera Juana ortozik) eta une horretan hasi ziren elkarren arteko harreman argiak.

18 urterekin Santanderren ontziratu zen eta Ameriketara bidaia bi egin zituen. Ondoren Hirugarren Pilotu izateko azterketak izan zituen Ferrolen. Tituluak Amerikara hiru aldiz joateko beharra zekarren. Lehen bidaia Guayaquilera izan zen, Hornos lurmuturra igaroz (dirudienez, horrek bidaia biren beste kontatzen zuen). Handik, urtebete pasatxo igarota, kakaoa ekarriz Santanderrera etorri zen ontzia. Bilbotik Matanzasera egin zuen Etxeitak bigarren bidaia, Bigarren Pilotu titulua lortzeko asmoz. 19 urte eta erdi zituenean, Mundakarratu zen eta amaren aurrean aitortu Juanarenganako maitasuna. Ferrolera doanean Bigarren Pilotu tituluaren bila, ezuste handia

izan zuen, zeren Hornos Lurmuturra igarotzeak bidaia bi beste kontatzen zuen, bai, baina Hirugarren Pilotu titulua lortzeko, ez Bigarrenarena lortzeko. Une horretan, Jose Manuel Etxeitak Isabel II.a erreginari gutun bat idatzi zion Hornos lurmuturretik egindako bidaien balioa Pilotu izan nahi zutenentzat erdiesteko. Eta lortu egin zuen Bigarren Pilotu titulua, ontziko lehen ofizialaren besteko, Itsaso Guztietan lan egiteko titulua, honenbestez.

Maitasun kontuak, baina, ez ziren zuzen joan. Mundakan zen artean Manuelek jakin zuen gurasoek ez zutela onartzen Juanarekin zuen harremana. Arrazoiak, dirudienez, bi izan ziren: ahaidetasuna, Juana eta Manuel urruneko lehengusu-lehengusinak ziren, eta Juanaren maila ekonomikoa, askoz ere apalagoa; nahiz eta aita kapitaina izan, Juanak jostun gisa lan egin zuen Manuelen amarentzako.

Etxeita Liverpooletik Habanara joan zen. 21 urte zituenean (1863) bere orduko bizitzako unerik larriena heldu zen. Habanatik Mexikoko Matamorosera joan zen ontzia kotoia batzera. Baina haizeak jo eta ontzia oso gaizki zegoela, Habanara joan ziren berriro. Han Etxeita ontziko kapitain izendatu zuten, kapitaina gaixo zegoelako eta lurrean geratu zelako. Irlandako lurretara heldu zirenean, ekaitzak jo zuen, eta gainera marinelen arteko liskarra sortu zen. Marinel filipinar batek beste bat hil nahi izan zuen. Hego haizeak jo zuenean, aurrera egin zuten, baina laster aldatu zen berriro eta kostaldearen kontra jo zuen ontziak eta tirabira izan zuten. Lurreratu zirenean, nagusi batek bere etxean hartu zituen, baina marinelen arteko liskarrak aurrera egin zuen eta batak bestea hil zuen.

Tirabiraren ondoren Etxeita Liverpoolera joan zen, eta hemendik Manilara partitu zen. Hogeita bost urte (1866) bete zituenean, Juanarekin ezkontzea erabaki zuen, eta horretarako Erromako baimena eskatu zuen, senide baitziren. Dena dela, gurasoak kontra jarri ziren, batez ere ama, semearentzako beste norbait zuelako buruan. Zerabilen burutazioaren arabera Juanarekin ezkonduz maila sozialean jaitsi egiten zen Etxeita eta ez zuen ezkontza hori nahi. Ez dirudi, baina, arrazoi indartsua, zeren Juanak baditu gurasoen etxea eta lurralde bat, eta berak, Manuelek, Pilotu titulua eta lana besterik ez.

Kontakizunean, Manuelek dio seme bakarra dela, eta arreba bi dituela. Egia bada ere hori kontatzen duen unean, 25 urte dituelarik, horrela zela,

ez da hori artxibategietan ikusten dena, beste anaia bat izan zuen, Felix, 1844an jaioa eta urte bi geroago hila (1844-1846), eta hiru arreba: Dionisia (1846-1890), Maria Josefa (1850-1856), eta Mauricia (1852an jaioa), haxe da gurasoen agindua betez ezkondu zena, eta zorigaiztoko bihurtuko zena. Etxeitak bere egoeraren aurkako eredu gisa jarri zuen, bera gurasoei jaramon egin gabe ezkondu baitzen zorionsu izateko.

1867an Liverpoolera doa berriro, baina urte berean ezkontzen da ahalordez Juanarekin, Santa Katalina egunean Mundakan eta lau egun geroago Liverpoolen.

Manilan

Liverpooletik Manilara joan zen Etxeita. Manilan izan zuen bizitzaz dakiguna Gregorio Mujikak (1915) idatzitakoa da mundakarraren hilberrian. Dirudenez, administrazioan kargu handiak izan zituen. Kaiko Batzarreko aholkulari, Tabakalera Konpainiako aholkulari, Filipinak uharteetarako Banakuntzako erakundeko aholkulari, Itxas-Bazkunako artezkari, Saleroste Ganberako lehendakari eta Manila-ko azken alkate koloniala.

Bere negozioak hiru alderditan banatzen ziren: Tranbia Konpainian interes handiak zituen. Echeita y Portuondo ontzi konpainiaren jabea zen, dena dela, barku hauek korreo lana egiten zuten irla desberdinen artean, eta Espainiako Armadaren menpe geratu ziren gerra garaian, horregatik Etxeitak idatzi zion Weyler jeneralari, ordainketaren zain; gainera Argindararren Konpainian parte hartu zuen.

Berriz Mundakan

1900ean Espainiak Filipinetako koloniak galdu ondoren, Jose Manuel Etxeita Mundakara dator. Hiru alderdi desberdin landuko ditu une horretan.

a) Etxea. Alde pertsonalean Jose Manuel Etxeitak, bere izena daraman, eta inguruari izena emango dion, etxea eraiki zuen. Lurrak 10.000 pezetako

kostua izan zuen eta eraikinak 30.000 mila pezetakoa. Harrezkero, etxe ondoari «Etxeitaren aldapa» deituko diote mundakarrek.

b) Bizibidea. Etxeita Manilatik ekarritako errentetatik biziko da. Bere gutunetan esaten duenez, hauek ziren bere errenten iturri: Compañía Marítima de Manila enpresako 15 akzio zituen eta urtero 1000 pezeta akzio ematen zizkion. Beraz, etxea urte bitan ordaintzeko beste. Compañía Eléctrica de Manila-ko 254 akzio zituen, eta baita ere parte hartzen zuen Compañía papelera-n eta Compañía Tabacalera-n. Baina hauetan zenbat akzio eta zenbat errenta zituen ez zuen zehaztu bere gutunierian.

Gainera Espainiako Armadarentzako egindako lana kobratzea espero zuen, eta gai hori da Weyler jeneralari bidalitako eskutitzetan gogoratzen diona, nahiz eta dakigunagatik ez zuen inoiz kobratu zor hori.

c) Literatura. Guk dakigula 5 libururen egilea dugu Jose Manuel Etxeita.

1) *Amoríos de Juana y Manuel*. Bere lan autobiografikoa erdaraz Manilan eman zuen argitara, Chofré etxean 1886an. Ezkondu arterainoko bizitza kontatzen du eta bere seme Salvadorri eskainita dago. Etxeitaren pentsamoldea ezagutzeko ezinbesteko testua.

2) *Josetxo* (1909) nobela oso ezaguna da. Fikzioak indarra hartzen du: bai abenturetan bai itsasoko bizitzaren inguruan ondu zuen kontakizuna dugu. Neurri batean autobiografikoa, eta ezaguna denez, folletoiaren tekniken arabera eratua.

3) *Jayoterra maitea* (1910). Itsas giroan kokatzen bada lehena, eta Mundaka inguruan, baseri giroan bigarrena, eta oraingoan Etxeitak bere aitaren sorterrria, Garai, du gogoan, eta badirudi horretan garaiko nobelan jarraitzen zen bikoiztasuna (itsasoari eta mendiari nobela bana eskaintzekoa, alegia) erabili zuela, inork baino lehenago, Mundakako idazleak. Berrito, errealismoaren eta ideologia kontserbatzaileak agintzen duen ohiturazaletasunaren artean kokaturik dago nobela. Emigrazioaren gai latza ukitzen du. Baina idilioari berea emanez.

4) *Au, ori ta bestia* (1913). Poesia sorta.

5) Itzulpenak. Jakina da Jose Manuel Etxeitak Antonio Truebaren ipuinen itzulpenak egin zituela. Gainera badakigu, 1914an Anton Trueba-ren

ipuin en itzulpenen sarian, lehenengo eta bigarren sariak «Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan» (Creo en Dios), eta «Urikoa» (El Expósito) lanengatik lortu zituela. Baina Euskal Literaturaren historietan ez da nahikorik azpimarratu Jose Manuel Etxeita hil ondoren, liburu bat egin zela itzulpen biok bilduaz.

OHARRAK LITERATURAZ

Amoríos de Juana y Manuel eta Josecho. Autobiografia eta fikzioa

Begi bistakoa da enbor bereko adar bi direla Jose Manuel Etxeitaren biografia eta *Josecho*. Enborra bere bizitza da, batez ere Manilara joan arte itsasoan egindako bizitza, 25-26 urte bete artekoa, ondoren, badi-rudi Filipinetan ez zela horrenbeste itsasoratu, ontzien jabe izanik, lurretik ikusten zituela; pilotu edo kapitain aroak gogoan harturik bai, baina orain negoziotan denbora emanaz. Eta adar biak, bere lumak emandako liburu biak: bata, autobiografiatik hurbilago, nahiz eta lotsaz fikzioa balitz bezala ematen duen liburua, eta ia-ia gaur egun oso zabaldua den autofikzioaren lehenetariko euskal eredia izango genuke; bigarrena, fikziotik hurbilago.

Fikzioaren eta autobiografiaren arteko mugak zeintzuk diren ikusteko, nahikoa da lehen *Amoríos* liburuko lehen esaldia irakurtzea: «Yo (Manuel refiere la historia) habia estudiado la escuela primaria». Yo horrek autobiografian jartzen du testua, baina bat-batean damutuko balitz bezala, beste narratzaile batek hartzen du ahotsa eta fikziotzat jotzen du («la historia») hark kontatuko duena. Genero nahasketa ederra.

Adar bi esan dugu eta nahikoa da ikustea nola erabili dituen Etxeitak bere izena bere protagonisten izenetan: Jose Manuel izanik, *Amoríos*-en Manuel da protagonista eta *Josechon* bere alter egoa: Jose, hain zuzen ere bere burua. Dena dela material autobiografikoaren erabilera desberdina da batean eta bestean. Zalantzarik ez dago, *Amoríos*... autobiografia da, eta hutsuneak hutsune, esaten duena egiazkotzat jo behar da, edo behintzat sinesgarritasunez irakurri beharko dugu lan hori.

Josecho-n, ordea, materiala bera da, baina trataera guztiz desberdina. Kontakizun biak bukatzen dira puntu berean: Juanarekin/Eladirekin ezkontzen denean 26 urte dituenen. Hauek baitira bere bizitzako urterik jorie-nak. Trataera desberdina zenbait puntutan azal dezakegu:

a) Fikzioak eta konbentzio literarioek askoz ere pisu handiagoa dute. Hain zuzen ere, folletoiaren teknikak; ume galduak, kitanook lapurtuak, gora egiten du gizartean eta bere identitatea eta bere posizio ekonomiko zein soziala indartuak geratzen dira benetako «aita», benetako familia eza-gutzen duenean, bera ere «patriarka» agertzen denean gizartearen aurrean, batez ere Eladirekin ezkontzea debekatu diotenen aurrean. Nobelan zehar, «herri» nobelen zenbait teknika ezagunak ageri dira: pirata nobelenak, itsa-soko kontakizunenak, maitasun nobelenak.

b) Fikzioan Jose Manuel Etxeitak moldatu egiten ditu bere bizitzako pa-sadizoak. Bada puntu nagusi bat bere testuetan: bere ezkontzaren auzia. Badakigu errealtatean bere amak ez zuela nahi ezkontza hori. Fikzioan, aldiz, eta azterketa psikoanalitikorako ematen du gaiak, Eladiren gurasoak dira ezkontzaren aurka direnak, eta ez hori bakarrik, zakar agertzen dute euren guraria, gainera fikzioa luzatzeko asmoz, Etxeitak hiru senargai asma-tzen dizkio neskatxa gazteari.

Tokiei arreta jartzen badiegu, *Amoríos*en aipaturiko benetako tokiak agertzen dira lanean: Habana, eta batez ere Mexikoko Matanzas. Jakin ba-dakigu Etxeitaren unerik gogorrena Matanzasetik Irlandara egindako bi-daian gertatu zela, halakoan marinela batek beste bat hil zuelako bere burua zaintzearren. Hemen ere Etxeitak moldatu egiten du gaia eta espetxeratua dena Josecho da, eta ez marinela, eta ez Irlandan, Mexikon baino.

Bada beste aldaketa bat oso berezia. Manila presente dago baina zehar-bidez. Manilara doana ez da Josecho, baizik ere bere benetako aita, eta handik aberasturik itzultzen da. *Amoríos* autobiografia eta *Josecho* nobela bukatzen dira Manuel eta Juana, eta Josetxo eta Eladi ezkontzen diren unean, hau da, kronologiaren aldetik paretsu. Baina Manuel Filipinetan eta itsasoan aberasten den artean, Josecho Argentinan eta baserriko lanari es-ker aberasten da. Zergatik aldaketa hori? Soilik asmamena egin dezakegu. Etxeitak bere garaira ekartzen du ekintza. Non aberasten ziren 1909an eus-

kaldunak? Ameriketan, Argentinan. Filipinak –jada galduak- urrun gertzen ziren. Filipinetako bidea zabalik zegoen XIX. mendeko azken herenean, baina XX. mende hasieran ez zen euskaldunak joateko toki desiragarria. Gaurkotze horrek badu zerikusirik ere Etxeitak mantentzen duen ikuspegi ekonomikoarekin. Nonbait lurrari loturiko ekonomia askoz ere ziurragotzat jotzen zuen. Itsasokoa eta berak jarraitutako bidea gorabehera handikoa da, eta horregatik ekonomia moderno eta finantza munduari lotua baino, gura go du ekonomia tradizionalaren alde egin: nobeletan, noski. Bizitzan beste kontu bat izan zen.

Jose Manuel Etxeita eta Antonio Truebaren ipuinen itzulpenak

Edozein euskal literaturaren historiatan aipatzen da Etxeitak Truebaren lanak euskaratu zituela eta argitaratu *Euskal Esnalea* aldizkarian, bide batez, bere heriotzaren berri gertatu eta oso gutxira eman zuen argitalpenean. Kontua da, baina, Truebaren lanen itzulpenen lehiaketetan lehen eta bigarren saria irabazi ondoren, eta aldizkariak ipuinok atalka eman zituen artean, Jose Manuel Etxeitak haiekin liburua argitaratzeko asmoa izan zuela. Bere poltsikotik dirua jarri eta 200 ale argitaratzeko nahia agerian utzi zuen. Heriotzak, baina, ez zion asmoa betetzen utzi, eta orduan *Euskal Esnalea* aldizkariko zuzendaritzako taldekoek hartu zuten liburua argitaratzeko erabakia.

Aldizkariak zuzendaritzako batzordeko berriak eman ohi zituen eta haietako batean, otsaileko eta martxoko alean, nekrologikoan honela azaldu zituen Gregorio Mujikak Mundakako idazlearen asmoak:

Como saben los lectores hemos comenzado la publicación en forma de folletín del cuento *Creo en Dios de Trueba*, vertido por el señor Echeita al euskera. Claro está que lo continuaremos y terminado éste publicaremos otro cuento del mismo Trueba traducido también por Echeita con el título *Urikoa*.

Y no solo los publicaremos en esta forma, sino que además se hará también una edición especial que el señor Echeita preparaba por su cuenta. De este modo realizamos la última ilusión literaria que abrigaba nuestro amigo (Mujika 1915: 55.)

Askoz ere zehatzagoa da hurrengo oharra, jada *Euskal Esnalearen* zuzendaritza batzordekoa, haren proiektuak bere eginez:

El Señor Director de la Revista *Euskal-Esnalea* manifestó que aprovechando la composición que se hacía para publicar en la Revista los cuentos de Trueba que vertidos al euskara por D. José Manuel de Echeita se están dando a luz en forma de folletín, el traductor había dispuesto hacer a su costa una edición de 200 ejemplares. Pero hallándose en prensa la obra, el Sr. Echeita dejó de existir, y el Director de la Revista propuso que como débil muestra de gratitud hacia el escritor que siempre tuvo hondo afecto a la Sociedad *Euskal-Esnalea*, se continuara la edición a costa de ésta. La Junta aprobó unánime la proposición (*Euskal Esnalea* 1915: 140).

Liburua argitaratu egin zen eta banaketa ere oso bitxia izan zen, oparitu egin baitzen:

El secretario manifestó que el acuerdo referente a la publicación, por cuenta de la Sociedad, de una edición de los cuentos de Trueba, vertidos al euskera por D. Jose Manuel Echeita, había sido ya cumplida, y que, en consecuencia, se hallaba a disposición de la Junta la tirada íntegra de 200 ejemplares.

La Junta dispuso que por ser esa edición del último trabajo del Señor Echeita, homenaje a la memoria del que fue activo colaborador, no procedía ponerla a la venta, y acordó como primera medida enviar 25 ejemplares a D. Salvador de Echeita, hijo del autor de la versión euskérica de los cuentos. Como la versión está en dialecto vizcaíno se decidió que otros cien ejemplares se distribuyeran entre los alumnos de la clase de euskera que costeadas por la Excma. Diputación de Vizcaya, regentan en Bilbao los profesores D. Resurrección M. de Azkue y D. Evaristo de Bustinza. Los ejemplares restantes se distribuirán entre los elementos activos de *Euskal-Esnalea* y los señores socios que los soliciten mientras haya ejemplares disponibles (*Euskal Esnalea* 1915: 172-173).

Bitxia izan zen liburuaren argitalpena; zeren bertsiio bi egin ziren urte berean. Lehen liburuak, laburrak, Etxeitak itzultitako ipuin biak bildu ziotuen, eta izenburu bikoitzarekin argitaratu zen Donostian 1915ean Martin

Menaren etxean. *Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan. Urikoa*, Echeitaren izenarekin, baina azalean azalduz Truebarenak zirela jatorrizkoak.

Lehen argitalpenean Jose Manuel Etxeitaren ipuin bion itzulpenak bildu ziren; bigarren agerraldian aldiz, beste hirugarren bat gehitu zitzaion, «Jon Uso». *Euskal Esnalea* aldizkariak egin zuen lan hori. Eta berez, liburu beraren argitalpen desberdin bi egin zituen. Bigarren agerpenean Etxeitaren izenaren azpian «Jon Uso» ipuinaren itzultzailearen izena ageri zen «barrena ʼtar N.» (sic). Agian hauxe da gehien zabaldu dena. Baina liburu beraren argitaraldi bi daude. Jose Manuel Etxeitaren bosgarren liburua.

BIBLIOGRAFIA

Arejita, Adolfo, 1982, «Etxeitaren euskera» in ETXEITA, Jose Manuel: *Josetxo*. Bilbo: Labayru-BBK. 19-30.

———, 1995, «Etxeitaren idazlangintza» in ETXEITA, Jose Manuel: *Josetxo*. Bilbo: Labayru. BBK Fundazioa. 7-63.

Gabilondo, Joseba, 2013, «Galdós, Etxeita, Rizal. Madrid, Mundaka, Manila: On colonial disavowal and (post)imperial articulations of the Hispanic Pacific-Atlantic». 452 F.

Erkiaga, Eusebio, 1962, «Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga», *Oleri*. III-IV, 107-123.

Etxebarria, Aitor, 1982, «Etxeita eta bere nobelagintza» in ETXEITA, Jose Manuel: *Josetxo*. Bilbo: Labayru-BBK. 7-18.

Etxeita, Jose Manuel, 1886, *Amoríos de Juana y Manuel y Lo que es la madre a pesar de los pesares*. Manila: Chofré. 2003. Txatxi Irratia. Mundaka.

Euskal Esnalea, 1915, «De Euskal-Esnalea. Junta Directiva». 107. 1915 Garagarilla 15. 139-141.

———, 1915, «De Euskal-Esnalea». 1915 uztaila 30. 172-175.

Kortazar, Jon, 1999, *Jose Manuel Etxeita*. Bilbo: BBK Fundazioa.

Kortazar Billelabeitia, Jon, 2008, «Jose Manuel Etxeitaren (1842-1915) nortasun analisia, bere gutunen bidez», *RIEV*. 53. 2. 475-505.

Mujika, Gregorio, 1915, «Echeita'tar Jose Manuel/ Don Jose Manuel de Echeita», *Euskal Esnalea* 100-101. 1915eko otsaila 28-epaila 15. 49- 53.

Sarriugarte, Iñaki, 1988, «Sarrera» in ETXEITA, Jose Manuel: *Jaioterri Maitia*. Bilbo: Labayru-BBK Fundazioa. 7-40.



Piarres Larzabalen jaiotzaren mendeurrena*

Baionan, 2015eko urriaren 16an

* Hurrengo orrialdeetan, jardunaldi honi Ana Toledok eginiko sarrera eta Daniel Landart zein Antton Lukuk idatzitako testuak argitaratu dira. Ixabel Etxeberria eta Patxi Urkizuk emandako hitzaldiak ikerketa artikulu gisa argitaratu dira agerkariko ikerketa zenbakian (*Euskera* 2015, 2, 565-616 or.).

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

TOLEDO LEZETA, Ana M.
Literatura Ikerketa Batzordeburua

Piarres Larzabal (Azkaine 1915 - Ziburu 1988) pertsona eta bere obra gogoratzeraz dator Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordea.

Lehenik eta behin, eskerrik beroenak Baionako Diziplina Anitzetako Fakultateari Tesi Aretoa gaurko jardunaldirako eskaintzeagatik. Burutik ere ez zitzaion pasako Larzabali bere jaiotzaren mendeurrena ospatzeko unibertsitateko gela nagusietako batean, nagusienean ez bada, batuko ginenik!

Larzabal ez da, baina, estreinakoz iristen Tesi Areto batera. 2008an Ixabel Etxeberria doktoreak Larzabalen antzerkigintzari buruzko tesia Bordeleko Unibertsitatean defendatu zuenean, zabaldu zitzaizkion jakintza akademikoaren gune honetako ateak. Bihoakio Ixabel Etxeberria andreaki gure eskerrik zintzoena gaurko ekitaldian parte hartzeko gonbita onartzeagatik eta «Larzabalen antzerkigintzaz» azalduko dizkigun xehetasunengatik.

Historian zehar bertsoa izan da euskalduna gehien erakarri duen adierazpen-moldea, Larzabalek antzerkigintzan erakutsitako emankortasunak, besterik pentsatzera eraman zezakeen arren. Literaturari buruzko azterketek hiru genero handitan banatu ohi dute ondasun literarioa: genero epikoa, lirikoa eta dramatikoa. Sailkapen honetan genero dramatikoan kokatzen diren sorkariek badute ezaugarri bereizgarri bat besteek ez dutena. Antzerkia ez da amaitzen testuan. Antzerki-zeinuaren ezaugarri da, antzetzeko egina izatea. Beraz, ez da genero epikoak edo lirikoak bezala irakurketarako landutako testua, ikusteko baizik. Irakurketa soilak herren uzten du, antzez-zeinu desberdinak batera adierazteko gaitasunik ez duelako. Taulara-

Euskera. 2015, 60, 1. 69-71. Bilbo
ISSN 0210-1564

tzeko eginiko testua, taularen gainean bakarrik uztar daitezke antzerkiak aldi berean biltzen dituen zeinuak eta hala helarazi ikusleari. Irakurketak ez du ahalmenik aldi berean zeinu bat baino gehiago atzemangarri bihurtzeko: hizketa-zeinuak bata bestearen ondoren ematera behartua dago.

Bere sorkaria taularatzea da antzerkigile ororen nahia. Horrela, eta horrela bakarrik, beha dezake eta, dezakete ikusleek, hark jasotako eraikina.

Taularatzeak eragindako zeregin desberdin ugarietz zerbait baino gehiago dakite Daniel Landart eta Antton Luku antzerkigileek. Horregatik eskatu diogu antzerkiaren munduan, besteak beste, antzezle, zuzendari eta idazle izan den Antton Lukuri, «Piarres Larzabal eta taulagaina» gaia azter diezagula. Larzabal omentzeak ezinbesteko egiten zuen taulagainaz arduratzea. Estimatu handian dugu antzerkigintzaren alderdi anitzetan eskarmentua duen Luku jauna ekitaldi honetan parte hartzeko gertu agertu izana.

Oraintsu esan dudanez, Daniel Landart ere aditua dugu antzerkigintzan, hau ere, antzezle, idazle nahiz zuzendaritza-lanetan aritua baita. Gaurko saiorako, ordea, beste begirada-modu bat eskatu diogu, begirada zabalagoa: Larzabalen bizitza-ibilbidea. Konpromiso hitzaren esanahia barne-barnetik eza gutzen duen Landart jauna pertsona egokia iruditu zitzaigun, konpromisoa bizitzako ardatz izan zuen Larzabal ulertzeko eta honen bizitzaren nondik norakoak azaltzeko. Pozgarri zaigu eskaera ontzat eman izana.

Konpromisoa aipatu dut arestian. Besteren artean, gogoan nuen Anai Artea erakundearen sortzaileetako bat izan zela Larzabal. Erakunde horren ezaggarri da honaindiko eta haraindiko euskal herritarren biltoki izana. Larzabalen antzezlanek ere igaro zuten muga. Mugaren alde batean, zein bestean, paper bilaketan ordu batzuk emanak dituen Patri Urkizu irakasleak lagun diezaguke zubia pasabide bezala ikusten, zubiaz honaindi sortutako Larzabalen antzezlanak bestaldean izan zuten harreraz jardunaz. Ongi etorri!

Oroimenari lotua dugu irauteko ahalmena, ahanztura menderatzeko gaitasuna. Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak, ohiko betekizunen artean dauka literaturaren alorrean nabarmendu direnak gomutatzea. Esku artean darabilgun Euskal Literaturaren Antologia bat prestatzearekin batera, euskal letretan arrastoa utzi dutenak berrirakurritz berriz topatzeko

aukera eman dezakeen agertokiren bat eratzea geureganatuta daukagun eginkizuna da.

Ehun urte igaro dira Larzabal jaio zenetik, hogeita zazpi joan zenetik. Topikoa bada ere, zenbat aldaketa ehun urte hauetan! Larzabalen jardunaren garapen-testuingurua bestelakoa zen. Testuinguru hartatik idatzi zuen, garaikide zuen euskalduna gogoan hartuz idazlanak mamitzean. Horrenbestez, ezin izan ere berdina belaunaldi desberdinek Larzabalen sorkariei luzatutako begirada. Horra hor, azkenik, jardunaldia antolatzeko zioa: oroituz omendu eta, aldi berean, haren obra berrirakurri, berriro behatu, gure egunetatik irakurtzera eta behatzera, ezinbestez, beharturik baikaude.

Lantegi honetara bildu zaretenoi, elkarrekin berrirakurketa egitera etorri zareten guztioi, eskerrik asko.



Piarres Larzabal: biografia (1915-1988)

LANDART, Daniel
Euskaltzain urgazlea eta antzerkigilea

Etxekoak

Piarres Larzabal 1915eko maiatzaren 7an sortu zen Azkainen.

Aita, Alexandre, urruñarra zuen, 1876an sortua eta 1959an zendua Azkainen (83 urtetan); ama, Maria Carrera, beratarra zuen, 1889an sortua eta 1970ean zendua Azkainen (81 urtetan); aitatxi-amatxiak zituen:

Aitaren aldetik, biak urruñarrak, Pascal-Antoine Larzabal eta Françoise Tellechea; amaren aldetik: Francisco Carrera, lesakarra eta Graxi Lasaga, beratarra.

Alexandre eta Maria 1909ko maiatzaren 21ean ezkondu ziren eta bost haur ukan zituzten, baina bat hil zitzairen, Marianne, bi urte zituela. Beste laurak ziren: Antoine, François, Pierre eta Philomène. Beren gurasoek abandonatu bi neskatxa paristar ere, Henriette eta Suzanne, altxatu zituzten beren haurrak bezala.

Antoine edo Antton soldadugoaren egitera joana zelarik Angoulême hirira, zortzi egunen buruko bitxiki hil zen eta Armadako buruzagiek ez zieten etxekoei haren gorputzaren ikusteko eskubiderik eman¹.

¹ Anttonen heriotzaz bi bertsio badaude. Armadako buruzagiek familiari jakinarazi zioten: «Antoine jadanik eri zen eta txertoek kalte eginik hil izan da». Hori bertsio ofiziala. Aldiz hil eta bi urteren buruan, Angoulême hirian soldadugoa eginik zetorren gizon batek erran zion Piarres Lar-

François edo Pantxoa, hura berriz, 1945eko otsailean, gauaz kontrabandoan ari zelarik, muga zaintzen zuten *Maquisards* taldeko senpertzar gaztetxo batek, beldurak harturik, tirokatu zuen Larhongo Zizkoitz bentaren ondoan. Larriki zauritua, delako talde hartako gizonek Darricau klinikara eramane zuten baina gau hartan berean hil zen.

Piarres Larzabalek sei iloba bazituen: Pantxoaren bi semeak (Alexandre eta Firmin) eta Filomenaren lau haurrak (hiru alaba eta seme bat: Maritxu, Dominika, Françoise eta Daniel)².

Haurtzaroko bi etxeak

Piarres Larzabal *Mixelenea* baserrian sortua zen, Sara aldera zegoen herriko azken etxean.

Bordariak edo maizterrak baitziren, larzabaltarrek baserri handiago bat bilatu zuten eta aurkitu: *Isabelenea*. Piarresek zortzi urte zituen. Etxe hartan egon ziren 1961a arte. Gero sartu ziren *Ur Kanta* beren etxe berrian.

Mixelenea baserria aldiz, emeki-emeki, lurrera erori zen. Haren tokian, gaur egun, txakurtegi handi bat dago.

Gerla denboran sortua

Lau urte iraun zuen Lehen Mundu Gerla denboran sortu zelakoz, Piarres jadanik koxkortzen hasia zen bere aita ezagutu zuelarik.

Hamalau urtetan idatzi kobla batzuetan kontatzen zuen:

«Hiru urteren buruan etorri zelarik,

zabal apezari: «Armadako buruzagiek zaldi hezgaitz bat eman zioten, beren artean erranez « que le Basque allait bien le dresser », baina zorigaitzez, haren putarrak burua arraildu zion eta hartarik hil zen».

² Daniel Salaberry Larzabalen ilobak eta Jean-Pierre Ibarboure Maritxu iloba zenaren semeak eman argitasunak.

Piarres agurtu zuen lehenbizikorik.
 Honek ikusirikan bizar handi hura,
 Beldurturik, negarrez joan zen etxera.
 Jakindu zuelarik bere aita zela,
 Harritua egon zen soldadu hari begira.
 Eta hau hasi zelarik musu bat ematen,
 Aitatziren altzora lasterka joan zen.»³

Haurtzaroaz

Piarres mutiko bihurria omen zen, bihurria eta zalapartaria.

Amari erran ziolarik apaiztu nahi zuela, ama harritu zen: «Hi, apez? Sobera gaiztoa haiz, to!» Piarresen errefera: «Apez ona izateko, pixka bat gaiztoa izan behar da».

Eskolako irakasleaz aldiz hauxe zioen:

Hainbeste zanpaldi hartu izan dut harenganik, hainbeste aldiz entzun «avec ton sale basque... Ganich de Macaye» eta horrelatsuko goxokeriak, non, haren aiherkandez, hark hastio zituen guziak bilakatu baitziren enetzat maitagarri.⁴

Piarresek, bere aldetik, nor zuen bada miresten? Berehala jakinen dugu:

Gizon zahar bat zen, etxola batean bizi zena. Iñacio Beltza deitzen zuten. Karlista izana zen eta gerla egin zuen Santa-Cruz apaiz famatuaren manupean. Haren solasek piztu ametsetan, franko aldiz, karlista jantzia soinean, hamaika Español «Beltzetarik» engainatu, tirokatu eta paloztatu izan ditut. [...] Ez dut nik izan hura baino irakasle hoberik.⁵

Piarres Larzabal, herriko eskolan egonik, hamaika urtetan, aita-amek ezarri zuten Hazparneko San Josepe ikastetxean. Bi urteren buruan joan zen

³ Piarres Larzabal – *Idazlanak I* - Piarres Xarriton euskaltzainak paratu liburutik - Elkar – 1991.

⁴ Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.

⁵ Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.

Uztaritzeko seminario txikira. Entzun dezagun bertan irakasle zegoen Piarres Lafitte kalonje zenaren ikusmoldea:

Nik Uztaritzen zaitut ezagutu. Orduan zinen mutiko torropilo gorrail bat, begi animale batzuekin, buru-sorbaldak doi bat makurtuak. Ez zenuen, denbora haietan, «Miss Ascain» baten egiteko gai handirik. Baina bazenuen bertzerik. Hogeita hamazazpi urte hauetan eman ditudan nota guziak atxiki ditut. Behar dut erran, alemana irakasten nizularik, behin 12 eman nizula, bietan 13, bertze aldi guzietan 14. Ez da errateko baizik eskolier hauta zinela; zure plazak araberakoak ziren, beti lehenetan, eta urtearen buruan lehen. Berdin euskarazko lanetan.»⁶

Piarres, gero, Baionako seminario handira joan zen, eta udan, sasoiaren egiten zuen Donibane Lohizuneko ostatueta zerbitzari gisa.

Soldadugoa Parisen

Soldadugoaren egitea, berak galdeturik, aitzinatu zuen, eta 1933an Parisera deitua izan zen, hemezortzi urte zituela beraz.

Soldadugoak, garai hartan, bi urte irauten zuen. Eta bi urteak ederki baliatu zituen: alde batetik, erizain titulua erdietsi baitzuen, eta bestetik, teatro talde batean antzezten baitzuen.

Elkarrizketa batean erraten zuen:

Parisen, soldaduen antzerkilari taldean nintzen, eta uste dut askok sentitzen zutela banuela farreginarazteko dohai hori. Askok lan egin dut teatro jai horietan, frantsesez. Gustua hartu nuen eta ikusi nuen gauzak nola apailatu behar ziren, eta etorri nintzenean Seminarioa, izendatu ninduten antzerki zuzendari. Seminarioko apezgai guzietan ematen zitzairen urtean behin edo bitan komediaren bat. Sol-

⁶ Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.

dadutzari esker eta seminario handiari esker, sartu nintzen antzerki munduan.⁷

Aitormen hau ere egiten zuen:

Pentsatua nuen, soldadugoaren ondotik hautatuko nuela, ea behar nuen apeztu ala ez. Eta soldadugoak ninduen finkatu apezteko xedetan.⁸

Soldadugoaren bigarren urtean, 1934an beraz, idatzi zuen «Irri eta nigar» komedia laburra, geroago parroketako taldeek eman zutena.

Apeztu orduko, gerlara joateko deia...

Henri-Jean Houbaut Baionako jaun apezpikuak, 1939an, apez ordenatu zuen Piarres Larzabal eta bikario igorri Hazparnera, Hazparneko hirugarren bikario karguarekin.

Baina gerla hastear zegoen eta kasik berehala deitua izan zen Baionara, soldadu erizain gisa. Gero, Alemaniako mugara eramán zuten.

Frantziako gerla, hastetik bururaino, 49. erregimenduarekin egin zuen.

Henri Arbeletche baiones kapitainak kontseilaturik, «Corps francs» deitu gerlari berezien taldean sartu zen. Baina naziek franko laster Vosges departamenduko Raon l'Etape herrian arrastatu zuten eta «Stalag IV B» preso-zelaian sartu. Haren lehen lana izan zen, hilen gorputzak biltzea eta eskorgetan ospitalera eramatea. Usainduak baldin baziren, gorputzak ezantaz ihinztatzen zituen eta erretzen.

Bere oroitzapen liburu batean⁹ irakurri dugu arras gaizkitu zela Alemaniako ospitaleetan, ikaragarriko beheitiko ematen zuen «disenteria» deitu eritasuna bildua zuten presonerak ezin sokorrituz.

⁷ *Zeruko Argia* – «Gerrilleroen patriarka Zokoakoa - Aita Larzabal: Erresistentziarekin beti». I. Zubiondo eta Xalbardin.

⁸ Piarres Larzabal – *Idazlanak VII – Oroitzapenak* – Elkarlanean, 1998.

⁹ Piarres Larzabal – *Idazlanak VII – Oroitzapenak* – Elkarlanean, 1998.

Kasik hiltzorian zegoela, Gurutze Gorriko kide batzuek erdietsi zuten haren libraraztea. Haiei esker, ongi artatu zuten Suitzako ospitale batean eta gero Lyon hiriko erietxean.

Hazparnen bikario

Larzabal apaiz gaztea Euskal Herrira itzuli zen 1942an. Frantzian gaindi bezala, Hazparnen ere alemanak baitziren nagusi, delako bikarioa, baleki-bale, emazte arropaz bezti etorri zen bere apeztxera.

Garai hartan, kasik hazpandar guztiek bazuten beren izengoitia. Ikusi zutelarik bikario berria jende xehearekin aise gurutzatzen zela, irri egitea eta irri eginaraztea asko gustatzen zitzaizkiola, «Kaskarot» deitu zuten. «Kaskarot», Donibane Lohizuneko arrantzaleen emazteak oroitaraziz...

«Kaskarot», behar bada kanpo, baina barnez eta kaskoz, Larzabal, besterik zen. Libertatearen izenean, bide arriskugarria hartu zuen. Erran nahi baita frantses Erresistentzian sartu zela, besteak beste ekintza hau egiten zuela: «Nik eta nire taldeak Larrun mendia atakatu genuen. Gainean radar bat muntatua zuten Alemanek. Eskopeta eta abarrez eraso genien eta militarri hartu.»¹⁰

Horrelako ekintzen ondotik, Larzabal bere aita-amen etxera joaten zen, Azkainen zenbait egunez gorderik egoteko. Eta batzuetan, alegia deus ez, aitarekin itzultzen zen Hazparnera, eta aita dantzari trebea baitzen, Hazparkerako gazteriarri fandangoak irakasten zizkion.

Frantses Erresistentzia garaian, *commandant* gradua zeukan Piarresek eta parte hartu zuen «Comité de Libération» taldean, gerla denboran gaizki portatu zirenak epaituz. Ondorioz, hazpandar jaun batzuk preso atxikiak izan ziren Baionako Polo-Beyrisko kanpo batean.

Alemanek lekuak hustu zituztelarik, Frantzian Gobernu berria jarri zen eta manatu zuen armada osoki antolatu behar zela. Horrelaxe beraz, Larza-

¹⁰ *Zeruko Argia* astekaria «Gerrilleroen patriarka Zokoakoa - Aita Larzabal: Erresistentziarekin beti». I. Zubiondo eta Xalbardin.

bal apaizaren eta Goalard jendarme buruaren gain ezarri zuten, Hazparneko eta inguruko soldadugai gazteen prestaketa. Prestaketa hura larunbat goi-zero egiten zuten eta hiru urte iraun zuen.

Baina gerla ondoan, Larzabalek, bi sail akuilatu zituen bereziki: antzerki-gintza eta langile gazteen formakuntza.

Bai, barra-barra hasi zen komediak idazten.

Garai hartakoak dira: *Merkatutik*, *Gerla urte*, *Kontrabandistak*, *Ferrando*, *Dendarietan*, *Eiherazainaren astoa*, *Manez ohoretan*, *Sehi berri* obra airoso laburrak.

Funtsean, ustekabeko sostengua ukan zuen bere Hazparneko erretorea-enganik. Justin Mirande, apez-nagusia, «Monseigneur» ohorezko titulua zeukana, antzerkizalea zen eta dozena bat komedia moldatuak bazituen, Courteline et Labiche frantses idazleen obretan mamia hartuz. Bi apaizak arras ongi konpontzen ziren. Baina laster, Larzabalek beste biderik ere urratu behar zuen.

Gazteriarentzat bilkurak antolatu zituen, laborarientzat JAC (Jeunesse Agricole Chrétienne), eta langileentzat JOC (Jeunesse Ouvrière Française) mugimenduen bitartez.

Hazparneko CFTC (Confédération Française des Travailleurs Chrétiens) taldeko omonier (kapilau) izendatu zuten.

Behin, langileak greban jarri ziren eta karrketan gairi manifestatu zuten. Elizaren aitzinean pasa zirelarik, Larzabal bikarioa esku-zartaka (txaloka) hasi zitzairen. Hori jakin zutelarik, aztoratu eta haserretu omen ziren zapata lantegietako nagusiak!

Zokoako erretore

Hamar bat urte Hazparnen bikario zela eta, erretore izateko adina bazuela, Léon-Albert Terrier Baionako jaun apezpikuak, 1951n, Santa-Graziko erretore izendatu zuen... Larzabalek ez onartu! Ez baitzuen, alabaina, hain gazterik «ehortzia» izan nahi...

Orduan Zokoara joatea proposatu zion, parrokia berri baten sortzeko. Garai hartan, Urruñako eta Ziburuko kostaldea jendez azkarki emendatzen ari baitzen. Desafio hura bai, gustatu zitzaiola!

Bere lehen egoitza, Zokoan, *El Sol* etxearen azpiko aldea izan zen. Gara-jean bizitzea erabaki zuen erretore berriak, ohea eta mahai luze bat ezarriz; jabe ohiaren lantokia aldiz, kaperatxo gisa antolatu zuen.

Etxe haren izena: *El Sol*, bai, baina eguzkiaren partez euria egiten zuen aldi bakoitzean, itaxurek zimentazko zola bustitzen zuten. Ohera joan aitzin biluzteko, ohearen gainean zutik jarri behar zuen eta euriaren biltzeko, beti bazituen ontzi bat edo bi ohearen gainean edo saihetsetan.

Bestalde, komunetako zikinen bidea tapatua atzeman zuen eta zenbait egunez ari izan zen, pala eta pikotzarekin, hamaika zikinkeraren kentzen.

Bere lehen meza, Kalitxo karrikako *El Sol* etxeko kaperatxoan, 1951ko azaroaren 1ean kantatu zuen, Omiasainduz.

Baina helburu nagusia zen «egiazko» eliza berri baten eraikitzea.

Hain zuzen, asmo horrekin, Baionako Elizbarrutiko elkarteak, 1944an, Urruñako herriari erositako lur zati bat. Baina eremu hartara heltzeko ez zen biderik, eta bistan dena, ez urik, ez elektririk.

Haizkora eta sega berriak erositik, lotu nintzen tira-ahala lurraren garbitzeari. Izerdi onik atera nuen. Jendea harriturik zegoen niri beha, ez baitzuen behinere ikusi apezik sotanetan ari holako lanetan.

Lekuko gehienek irri egiten zuten naski, beren artean ziotela: «Apez xoro horrek eliza bat eraikiko omen dik toki hortan. Ez duk ez luzaz ariko hola lanean. Zentimorik ez omen dik. Laster ikusiko dik hobe duela hor patata ereiten hastea». Kasurik eman gabe, ni neureari ari nintzen.¹¹

Bere lehen elizkizunak 1953an hasi zituen bukatua ez zen eliza berrian.

¹¹ Piarres Larzabal - *Idazlak VII – Oroitzapenak* - Piarres Xarriton euskaltzainak paratu liburutik – Elkarlanean, 1998.

Etxahun antzerkia eta bestiak

Egunaz pala, pikotza, haizkora eta sega esku artean, gauaz aldiz lumarekin lanean... Baldintza txar eta egoera larri hartan idatzi zuen, hain zuzen, ***Etxahun*** obra, hazpandarrek 1952ko azaroaren 15 eta 16an taularatu zutena.

Pierra Topet-Etxahun XIX. mendeko barkoxtar koblakariaren biziko gertakarietan oinarrituz, haren emaztearen adulterioa aipatzen zuen eta ondorioz sortu zorigaitzak. Horrelako gaia, ordu arte, parroketako taldeek eman komedietan ez zen egundaino agertu, eta gainera, apez batek idatzirik! Abisua zabaldu zuten haurrentzat debekatua zela, horrek berak jendearen jakin-mina zirikatu baitzuen...

Pierre Duhour Hazparneko berrikeriak *Herria* astekarian idatzi zuen haren irudiko «Izkirio lanak ez lezake deus gal gordainkeria batzuk kenduz, seigarren manamendua hunkitzen baitute sobera solasek, behar handirik gabe. Ele erdiz egin liteke lan hobea.»¹² Artikulua ez zen segur bortitza, baina jendeak lerroartean nahi duena irakurtzen baitu, gordainkeria bilakatu zitekeen lizunkeria, eta fama txarrak kurritu ziren.

Funtsean, Larzabalek berak erantzun bat egin zion, «Etxahun eskandala bat ote da?» izenburupean hauxe idatziz:

Etxahun bai gordainki izkiriatua da... Baina gordainki ez du erran nahi zikinki. Etxahunen erranek, behar bada poxi bat, beharri axala kolpatzen dute, bainan kontzientziaren barnea ez dute ahultzen. Kontzientziaren barnea, baitute erakaspén askoz argitzen eta atzartzén.¹³

Larzabalek, Etxahun obrarekin euskal antzerkigintza hozka on batez goratu zuen. Bihurgune garrantzitsua izan zen. Taldea herriz-herri ibili zen, orotara 15 emanaldi eskainiz.

Etxahun obrarekin, Larzabalen omena hedatu zen Lapurdin eta Baxenabarren. Eta gero, bere talentua baieztatu zuen, kasik urtero beti zerbait berri

¹² *Herria* astekarian, 1952ko azaroaren 20an.

¹³ *Herria* astekarian, 1952ko azaroaren 27an.

idatziz, haren antzerkiak hazpandarrek bezala beste talde batzuek ere estreinatzen zituztela:

1953an: *Bordaxuri*, Hazparnen;

1954an: *Nork hil du Oihanalde* Ezpeletan eta urruñarrek bi obra taularatu zituzten urte berean: *Basabeltz* eta *Portu Xoko*;

1955ean: *Hiru ziren* Ezpeletan eta *Hila espos* Urruñan;

1957an: *Herriko bozak*, urte berean lau talde desberdinek eman zuten, herriak zirela: Mugerre, Hazparne, Irisarri eta Eiheralarre;

1958an: *Berterretx* Hazparnen eta *Urrika latza* urte berean lau talde desberdinek emanik: Mugerre, Urruña, Irisarri eta Eiheralarre;

1960an: *Mugari tiro* Hazparnen;

1963an: *Nor da hobenduna?*, Hazparnen; *Paper mende* Urruñan eta Arrosan.

Erran nahi baita, 1952tik eta 1963a bitartean hamahiru antzerki berri! Ahantzi gabe, Hazparnen zegoelarik egin komedia irri-egingarriak ere beste anitz herritan emanak zirela. Idazten zituen ere esketxak *Lurraren Besta* egunean karroza apainduen gainean antzezteko, baita geroago, irratiz zabalteko.

Antzerkiez beste, artikuluak idatzi zituen, *Aintzina* eta *Othoizlari* aldizkarietan.

Euskaltzain oso

Euskal antzerkigintzari sekulako bultzada ematen zion urte haietan, Larzabal jaun apezak bere erretore kargua kar berarekin zeraman, arrantzaleez eta haien familiez ere artoski arduratzen zela.

Bestalde, medikuek galdeginik, erizaingoan ari izan zen zazpi urtez, eta ere, hona bitxikeria bat: hilak beztitzen zituen! Erran nahi baita, hilotza aldatzen zuela «igandeetako arropetan» ezarriz, itxura apaina ukan zezan Jondoni Petriren aitzinean agertzeko...

Horiek horrela, Euskaltzaindiak Piarres Larzabal izendatu zuen euskaltzain oso, 1960an zendu zen Jean Elissalde *Zerbitzari* apaizaren ordezkatzeko. Elissalde eta Larzabal, biak azkaindarrak izanez, ekitaldi ofiziala Azkainen iragan zen, 1963ko azaroaren 10ean.

Bere mintzaldia horrela hasi zuen:

Euskaltzaindiko lagun batzuk entzun ditut, beren aitamen merezimenduen laudatzen, euskara irakatsirik. Berehala diot, ene aita-mek, alde horretatik, ez zutela merezimendurik. Zer nahi duzue irakats ziezadaten? Ez zekiten ta besterik!¹⁴

Gero, *Zerbitzari* zenaz mintzatu aitzin, bere aitatzitat hartu zuen Piarres Lafitte kalonjeaz hauxe erran zuen:

Uztaritzeko ikastetxean sartu nintzelarik, gure apez irakasleak ikertu nituen begiz eta bihotzaz... Bat aurkitu nuen otsoa, bestea marrakaria, hirugarrena kixkila eta azkena kukusoketaria... Irri-egile zen, bakarrik, Lafitte jauna. Eta ez zuen dudaz edo ezpain arrasaz irri-egiten, baina gorputz eta arimaz, gerria zumea bezala plegatuz, karkailaz eta lurrari agurka.¹⁵

Piarres Lafitte kalonjeak aldiz, bere erantzun mamitsua, hitz hauekin bukatu zuen:

Lehenago, Alphonse Daudet-ek «L'Immortel» izkiriatu zuen Frantziako Akademiak jostatu beharrez. Nork jakin zuk ez gaituzunetz komedia berri batean Euskaltzain zaharrak galanki jorratuko? Hobe, funtsean, hala balitz, zuri esker nolazpeit bederen menderen mendetan Euskaldunek jakin dezaten, bitxi bagara bitxi, lanean ari izan garela euskararen salbatzeko esperantza bitxiarekin.¹⁶

¹⁴ Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.

¹⁵ Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.

¹⁶ Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia – *Gure Herria* aldizkaria – 1963ko abendua.

Familia oso bat apezetxean

Zokoako erretoreak, bere eginbeharrak zintzoki bete zituen: itsasontzi baten itxura daukan San Frantses Xabier eliza eraikiz, halaber apezetxea eta hilarriak.

Hainbeste lanen artetik, astelehenetan, maiz joaten zen Azkaineko familiaren agurtzera. Gustatzen zitzaion aitarekin musean aritzea, eta behar orduan, aita laguntzen zuen ardi-ile mozten. Biziki trebea omen zen lan horren egiteko.

Xehetasun hau ere eman nahi nizueke. Behin, norbaitek jo zuen apezetxeko atean. Larzabalek berehala zabaldu. Mutil gazte bat zen, ihes zetorrena eta non lo egin ez zekiena. Larzabalek aterpetu zuen. Idiazabaleko mutilak kontatu zion bere zorigaitza: ezkontzeko eguna finkatua zutela eta alde egin behar ukan zuela. Larzabalek erran zion: «datorrela zure andregai eta nik ezkonduko zaituztet». Larzabalek ezkondu zituen beraz Esteban Arizmendi eta Belen Aguirre lazkaotarra eta proposatu zien apezetxean berean bizitzea, Belenek gelaritza edo mirabetza segurtatuko zuela baldintzarekin. Ezkontzatik lau haur sortu ziren. Larzabal apeza beraz, bere apezetxean, familia oso batez inguratua bizi izan zen, denek «Aitatxi» deitzen ziotela.

Ez dut, Iparraldean behintzat, horrelako beste kasurik ezagutzen. Horren egiteko ere Larzabal izan behar zen!

Abertzale ildotik

Bere erretoregoa ahal bezain ongi eramanez, antzerki idazten segituz, gure gaurko protagonista gero eta gehiago murgildu zen abertzale ildoan.

Beste sei lagunekin, Enbata mugimendu abertzale eta europazalearen sortzaileetarik izan zen, eta izen bereko kazetan, euskarazko artikulu nagusia hark egiten zuen. Mixel Labegueriek musikatu zion *Bakearen urtxoa* kantuaeren hitzak ere harenak ziren.

Herria astekarian berriz kronika berri bat zabaldu zuen «Mugaz bertzaldetik», Hegoaldeko anai-arreben berri emateko, eta bereziki, frankismoaren

basakeriak salatzeke. (Nola ez aipa ere 1959an auzipetua izan zela, Lafitte zuzendariarekin batera, *Herria* kazetan Aljeriako gerla denboran egin zuen artikulu batengatik).

Historian oinarrituak ziren baina abertzaletasun modernoaren ikusmoldea ematen zuten bi antzerki idatzi zituen: *Matalas* eta *Ibañeta*, Antzerkilarien Biltzarra elkarteak, herri desberdinetako jokalaria bilduz, taularatu zituenak. Estreinaldiak egin ziren lehenarentzat Baionako Antzokian 1968an eta bigarrenarentzat Biarritzeko Kasinoan 1969an.

Hirurogeiko hamarkada hartan beraz, eta batez ere 1968an ETAk Melinton Manzanas poliziaburua erailez geroz, iheslariak dozenaka baitzetozen Iparraldera, haien laguntzeko elkarte bat behar-beharrezkoa zela eta, 1969an Anai-Artea abiarazi zutenak izan ziren: Telesforo de Monzon, Piarres Larzabal eta Angel Arregi.

Ondoko urtean, 1970ean, iragan zen Burgosko auzia. Munduak jakin zezan Francok sei euskaldun hiltzera kondenatu nahi zituela, erakunde armatuak Eugen Beilh aleman kontsultordea bahitu zuen, eta Larzabal eta Monzon hautatu zituen boz-emaila, gertakari hartaz kazetariekin mintzatzeko.

Ondorioz, Larzabalek hil-mehatxuak ukan zituen, eta bere buruaren zaintzeko, pistola sakelan zerabilen. Ez zen gehiago mugaz bestaldera pasatzen, eta beraz, ez zihoan Euskaltzaindiko bilkuretara.

Iheslariak eta elizkizunak

Iheslariak elizkizun baten beharretan gertatzen zirelarik, Zokoako erretoarearen ikustera zihoazen. Horrelaxe beraz, hirurogeita lau ezkontza benedikatu zituen, laurogeita lau bataio egin, eta onartu zuen ere, ETAko bat Hegoaldean erortzen zelarik, haren arimaren alde hil-mezaren ematea.¹⁷

Hil-meza haietan egin predikuak plazaratu zituen 1978an, *Nere mendixkatik – ETAko gudariez apez bat mintzo* liburuan. Orotara 14 prediku badira,

¹⁷ *Altxa Mutillak* itsas gazteriaren aldizkaria – 8. zenbakia – 2004.

24 sasi-gudariren hil mezetan eginak, baita aitzinsolas gisa, bere gogoetak: Ipar Euskadira etorriak eta Eliza, Borroka armatua eta morala, Gudarien konfesioak, Zergatik ez naizen ETAn sartu, eta beste.¹⁸

Hil-meza haiek 1973an hasirik 1977a arte iraun zuten.

Eta iheslarien sostenguz, gose greba batean ere parte hartu zuen, Hendaia Santa Ana elizan, 1979an.

Piarres Larzabalek utzi digun uzta

Gaur omentzen dugun antzerkigile oparoak, behin baino gehiagotan, errepikatu zidan ehun obra baino gehiago idatziak bazituela, horietarik asko karroza apainduen edo beste gisako topaketetan emanak izan zirenak, halaber hiru ikusgarri Oiartzungo taldearentzat: *Lartaun*, *Aralar* eta *Orria*.

Bera bizi zeno, *Auspoa* argitaletxeak plazaratu zizkion antzerki batzuk, hala nola *Hilla esposatu* (Lapurdiko eta Gipuzkoako euskaraz, Gipuzkoakoa Manuel Lekuona apaiz jaunak moldatua), halaber *Herriko Bozak edo Nor alkate?* eta *Bordaxuri*. *Egan* aldizkariak aldiz *Berterrex*, *Mugari tiro*, *Sarako Lorea*, separata gisa zabaldu zituenak. Gauza bera egin zuen ere *Gure Herria* aldizkariak *Etxahun* antzerkiarekin. Eusko Jaurlaritzako Antzerti zerbitzuak, bere aldetik, *Matalas* antzerkia argitaratu zuen 1984an.

Jakinez bere obra barreiatua zela, Larzabalek, hil aitzin hiru pertsona hautatu zituen bere lanen bilketaz arduratzeko: Piarres Xarriton, Roger Idiart eta Daniel Landart.

Piarres Xarriton euskaltzainak, Euskaltzaleen Biltzarra elkartearen babesean, beregain hartu zuen sail hori eta *Idazlanak* izenburupean, Elkar argitaletxeak zazpi liburuki hauek plazaratu zizkion:

- 1 – *Etxahun eta...*, 18 komedia labur (1991);
- 2 – *Bordaxuri*, 6 antzerki obra (1991);

¹⁸ *Nere mendixkatik* – Dizkola argitaletxea, 1978.

- 3 – *Orreaga*, 8 antzerki eta pastoral bat (1992);
- 4 – *Matalas*, 9 antzerki (1992). Orotara 42 komedia eta drama beraz.
- 5 – *Ipuin eta ixtorio* (1996). *Gure Herria* aldizkarian agertuak.
- 6 – *Etnografia solas eta hitzaldi* (1996);
- 7 – *Oroitzapenak* (1998). – Biografia honen egiteko asko baliatu dudan liburukia...

Zazpi liburuki horiei eta lehenago aipatutakoei gehitu behar zaie:

- *Anai-Artean* (Angel Arregi jaunak eskuratu Larzabalen artxiboak) – Txalaparta, 1996.

Larzabalen idazkera ongi ikertu zuen Piarres Xarriton euskaltzainak idazten zuen Eusko Jaurlaritzaren *Antzerti* aldizkarian:

Ez dut uste baden gure literaturan beste idazle anitzik bere herri-tarren sentimendu, kezka eta gogoetak, hots herriaren bizi guzia hain barnatik sumatu duenik eta bere bereak dituen solasen bitartez tauleen gainean, bizi bizia, argitaratu.¹⁹

Hainbeste lan mota desberdin erabilirik, hainbeste kezka eta buruhauste jasanik eta ere gairiditurik, Zokoako apezta eritu zen eta Zokoako erre-torgoa utzi zuen 1979an. Azken urteak franko dorpeak iragan zituen. Eskerrak Arizmendi-Agirre delako familiak bururaino bere ondoan atxiki zuela.

Zokoako lehen eta azken erretorea izan zen Piarres Larzabal bere parro-kian hil zen 1988ko urtarrilaren 12an, 73 urtetan.

Arrunt eritu aitzin halere, azken «balentriaño» bat asmatu zuen, teatro aire bat zeukana... Bere ehorzketako predikua berak izkiriatzea! Hori ere pentsatu behar zen... Eta horrek ere tirabirak sortu zituen! Bikario jenera-lak ez baitzuen horrelakorik onartu nahi. Azken finean, Larzabalen adiskide mina zen Roger Idiart azkaindar apezak irakurri zuen.

¹⁹ Antzerti – *Matalas* - Eusko Jaurlaritza – Kultura Saila – Iraila 1984. 69. alea.

Aurten ehun urte ukanen zituen jaun erretorearen gorputza Zokoako hilerrietan ehortzia dago.

Azken hitza

Pertsonalki ezagutu nuen Piarres Larzabal gizon ona zen, biziki ona.

Ausarta. Osoa. Balentrialaria.

Zerbait buruan hartuz geroz, bururaino eramaten zuen.

Irriz ezin ase, eta denbora berean, arras serioa.

Beti zerbitzu egitera ekarria.

Errotik jendakina. Apez apala. Otoizlaria.

Funtsean berak hauxe zioen:

Askoren ustetan, ni antzerkigile komedialari bat naiz, oroz-gainetik. Gutik duke pentsatzen otoizlari bat izan naitekeela. Bizkitartean anitz aldiz, gauaz eta egunaz, Jainkoarekin eta haren sailduekin kurrutzatzen naiz eta luzaz goxatzen...²⁰

Agur eta ohore zuri Piarres Larzabal euskaltzaina,

Euskal sortzaile eta eraikitzaile bikaina.

Eta bukatuko dut Azkaineko herriak, eliza saihetsean, ezarri oroitarriko hitzak irakurritz:

*Herritar leial
Erretor apal
Idazle zabal
Gogotik ez gal
Piarres Larzabal*

²⁰ Piarres Larzabalen *Idazlanak VII - Oroitzapenak*. Elkarlanean 1998.

PS. – Eskerrak bihurtzen dizkiet Daniel Salaberry Larzabalen Azkaineko ilobari eta Jean-Pierre Ibarboure Maritxu iloba zenaren semeari, baita Mikel Epalza Zokoako apezetxean bizi den aspaldiko lagunari, argitasun eta xehetasun interesgarriak emanik. Eskertzen dut ere Mizel Jorajuria familiakoekin harremanetan sartzeko lagundurik.



Larzabal eta taulagaina

LUKU, Antton
Antzerkigilea

– Zer gizon zen?

Maite Dunat: – Zer gizon zen? Gizon..., apeza..., mintzo zelarik jendeer irri eginarazteko bezala ari zen, gauza serioak ere erraten zituen baina arraileria... iduri zuen arinki nahi zituela gauzak hartu.

Errealismotik estilo propio baten eraikitzeari buruz

Ardura errana izan zaigu 1990. urteetan antzerki idazten hasi ginenoiz Larzabal aita genuela, baina nik, esaterako, ez dut ezagutu. Ikusi, bai, behin, manifa edo elkarretaratze politiko batean, biziki inguratua zegoen eta entzun nuen Larzabal gizon hura zela. Besterik ez. Larzabal ezagutu ez dugun aitaxi bat da guretzat, haren testuak etxeetan zeuden alta, eskutik eskura pasatzen ziren, estatu txarreko fotokopia gaizki joak ardura eta bagenekien *Bordaxuri* edo *Herriko bozak* harenak zirela, *Etxahun* eta *Mugari tiro* bezala, *Xirrixti-Mirristi*-k izen bereko taldea sortu zuen baina antzerki haiek behar omen ziren moztu biziki eta egokitu hagitz zahartuak baitziren abantzu denak... Denek bagenuen aditze *Matalas* Baionako antzokian izan zen balentria, baina hura antzerkilarien «*Chanson de geste*» bezala zen.

Nihaur Larzabal-en obran eta pentsamoldean zinez sartu nintzen Piarres Xarritonek azkaindarraren heriotzaren ondotik, beste batzuekin, Elkarren argitaratu zituelarik haren «obras completas». Edo atzeman zirenak bederen bildu baitzituen. Galduak bestalde...

Euskera. 2015, 60, 1. 91-105. Bilbo
ISSN 0210-1564

Lehen liburutik hasten garelarik irakurtzen, atzematen dira komedia arin eta errural batzuk, irri-egingarriak, helburua denbora pasatzea dutela iduri baitzaigu. Uste dut joan behar dela *Oroitzapenak* titulu daukaten azken tomoetara giltzaren bila. Oroitzapenetan erraten digu idazleak, seminario testuinguruan hasi zela idazten, eta boz eskergarriaz aipatzen digu Piarres Lafitte, ez irakasle malguago edo eztiago gisa baina Piarres Larzabalen engantxatzeko talentu baten jabe zelako: irri egiten bazekien eta ez zen harena umore ttinkia baina karkaila ozena ateratzeko gai zen arraileria.

Bide horri lotzen zaio apezgai gaztea. Lehen lanak Daniel Landartek bere lehen *Aihen ahula*-n deskribatzen duen testuinguruan kokatu behar dira. Pieza horiek apezken kontrolpean ziren antzeztuak, haurren eta herritarren eraikuntza morala helburu, ez zuten taulagain efektuetan anbizio handirik, eta berriz itzuli behar da telebistarik eta beste irudi iturririk ez zen mundu hartara ulertzeko denbora lipar goxo baten hartzea ere zutela estakuru.

Hamalau urte, Piarres zozo, Irri eta nigar, Merkatutik, Gerla urte, Kontrabandistak, Dendarietan, Manex ohoretan, Ferranddo... tituluak berek salatzen dute obren iturria, karrikako obserbazio batetik heldu dira, kostunbrista hitza ez daiteke batere ebatsia. Karrikako irria da hemen nagusi, egun guzietako istripu eta gertakari ttipi, kalapita merkeak dira erakutsiak, irri-egingarri baldin badira, pasadizo xelege horien umorea dute eta Larzabalek bere haur-gazte memorian atzematen ditu: idiak ikusten ditugu etxera ihes joaten korbea amets, itzainak mama gorrian ahanzten dituelarik, egun guztiz tenore berean postariak kantonierari ateratzen dio irain astun bera, erantzun beraren altxatzeko... *Gerla urte* edo *Kontrabandistak* bezalakoek gaietarik salatzen dute iturri autobiografikoa edo familiako solasa bederen... Joko kostunbrista edo hobeki errateko naturalista ekidinezina da hauetan, Larzabal «ostra bezala da bere arrokan», edo hobeki errateko «betzua bezala Larhunnen». Errealismo hori frogerra da lehen antzerki horiek daukaten frantses proportzioari ohartu eta. Garai horretan ez du euskara lanjerrean ikusten, ez du normalizazio axolarik, nork dauka funtsean orduan, euskara euskara da, bere ohiko tokietan da erabilia eta, Larzabalek bere mintzaldietan dioten bezala, jaun eta jabe dugu hemen. Frantsesa kanpoko funtzionarioen hizkuntza da, eta nehork ez litzake herresta haiek irudika euskaraz mintzatzen, fikzio hitza ez da hona heldua.

Antzerkiak ikusten eta entzuten dugunaren isla behar du izan, deskriptiboa hots. Herriko irria entzuten dugu hemen. Gurea. Larzabalen antzerkia benetako euskal antzerkia delarik. Egiatzko Euskal Herria taulagainera iganarazten duelako.

Benetako Euskal Herria?

Edo benetako euskal teatroa? Entzun dezagun Maite Dunat heletarra, azken hamarkadetan hainbat antzez-proiektu desberdinetan ari izana, antzerkilari historiko izena merezi duen bat baldin bada hau daiteke.

Beti herri ttipi estereotipatu bat, bere pertsonaia estereotipatuekin: apeza, haren gelaria, ez dakit nork dakien orain zer zen gelari bat, ostalera, gero bizpahiru atso. Kronika sozial bat zen. Eta horrekin bere ideiak Euskal Herriaz, euskal nortasunaz, hori beti agertzen zen, izan Ameriketara joaten zirenak, berriz jiten...

Lerraketa aski fite heldu da. Ez du Euskal Herria den bezala pintatzen ezta ere ikusten duen bezala. Antzerkia tresna zaio, mintzatzeko, errateko, agertzeko toki bat. Antzerkia konbentzioa da, espazio sinboliko bat sortzen du, pertsonaien gatazkaleku, autoreak erran nahi duenaren esperientzien egiteko eta ideiak sorrarazteko gunea. Molde natural batean, edo naturaltasunez bezi.

Estereotipo ikusten ditu pertsonaiak Maitek. Estereotipo edo arketipo? Zeren antzerkiz antzerki jauzi egiten dugularik, pertsonaien arteko eite handia argi egiten zaigu, tipologia markatua finkatzen, panpinak kasik. Familia-ka sailka ditzakegu, soilduak, estilizatuak zaizkigu, beren betebeharrak plegatuak. Karikaturak? Ba, esanahi noblean, esanahia jalgitzen baitzaie berehala edo beharren arabera, sentsu garaile izan daitezten.

Zeren Meyerholdek erakutsi digun bezala, errealismoa ez baita antzerkian posible, ez baita ikusle soilarentzat irakurgarria. Maitek diosku, haren ideiak nahi dizkigula pasatu Zokoako idazleak eta ez du antzerkiak denborarik aski *in extenso* errealismoak behar duen denbora jasan dezagun. Denbora tinkoagoa behar du, pertsonaia abiadura kurtsa batean sartzen da taula gainera agertu orduko.

«Antzerki hitza nehork ez zuen hemen gaindi ezagutzen, komedia erraten ginuen» erran du Larzabalek behin baino gehiagotan. Normal da, neologismoa zen, hitz berria garbizaletasun helburuz kolatua. Baina ez ote zaio Larzabalen antzerkiari, tragikoa barne, komedia hobeki joaten edo hobeki errateko *commedia* ortografiarekin? Izan ere pertsonaia sare bat du testuz testu osatzen tresna kutxa batean bezala lerrokaturik, bakoitza bere lekuarekin beste testu batean baliatzeko prest, errekkurrentzia handia dute batzuk testu ezberdinetan, esaterako, bikote kasik bera dugu entzuten mokoka; giderrak eskutan ditu etxeko andere zentzudunak eta alferkeria, edo «inutilkeria» dosi ezberdinetan daukaten senar kofa berak dira beti ageri. Eske kantuetan diren berberak: «Kadira zaude jarririk, koloreak gorrikerik, guri xingarra ematera jeiki bazinte hortik», laudorioak harilkatzen direlarik etxeko andere bertutedunaren alde.

Irria bera. Lafitteri maite zion irri karkaila gordin hura dua beti? Ibañetan dramamurgiltzen gaitu, sinbolika eta metafora argien lupu sarean kokatu gaitu hatsarretik, tortura ingurugiroan ohar Apfelen hazpegien pean Manzanas-en alegoria inposatua digula, Satorbeltz heldu da «galdezkatze-za», erridikulu baino gehiago, fartsa borrero. Orduko antzezeleen kontratazko sisteman, distribuzioa gazte talde baten erdian egiten zelarik, posible zena zinema *gore* bateko kinka baten asmatzea? Non ez dagoen barnago arrazoi gordea? Antzezte defendatzea baita. Eta hor apez izateak, abokatu litzatekeen bezala, ez ote dua laguntzen? Antzezgarria izan dadin edozein pertsonaiak bere humanitate parte behar du. Ez daiteke pertsonaia arras beltza eta ez arras zuri, bazter guziak eneatzeko arriskua hartu gabe. Esaterako, Bordaxuriren lehen ateraldiak, antzerkiaren hatsarrean, ez dira gure ustez antzezerrazak, hain monolitikoak dira non, jokoaren ezberdintzeko espazio guti uzten baitute. Ederrago zaigu pertsonaia bukaeran ahuleziak edo partida galtzeak soinean dituelarik, hilarrietan gaindi izuturik, bere buruaz beste egiteak tentatzen, hilen bozek edo bere kontzientziak ate joka ari zaizkiolarik.

Larzabalen ideiak ez dira ardura testuetarik edeki gaitzak, bai, baina haren pertsonaiak hori baino gehiago dira, kideatasun handia erreibindikaten du ttipi, mehe eta ahulekin, baina egundaino ez du negar egiten horien zortearen gainean, irri-egingarriak nahiago ditu tristeak baino eta besteen

heinean tratatzen dituela itzultzen die antzerkiz jendarteak ukatzen dien duintasuna. Brecht entzuna balu bezala, ez gaitu istikaturik uzten emozioaren lekan. Ez bada oraino urrunago joaten. *Herriko bozak*-en Pako arte handiz identifikarazi digularik, duda izpirik ez dugularik haren ahotik dela Larzabal bera mintzo, bukaeran zafratzen du gupidarik eta urriki izpirik gabe. Inutila inutil uzten du kutxara itzultzerakoan, bere panpina lana bete ondoan.

Peter Brook-ek zioen antzerkia ez dela joko bat baizik hondarrean. Peixotori entzuna, Larzabalek idazten zuen irria ezpainetan, karkaila laburrak ere ihes egiten zitzaizkiola artetan.

Idazten zuen antzerkia ikusten zuelako. Bere panpinak animatzen baitzitu gogoan, ikusten zituen dantzan eta mintzatzen entzuten, beren euskara ateratzen. Kantor maisu poloniarraren tratamendu bera ematen zien. Nehork ez du dudarik Larzabalen hizkuntza izugarri ederra zela, bakarrak dira haren jariora goretzia dutenak. Baina entzun da ere aski urrun zela testu ongi idatzi batetik, errepikapenak, hots idazkia lehen luma ukaldian utzia zela nabari zitzaiola, berriz irakurtzeko denbora eskasa ote...

Hizkuntza hori antzerkiaren hizkuntza da, bat-batekotasunarena eta, bereziki, pertsonaiaena. Zeren hauek fabrikatuak badira ere, elea ateratzen zaie, halarik ere, ekintzan, eta ez da gibelera joaten ahal gero horien zuzentzera. Erranak erran, tokian tokiko eta unean uneko barne irudiak diktatuak dira, benetako pertsonaiei entzuna da nonbait paperean finkatzen. Antzerkiaren paradoxa da, alegiazkoa eskatzen da, errealismoa arbuiatzen baina sinesgarritasuna du izari. Horretako dira honen pertsonaiak hain efikazak, hain egiazkoak, hain harrigarriak. Idazlea bera irriz hasarazteko puntuan. Non ez zuen irri egiten publikoari egiten zion jukutriaz, Arlekin maltzur bat gordezten balu bezala pieza horien tiraderan.

Erraten zen ene gazte denboran Larzabal ez zela batere gizon handiuste, ez zela batere bere obraz jelos eta, herrigintza helburu zuelako, berdin zitzaiola lana ontsa edo gaizki emana izan zedin. Hemen zela ulertzen zergatik ez zen sekula ikustera joaten. Mixel Brust Hazparneko antzerkilari zaildua ez zetorren bat horrekin, zioen hark, bazekiela autoreak beti gaizki ematen zirela hemen gaindi edo ez hasteko lanak merezi zuen heinean. Uste dut nik

idazten zuelarik ikusten zuela lana bukatu, entzuna zuela eta gozatua zuela eta ondotik ehiza sasoi batez baliatu belatza askatzen zuela beste bizi bat ukan zezan. Karkaila irriz ari zen beti bere obra baten ikustean. Ahantzi zukeen, ez horrela ikusi. Hasteko birdeskubritzen zuen, ikusi zuen baino desberdinago, pertsonaiak beste moldera jantziak...

100 antzezlan baino gehiago idatzi ditu. Sekulakoa da. Noizbait saiatu garelarik idazten izutzekoa ere bazaigu. Bata bestearen ondotik idatzi ote du galtoak jin ahala? Edo proiektua zuen? Egitasmo baten morroi jarri ote du luma? Eta pertsonaia kutxa?

Gerla ondoko jendarte porroskatu batean hasten da seriozki idazten. Kanpotik heldu dira arrotzak, gureak joaten, frantsesa sartzen da indarrean irratiz lehenik, telebistaz laster, euskal etxeetan. Atomizatu porroskila horiek zementua behar dute eta ez du euskarak baizik izaten ahal lotura, porlana. Euskara bizi eta funtzional bat, malgutasunez biziaren aldaketa guzietan egokituko zaiena. Taula gaina biziaren metafora izanen da eta han biziko dena kanpora joateko on izanen, hiztun berrien gorputzetan saiaturik. Edozein taldek eskaturik ere ematen zuen? Bai. Helburua zuelako, urgutzia bazegoelako. Pako eta Klotilda hauek biderkatzea, pertsonaiak jantzi edo gorputz desberdinei egokitzeak ematen baitzien pluraltasuna, egitasun gehiago eta baita herrikoitasuna. *Pertsonaia* eta bere mezua ereiten zituen, *posible* egiten zuten eta, beraz, eraginkor. Hizkuntza zaharrean errotua jalgitzen zen hizkuntza berria, erreferentzia berriak gazteek ahoz aho erabiliak jada eta beraz jada aforismotik erran zaharrera pasatuak epe motzengatik. Hori guzua joko erradikal batez gogoetan sustraitua, edozein zinemari lehia-tzeko on den joko bat, estilo bat ez bailezake uka, filma mutuetako burleskoak, *slapstick* amerikanoari hartua ematen baitu.

Itzul gaitzen arren Xarritonen obra osoko liburu pilari buruz eta lehen lan autobiografiko/errealistearik has irakurtzen. Ohartuko gara irakurketa leku berean zaigula geldotzen... helduak gara *Etxahun* edo *Okilomendi jaun mera*-ren gune horretara. Utz dezagun *Etxahun*, goraiatua izan da arrazoi ezberdinengatik. Zerk egiten du *Okilomendi* bezalako fartsa batean zerbaitek debekatzen digula arin irakurtzea? Zerbaitek gaizki uzten? Irria garrazten zaigu. Mezu iluna ba ote dago hor? Zerbaitek huts egiten dugu? Zuzendari

begiz hasi gara leitzen. Sentitzen dugulako ez dela debaldetan ari, sentitzen dugulako zerbaitendako egina dela hori, ez duela idatzi denbora-pasa eta ezin dela denbora-pasa eman. Testuak lerroen artean tinkatzen duen gauza hori *trabesa* da antzerkilariontzat, Stanislavski errusiarrak *konfliktoa* deitzen zuena, edo itzultzaile batzuen arabera «beroa» dei daitekeena. Sozietate berria eraiki nahi delarik bide onetik da abiatu behar, ezin da zaharkituarekin ezitia izan. Bide zuzenekin hasi behar eta egia noizbait erran. Antzerkiaren errekurtsioek beztiturik erraten badugu ere.

Egia min

Antonin Artaud idazle frantziarra famatua da bere antzerkiari buruzko idazki teorikoengatik eta bereziki «ankerkeriaren antzerkia» kontzeptuaren asmatzeagatik.

Naturaltasunaren pertinentzia alde bat ukatzen du antzerkiaren posibilitateetatik botaz, jokoan du gure atenzioa biltzen edo interpretazioan, zuzendaritzaren lehentasuna du aldarrikatzen. Baina bereziki bat-batekotasunaren indarrean ikusten du antzerkiaren bihotza, berehalakotasunean, irudi bizi eta erradikal batean proposatzeko ahalean. Badu sorpresatik, bortizkeriatik, txoketik baina ene ustez biluztasuna da antzerki irudiak behar duen tasuna. Ez dugu aberea ikusi behar baina haren larruaren peko gorputza, haragi, zain eta odol, kasik sozietatearen mekanika, gezur eta iruzur barne, begi bistako agertu behar zaigu estetikak sublimaturik, eta une honetan arte solas baikabiltza, ez dut edertasuna erran nahi baina estetika, arras posible baita egia den irudia ez dadin eder izan burgesen gustu salgarriaren sentsuan.

Larzábalzaleok ulertua dugu betidanik ez dela holakorik honen antzerkian. Ez da probokazio mota horretatik deus ere, ez da gorputz biluzirik ez eta ere antzerki punkak eskaini haragi ustel aurtikitzerik. Larzábalek irriz lokarrarazten gaitu, biltzen, defentsak kamusten eta sakeleratuak garela, atzartzen gara taula gainean egia hor delarik biluzirik, bere obszenitate handiengan.

Ikusten dugu maingu dabilen jendarte bat: lege zaharra ez funtzionatzen, apezzen predikuek deus ez soleitzen, postu gorenean inertziak ezarri horien

buru huskeria, alkoholismoa, notabilismo kutre zaharkitua, boterearen erri-dikulua, fitsik balio ez duten sari batzuentzat gure auzo eta jendakikoak lurra milikatzen, estatu kolonialak haurtu nagusi usteak. Ohartarazten digu ez direla gaitz guziak kanpotik heldu, irri eginarazten digun antolaketa sozial hori gurea da, lege zaharretik ukana, baina oraingo trabesak ikusiz deusek justifikatzen ez duelarik: Bordaxuriren pakantak, buhameak, izenik gabeak, ezdeusak... mespretxu hori noren ahotik isurtzen ote da? Proiekturik ez duen pertsonaia hipokrita eta esklerosatu horren. Orain? Nora goaz ezkontza sistema horrekin? Arraberrituko dira herriak, trabes erraldoien buru eginen dute, kanpotik heldu diren hada istorioetan ere martxan ez diren araudi horiekin?

Gerlatik jin zen Larzabal eta bazekien gerla guziak direla haustura itzulezinak. Erresistentziak ekoitziak behar ukan ditu irentsi estatuaren aparatuek. Ezin diogu ihes egin merezimenduan gainean oinarritu jendarte berriari. JAC-ek fabrikatu neska gaztearen promozioa egiten du antzerkiz antzerki, eskolatua eta bere buruaz segur, noranahi joateko on, hierarkia sozialean hupatzeko gertu.

Politikaz baino harago doa. Behar dea oroitarazi *Etxahun* lehenbiziko liburukiaren erdian agertzen dela? Goiz. Hatsarretik zaunkarazten ditu Etxahuneko zakurrak, Hegiapal hor da, Engrazi besarkatzen, Etxahun pazko bezperan joan delako kofesatzera. *Bereterretxen kantoria*-n bezala... pazko bezpera... Uler dezagun biziago trabesaren indarra. Ez dugu asmatzen ahal holako agerraldi batek orduko testuinguruan zekarren eskandalua. Sufrearen kiratsa antzokian zabaltzen da. Apez batek baitu Eliza sainduari errateko kopeta jendeen arteko hitzak sakramentuak baino gehiago direla. Edo, bon laxatzen naiz hor, eztabaidagarri dela... Hasteko amodioa du berriz definitzen, mezu ebanjelikoa du hedatzen eta Bernat Etxeparek aipatzen duen *onerizte* horrek, amodio jainkotiar horrek balio du handi-mandien morroi jarri den Eliza baten sakramentuak baino gehiago.

Zakurrak xanpaka, haurrak ondoan... urgentziak uzten ditu hitzak ihes, egia isurtzen da hemen, han mozkor baten delirioak irekitzen du iturria eta entzuten dugu sekulan entzuna izan ez den demokraziaren definizio ederrena: «jendeak berdinak dira hiru aldiz beren bizian: sortzen direlarik,

hiltzen direlarik eta bozkutzen dutelarik.» Frantziaren aho zilora eta euskaraz...

Holako zerbait baita antzerkia. Jauzi hori, paperetik oholtzara. Irakurketan ikusten ez genuenak itsutzen gaitu orain. Errebelazio bat da.

Funtzionatzen da film argentiko bat bere isurkian ezartzen dugularik bezala, ikusten ditugularik irudiak emeki-emeki lausotik argira heltzen eta sorpresa horrek, argazkia kausitua delarik, ohartzen garelarik ximikatzen gaituen emozioa lanean ari zaigula, ez dela hori ulertzea soilik, harridurak gogoaren atea jo egiten du, horretan alde bat kokatzeko. Argazki horrek erakusten du alta ezagutzen genuen zerbait gure bizitzan kostumatu zertxobait. Bagenekien baina ez genuen ikusten. Begi bistakoegi zatekeen. Fama-tua da Brechten *Galileoren bizia* ekialdeko Alemanian emana izan zelarik, ikuskizuna aitzinatu ahala, metafora bezala funtzionatzen hasi zen, baina laster ez zen inkisizioaren totalitarismoa aipatzen, *Berliner*-eko salan zabaldu zen egia-arena edena, erregimenaren baliatzaile zen burgesiaren artean ihintza bezala pausatzen...

Harrigarrienak menturaz Larzabalen obran, kofesatze edo aitormen eszena haiek. Denbora haietan bizi izan direnek dakite zer ziren bestaburuen aitzineko aitortze behartuak. Non ez zen pentsatzen ahal ere zerbait gordeztea, bekatu mortala egoeran izatearen arriskuan. Zail zaigu imajinatzea apezek zekitena, bizi publikoaz eta politikaz bai, baina are gehiago familia barnekoaz, eta norberaren intimitateaz. Salatariak bestalde. Hori guziaz alabaina apezak sekretu hautsezinaren preso zirelako segurantzaren truke.

Antzerkietako fikziozko kofesatze horiek, fabrikatu eta paradigmaticoak, intrigaren beharrentzako tolestuak, egiazkoak baina indartsuagoak dira, euskal parrokia barne guziak flipaturik atxikitzeraino. Entzun dezagun Piarres Xarriton horretaz:

Jainkoak hainbestetaraino maite gaitu, non ooren buru, horren begietan ez den diferentziarik, izan giten saindu edo bekatoros, bekatoros izanagatik ere, maite gaitu, zeren, baitakigu guk sekulan pentsatuko ez duguna, nornahiren baitan, gizon horren baitan edo emazte horren nortasuna eta haren egitateak ez direla baitezpada gauza bera.

Imajina istant batez orduko erlijio zurrunik moldatu arimen erreakzioak holako errebelazio baten entzutean. Kasik non gauden ere ez jakiteraino, atzo, orain edo geroan. Eszena haluzinante horiek arraroak ez dira obran, *Paper mende*-ko hura bezala non ikusten diren funtzionarioak belauniko paper jaten ari. Delirio maoista bat *Iraultza kultural*-etik zuzen-zuzena kalkatuak. Mixel Brustin galdegin genion hortaz denboran:

Nork erranen zuen orduan, orain 2007ko urtean holako papereria eta administrazio eta istorio izanen zela?
Hark ikusten zuen

Antzerkia aztien artea dela ez zuen ukatuko ez Artaudk, ez Peter Brookek ere, zerengatik bestela joanen ziren *grioten* bila aktore lanaren betetze-ko, Brook eta Sotigui Kouyaté-ren kolaborazio luzea lekuko?

Tradiziotik sortu boz entzun eta distantziatu horiek xilarra dira antzerki-ko. Publikoak ohartu gabe ere transferra egiten du eta ematen zaio hor zabalduari pisu handiagoa. Bertsolarien hitz neurtuak, errimen klaskak, erran zaharraren indarra ematen diote testuari, entzulearen jujamendua gidatzen, egiaren oihartzuna erranari eskainiz.

Bertsolariak tradizio parateatral batean sartzen ditu Gabriel Arestik pastoraletan batean. Larzabalentzat antzerkia dira hauek bete-betean. Beretretx, Bordaxuri, Katxo, Matalas, denak dira bertsolari gordeak. Baina Larzabal ez da horretan gelditzen, ez zaizkio aski hitz soil diren pertsonaia horiek. Intuizioz oso ongi daki, esperimendu du bere panpina laborategian, taula gainak mugimendua eskatzen duela eta haren pastoral arrabisitatuetan, kostumetan pentsatu lanetan bufoiek rol nagusia dute, denak dantzaz mugitzen dira eta ditxoek akuilatzen dituzte, libertimenduetako uxerren eran.

Idatzi dut jada *Herriko bozak* esaterako, zirtziletan hartu pertsonaiez ehuna dela, errient eta butigari, eiherazain eta kridari, asto eta zozo. Zozoak zaizkit interesgarrienak, ez delarik erraz erratea zuzen zer zaizkion: ments, ero, xeble, anarkista merke, karakterialak, murrutun edo koskak, alfer okituak edo dena ere on lanari (jendarteari?) ihes egiteko, edo, azken finean, teila bat eskas bakarrik. Hots, antzerki bufoiak dira denak, *Triboulet*-en askaziak eta ausartzeak mintzarazten baditu ere, inkontzientzia, haur-

keria ez zaizkie arrotz, ez eta ankerkeria ere ez funtsean. Buhamesaren aho-berokeria *Hiru ziren*-eko Garaziko plazan edo ziburutar aho handiak *Mugari tiro*-n. Denak Europako antzerkiaren iturritik datoz, gure herri antzerkiak etxekotuak.

Larzabalen pieza askoren tonu batasun ezak arranguratzen ditu maiz zuzendari kargua hartzen dutenak. Izan Frantzian edo Espainian, formatu baikaituzte klasikotasunaren izarian eta buruan sartu, lan bat ona izatekotan tragedia edo komediaren artean hatsarretik hautatu behar dugula. Ikusizuna genero batean kokatu nahi dugu beti eta honen garbitasuna zaindu. Pastoral zahar batek irri espazio bat baldin badu, asto-laster puska zerbait txertatua izan zaiola uste da. Eta errepikatzen. Hamletek ez du alta aise ukatuko bere drama izaera, hilarrietan irri eginik ere eta Brechtek erreibindikatu du ozen agerraldiek independente izan behar dutela eta taula gaineko egoera batek bere balio propioa, taula gaineko kinkak funtzionatzen duela bakarrik testuingurutik kanpo. Ikuslea ezerosotasun batean atxiki arte. Helburua da hura preso mantentzea intseguritate batean. Ez dezan loak har.

Baina ez hori bakarrik. Mintza edozein antzerki pertsonarekin: publikoa atzarririk parean ukaitea ez zaio aski. Antzerki kausitua ez da definitzen ateratzean «ontsa zen» batekin kalifikatzen dutelarik. Ororen buru taula gainekoei berdin zaie publikoak analiza dezan positiboki, «uler» dezan sartu dugun mezua. Eta Brecht-en lanak ere ez dira idatziak helburu soil honekin. Berak nahi duena erranik ere. Antzerkilariak antzerki handiari *inpaktua*-ren sortzeko ahala eskatzen dio.

Inpaktua ez da literaturak sortuarekin erkagarri. Eleberri batean sartzten da bat, 2. orrialdean edo 108.ean. Antzerkian ere nahi bada biziki gozatzen ahal da obra bat delako «gauza» hori bizi gabe baina ez du teatroak literaturarekin egiazki hausten testutik jiten bada ere grazia une hori.

Definieztina da hau, sentitzen da, aretoan zerbait pasatzen dela. Denbora gelditzen dela. Stanislavskiren laugarren murrak leher egiten du. Ematen du batzuetan publikoa erdi zutitua dela, igan dela taula gainera, ekintzan sartua dela... Denek baditugu holako irudiak gogoan taula gainean ginelarikoak edo publikotik begiratzen eta segur naiz ez lukeela benetako antzer-

kilariak truka holako liparra taula jaustean jasaten ditugun konplimendu guzien kontra ere.

Erran zigun behin Janbattitt Etxarrenek:

Larzabal hasi zelarik ikusi genuen denek zerbait aldatu zela, ez zela gehiago antzerkia lehen bezala izanen. Izan ziren lehenago testu ederrak, idazle biziki onak, baina ematerakoan ez zen berdin. Publikoak ez zuen berdin ikusten.

Etxarren ez zuen orduko aireak engantxatu, ez du Larzabalekin kidetasun ideologikorik, ez zuen ikusiak *bere hartan* segurtatu... objektiboa zaio «zerbait aldatu» hura. Eta alferrik aipa genitzake funtsa, obren eraikuntza, zuzendaritza, taula gainean jokatzeko baita ezberdintasun hori. Horrek du egiten gure gizartea hain aldatua izanik ere, euskal hiztunak eta ondorioz antzezleak hain aldatuak izan arren, funtzionatzen dutela beti testu batzuek, agerraldi beren bihurgune berean, sortuak direlako delako inpaktuaren eragiteko. Funtzionatu dute eta egingen, jokalarien eskasaren gainetik ere. Xarma, onespina, gurea delako, transmisio bideak leherturik ere etorkiak gaitu lotarazten?

Emile Larre zena Urruñan egon zen bikario eta ondorioz harreman estua eduki zuen Zokoan erretore zegoenarekin. Bakarretan laudatu digu haren erraztasuna, hitz jarioaren oparotasun eta elegantzia, iturria zion, pertsonaiei solasaren egokitzeko naturaltasuna. Behin galdegin nion literaturan ikusten zionez dohaina, testuan berean zegoenez haren ustez lapurtarraren abantaila. Arras harena zen irri ironiko hura jalgi zitzaion baigorriarrari, ageri zen oroitzapen eder bat azaleratu zitzaioela eta:

Imaginazione bat izigarria. Ikusi dutalarik Urruñako plazan, zer zen? Kontrabanda istorio ez zena hura? Ezarri zituen behar bada hamabost aktore edo, oihana zen hori, bakoitzak bazuen arbola adar bat, oihanean ziren! Eta gero horien gibelean bertzeak gordatzen,... eta itzulikatzen eta guardak eta... imaginazione bat... eta sinpleki gero! Ez da ibili hortako edo Bordeleko teatroan edo... jantziketa edo istorio... ez ez! Berak egin trapu batzuekin.

(Hemen segur naiz Baionako antzokiko *Matalaz* zuela partida, eta ez zen bidez tronpatzen Larre bere asaldatzean, hor zitatzen duena Baionako konkista baino gehiago baita, antzerki artearen definizioa bera.)

Larrek zitaten du hemen Meyerholden «konbentzio kontzientea», matematikak bezala funtzionatzen du. Axioma pausatzen dugu: hemen 15 horiek oihana garela deliberatzen, eta bat-batekotasunak egiten du istantean sinesten dugula eta ondotik biziaren lege berberak aplikatzen baditugu guri so dauden guziak oihanera eramanez dira, ez gure baina haien imajinazioari esker. Ekintzan sartuak dira. Politza da ohartzea, ez dela batere oroitzen gaia zer zen, zer zuten erran nahi, badakike, baina hamarkada pasatu ondoren beti han da oihana, Urruñako plazan. «Berak egin trapu batzuekin» Grotowskiren «antzerki pobrea». Jokalariak ez du joan behar kanpoko artifizioen xerka, antzetzu ezinaren konpentsatzeko, zinemari uzten dio errealismo merke hori. Biziki urrunago joan gaitezke hori gabe ere. Urrunago jendeen kontzientzietan.

Oihan hura ezaguna bazaie, guarda eta kontrabandistak auzo eta etxe-koak badira behintzat. Etxekoa edo gure baitakoa bada taula gainean agertzen dena. Baldin badakite antzezleek uzkur egoten esplikatzeari. Misterioa edo enigmaren partea dilindan uzten badugu kadiratik altxa daitezke eta ekintzan sar. Kasik lege fisikoak apur ditzake antzerkiak.

Zitatu ditut bakarretan, *Mugari tiro*-ko guarda zibila saskipean preso edo Ibañetako tortura, lasto hedatuz errearen urrina konbokatzen baitzuen salara Larzabalek asmatu antzerki metafora jeniala gisa... Ez da haatik Basabeltzeko kandelena itsusiagoa. Edmond erresistentzian ari da, segur da bere aitak salatu duela alemanei, ama trantsitua da etxean makur bat jin daki... Lau xirio pizten ditu etxeko lauen biziaren zain.

Ordu hartan ez da salan nehor ez baitu ikusi ama, ttantta, edo auzoa elizan ezkoa bere saski ttipian pizturik. Denek dakite erleek ekoizten duten ekai berezi horrek arima izateko ahala duela eta beraz lau kandela horiek bizi direno bizirik direla lauak. Edmondek aita tiroz bota du, denek dakite amak salbu. Nehork ez du bihotzik aski horren errateko ezta Edmondek ere, alta erakutsi duelarik honek kuraia izugarria Frantziaren etsaiaren aitzinean. Hurbiltzen da, eriak bustitzen eta xirioa hiltzen. Amak burua apaltzen du.

Aizto ukaldia biltzen dute aretoko guziek. Ez da deus ederragorik egiten ahal antzerki artean pastoral heriotza hori baino. Ez du amesten ahal antzer-

ki idazle batek gehiago osmosian izatea bere publikoarekin. Hau da Jacques Lecoq formatzaile frantsesak aipatu «fondo poetiko komun»aren konbokatzea. Eta kausitzea.

Sorgin lana da. Izutzekoa bada kadiran aditzen delarik profeta ekintza hori. Ez da gure antzerkia, edo ez bakarrik, egina propaganda egiteko. Antzerkiak behar du mintzatu sinesten dutenei eta sinesten ez dutenei, Brechtek berak zioen bezala.

Antzerkilaria lemazaina da eta eraman behar ditu denak berekin portura, salburik. *Basabeltz*-en baina Ibañetan ere bai, irakurtzen zaio Larzabali Euskal Herriaren zatiketaren beldur obsesionala. Roger Idiart zenak zioen hori ulertu zuela FFIEk anaia garbitu ziotelarik bentetatik itzultzerakoan. Populu bat gara eta euskara dugu loki. Euskaraz mintzo diren guziak gureak dira eta haiei dizkiegu kontuak zor.

«Hau ote da giltza? Larzabal hurbiletik ezagutu dutenek gogoan atxiki dute Peixotorentzat zeukan maitasuna. Galdegin nion honi behin «Zergatik idatzi du hori guzia? Zer eskatzen zion antzerkiari zure ustez?»

Berari min ematen diona, eta hori ez da ustea, zergatik, hori esplizitoki errepikatzen zuen, edozein unetan azaltzen zen gaia zen, bi gai badira garrantzi handikoak: injustizia, eta injustiziaren barruan, injustizia hori non herri bat gu bezala ukatuak geran. Eta, lehen hori aipatu degu: nola pobreak eta baztertuak eta jende erorien baitan aurkitzen den aberats handi mandiengan atzematen ez den argia. Jendea baita. Kentzen ditu porroskila guziak, zikin eta zauri guziak: jendea!

Hemen Agosto Boalen *Zapalduaren antzerkiak* ari da. Hemen beren kulturaren lehertuak direnei beren kulturaren bidez duintasunaren berreskuratzeaz ari gara. Ez du erraten «Altxa hadi eta ibil!» baina «Altxa hadi, taula gainera igan eta mintza.» Mintza euskaraz. Larzabalen antzerkiak gerla haren ondotik 10 urte barne desagertu behar zen euskararen orgak arrolatik atera ditu, belaunaldi oso bat formatu alfabetatu, barnetik egituratu. Antzerkia tresna da gure duintasunaren eraikitzeko, jende bilakatzeko, munduaren tramankulu guzien ikusteko eta borroka hasteko. Hor gebarismoaz mintzo gara, Brechten poemez, hemen ortutsik dabiltzanen gidari egiten da,

eta Helder Camararen «askapenaren teologia» du predikatzen. Julen Le-
kuonaren gitarrak *Eliza pobrea* laguntzen duelarik.

Ez da harat ez honatik, ez da antzerki otzanik posible. Ez da antzerkia
baizik, antzerkia beti jenio txarrekoa baita, bortitz eta intsumiso. Larzabalen
testuak irakurtzean beti ondoriotzat atera zait Larhungo betizuak zirela ha-
ren totema baina orain iduri zait, haren antzerkiaren metafora ere direla.
Siple, soraio, azal gorrasta eta adar zorrotz, baina beren ingurumenean
dabiltzalarik nork ukatuko du ez dutela berek baizik ez duten edertasun
hunkigarri bat.

Zaintzen badira, handi-mandikeriak ez bagaitu eramaten beste nonbait
haztera, eta tratu zikinetan aritzera.

Larzabalen oroitzapenak beha:

Baina kanpotiarrak Larrunen hegal ederrez oharturik, batzu oinez,
bertzeak mandoz, azkenak tranboz, gure mendiaz jabetu ziren (...)

Zenbaitek adar kaska batzu bildu zituztelakotz, legea atera zuten
behar zirela betisoak suntsitu... eta denak tiroz garbitu zituzten, az-
kena Uharteko ondoan...

Antzerkia aztien artea da.



XX. Jagon jardunaldiak: Euskara hedabideetan
2015eko azaroaren 20an

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Kronika

Azaroaren 20an, Akademiaren Sustapen batzordeak antolatuta, XX. Ja-gon Jardunaldia egin zuen Euskaltzaindiak, Bilboko egoitzan, «Hedabideak euskararen sustapenean» gaiaren inguruan. Jardunaldiotan euskal komuni-kabideek euskararen sustapenean jokatzeko duten rola aztertu zen.

Gaia hiru multzotan aztertu zen:

- Hedabideak eta hizkuntza politika. Patxi Baztarrikak, Mikel Arregik eta Bernadette Soulék parte hartu zuten. Andoni Egaña izan zen moderatzailea.
- Hedabideen egitasmoak. Alaitz Artolazabal, Martxelo Otamendi, Iñaki Guridi eta Jose Luis Aizpurua izan ziren hizlariak, eta Marijo Deogracias moderatzailea.
- Hedabideen kanpoko begirada. Mahai-ingurua egin zen, solaskide hauekin: Leire Palacios, Beatriz Zabalondo, Aingeru Epaltza eta Alberto Barandiaran. Aitor Zuberogoiak moderatu zuen.

Kronika labur honen bitartez jardunaldiak zer eman zuen argitaratzen da. Horrekin batera Patxi Baztarrikak emandako hitzaldia atal honen ostean artikulua gisa aurkituko duzu. Hirugarren multzoari dagokionez, mahai inguruaren gaia ardatz harturik Aitor Zuberogoiak HEZIKOM ikerketa taldeko beste kide batzuekin batera «Euskarazko hedabidea. Datuak erakusten du-tena» ikerketa artikulua idatzi dute eta Euskaltzaindiak bere agerkariko ikerketa zenbakian (*Euskera* 2015, 2, 673-698 or.) argitaratu du.

Hedabideak eta hizkuntza politika

Lehenengo multzoan «Hedabideak eta hizkuntza politika» gaiaz aritu ziren Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikorako sailburuordea, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuako Euskarabidearen zuzendari nagusia eta Bernadette Soulé Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) zuzendaria.

Andoni Egaña bertsolari eta euskaltzain urgazleak moderatzaile gisa, hiru solaskideek gai batzuk jarri zituzten mahai gainean.

Patxi Baztarrika

Baztarrikak hiru galdera nagusi egin zituen: zergatik dira garrantzikoak euskarazko hedabideak euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko jardunean?, zein da Eusko Jaurlaritzaren jarduna euskarazko hedabideen sustapenean?, zein da euskarazko hedabideen erronkei buruz guk dugun ikuspegia eta, ondorioz, zein da indartu asmo dugun ildo?

Esan zuenez, «hizkuntza bizia izatea da erronka, hil ala bizikoa da, eta horretarako hedabideetan nor izatea da funtsezkoa». Euskara gizartean eta euskara hedabideetan, txanpon baten alde bi direlakoan dago: euskara zenbat eta sendoagoa agertu hedabideetan, orduan eta handiagoa izango da bere presentzia gizartean. Eta alderantziz.

Hizkuntza Politikorako Sailburuordetzak ematen dituen diru-laguntzak aipatu zituen: «Ez dugu ezagutzen –azpimarratu du– tamaina horretako ahaleginik, beste hizkuntza minorizatuena kasuetan». Bestalde, euskarazko hedabideen kontsumoa areagotzea egingarria dela esan du. «Euskara=txikitasuna=berezko desabantaila gainditu beharreko ekuazioa da» esan ostean, eraginkortasuna eta pluraltasuna errespetatu behar direla defendatu du, «hedabide mota guztiak direlako inportanteak. Erabiltzaile errealek sustatzea –gaineratu du– da erronka».

Mikel Arregi

Mikel Arregik, Nafarroak azken urteotan bizi izan duen egoerari begirada bota zion: aurreko Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen

diru-laguntzak gero eta urriagoak izan ziren, eta azkenik, ezerezean geratu ziren.

Hortaz, gaur egun Nafarroako Gobernua egoera aztertzen ari da. Arregik esan zuen bezala, hedabideak komunitate baten bizitzaren transmisoreak dira, beraz, oso garrantzitsuak dira. Hori horrela, aurrera begirako aurreikuspenak: Administrazioaren eta hedabideen arteko lankidetzaren oinarriak finkatzea, diru-laguntzen Foru Legeak ezarritakoa aintzat hartuz; euskarazko komunikabideen eragina aztertzea.

Euskarabideak Plan Estrategikoa egin behar du, eta horren barruan komunikabideek atal zehatza izango dute. Ondoren, aurreikusten diren erronkak edota zereginak aipatu zituen: aztertzen ari dira komunikabideekin hitzarmenak egiteko aukera; laguntza-politikak indartzea; hedabideen arteko lankidetzak (Hekimen, Tokikom, Nafarpress). Oro har, euskarazko komunikabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatze da helburuetako bat, eta horretarako erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzak bultzatu nahi da.

Bernadette Soulé

Bernadette Soulék «Iparraldean euskarazko prentsa, irratigintza eta telebista neurri handian elkarrekin segurtatzen» dutela adierazi zuen eta Euskal Irratiak Federazioa osatzen duten lau irratien garrantzia argi utzi zuen: «Funtsezko papera betetzen dute Iparraldean euskara etxeetan hedatzeko». *Herria* astekariak, EiTBk, Aldudarrak Bideo web telebistak, Radio Kultura web irrati elebidunak, Kazeta.info agerkari digitalak eta *Berria* egunkariaren *Iparraldeko Hitza* paperezko astekariak osatzen dute euskarazko prentsaren eskaintza.

Adierazi zuenez, EEPren Hizkuntza politika proiektuak «hedabideak lau garen erronka gisa jartzen ditu. Alabaina irratiek, telebista, aldizkariak, eta web hedabideak tresna eraginkorrak dira hizkuntza hedatzeko etxeetan, jendartean eta bereziki gazteengan. Oro har hizkuntza paisaiari euskal itxura ematen dio, euskaraz hitz egiteko motibazioa indartuz».

Bi helburu eta sei norabide estrategiko finkatuak dira :

- Euskarazko hedabideen eskaintza osatu: a) euskarazko hedabideak indartuz, b) euskararen lekua zabalduz oraingo hedabideetan, c) eskaintza berri bat asmatuz.
- Hedabideak erabili euskara ikasteko eta hobetzeko: a) euskararen kalitate maila goratuz, b) irakaskuntza lagunduz, c) gazteak parte hartzera gomitatuz.

EEPk euskarazko hedabideekin hitzarmenak sinatu dituela esan zuen, eta hitzarmen horien guztien aipamena egin du. Azkenean, hedabideen eremuan, EEPk orain arte ukan duen politika partziala izan dela esan zuen. Hortaz, «hedabideen alorrean eramaten den ekintza publikoak, egituratze hobe eskatzen du, parte hartze handia, erronkaren heineko giza baliabideak ukaitea».

Hedabideen egitasmoak

Marijo Deogracias kazetariak moderatzaile lana egin zuen eta Alaitz Artozabal Tokikometro zuzendariak, Martxelo Otamendi *Berriako* zuzendariak, Iñaki Guridi EiTB Irrati taldeko zuzendariordeak eta Jose Luis Aizpuru Euskal Irratiak Federazioko erredaktoreburuak hitz egin zuten.

Tokikom

Tokikom toki komunikabideen bilgunea da. 26 bazkide, 60 komunikabide eta 169 langile biltzen ditu. Hortaz gain, 650 laguntzailek dihardute. Alaitz Artozabalek adierazi zuenez, honako erronkak aurreikusten dituzte: «hiperlokaltasunean oinarritutako zerbitzu eskaintza areagotzea komunitari balio erantsia eskainiz eta balio erantsi hori komunikabidearekiko atxikimendu bilakatuz; segmentu, batez ere adin segmentu, berrietara ahalik eta hoberen heltzea; interneten lan egiteko forma eta negozio eredu aldaketza».

Bestalde, «herri ekimeneko zentzua betiere oso presente edukita baina lehiakortasunaren ildotik, kudeaketa aurreratuari begira jarri nahi dugu.

Hedabideek elkarrekin formakuntza prozesu bat hasi behar dute. Enpresa ikuspegia landu nahi dugu, gure hedabideen epe luzeko bideragarritasuna landu euskarari inbertitzen jarraitu ahal izateko». Azkenik, tokiko beste komunikabide batzuekin batera, «lehiakorragoak bihurtuko gaituen sare bat osatu» nahiko luketela esan zuen.

Berria

Martxelo Otamendik datu batzuk eman zituen: *Berria* egunkariaren zenbat ale saltzen diren –batez besteko, 12.800–, zenbat harpidetzaren bitartez (%73), zenbat kioskoan (%23). «Etxeko harpidetza –aitortu zuen– oso tresna baliagarria da guretzat». «*Berria* laguna» figuraren garrantzia aldarrikatu du ondoren –«gure izarretako bat»– eta, gastuen kontrolarekin batera, ideia berrien presentziak izan duen eraginaz aritu da.

Hala, teknologia berrien etengabeko apustua, webgune indartsua, saketako telefonoan kontsultatzeko egokitzapenak... *Berriki* astekari digitala zabaltzeari ekin dio *Berriak*; eta, Otamendik esan duenez, abenduan hasiko dira eguneko 10 albiste aukeratzen eta zabaltzen, egunak eman dituenen laburpen gisa.

Era berean, teknologia berrien erronkaren inguruan hausnarketa interesgarria egin zuen: lehen, irakurleak *Berriaren* webgunean sartu eta egunkaria, bere osotasunean, zeukan eskura. Orain, azpimarratu du, lagun batek igorritako txio baten bitartez, esteka baten gainean sakatu eta albiste soil bat irakurtzen dute askok. Irakurle askok, beraz, egunkariaren ikuspegi partziala, murriztua, dute. Horra hor beste erronka berria.

Diru-laguntzen inguruan ere aipamena egin du: txikiaren kaltetan ez ote diren banatzen. Galdera hori jarri du mahai gainean.

EiTB Irrati Taldea

Iñaki Guridiren esanetan, «euskarazko komunikabideek, gure kasuan euskarazko irratia, inoizko aukera aldi oparoena bizi du. Euskararen eza-

gutzak gora egin duela diote azken urteetan egin diren soziolinguistika azterketa guztiek, eta pozik egotekoa da hori. Egia da erabilerak sortzen duela kezka, eta kezkatzekoa da. Baina komunikabideek aukera aldia bizi dute, inoiz baino audientzia potentzial handiagoa baitute».

Horiek horrela, «kezkatzen gaitu euskara zuzen erabiltzeak». Are gehiago: «Asko kezkatzen gaituen puntuetako bat euskararen zuzentasuna eta egokitasuna behar den moduan uztartzeko gaitasuna izatea. Zuzena izateari uko egin gabe, hizkuntza funtzionala erabiltzea ere erronka dugu: erabilgarria, komunikatzen duena, erakargarria. Hori lortzen ez badugu, alferrik dugu munduko hizkuntzarik zuzenena erabiltzea. Eskaintza zirrargarri ugari aurki ditzakete gure entzuleek erraz asko beste ulertzen dituen beste hizkuntzetan».

Euskal Irratiak Federazioa

Ondoren, Jose Luis Aizpuruak azaldu zuen zer den Euskal Irratiak Federazioa. 1997an sortu zen, «irratien elkarlana hobetzeko eta botere publikoen aurrean ahots bakar bat agertzeko, azpiegitura teknikoa garatzeko, formakuntza lantzeko langileen artean, denak autodidaktak baitziren. Ipar Euskal Herrian garai berezia bizi zen, Iparraldea osotasunean hartzen zuten elkarte edo sasi-instituzioak sortu ziren».

Urteetan euskarazko irratiek «ez zuten inolako laguntza publikorik izan ez Pirinio Atlantikoetako departamendutik, ez eskualdetik. Sostengu bakarra entzuleena eta herriena izan zen. Euskarazko irratiak, irradi profesional eta serioak izaten ahal zirela ere erakutsi behar izan zuten garaiko kudeatzaileek, eta gainerakoek bezala, laguntzak eskuratzeko eskubidea zutela, interes publikoko informazioa hedatzen zelako, euskaraz; euskaldunek ere eskubidea zutela informazio hau izateko eta euskaraz».

Bere hitzetan, «irratien garapena ikaragarria izan da. Sei bat langile izatetik, 28 izatera pasa gara, laugarren irradi bat sortu zen 2005ean, Antxeta Irratia, mugaz gaindiko lehen irratia, Hendaia, Hondarribia eta Irun artean».

Mahai-ingurua

Mahai-inguruari dagokionez, Aitor Zuberogoitia Mondragon Unibertsitateko irakasleak moderatu zuen. Hizlariak honako hauek izan ziren: Leire Palacios kazetaria, Beatriz Zabalondo EHUko irakasle eta Berria Taldeko Administrazio Kontseiluko presidentea, Aingeru Epaltza idazle, itzultzaile eta kazetaria eta Alberto Barandiaran kazetari eta Hekimen euskal hedabideen elkarteko zuzendaria.

Mahai-ingurua hiru zutaberen inguruan ardaztu zuen Zuberogoitiak:

- Kausa-efektu harremanak ote daude hizkuntza gutxituetako hedabideen jardunaren eta hizkuntza normalizazioaren artean?
- Eusko Jaurlaritzak oraintsu ezagutarazi ditu euskarazko komunikabideen kontsumoari buruz eginiko ikerketaren emaitzak
- Euskarazko komunikabideen artean, elkarlana sustatu/bultzatu/indartu beharko litzateke?

Elkarlanaren aukera, kalitatearen beharra... gai ugari aipatu ziren eta autokritikarako unea ere egon zen.

Egunari amaiera emateko, Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Erramun Osa idazkariak ondorioak irakurri zituzten.



Irakurleak eta ikus-entzuleak epaile. Euskarazko hedabideen euskararen erabilerarako eraginkortasunaz

BAZTARRIKA, Patxi

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen sustapenerako dituen ardatzak eta aurrera begirako aurreikuspenak ditut ondorengo lerroetan kontakizun eta hausnargai. Nire gogoeta soilik hizkuntza politikaren ikuspegitik egina da, hots, euskarazko hedabideek euskararen erabilerarako duten eta izan dezaketen eraginkortasunaz ari naiz. Uste dut, euskararen presentzia hutsetik harantzago, euskararen erabilera egiazki sendotzeko eta areagotzeko balio izateak ematen diola zilegitasuna herri-aginteez arlo honetan egiten duten inbertsio publikoari.

Honako hiru galdera hauei erantzunez antolatu dut gogoeta: 1. Zergatik dira garrantzikoak euskarazko hedabideak euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko jardunean? 2. Zein da Eusko Jaurlaritzaren jarduna euskarazko hedabideen sustapenean? 3. Zein da euskarazko hedabideen erronkei buruz guk dugun ikuspegia eta, ondorioz, zein da indartu asmo dugun ildo?

Euskarazko hedabideen euskararen erabilerarako eraginkortasunaz

«Euskara eta euskarazko komunikabideak» hizpide hartuta, eta Euskaltzaindiak antolaturik, hainbat hitzaldi eta mahai-inguru bildu zituen jardunaldia izan zen 2015eko azaroaren 20an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitza nagusian. Han jardun ginen euskararen lurraldeetan hizkuntza politikaren ardura dugun Bernadette Soulé, Mikel Arregi eta hirurok, Andoni Egañak «ordenatuta», Euskal Herriko herri-aginteek euskarazko hedabideen arloan garatzen dugun hizkuntza politikaren gainean, pozik eta gustura Euskaltzaindiak emandako aukera –eskertu nahi dudana– baliatuz. Aipatu hitzaldian esan nituenak jasotzen dira artikulu honetan, bizpahiru datu eta albo-oharren bat edo beste gehiturik.

Euskararen erabilera gizarte-bizitzan sustatzeko politika eraginkorrak diseinatu eta gauzatzea da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren erantzukizuna eta eginbeharra. Hain zuzen ere soilik helburu horrekin –ez besterekin– begiratzen diogu euskarazko komunikazioaren esparruari eta, beraz, baita euskarazko hedabideei ere. Hizkuntza Politikarako sailburuorde naizenez, aipaturiko helburua iparrorratz harturik Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideekiko dituen hizkuntza politika eta ikuspegiaren berri eman nuen aipatu hitzaldian, eta ematen dut artikulu honetan.

Aipatu mahai-inguruko mintzaldiari ekiterako argitu nuen kontu bera argitu behar dut artikulu honen hasieratik bertatik: euskara eta euskarazko hedabideak da antolatzaileek jarritako aztergaia. Beraz, gogoetagai ditudanak ez dira gure gizarteko hedabideak oro har eta haietako euskararen presentzia eta erabilera, baizik eta euskarazko hedabideak. Azken hauek baka-rik. Horrexegatik, irakurleak ez du artikulu honetan aurkituko, esate baterako, gaztelania nagusi duten hedabideetako agerkari digitaletan euskarari leku propioa egite aldera garatzen dugun hizkuntza politikari buruzko erreferentzia eta gogoetarik. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen sustapenerako dituen ardatzak eta aurrera begirako aurreikuspenak ditut ondorengo lerroetan kontakizun eta hausnargai. EITBri buruzkoak ere gogoeta hauetatik at utzi nituen mintzaldian –baita, beraz, artikulu honetan

ere-, hain zuzen ere jardunaldi berean EITBri buruzko mintzaldi bat berariaz aurreikusita zutelako antolatzaileek.

Gogoeta honetarako ikuspegia: euskarazko hedabideak eta euskararen erabilera

Ikuspegi ezberdinetatik begiratu dakieke hedabideei: jarduera ekonomi-koaren ikuspegitik, ikuspegi enpresarialetik, produktuaren ezaugarrietatik... hainbat ertzetatik begiratu dakieke. Nire gogoeta, ordea, soilik hizkuntza politikaren ikuspegitik egina izango da. Beste hitz batzuetan esanda, euskarazko hedabideek euskararen erabilerarako duten eta izan dezaketen eraginkortasunaz da nire gogoeta.

Izan ere, bestelako hainbat ikuspegiren legimititatea onartuta ere, kon-tuan izan behar da helburu bakar batekin egiten duela Jaurlaritzak Hizkun-tza Politikarako Sailburuordetzatik euskarazko hedabideak sustatzeko egi-ten duen ahalegina: euskararen erabilera zabaltzea eta sendotzea, eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzea; hori da, ez besterik, interes publikoa due-na. Euskararen erabilera da, kasu honetan, herri-aginteeek babestu behar duten interes publikoa, eta horretarako baliatzen ditugu arlo honetan diru publikoak. Esan nahi da, euskararen presentzia hutsetik harantzago, euska-raren erabilera egiazki sendotzeko eta areagotzeko balio izateak ematen diola zilegitasuna herri-aginteeek arlo honetan egiten duten inbertsio publi-koari.

Honako hiru galdera-erantzun hauen inguruan antolatu dut gogoeta:

1. *Zergatik dira garrantzizkoak euskarazko hedabideak euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko jardunean?*
2. *Zein da Eusko Jaurlaritzaren jarduna euskarazko hedabideen sustape-nean?*
3. *Zein da euskarazko hedabideen erronkei buruz guk dugun ikuspegia eta, ondorioz, zein da indartu asmo dugun ildo?*

Euskarazko hedabideen garrantzia euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko jardunean

Badira urteak ondo asko jabetu zirela, euskarari hedabideetan lekua egiteak eta euskarazko hedabideak izateak euskararen sustapenerako duten garrantziaren tamainaz. Jabetu zirelako ezarri zituzten azken hamarkadotan egin dena egiteko ezinbestekoak diren legezko oinarriak. Adibidez, 1979ko Autonomi Estatutuaren 19.3. artikuluan oinarrituta, hedabide propioak sor ditzakete euskal herri-aginteez: EITB, esate baterako. Eta, 1982ko Euskararen Legean, alde batetik, herritarrei aitortzen zaie informazioa eta hedabide ezberdinetako emankizunak euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea, eta, bestetik, euskararen presentzia hedabideetan hazteko neurriak hartzeko obligazioa ezartzen zaio gobernuari. Sustapen politikarako eta araugintzarako legezko oinarriak finkaturik utzi zituzten horrela, duela 33-36 urte.

Informazioaren eta komunikazioaren garaia izatea da gure garai honen ezaugarri nagusietariko bat. Informazioa eta komunikazioa dira gaur, sekula izan ez diren modu eta neurrian, komunitatearen lokarri eta komunitatearen «konstruktore». Aldi berean, euskarak, indarberritzen jarraituko badu, behar duena da guk geuk euskara *beharrezkoa* sentitzea eta hizkuntza beharrezkotzat hartzea, hiztunak eta erabiltzaileak izatea alegia. Gu geu baikara euskara hizkuntza bizia izatearen bermerik sendoena. Gaur egun hiztunen premia nagusietariko batzuk –dela informazioa, dela entretenimendua– hedabideen munduan gauzatzen direnez, hain zuzen ere horregatik aurkitu behar du hor ere bere tokia euskarak. Mitxelenak esango zukeen «iraupena eta hazkundera segurtatzeko behar adinako tokia» hedabideen munduan ere. Hiztunen komunikazio-premiak eta apetak eta bizi-orduak non, han behar du behar besteko tokia hartu euskarak.

Gehiagotan esandako hau errepikatzen noa: egia da edozein hizkuntza desager daitekeela, edozein, baina bizpahiru belaunalditara begira, euskararen biziraupena ez dago jokoan. Jokoan dagoena da euskararen bizi-indarra, ez baitago bermaturik estrukturalki bigarren mailako hizkuntza subordinatua ez izatea, ez baitago bermaturik gaur egun euskarak eta gaztelaniak duten gizarte-desoreka ez kronifikatzea. Hizkuntza bizia eta erabilia izatea da

jokoan daukaguna. Ez baitago bermaturik, euskarak, hizkuntza bizia izango bada, nahitaez bete behar duen baldintza zein neurritan beteko den: erabilerari dagokionez, *adin nagusiko hizkuntza* izatearen baldintza, hain zuzen ere.

Aipatu erronka hori gainditzeko funtsezkoetan funtsezkoa familia, lagunarte eta inguru hurbileko komunitatean hizkuntza bizia eta erabilia izatea baldin bada ere (beste zenbait autoreren artean, Mitxelenak berak azpimarratu zuenez), funtsezkoa hori bada ere, ez da nahikoa; horrekin batera nahitaezkoa da, euskararen bizi-indarrarentzat eta bere hazkunde iraunkorrarentzat, hedabideetan nor izatea. Eta nor izate hori, kontsumitzaileen, irakurleen, ikus-entzuleen onarpen praktikoaren esku dago. Irakurle eta ikus-entzuleak dira epaile. Pernandoren egia da hedabiderik eta produkturik gabe ezinezkoa dela kontsumoa, zer kontsumiturik gabe ezin baita ezer kontsumitu, baina hori bezain egia da, gure ustez, kontsumorako aukerak direnak direla, kontsumorik gabe ez dagoela euskararen erabilerarako eraginkortasunik. Erabilerarena baita honetan ere giltzarria.

Euskarak gizarte-bizitzan oro har duen erabilera eta euskarak hedabideetan dituen presentzia eta kontsumoa txanponaren alde biak dira. Esan nahi da, zenbat eta sendoagoa izan euskararen presentzia eta kontsumoa hedabideetan, orduan eta sendoagoa izango dela euskararen erabilera gizarte-bizitzan, eta, alderantzizkoa ere bai: zenbat eta handiagoa izan euskararen erabilera soziala, espero liteke orduan eta handiagoa izango dela euskarazko hedabideen hedadura eta euskararen erabilera hedabideetan. Elkar elikatzen duten eta bata bestearengandik bereizi ezin diren kontuak dira bi-biak.

Euskarazko hedabideez ari garenean, jakina, hizkuntza eskubideak errespetatzeaz ari gara. Eta hori bera, besterik gabe, ez da gutxi. Baina ez gara horretaz bakarrik ari. Horretaz gain ari gara, batetik, euskal hiztunak hiztunago egiteaz; bestetik, euskal hiztunen komunitatea trinkotzeaz; eta, bide batez, hizkuntzaren estandarizazioa zabaltzeaz eta hiztunen hizkuntza baliabideak trinkotzeaz.

Daukagun erronka nagusia, euskara ahalik eta gehienek ahalik eta gehienetan, edozertarako eta ohikotasunez, erabilia izatea da. Gero eta euskaldun gehiago gara, gero eta elebidun gehiago, alegia. Elebidun horietako

askorentzat, ordea, bigarren hizkuntza da euskara. Zenbat eta gaitasun handiagoa izan euskaraz, orduan eta gehiago erabiliko dute euskara, eta, era berean, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gaitasun handiagoa izango dute euskaraz. Gurpil horretan, euskararen erabilera areagotzeko ardatz eraginkor garrantzitsua izan litezke hedabideak.

Esandako guztiagatik, hedabideena ere bada, beste zenbait eremurekin batera, ezein hizkuntza politika eraginkorren erdigunean jarri eta garatu behar den erronka. Erabilera baita helburu eta termometro, eta hitzuna baita –irakurlea eta ikus-entzulea, kasu honetan– erdigunean dagoena. Beste hitz batzuetan esanda, produktua izan beharrean, produktuaren kontsumitzailea da xede eta protagonista.

Eusko Jaurlaritzaren jarduna euskarazko hedabideen sustapenean

Jakina da aztergai dugun kontu honetan garrantzi handi-handia duela euskarazko hedabide nagusiak, EITBk. Hasieran aurreratu bezala, ordea, ez noa EITBri buruzko jardunaz aritzera, jardunaldi berean berariaz jorratu baitzuen gai hori EITBren ordezkari batek. Euskarazko hedabide pribatu eta ekimen sozialekoen arloan jarriko dut, beraz, begirada.

Eusko Jaurlaritzaren jarduna euskarazko hedabideen sustapenean aspalditxotik dator: ez bakarrik EAEn, baita Nafarroan eta Iparraldean ere, nahiz eta ahaleginik handiena EAEkoa izan.

Badira 24 urte, 1991n, euskarazko hedabideentzako diru-laguntzen politikari ekin ziola Eusko Jaurlaritzak. Ordukoak dira Jaurlaritzaren arlo honetako lehenbiziko diru-laguntzak. Baina urteotako diru-laguntza politikaren argazki moduko bat azaldu aurretik, uste dut merezi duela azpimarratzea diru-laguntzen bidetik ez ezik, beste zenbait hari-muturretatik ere heldu diola Jaurlaritzak gai honi urte guztiotan. Adibidez, 2006-2009ko urteetan, Jaurlaritzak berariazko laguntzak eman zituen euskarazko hedabideak bideragarriago egiteko planak sustatzeko; UKAN publizitate saria ere sortu zuen; euskarazko hedabideak ikusgarriago egiteko publizitate kanpainak egin zituen; toki telebista guztietan euskarazko eskaintza bermatzera zuzendutako irizpideak finkatu zituen lehiaketa publikoko pleguetan; euskarazko hedabideak eta euska-

raren presentzia hedabideetan aztergai izan zuen batzorde berezi bat sortu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan (lan bikaina egin zuen batzorde hark, bide batez esanda), eta hainbat azterlan egin zituen: «Euskarazko hedabideak» azterketa 2006an; CIES enpresari berariaz enkargatuta eta ordainduta «Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa» 2007an; «Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlana», eta «Euskarazko komunikabideak erabiltzeko eragingarri eta eragozpeni buruzko azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa», hauek biak 2007an ere.

Oraintsu, 2015ean, euskarazko hedabideen kontsumoari buruz inoiz egin den azterlanik sendo eta zabalena egin du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Horko datu batzuk geroxeago aipatuko ditut.

Jaurlaritzaren jardunean nabarmentzen dena diru-laguntza politika da, bereziki nabarmena kontuan hartzen baditugu bere neurria eta gurearen antzeko hizkuntzak dituzten herrialdeetako diru-laguntza politikak.

1991n, diru-laguntzen lehenbiziko urtean, zortzi hedabidek jaso zuten laguntza, guztira 144.000 euro (18.000na euro, batez beste). 2015ean 85 hedabide eta 142 produktu izan dira diru-laguntza jaso dutenak. Guztira, 5.042.219 euro. Zehatzago esanda, guztira 5.170.919 euro izan dira, Iparraldeko euskarazko hedabideentzako jarritakoa barne.

Beraz, 2015eko euskarazko hedabideen kopurua 1991koan halako 10,6 izan da, eta hedabide horiek jasotako diru-kopurua 1991n jaso zutena halako 35 izan da. 2015. urteko bost milioi euro pasatxo horretatik, 4.962.225 euro hedabideen diru-laguntza deialdiari dagozkio, eta beste 80.000 euroak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako deialdian hedabideek beren produktueterako jaso dutenari.

Bost milioi euroren bueltako laguntza hauen hartzaileak nagusiki EAEko hedabideak izan dira, baina ez soilik: Nafarroako hedabideek 260.507 euro jaso baitituzte Eusko Jaurlaritzaren 2015eko deialditik.

Ipar Euskal Herriko euskarazko hedabideentzako diru-laguntzetan ere bere ekarpena egiten du urtez urte Jaurlaritzak. Euskararen Erakunde Publikoarekin lankidetzat hitzarmena dauka 2005az geroztik, bi aldeek urtez urte berritzen dutena. Hitzarmen horren parte bat da bi aldeon artean osa-

turiko lankidetzafondoa. Fondo horretan, 2015ean, aurreko urteetako moduan, % 25 jarri du Jaurlaritzak, eta % 75 Euskararen Erakunde Publikoak. Fondo horretatik diruz laguntzen dira, besteak beste, Iparraldeko hedabideak: 2015ean, 514.800 euro jaso dituzte. Kopuru horretatik, beraz, 128.700 euro litzateke Jaurlaritzaren ekarpena Iparraldeko hedabideentzat.

Horrek esan nahi du, 2015ean Eusko Jaurlaritzak 5.170.919 euroko ekarpena egin duela, euskarazko hedabideen jarduna sustatzeko helburuarekin.

5.100.000 eurotik gorako ahalegin ekonomiko horren tamainaren argitan, bistan da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (aurrerantzean, HPS) euskararen erabilerarako estrategikotasuna nabarmenki aitortua dela euskarazko hedabideei. Esparru horri hizkuntza politikarako aitortzen diogun garrantziaren tamainaren berri izateko nahiko da ikustea, adibidez, beste hizkuntza minorizatuen kasuetan ez dugula aurkitu, dagokien gobernuaren aldetik, tamaina honetako ahalegin proportzionalik (Katalunia eta Gales barne, bi kasu aurreratuenetakoak aipatzearen); edo nahikoa da ikustea HPSren diru-laguntzetan altuenak hain zuzen ere euskaltegien finantzaketarako eta hedabideentzako jartzen direla. Euskaltegietakoz aparte dauden beste diru-laguntza deialdi guztietarako (eta badira bost) egiten dugun ekarpen osoaren % 48, ia erdia, euskarazko hedabideetarako jarri du HPSk 2015. urtean. Aurrekontuen testuinguru horren berri izatea uste dut lagungarri dela konpromisoaren irismenaz jabetzeko.

Bilakaera gorabeheratsua izan du diru-laguntza hauen kopuruak. 1991 ondorengo urteetan hoberantz egin zuen etengabe guztizko diru-kopuruak. Hazkunde erabakigarria 2005etik 2009rako legealdian gertatu zen: tarte horretan % 50,5 handitu zen diru-laguntzaren kopurua. Ondorengo lau urteetan, ordea, 2010etik 2012ra, urtez urte gutxitu zen HPSk euskarazko hedabideetarako jarritako diru-kopurua. Halere, 2013-2016ko legealdiko lehen urtean, 2013an, nahiz eta Jaurlaritzaren aurrekontuak % 9ko jaitsiera izan zuen, euskarazko hedabideetarako diru-laguntza deialdiari inolako beherapenik gabe eusteko erabakia hartu zuen HPSk, ekonomikoki erabaki zaila, baina azalpen handiren beharrik gabe argi erakusten duena Jaurlari-

tzarentzat euskarazko hedabideak lehentasunezko ildoetarikoa direla. Eta kopuru horri beherapenik gabe eutsi diogu ondorengo hiru aurrekontuetan.

Jakina da euskarazko hedabideek are eta ekarpen handiagoa nahiko luketela. Beti dugu gehiagoren gogoaz; diru baliabideak, ordea, beti dira mugatuak. Urteotan, krisiaren eraginez, diru-sarrerara publikoetan, hazkundera izan beharrean, doikuntzak izan dira nagusi herri-erakunde guztietan, salbuespenik gabe. Lehentasunak zorrotzasunez finkatu eta bermatu ditu Jaurlaritzak, politika sozialak deituriko jardunen mesedean (enplegua, osasuna, hezkuntza, bazterketa sozialari aurre egitea). Euskararen sustapenari dago-kionez ere, lehentasunak findu egin behar izan ditugu, nahitaez. Horien artean, aurreneko multzoan jarri ditu HPSk euskarazko hedabideak, helduen euskalduntzarekin batera –euskaltegien finantzaketarekin batera, alegia.

Badakigu oso momentu zailak direla hedabideentzat oro har (nahikoa da erreparatzea, urrutira gabe Espainiako Estatuan zenbat hedabide bertan behera geratu den eta zenbat lanpostu galdu dituzten, eta EAEn bertan zenbat doako hedabide desagertu den eta zenbat lanpostu gutxitu den gaztelania nagusi duen hedabideen sektorean); momentu zailak dira, baita ere, euskarazko hedabideentzat. Badakigu lan eskerga egiten ari direla, aitortu behar den ahalegina. Badakigu hainbat berrikuntza ahaleginean ari direla, batzuk bikain asko gainera. Baina, nahiz eta baliabideak –publikoak nahiz pribatuak– mugatuak izan, beti izaten diren bezala, ez litzateke inondik ere gutxietsi behar –aitzitik, kontuan izan beharko genuke denok– hemen herri-aginteez, kasu honetan bereziki Eusko Jaurlaritzak, azken batean euskal gizarteak, euskarazko hedabideak sustatu eta babesteko egiten duen ahaleginaren neurria. Lehenago, Katalunia eta Gales aipatu ditut, hizkuntza propio eta minorizatuaren sustapenean konpromiso handienetakoa duten gobernuak dituztelako. Merezi du erkidego bateko eta besteko gobernuen ahaleginaren alderaketari erreparatzea.

Eusko Jaurlaritzak 2015ean euskarazko hedabideentzako 5.170.919 euroko diru-laguntzak eman dituen bitartean (Iparraldeko laguntza barne), Galeseko gobernuak 448.010 £ (libera esterlina) eman ditu, eta Kataluniariko Generalitateak, 6.540.095,68 euro (kontuan hartzekoa da, konparazioa-

ren perspektiba izateko, 2015ean, Eusko Jaurlaritzak 10,6 mila milioiko aurrekontu orokorra izan zuen bitartean, Kataluniako Generalitateak 32,5 mila milioi eurokoa izan zuela, Jaurlaritzarena halako hiru pasatxo, alegia).

2015ean, Katalunian Generalitatetik laguntzarik handiena jaso duen hedabideak 810.000 euro jaso ditu; EAEn, aldiz, 1.292.150 eurokoa izan da diru-laguntzarik altuena. Zehazki, Katalunian bertako gobernuaren laguntzarik handiena jasotzen duena *La Vanguardia* egunkariaren katalanezko bertsioa da, 810.719,99 euro 2015. urtean, egunero saldutako batez besteko ale kopurua 57.891 izanik; edo *Ara* egunerokoak (*Berriaren* pareko salmenta kopurua daukan egunkariak: 12.800 aleren zabalkundea dute biek, *Arak OJDk* neurtuta eta *Berriarena*, berak emandako zifraren arabera) 313.495,25 euro jaso ditu 2015ean. Euskal Herrira etorrira, berriz, *Berriak* 2015. urtean, 1.292.150,00 euro jaso ditu Eusko Jaurlaritzaren eskutik, edo, laguntzarik altuena jasotzen duen aldizkaria aipatzearen, *Argiak* 363.400,00 jaso ditu. Uste dut konparaziozko perspektiba hau ere edukitzea komeni dela, Jaurlaritzaren konpromisoaren tamainaren berri izateko.

Euskarazko hedabideen erronkei eta indartu beharreko ildoei buruzko ikuspegia

HPSk pare bat urte badarama euskarazko hedabideen jardunari eta bartzuen eta besteen ikuspuntu eta egitekoei buruzko gogoeta partekatzen Herriekin eta Tokikomekin, etorkizuneko argazki osasuntsuago baten bila. Testuinguru horretan, badira hainbat ikerketa eginbidean jarri ditugunak. Horietako bat, euskarazko hedabideen kontsumoaren gainean sekula egin den ikerlanik zabalena eta sendoena da. 8.109 inkesta egin dira, eta ikertu den unibertsoa osatzen dutenak dira EAEko eta Nafarroako eremu euskalduneko eta mistoko (eta Iparraldeko bost udalerritako) 16 urte edo gehiagoko euskaldunak eta euskarazko prentsa ondo ulertzeko eta irratit/telebistako programak euskaraz nahiko ongi edo ongi ulertzeko gai direla dioten euskaldun hartzaileak: guztira, 690.250 pertsona. Zehatz esanda, azterketa demolinguistikotako tipologietan «euskaldunak» diren guztiak eta «euskaldun hartzaile» direnen % 10.

Azterlan honek helburu bikoitza du: alde batetik, jakin nahi izan dugu, euskarazko hedabideak 16 urte edo gehiagoko zenbat euskal herritarrek kontsumitzen dituzten, eta neurketa hori egin dugu merkatuan erabiltzen diren metodologia eta irizpide estandarrak erabiliz; zehatz esanda, ezagunenak diren CIESen eta EGMren metodologia bera erabiliz egin dugu (metodologia bera erabili dugu, alde batetik, garrantzikoa delako neurketarako irizpide estandar eta homologatuak erabiltzea, eta, bestetik, dagoeneko badirelako hainbat euskarazko hedabide urteetan zehar CIESen eta/edo EGMren neurketetan daudenak, beren erabakiz). Bestetik, hedabideei etorkizuneko perspektiban balio handikoa izango zaien ustean, jakin nahi izan dugu gauza gehiago ere. Jakin nahi izan dugu, adibidez, zer-nolako kontsumitzaileak diren gaur egun dituztenak eta, beraz, fidelizatzen ahal dituztenak; zeintzuk diren kontsumitzaile horien ezaugarri nagusiak; eta, jakin nahi izan dugu, zenbat diren ohiko kontsumitzaile izan gabe ere momenturen batean edo bestean hedabidea kontsumitzera neurriren batean hurreratzen direnak. Fidelizatorako eta hazkunderako izan ditzaketen *heldulekuak* identifikatu, eta euskarazko hedabideen eskura jarri nahi izan ditugu horrela.

Diagnostiko ahalik eta zuzenena izatea behar beharrezko abiapuntua da honetan ere. Horrela, bada, hedabideen audientzia ondo ezagutzea behar beharrezkoa da diagnostiko egokia izateko, abiapuntua ezagutzeko, kontsumitzailearen ikuspegitik zer hobeturik dagoen jakiteko. Gogoratu nahi dut hasieran esandakoa, hots, arlo honetan ere, HPSren interesa euskararen erabilera areagotzea dela, eta horregatik jartzen ditugu erdigunean kontsumoa eta kontsumitzailea, erabilera eta erabiltzailea alegia.

Esan bezala, EGMk eta CIESek hedabideetako audientziak ematen dituztenean erabiltzen duten metodologia berbera eta kontuan hartzen dituzten datu berberak erabili dira. Audientziak neurtzeko, elkarriketatutako «atzo» zer ikusi, entzun edo irakurri zuten jasotzen dute. Audientzia datuak ematen dituztenean, beraz, «atzo» hori da kontuan hartzen dutena. Euskarazko hedabideen audientzia zehazteko, metodologia hori bera da ikerketa honetan ere erabili dena. Aurreko egunean egunkaria irakurri dutenek, edo aldikari baten azken zenbakia irakurri dutenek, edo aurreko egunean irati

edo telebista entzun/ikusi dutenek osatuko lukete ikerketa honen kasuan ere egunkari, aldizkari, irrati edo telebista horren audientzia.

Ez noa, noski, hirurogei orrialdeko ikerlana aurkeztera. Audientzia datu nagusiak emango ditut, etorkizunari begiratzerakoan gaur egungo audientzien berri izateko (hala egin nuen mintzaldian ere, noski). Betiere, esan bezala, erreferentziazkoak diren audientzia-neurketa publiko ezagun eta aitortuen (CIES, EGM...) irizpide bera erabiliz. Egunerokoak (*Berria*, *Hitzza* eta *Hernaniko Kronika*, «atzo» irakurri zutenak), tokiko aldizkariak («azken zenbakia» irakurri zutenak), aldizkari orokorrak eta espezializatuak (hauek ere «azken zenbakia»), irratia eta telebista («atzo» entzun edo ikusi zutenak).

Egunerokoak: *Berriaren* irakurleak, paperean eta interneten irakurri dutenak batuta, 36.644 dira. *Eskualdeko Hitzak* 15.976 irakurle ditu. Nabarmenezkoa da *Hernaniko Kronika* egunerokoaren irismen altua, zabalkunde eremua Hernani baino ez izanik ere, 4.698 irakurle baititu.

Tokiko aldizkariak: kasu honetan ere paperean eta interneten irakurri dutenak batuta, irakurle gehien dituen *Goiena* da, 18.102 irakurle. Bere ondoren dator *Tipi-ttapa*, 11.997 irakurlerekin, eta ondoren *Anboto* 11.047 irakurlerekin. Gainontzeko guztiak 7.400 irakurleren azpitik daude: adibidez, *Eta Kitto* 7.379 irakurlerekin, *UK* 5.199rekin, *Uztarrria* 5.017rekin, *Barrren* 4.942rekin edo *Aiurri* 4.889 irakurlerekin.

Aldizkari orokor eta espezializatuak: *Argia* da informazio orokorra eskaintzen duen astekari bakarra, eta bera da aldizkarien artean irakurle gehien dituen, guztira –paperekoak eta internetekoak batuta– 9.850 irakurle dira. Aldizkari espezializatuen artean, *Aizu* da irakurle gehien dituen, 2.503 irakurle, eta ondoren dator *Elhuyar*, 1.947 irakurlerekin.

Irratiak: irrati publikoei dagokienez, Euskadi Irratiak 133.181 entzule ditu, eta Gazteak, berriz, 16 urte edo gehiagoko 112.797 entzule (kontuan izatekoa da, Gaztearen entzule asko 16 urte baino gutxiagokoak direla). Tokiko irrati pribatuei dagokienez, berriz, Arrate Irratia eta Bizkaia Irratia dira entzule gehien dituztenak, 10.943 eta 7.253, hurrenez hurren. Ondoren dator Euskalerrria Irratia, 5.362 entzulerekin.

Telebistak: ETB 1ek 253.385 ikus-entzule ditu, eta ETB 3k, 25.554 ikus-entzule. Kontuan izan behar da, ETB 3ren ikus-entzule asko, gehienak seguruenik, 16 urtetik beherakoak direla. Tokiko telebista pribatuei dago-kenez, berriz, Hamaika TB da audientzia altuena duena, 5.420 ikus-entzule, eta hurrena dator Goiena TB, 2.143 ikus-entzulerekin.

Ondorengo beste datu hauek ere kontuan hartzekoak direla uste dut, euskarazko hedabideen kontsumitzaileen ezaugarriei buruz argitasunik ematen dutenez.

Inkestaturen % 22k ez du inolako egunkaririk irakurtzen (gogora dezagun: euskaldunek eta euskaldun hartzaileen % 10ek –euskaldun hartzaile izanik prentsa ondo ulertzen dutela edo euskarazko irrati/telebista ondo edo nahiko ondo ulertzen dutela diotenak– osatzen dutela inkestaturen unibertsoa). Eta % 27k *El Diario Vasco* irakurtzen du; % 25ek *El Correo*; % 22k *Deia/Noticias*; % 20k *Gara*; eta % 17k *Berria*. Gainerako egunkariak ez dira % 10era iristen (*El Pais*, *Hitza*, *El Mundo*).

Eta beste datu bat: inkestaturen egunkaririk gustukoena edo gehien irakurtzen dituztenak *El Diario Vasco* (% 19) eta *El Correo* (% 15) dira. Hirugarren eta laugarren egunkaririk gustukoena edo gehien irakurtzen dituztenak *Deia/Noticias* (% 9) eta *Gara* (%8) dira. % 7k *Berria* du egunkari gustukoena edo gehien irakurtzen duena.

Euskarazko irakurle potentzialen % 70,2k (484.871) ez du inoiz ere euskarazko egunkaririk irakurtzen. % 29,8 (205.379) da euskarazko egunkariren bat egunero edo astean hiruzpalau aldiz edo noizean behin irakurtzen duena. Kontuan hartzekoa da, CIESen 2014ko datuen argitan, bere ikerketa-unibertsioan, EAEn egunkariren bat egunero irakurtzen dutenak («atzo» irakurri zutenak) 893.000 direla.

Datu jakingarri ugari ematen digu ikerlanak. Bada ondorio bat begi bistakoa dena: hobekuntza tarte luzea dagoela euskarazko hedabideetan, oso tarte handia baitago hedabideak oraindik hurbildu ez diren euskaldunengana (gehienak) hurbil daitezten, eta haien parte baten (adibidez, noizean behin edo iraunkortasunik gabe hurbiltzen direnen) atxikimendu praktikoa lortzeko. Egingarria dirudi euskarazko hedabi-

deek egiteke dagoen bide horretan eraginkortasunez aurrera egitea, kontuan izanik, beste zenbaiten artean, honako bi elementuok: batetik, idatzizkoari dagokionez, prentsa-irakurleen tasarik altuenetako duen erkidegoa dela Euskadiko Autonomia Erkidegoa, eta, bestetik, euskararen hazkunde jarraituari esker, gero eta irakurle potentzial gehiago dituela euskarak, nahiz eta euskararen hazkundera gertatzen den adin-taldeak ez diren paperekoaren kontsumitzaile handiak, alderantziz baizik, eta hori ere kontuan izan behar da ezinbestez. Helburu horretarantz hedabideek egin behar duten bidean laguntzaile eta eraginkor izatea du eginkizun HPSk.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak, 2014ko hondarrean, EAJ, EH Bildu eta PSEren aldeko botoekin legez besteko proposamen bat onartu zuen euskarazko hedabideen gainean. Laburbilduz, honako hau eskatu zitzaion Jaurlaritzari aipaturiko legez besteko proposamen hartan:

- Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio euskarazko hedabide nagusiekin batera azter ditzala berauen jarraipenerako behar diren neurriak, ekonomikoak barne, hizkuntza normalizaziorako funtsezko izaera dutenez;
- Jaurlaritzari eskatzen zaio diru-laguntzak kudeatzerakoan kontuan har ditzala hedabideen eraginkortasuna eta gizarte pluraltasunarekiko errespetua.

Normala denez, Eusko Jaurlaritzak oso aintzakotzat dauka Eusko Legebiltzarraren akordio hura. Hain zuzen ere printzipio horiexek dira euskarazko hedabideen arloan HPS egiten ari denaren eta egin asmo duenaren oinarria.

Lehenago esan bezala, momentu zailak dira hauek hedabideentzat ere, ezin da hori ahaztu. Zaila da hemendik bizpahiru urtera euskarrietan gertatuko diren aldaketak eta euskarri nagusia zein izango den jakin ezinik jardutea. Baina euskararen ikuspegitik askotan egin ohi den ekuazioa, «euskarra = txikitasuna; eta txikitasuna, nahitaez = eragozpen eta desabantaila», okerrekoa da. Hala diote hainbat datu objektibok. Izan ere, besteak beste, hainbat toki hedabideren irismenaren tamaina da horren lekuko. Toki he-

dabideen artean badira kasuak gaztelaniazko hedabide nagusiek baino sarbide erlatibo handiagoa dutenak.

Komeni zaigu arlo honetan ere, beste askotan bezala, euskarari begiratzeko modua eta euskara kontsideratzeko modua aldatzea. Esan nahi dut, euskara desabantaila moduan ez baizik eta aukera bezala ikustea (hori da, adibidez, arlo sozioekonomikoan, enpresetan bezala merkataritzan, indartzen ahalegintzen ari den mezua, zorionez). Euskarazko kontsumitzaile potentzialak dira beste inor baino gehiago hazten ari direnak, etengabea izan delako euskaldun berrien hazkundera azken bizpahiru hamarkadotan. Kontsumitzaile potentzialak kontsumitzaile erreal bihurtzea da erronka, eta hedabideek asmatu beharko dute horretan. Asmatu beharko dute kontsumitzaile erreal eta potentzialen apeta eta beharizanetara egokituriko eskaintza egiten.

Hedabideen merkaturian lehiatzen dira euskarazko hedabideak, ez bakarrik euskarazko hedabideen merkaturian. Izan ere, euskaldunak, zorionez, gutxienez elebidun dira, eta aukeran dituzte gaztelaniazko hedabideak, eta gero eta gehiagok baita beste zenbait hizkuntzatakoak ere. Korapilo hau euskararen erabilerarako eraginkortasunez askatzeko, beraz, produktuak beharko du egokitu euskarazkoaren irakurle eta/edo ikus-entzulearen premietara. Aldeantzik bidea, salbuespenak salbuespen, bide itsua da amaieran.

Aipaturiko Legebiltzarraren erabakian bi printzipio aipatzen dira: eraginkortasuna eta pluraltasuna. Ez dira, noski, gauza bera eraginkortasuna lortzea eta pluraltasuna errespetatzea, baina izan dezakete, badute, loturarik, nire iritzian.

Pluraltasunari dagokionez, beste hainbatetan ere esandakoa azpimarratu nahi nuke: nire ustez, pluraltasun edo zabaltasunaren aterpe izatea, bada euskarazko hedabideen eraginkortasunerako baldintza; ez bakarra, ez behar bestekoa, baina bai ezinbestekoa. Denon onarpen aktiboaren beharra du euskarak bizi-indarraren dema irabaziko badugu. Kontuan hartu beharko da, beraz, euskal hiztunen komunitatearen askotarikotasuna. Ikuspegi horretatik, euskarak (euskararen erabilera biziak esan nahi da, jakina) eta euskal hiztunen komunitate zabalak izan behar dute euskarazko hedabideen ardatza, ez inondik ere joera edo aukera politiko jakin bat, edozein dela ere joera edo aukera hori.

Eraginkorrak izateko, ezinbestekoa dela uste dugu, beste zenbait gauzaren artean, euskararen komunitatearen aniztasuna egiazki eta egunerokoan errespetatzea. Euskarazko hedabideek, beste edozeinen antzera, irakurle eta ikus-entzuleak dituzte epaile, nolabait esateko, hauen esanera baitaude. Eta beren garapenerako beharrezkoa dute babes ekonomiko publikoa ere, beharrezkoak baitira euskararen bizi-indarra areagotzeko eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzeko. Eta hau guztiau –euskararen bizi-indarra areagotzea eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzea, alegia– interes publikokoa denez, zilegi da babes ekonomiko edo inbertsio publiko hori. Baina horrek berak eskatzen du, nahitaez, euskarazko produktu komunikatiboak izatea euskal hiztunen komunitateak, askotarikoa den komunitateak, bere egingo dituenak, bere sentituko dituenak. Esan eta izan.

Jon Sarasuaren *Hiztunpolisa* liburuan irakur liteke honako hau («zabal-tasun berriak», 331. or.):

Zabaltasuna dute lelo euskarazko hedabideek ere. Aspaldi jarri zen modan zabalak izatearen kontu hori. Eta egia da nolabait erdarazko hedabideak baino apur bat irekiagoak direla lerro editorialean. Baina hori baino gehiago eskatzen du, ziurrenik, hiztun komunitatearen perspektibak.

Hizkuntza politikaren ikuspegitik, eraginkortasuna da faktore giltzarria. Komunikazio-produktu eta hedabide eraginkorrak babestea dagokio hizkuntza politikaren ardura duenari, HPSri; eraginkorrak diot, betiere, kontsumitzailearen –alegia, euskararen erabiltzailearen– ikuspegitik. HPSren apustua, ahalik eta gehien iristen diren hedabideak sustatu eta saritzea da. Hedabide mota guztiak dira garrantziko, guztiak, euskara indarberitzeko eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzeko bidean eraginkorrak diren neurrian. Hizkuntza politikaren ikuspegitik begiratuta, euskarazko irakurleak, ikus-entzuleak eta kontsumitzaile elektronikoak, internautak, sustatzea da bidea. Edozein hizkuntza politika eraginkorrek euskararen erabiltzaile errealak ditu jomugan. Horrexegatik da bidezkoa eta logikoa kontuan izatea, honezkero ibilbide bat duten komunikazio-produktuen eraginkortasuna neurtzeko, nagusiki kontsumitzaileenganako lortzen duen irismena.

HPSren diru-laguntzen politikak, beraz, euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzea eta areagotzea du helburu. Eta ikuspegi horretatik ulertu behar da komunikazio produktuetan gizartearen eta euskal hiztunen komunitate zabalaren askotarikotasuna errespetatzeaz eta pluraltasuna babesteaz azpimarratzen dudana.

Esan beharrik ez dago norberak gogokoen dituen moduko komunikazio produktuak egin ditzakeela, iritzi eta adierazpen askatasuna, eta ideologia-askatasuna, bermaturik baitaude gure gizartean. Zorionez egon ere. Besterik da, ordea, euskararen erabilera sustatzeko –ez beste ezertarako– den diru-poltsara laguntza eskaera egiten bada. Kasu horretan, eta inoiz ere ahaztu gabe inorenak ez baizik eta denonak diren diruok euskara sustatzeko direla, euro bakoitzari ahalik eta etekin handiena ateratzea da HPSren helburua; helburua ez ezik, baita obligazioa ere. Hedabide bat irakurle edo ikus-entzule gutxi batzuentzako egitea eta euskaraz egitea oso librea den arren, eta eskubide hori denok defendatu behar dugun arren, laguntza gisa ematen den euro bakoitzari laguntza-helburuaren arabera zein etekin ateratzen zaion baloratzeri derrigortuta daude herri-aginteak, kasu honetan HPS. Are gehiago diruok beti mugatuak direnean eta guk nahi besteko ugaritasunez ez ditugunean. HPStik banatzen den euro bakoitzak balio behar du euskal hiztunen askotariko komunitatea kohesionatzeko. Ez dut uste bide eraginkorragorik aurkitu dezakegunik euskara hizkuntza bizia eta adin nagusikoa izango bada.

Iristea derrigorra da. Kalitatea oso garrantzitsua da, noski, iritsi ahal izateko. Baina kalitatea eta irisgarritasuna ez dira mutur banatako elementuak, elkarri lotu gabeak. Alderantziz. Kalitatea, irisgarritasunak bere-berea duen aldagaietariko bat da, edozein kalitate neurketa sistemaren zentro-zentroan bezeroa baitago beti, eta bezeroarengana iritsi gabe kalitateak ezer gutxi balio baitu. Adibide bat jar dezadan, argigarri izan litekeelakoan. Bistan da ezin litekeela espero futbolari buruzko informazio eta kritikek, eta liburuari buruzko informazio eta kritikek erabiltzaile kopuru bera edo antzekoa izatea. Baina futbol zaleek irakurtzen edo ikus-entzuten ez dituzten futbolari buruzko informazioek balio gutxi lukete, eta modu berean balio gutxi lukete liburu irakurleen interesa pizten ez duten liburu eta literatur kritikek. Balio gutxi diodanean, uler bedi euskararen erabilera sendotu eta areago-

tzeko ikuspegitik soilik diodala hori. Bakoitzak bere eremuan, eta, beraz, eremu bakoitzaren neurri ezberdinetan, irakurle eta ikus-entzuleengana iristea izan behar du helburu, gure ustez. HPSk bultzatu nahi duena da hedabideak gero eta hiztun masa handiagora zabaltzea. Arlo guztietako hizkuntza politikarako dugun irizpide orokorra da hau. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan benetan baloratu nahi duguna da ia bezeroek kontsumitzen ote duten eskaintzen zaiena. Alegia, sortzen diren produktuen bidez eragiten ote den, ez horrenbeste euskararen presentzia hutsean, baizik eta euskararen kontsumoan. Eraginkortasunaren bermea irismenean dago parte handi batean. Hedabide mota guztiak dira inportanteak. Baina gero eta irismen handiagoa izatea da kontua. Eta badakigu hori euskaraz posible dela. Ikerlanei esker badakigu helburu egingarria dela euskaraz izanik irismen handia izatea, jada esan dugunez, bai baitira gaztelaniazkoek beste irismen edo gehiago izatea lortu duten euskarazko hedabideak ere. Batzuek lortu badute, zergatik ezin dute askoz gehiagok ere lortu?

Irakurle edo ikus-entzule gehiagorengana iristeagatik ez da hedabide bat besteak baino inportanteago bihurtzen, baina bai baliagarriago eta eragin-garriago euskararen sustapenerako. Hori da diru-laguntzen bidez sustatu eta babestu nahi duguna.

Euskararekiko atxikimendua bada eta izango da euskarazko komunikazio-produktuak kontsumitzeko faktore pisuduna, baina ez bakarria eta, seguruenik, ezta ere erabakigarriena. Alde batetik, aldatu egin da euskararekiko atxikimendu-mota. Bestetik, euskalduna gutxienez elebidun, eta gero eta proportzio altuagoan hiru edo lau eledun, baldin bada, uste izatekoa da hainbat esparrutan –hedabideenean, adibidez– euskaraz bainoago euskaraz «ere» eta erdaraz «ere» biziko dela, gero eta handiagoa eta erakargarriagoa baita erdaretan jasotzen dugun eskaintza. Azkenik, horri guztiorri gehitu diezaiogun euskaldunaren hizkuntza profilean gertatzen ari den aldaketa: esate baterako, gaur egun 35 urtez behetiko gazte euskaldunen artean gehiago dira erdaraz erraztasun handiagoa dutenak, euskaraz baino. Erronka berrien aurrean gaude. Testuinguru horretan behar da bilatu irisgarritasuna.

Euskararen presentzia izatetik harantzago, irakurle eta ikus-entzule gehiago izatearen aldeko apustua da, beraz, HPSrena. Kontsumitzaile gehia-

gorengana nola heldu behar den esaten ez da, noski, HPS hasiko, atrebentzia handia litzateke hori. HPSk dioena da, euskararen erabileran egin behar dugun jauziaren onurarako eraginkorren direnek jasoko dutela babes handiena Jaurlearitzako sail horretatik.

Bukatzeko. Azpimarraturik utzi ditugu besteak beste eraginkortasuna, pluraltasuna, kontsumitzaileen beharrianetara egokitzea, kontsumitzaile potentzialak irabaztea... Horien ondoan aipatu nahi dut, baita ere, finantzaketa egonkorraren kontua. Herri-aginteen babesaz jardutean, finantzaketa egonkorraren gogoia da behin eta berriz hedabideek mahairatu izan duten planteamendua. Aspaldiko eskakizuna da hori. HPSren gogoia eta asmoa da, 2016an, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan euskarazko hedabideentzat kaleratuko den diru-laguntza deialdia urte bakarrerako ez baizik eta hiru urterako izatea. Horrek esan nahi du hiru urterako konprometituko litzatekeela diru-laguntza. Deialdi publikoari eutsiz produktu ezberdinen arteko lehia bermatuko litzateke, eraginkortasuna sustatzeko besteak beste, baina aldi berean diru-laguntza urte anitzekoa izateak finantzaketa egonkorra ahalbidetuko luke. 2016ko berrikuntza izango da hori, jauzi kualitatiboa, bistan denez. Finantzen egonkortasuna ere eraginkortasunerako lagungarri izango baita¹.

¹ Artikulu hau argitaratu denerako kaleratu zuen HPSK 2016ko aipatu deialdia, eta, hitzaldian esan bezala, hiru urterako da, 2016-2018 bitartekoa.



Ondorioak

EUSKALTZAINDIAREN SUSTAPEN BATZORDEA

Jardunaldiaren lehenengo zatian, Andoni Egaña bertsolari eta euskaltzain urgazleak gidaturik, Hedabideak eta hizkuntza politika gaia jorratu da. Bertan, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuaren Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak eman duen mintzaldian, hedabideen garrantziaz jardun du, bai eta 1990-2011 aldian eginikoari buruzko hausnarketa, 2011-2015 garaian gertaturikoei buruzko azalpena eta Nafarroan, Gobernu aldaketaren ostean, egin nahi dituztenak azaldu ere.

Azken honi dagokionez, Gobernu berria sostengatzen duten lau alderdiek adosturikoa izan du mintzagai. Gauzak horrela, bere aburuz, hedabideak komunitate baten bizitzaren transmititzaile direnez garrantzi handikoak dira (gizartearen berri ematen dute, hezten dute, gizartearen transmisioa egiten dute, entretenitzen dute eta iritzia sorrarazten / zabaltzen dute). Horiek horrela, Nafarroako hedabideen diagnostikoa egitea, Plan Estrategikoaren diseinua lantzea, hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea iragarri du (besteak beste 2016. urterako diru-laguntza deialdia). Horrexetarako, zenbait neurri Euskararen Nafar Kontseiluan landuko dela ere gaineratu du. Inguruabar horretan, Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen lan-ardatzak azaldu ditu: herri-erakundeen eta hedabideen artean, bai eta hedabideen artean ere lankidetzarako oinarriak finkatzea; euskarazko komunikabideen eragina aztertzea eta aurrera begira dituzten erronkak ezagutzea; azken urteetan ezabatu diren baliabide ekonomikoak berreskuratzea; euskarazko komunikabideak laguntzeko irizpideak

Euskera. 2015, 60, 1. 137-141. Bilbo
ISSN 0210-1564

adostea eta finkatzea, eta, erdarazko hedabideetan euskarazko edukien presentzia areagotzea.

Ondoren, Bernardette Soulé Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendariak Ipar Euskal Herriko hedabideen paisaia aurkeztu du, bai eta izan duten garapena azaldu ere. Aurreko hamarkadaren hasieran, Ipar Euskal Herrian gauzaturiko Hitzarmen Berezian, hedabideekin zer ikusi zuten hiru neurri jaso ziren: Euskal Irratiak, euskarari lekua zabaltzea hedabideen bitartez eta EiTbren hedapena. 2006. urteko Hizkuntza Politika Proiektuan, ordea, eskaintza bizkortzea, euskara hedatzeko eta hizkuntza kalitatea hobetzeko hedabideak baliatzea jaso zen. Sustapen politika Euskararen Erakunde Publikoaren bidez egiten da. Azken honek ardatz hauek hartu ditu kontuan: hedabideen egonkortasunean laguntzea, funtzionamendua ahalbidetzea gain profesionalizazioa bultzatzea eta sustapena. Amaitzeko, EEP deiturikoak eta Eusko Jaurlaritzak funts bat eratua dutela gogorarazi du, besteak beste, euskararen inguruko elkarteak, erakundeak zein egitasmoak diruz laguntzeko baliatzen dena. Aurrera begirakoaz, Ipar Euskal Herrian eztabaibatzen ari den egituratzea, bai eta eskuartearen izanen dituzten baliabideak erabakigarriak izanen direla azpimarratu du.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskarazko hedabideei buruz Eusko Jaurlaritzak duen begirada azaldu du, hiru galdera hauei erantzuna ematen saiatuz. Batetik, zergatik diren garrantzizkoak euskarazko hedabideak euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko jardunean; bestetik, zein den Eusko Jaurlaritzaren jarduna euskarazko hedabideen sustapenean; eta azkenik, zein den euskarazko hedabideen erronkei buruz Eusko Jaurlaritzak duen ikuspegia eta, ondorioz, zein den indartu asmo duen lan-ildoak. Jardunaldiaren bigarren zatian, euskarazko hedabide garrantzitsuenetako ordezkariak hitza hartu dute, nork bere eremuan. Saioa Hedabideen egitasmoak goiburuean jorratu da eta Marijo Deogracias kazetariak gidatu du. Gauzak horrela, Alaitz Artolazabal Tokikom eko zuzendariak bere elkartearen aurrekariak eta ibilbidea laburbildu ditu. 2012. urtearen amaieran sortu zen Tokikom, izaera juridiko propioa duen sozietate mugatu gisa. Gaur egun, 26 bazkide, 60 komunikabide eta 169 langile biltzen ditu. Horiei, eta haien inguruan diharduten beste 650 laguntzaileei esker, euskaraz komunikatzen den komunitatea

josten, sendotzen eta zabaltzeko ahaleginetan dihardu egunez egun. Ondoren, Tokikomek egin duen ibilbide laburrean, bizitza tokatu zaion globalizazio eta komunikazioaren aro honetan bere bilakaeran oso garrantzitsuak izan diren eta izango diren hiru oinarri azpimarratu ditu. Batetik, hedabidetik komunikabidera, gertukoa euskaraz kontatzen dugun heinean, euskara gertutik / are gertuagotik biziko dugulakoan. Bestetik, Internetarako jauzia. Horren azkar aldatzen den teknologiaren olatua baliatzea, norabidea eta noranzkoak ondo zainduz. Azkenik, bailara / herriko berrien inguruan jakin / jakinarazi nahi duen edozeinengana beste inor baino azkarrago heltzea, mezuetan kultura, bizitzeko era baten berri ere emateko, itzulpen soil batetik harago. Azkenik, belaunaldi aldaketa eta profesionalizazioa. Bere mintzaldia amaitzeko, aurrera begira dituzten erronkak ere azaldu ditu.

Segidan, Martxelo Otamendi *Berriako* zuzendariak hitza hartu du. *Berria* egunkariaren sarrera eta irteeren nondik norakoak azaldu ditu. Gauzak horrela, kioskoetan presentzia urria duela baina *Berria* egunkariak harpidetzaren bidea jorratu duela azpimarratu du. Horrek, salmenten bi heren baino gehiago harpidetzaren bidez eskuratzea eta egitasmoari sendotasuna ematea ekarri duela azpimarratu du. Hedabide honen irismenaz ere hitz gin du, zabalkundeari eta irakurleei buruzko datuak emanez. Aurrera begirakoaz, publizitatea eta marketinga indartu beharraz, trinkotzeaz eta bestelako hedabideekin lankidetzaren bidez jorratzeaz eta *Berria* taldean berrikuntza bultzatu beharraz jardun du.

Iñaki Guridi EiTB Irrati taldeko zuzendariordeak euskarazko komunikabideek, gure kasuan euskarazko irratia, inoizko aukera aldi oparoena bizi duela azpimarratu du. Euskararen ezagutzak gora egin duela diote azken urteetan egin diren soziolinguistika azterketa guztiek, eta pozik egotekoa da hori. Egia da erabilerak sortzen duela kezka, eta kezkatzekoa da. Baina komunikabideek aukera aldia bizi dute, inoiz baino audientzia potentzial handiagoa baitute. Gauzak horrela, Euskadi Irratia eta Gaztea dira EiTB taldeak euskaraz dituen eskaintza nagusiak. Uneotan eskura ditugun azken audientzia neurketen arabera, bien artean ez dituzte urruti 300.000 entzuleak. Eta bada datu horrek adina azkenotan poztu duen besterik ere: Euskadi Irratia eta Gaztea-ren entzuleen laurdenak erraztasun gehiago du gaztelaniaz egi-

teko. Euskarara gerturatzeko erabiltzen dute, beraz, euskarazko komunikabidea.

Horiek guztiak horrela izanda ere, erronka eta kezka bat baino gehiago dugu mahai gainean. Kezka euskara zuzen erabiltzeak. Kazetari belaunaldi berriek, hizkuntza eremu oso euskaldunetatik etorrira ere, ez dute orain artekoen euskara maila eta oinarria. Erreferentzia jator faltak askotan esaldi traketsak eta okerrak erabiltzera garamatza; euskararen zuzentasuna eta egokitasuna behar den moduan uztartzeko gaitasuna izatea da bestea. Zuzena izateari uko egin gabe, hizkuntza funtzionala erabiltzea ere erronka da (erabilgarria, komunikatzen duena, erakargarria). Amaitzeko, erronka / galdera bat ere plazaratu du: nola kontatu mundua, ez soilik Euskal Herria, mundua, hemengo hizkuntzan, hemengo betaurrekoek ematen duten ikuspegi propioarekin, inguruan jazotzen den gehiena beste hizkuntza batzuetan gertatzen ari den bitartean. Eta noski, nola egin interesgarri kontatzen dugun hori euskaldungoarentzat?

Jose Luis Aizpurua Euskal Irratiak Federazioko erredaktoreburuak Euskal Irratiak 4 irrati arteko sare bat, federazio bat dela azaldu du. Federazio hau 1997an sortu bazen ere, Ipar Euskal Herriko euskarazko irratiak 1981 eta 1982 artean sortu ziren. Lehena Gure Irratia izan zen, Lapurdin, Kanbon egun batez, eta hurrengo urtean sortu ziren Irulegiko Irratia Nafarroa Beherean, eta Xiberoko Botza. Garaiko testuingurua berezia zen: François Mitterrand Frantziako presidente hautatu berria zen, eta ordura arte irrati publikoek soilik zuten emititzeko eskubidea, ez ziren legezkoak irrati pribatu eta are gutxiago bestelako irrati motak, baina irrati libreak jadanik entzuten ahal ziren hirietan batez ere. Bi zutabetan oinarritzen ziren irratiak: euskaraz izatea eta, tokiko gertakarien berri emateko, tokiko entzuleei zuzenduak. Bi oinarriak 35 urteotan mantendu dira, nahiz eta barnealdeko irratietan frantsesari leiho bat ireki izan zaion, informazio lokalak garrantzi handia izan baitu. 1997an Euskal Irratiak federazioa sortu zen, irrati elkarlana hobetzeko eta botere publikoen aurrean ahots bakar bat agertzeko, azpiegitura teknikoa garatzeko, formazioa lantzeko langileen artean, denak autodidaktak baitziren. Urteetan euskarazko irratiak ez zuten inolako laguntza publikorik izan. Sostengu bakarra entzuleena eta herriena izan zen. Euskarazko irratiak irrati profesional eta serioak izaten ahal zirela ere era-

kutsi behar izan zuten garaiko kudeatzaileek, interes publikoko informazioa hedatzen dutela, euskaldunek euskaraz informazioa jasotzeko eskubidea zutela eta laguntzak jasotzeko eskubidea zutela erakutsiz. Amaitzeko, irratien garapen bizkorraz ere zenbait datu eman du. Izan ere, dozena erdi langile izatetik, 28 izatera pasatu dira. Laugarren irrati bat ere sortu zen 2005ean,

Antxeta Irratia, mugaz gaindiko (Hendaia, Hondarribia eta Irun) bilakatu.

Jardunaldiaren hirugarren zatia Aitor Zuberogoitia Mondragon Unibertsitateko irakasleak gidatu du. Mahai-inguruan Leire Palacios kazetariak, Beatriz Zabalondo EHUko irakasleak, Aingeru Epaltza idazle eta kazetariak eta Alberto Barandiaran kazetariak hartu dute parte. Mahai-ingurua hiru zutaberen inguruan garatu da. Lehenbiziko iritzi-trukea, hizkuntza gutxituetako hedabideen jardunaren eta hizkuntza normalizazioaren artean gauzatu da. Bigarrena, Eusko Jaurlaritzak oraintsu ezagutarazi dituen euskarazko komunikabideen kontsumoari buruz eginiko ikerketaren emaitzak ardatz hartuta, emaitza horietatik zer nabarmenduko luketen, sumatzen dituzten indarguneak eta euskarazko eskaintzan antzematen dituzten ahuleziak aztertzeko izan da. Azken puntua, berriz, euskarazko komunikabideak saretzeari, sinergiak eta lankidetzak bideak areagotzeari buruz izanda.



Agiriak

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Osoko bilkura

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Xarles Videgaini; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urru-

tiari; Patxi Salaberrik ahala A. Urrutia-ri; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori. Osoko bilkura Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu. Horiek horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren urtarrileko Osoko batzarra hasiera eman zaio.

Idazkariordeak eguneko programa azaldu du: Osoko batzarra 12:15ean amaitu eta, 12:30ean, Ageriko bilkura egingo da, Manuel Maria Latorre, Jose Antonio Retolaza eta Xabier Aranburu euskaltzain zenduen hilberri txostenak irakurtzeko.

1. Osoko bilkurako (2014-12-19) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

2. orrialdeko (2.1. A letrari aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz) bigarren paragrafoan, Miren Azkaratek «ohargileek eginikoa are hobeto ulertzeko, ohar osoak euskaltzainei eskaintzea eskatu du» esaldia beste honengatik ordeztzea eskatu du: «M. Azkaratek ohargileek eginikoa are hobeto ulertzeko, ohar osoak hileko karpetan jasotzea eskatu du». Oharra onartu da Osoko bilkuran.

Horiek horrela, esaldi horren ostean datorren esaldia aurrekoarekin lotzeko, zertxobait moldatu da: «A. Sagarnak M. Azkarateri ohar horiek euskaltzainei hemendik aurrera helaraziko zaizkiela esan du».

Beste oharrrik egin ez denez, eginiko oharrak barruratzen dituen bilera-agiria onartu da.

2. Ageriko bilkuretako (2014-07-18, 2014-11-29 eta 2014-12-19) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz

2014ko uztailaren 18ko eta azaroaren 29ko bilera-agiriei oharrrik jaso ez dutez, onartu dira. 2014ko abenduaren 19ko bilera-agiriari dagokionez, Andres Iñigok behin-behineko bilera-agiriko 4. orrialdeko laugarren lerroan akats bat antze-man du, «euskaren» agertzen baita «euskararen» beharrean. Lapsus hori zuzentzea onetsi da eta horrela hirugarren bilera-agiri hori ere onartu da.

3. Hiztegi Batua.

3.1. A letrari aurkezturiko iruzkinak, lantaldearen proposamena. Aurreko Osoko bilkuran aztertu gabe utziriko 8. eta 9. orrialdeak, aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz. M. Urkiak aztertzeke gelditzen ziren hitzak azaldu ditu.

M. Zalbide *alde anitzeko* hitzaz mintzatu da eta M. Azkaratek ere horren alde egin du. A. Iñigok proposatutako *aspertsio* hitza dela eta, Tx. Peillenek *ihinztatze* forma nahiago duela adierazi du. A. Iñigok eta A. Sagarnak, aldiz, *aspertsio*-ren alde egin dute, *h. ihinztatze* gehitu gabe eta horrela onartu da. P. Uribarren *artotza* eta *arto-saila* hitzen arteko ezberdintasunez mintzatu da. *Alde anitzeko* onartu da, eta *alde egon* ere bai. Zuzenbiderako, *aintzatespen / aintzatetsi* onartzeari buruz, P. Goenagak nahiago luke ez sartzea. A. Arejitak, ordea, bai, eta M. Azkarate erretiratzearen alde agertu da. A. Urrutiak hitz egin du hitz horren premia eta eginiko bidea azaltzeko. Tx. Peillenek esan du, hitzen zuzentasunaren irizpidea hertsiki hartuz gero behintzat, frantses hiztegiko hitz erdiak gaitzetsi beharko lirakekeela. A. Arejitak zuhurtziaz jokatzeko eskatu du. M. Azkaratek askoz erabilera eskasagoko hitz asko sartu ditugula gogorarazi du.

A. Sagarnak arazoaren testuinguru osoa azaldu du, besteak beste normalizatu gabeko hitzen bilakaeraz-eta jardunez. M. L. Oñederra A. Sagarnarekin ados da. Azkenean, *aintzatespen / aintzatetsi* momentuz aldi honetan ez sartzea erabaki da. Bestalde, *adin txikiko* isiltzea, *agresio* kentzea eta *alde batera egin* ez sartzea erabaki da. X. Kintana *almeja* hitzaren aurka mintzatu da, onartu ezineko erdarakada dela iritziz. Horren ordez *txirla* balia dadin proposatu du. M. L. Oñederrak *almeja* hitza onartzearen alde egin du. M. Urkiak, A. Sagarnak, M. Azkaratek eta X. Kintanak hitz egin ondoren, azkenean, *almeja Heg.* markarekin sartzea erabaki da. 8. eta 9. orrialdeetan datozen gainerako hitzei dagokienez, Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenak onartu dira.

Ondoren, 3.3 puntua aztertu da Osoko bilkuran, osterako utziz 3.2. puntuaren aurkezpena eta eztabaida.

3.3. Zerrenda osagarriak (elementu kimikoak, hatzen izenak, jaien izenak, karten izenak, kasu-izenak, mineralak, musika-notak eta zeinuak, -tan bukatuak (pertsonek biziak), zientzia-unitateak eta zodiakoa) aurkeztu. A. Sagarnak eta M. Urkiak, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek, zerrendak aurkeztu eta azaldu dituzte. Horretarako datuak nondik jasoak izan dituzten ere argitu dute. Era berean, zerrenda horiekin aurkeztu beharreko zerrenda guztiak aurkeztu direla azpimarratu dute.

Idazkariordeak, zerrendekin batera datozen txostenak, argibideak jasotzen dituztenak, datozen egunetan euskaltzainei era telematikoan eskuratuko zaizkiela esan du. Gauzak horrela, oharrak egiteko aldia martxoaren 16ra arte ireki da.

3.3. puntua amaituta, 3.2. aztergaia jorratu da Osoko bilkuran.

3.2. Zerrenda osagarriak (famiaren inguruko saila, izen propioetatik eratorriak eta -(t)ar osaerakoak) aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz. Puntu honi ekin aurretik, Hiztegi Batuko lantaldearen izenean, Andoni Sagarnak, «Hiztegia osatzeko irizpideak direla-eta» izenburua darman idatzia banatu eta irakurri du.

Idatziak *Hiztegi Batuaren* 2. itzuliko sarrerak osatzeko hitz multzoei euskaltzainek egiten ari zaizkien oharren artean, M. Azkarateren proposamen bat du abiapuntu, hitzez hitzeko oharren ikuspegitik harago doana. Funtsean, hitzez hitzeko azterketaren aurretik zenbait irizpide finkatzea proposatzen du M. Azkaratek. A. Sagarnak irakurritako idatziak Hiztegi Batuko lantaldeak gai horri buruz landuak dituen irizpideak jasotzen ditu, besteak beste, beharra vs. erabilerari buruzko haus-

narketa, txikigarriak eratzeko atzizkiak dauzkaten hitzak eta *–ordeko* osaderadunak hiztegian sartzeari buruz.

A. Urrutia euskaltzainburuak eta M. Azkarate euskaltzainak aurkeztu den txostena eskertu dute. Aurkezturiko irizpideen inguruabarrean adostasuna dagoenez, zerrenda osagarriari aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki dituzte euskaltzainek. Horrexetarako, A. Sagarnak eta M. Urkiak hamaika orrialdeko «*Hiztegi Batua 2*. itzulia: familia loturak (zerrenda osagarriak)» izenburua daraman txostena aurkeztu dute. Ondorioz, puntu honetan, aztergaietan ageri diren gainerako zerrendak hurrengo osoko bilkuretan aztertuko dira.

Familia loturak aztertzen dituen txosten honen lehenengo lau orrialdeetan, lehendik arauturiko eta oharrik jaso ez duten ehun eta berrogeita sei forma ageri dira; laugarren orrialdearen bigarren zatitik bosgarren orrialdearen hasierara lantaldeak proposaturiko eta oharrik gabe onartu edo «erabil» markarekin jaso diren beste hogeita zazpi forma ageri dira; bosgarren orrialdeak lehendik arauturiko forma osatuak, Osoko bilkurak besterik gabe onarturiko bederatzi forma ageri dira; bosgarren orrialdearen erdialdetik zazpigarren orrialdearen goialdera lantaldeak isiltzeko proposatzen dituen eta oharrik gabe utzitako berrehun eta berrogeita hamasei forma ageri dira. Lantaldeak eginiko proposamen hauek onartu dira Osoko bilkuran.

Zazpigarren orrialdetik hamaikagarren orrialdera M. Azkarate, A. Iñigo, X. Kintana eta P. Uribarren euskaltzain osoek oharreztaturiko hirurogeita hamabi forma ageri dira. Hauek, «*Hiztegi Batua 2*. itzulia: familia loturak» izenburua duen eta gaur banatu den dokumentu batean xeheago jaso dira. Idatzi honetan, ohargilea, aztergaiko sarrera, proposamena, arrazoiak eta *Hiztegi Batuko* lantaldearen iritzia ageri da. Halaber, familia loturei buruz informazio gehigarria ere banatu du lantaldeak. Ohar guztiak aztertzeko denborarik ez dagoenez gero, eginiko iruzkinak hurrengo Osoko bilkuran aztertzeko laga dira.

4. Exonomastika: Europako Antzinateko herriak. Aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz

X. Kintana Exonomastika batzordeburuak esan du ez dela oharrik jaso. Halere, Exonomastika batzordeak uste du zerrendari, *huno zuri*-ren sinonimotzat, *heftalita* hitza erantsi beharko litzaiokeela, Europako beste hizkuntzekin batera jokatzeko. Gehitze hori eta gainerako hitzak ontzat eman dira. A. Iñigok galdetu du ea zertan gelditu den *filistear* / *filistiar* zalantzazko formen arazoa. Izan ere, 2014ko azaroaren 29ko Osoko bilkuran aurkezturiko idatzian (laugarren orrialdean) batzordeak Osoko bilkuraren esku utzi zuen erabakia.

Gai hori hurrengo Osoko bilkuran aztertzea onartu da.

5. Eskuartekoak.

5.1. Juan Garmendia Larrañaga ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Urtarrilaren 8an, Juan Garmendia Larrañaga etnografo eta ohorezko euskaltzaina hil da, Tolosan, 88 urte zituela. Hilberri txostena nork irakurri hurrengoan proposatuko du Zuzendaritzak.

5.2. Donostiako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. Urtarrilaren 14an bi erakundeek sinatu dute lankidetzahitzarmena. Besteren artean, Euskaltzaindiak indarrean dagoen Donostiako kale izendegiaren berrikuspen osoa egingo du, Akademiak gaur egun darabiltzan irizpideen arabera eta koherentzia zainduz. Era berean, Donostiako leku izenen zerrenda normalizatua eta eguneratua ere egingo du.

Horrez gainera, honako puntu hauek jaso dira hitzarmenean: batetik, Euskaltzaindiak Udaleko Euskara Zerbitzuari laguntza eta aholku ematea, euskararen normalizazioan eta garapenean, bai hizkuntza berari dagokionez, bai eta hizkuntza gizarteratzeko lanetan ere; bestetik, Euskaltzaindiak euskararen estatusari buruzko aholkularitza eta lanak egingo ditu, bereziki, jardunaldiak, bilkurak eta abar, Luis Villasante Euskararen Ikergunea baliatuz, euskararen aurrerapenerako xedea aintzat hartuta; azkenik, Donostiako Udalak, bere aldetik, 25.000 euroko ekarpena egingo dio Euskaltzaindiari hitzarmen honetakoak aurrera eramaten laguntzeko.

5.3. Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. 2014ko urtarrilaren 21ean bi erakundeek izenpetu duten hitzarmenean adierazten den bezala, Nafarroako Parlamentuak euskarazko datu- eta agiri-base bat dauka, Legebiltzarreko zerbitzu teknikoek egindako itzulpen lanak gordetzeko beharrezko ondorioz sortutakoa. Datu-baseak euskarazko terminologia-ko eta parlamentu-lexikoko balio handiko funts bat dauka, kontserbatu eta gaurkotu nahi dena parlamentu-esparruko beste erakunde batzuekin lan eginez.

Beraz, parlamentu-lexikoaren bateratze-lana xede, Nafarroako Parlamentuak Euskaltzaindiaren eskuan jarriko ditu erabilgarri dauden testuak, lexikoaren lematizazioari, etiketatzeari eta kasuko oharpen linguistikoari ekin diezaien. Lan horretan, Eusko Legebiltzarrak eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiek ere parte hartuko dute. Era berean, sinatu den hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko

asmoz, Euskaltzaindiak erabili ahalko ditu Nafarroako Parlamentuak eskuratzen dizkion testuak.

5.4. Jean-Baptiste Battittu Coyos Jagon sailburua, Garapen Kontseiluko Zuzendaritzarako hautagai aditu gisa. A. Urrutia euskaltzainburuak eman du albistearen berri. Osoko bilkuran zorionak ematea erabaki da.

5.5. Azkue Sariak 2014, epaimahaiaren osaketan aldaketa. Patxi Zubizarretak epaimahaiko kide izateari uko egin dionez gero, Literatura Ikerketa batzordea entzun ondoren, Zuzendaritzak Joseba Butron epaimahaiko kide izendatzea proposatu du. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.6. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VI. tomoa. A. Arejita Iker sailburu eta EHAA egitasmoaren zuzendariak atlasaren VI. tomoa jada inprimaturik eta aurkezteko moduan dagoela adierazi du. Era berean, egitasmoaren edukia gizarteratzeko, erakusketa ibiltari bat antolatzeke asmoa dagoela ere esan du. Erakusketa hau eratzeko orduan, Laboral Kutxa finantza-erakundearen laguntza izango du Euskaltzaindiak.

5.7. Axularren Gero liburuaren edizio kritikoa. A. Urrutia euskaltzainburuak adierazi duenez, liburu honen edizio kritikoa paratu du Blanca Urgellek. Edizio hau prestatzeko, Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuaren babesa jaso du. Otsailean edo martxoan Iruñean aurkeztea aurreikusi da.

5.8. Hurrengo bilkura. Euskaltzaindiaren 2015. urteko egutegian zehazten denez, hurrengo Osoko bilkura Gasteizen egingo da. Tokiari eta ordutegiari buruzko argibideak aurrerago emango dira.

6. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta besterik ez dela, 12:15 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 30ean

Manuel Maria Latorre eta Xabier Aranburu euskaltzain urgazleen eta Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzainaren hilberri txostenak

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil ziren Manuel Maria Latorre eta Xabier Aranburu euskaltzain urgazleen eta Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzainaren hilberri txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste *Battitu* Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Patxi Goena-ga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Jose Luis Lizundia, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Luis Baraiazarra eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Euskaltzain urgazleak: Sebas Gartzia eta Pruden Gartzia.

Erramun Osa euskaltzain urgazle eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Peli Martin Latorre eta Xabier Aranburu euskaltzain urgazleen eta Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzainaren senideak eta lagunak.

Ekitaldiari Ander Berrojalbiz eta Mainer Lopez musikariek eman diote hasiera, R. M. Azkuek Durangoko txistulari izan zen Karlos Bergaretxeren koaderno batetik jaso zuen *Alkate* soinuarekin. Ondoren, E. Osa idazkariordeak hitza hartu eta go-

gora ekarri du Euskaltzaindian ohikoa dela aurreko urtean hildako euskaltzainak (izan oso, emeritu, ohorezko edo urgazle) urte hasierako lehenbiziko Osoko bilkuraren ondoren gogora ekartzea, Ageriko bilkura batean. Era berean, «Gu hona iritsi bagara, zailtasunak, erraztasun gutxiago izan zituztenak lan egin zutelako izan da, katea... katea ez baita eten eta segida baitu euskararen bilakaeran, bai eta Euskaltzaindiarenean ere» azpimarratu du.

Segidan, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak hitza hartu du. Honek, gaur omenduko diren euskaltzainak izan ditu gogoan. Manuel Maria Latorre arabarra, Jose Antonio Retolaza Bizkaiko semea eta Xabier Aranburu gipuzkoarra, euskararen aldeko lanean aritu izan direla gogora ekarri du. Bat, Gasteizko lehenbiziko ikastola sortzen eta, horrez gainera, Arabako hiriburuan pertsona helduek euskara ikasteko ikastaroak antolatzen, eta geroago, foru diputatu izendatu zutenetik, gure hizkuntzari, eta Euskaltzaindiari ere, ahalik eta laguntza-erraztasunik handienak ematen. Beste bat, gure Herriko kultur ekintza guztien berriak prentsan ematen saiatu zen, eta hirugarrena, haurrentzako komikiak euskaraz prestatzen eta argitaratzen, umek arlo horretan sentitzen zuten hutsunea nolabait betetzen ahaleginduz.

Era berean, hau gehitu du: «gure hizkuntzaz eta kulturaz adore eta bihotz osoaz arduratzen diren erakundeak ditugunean, Peli, Jose Antonio eta Xabierren lan haiek batzuei xume, apal eta, agian, oinarrikoegi irudi dakizkieke, baina egin ziren denbora eta giro politiko haietan, zinez esan dezakegu oraingo askok uste izan dezaketena baino zailago, nekezago eta maiz arriskugarriagoak ere izaten zirela. Eta holako aitzindarien lanari esker, hain zuzen, etorri da, neurri handiz, oraingo egoera pozgarriago hau».

Idazkariordeak, Peli Martin Latorre euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurtzeko, Manu Ruiz Urrestarazu ohorezko euskaltzainari hitza eman dio. Honek adierazi duenez, Peli Martin pertsona sentibera zen, eta «bere hiriko eta herriko kulturarekiko grina» gaztetatik sentitu zuen. Txistularia izan zen, eta 15 urtez, 1948tik 1963ra bitartean, Arabako Foru Aldundian miñoi-txistulari jardun zuen. Hor zegoen bitartean, Arabako Miñoien historia idatzi zuen, 1988. urtera arte argitaratu ez zuena. Halaber, M. R. Urrestarazuk egiaztatu ahal izan duenez, Araba Abesbatzaren sortzaileetariko bat ere izan zen eta koru horren kudeaketa ekonomikoa ere eraman zuen, denbora batean.

Euskara maite zuen, «euskotar izatetik euskaldun izatea iristea zuen helburu». Andoni Urrestarazu Mendizabal *Umandi* izan zuen irakasle, eta urte batzuk geroa-

go, Peli Martin bera izan zen euskara irakasle. M. R. Urrestarazuk esan bezala, «1960ko hamarkada, batez ere hamarkada horren bigarren erdia, garrantzi handikoa izan zen Peliren bizitzan. Euskara plazara jalgitzen ari da orduan eta harentzako etorkizun hobea ikusten dugu euskaltzale gehienok. Araban ere etorkizuna euskaldunago dirudi». Izan ere, Arabako herri askotan euskarazko eta euskararen aldeko ekintzak antolatu ziren. Olabide Ikastola ere urte haietan sortu zen eta Peli Martin izan zen bultzatzaileetako bat.

Horiek horrela, 1969ko azaroan, Euskaltzaindiak Peli Martin Latorre euskaltzain urgazle izendatu zuen. 1979tik 1987ra bitartean, Arabako Kulturako diputatu izan zen. Artxibo Probintziala eta museoak sustatu zituen, bai eta Arte Eszenikoen Eskola ere. 1988. urtean hartu zuen erretiroa, baina ez lozorroan gelditzeko, amaitu gabe zeuzkan obrak osatzeko eta argitara ateratzeko baizik, M. Ruiz Urrestarazuk amaitu duenez.

Ander Berrojalbiz eta Maider Lopez musikariek beste pieza bat jo ostean, idazkariordeak hitza Luis Baraiazarra Txertudi ohorezko euskaltzainari eman dio, Jose Antonio Retolazaren hilberri txostena irakur dezan.

Luis Baraiazarrak lanaren zailtasuna aitortu du: «Ez da erraz lerro gutxitan aditzera ematen hain bizitza oparoa. Izen-abizenen atzean Euskal Herriaz eta euskaraz maiteminduriko, euskaltzaleok nekez ahaztuko dugun, gizon bat dago. Gogoan dugu haren izaera fina, harremanetarako atsegina, leiala, besteena errespetatzen eta bereari (gureari) tinko eusten zekiena. Gogoan dugu batez ere zein ongi konpontzen zen haur eta gaztetxo euskaldunekin. Haiekin elkarlanean eraiki nahi zuen etorkizuneko gizarte berria, euskalduna, gure letretan jantzia, eskolatu».

Kili-kili pertsonaiaren eta izen bereko aldizkariaren sortzailea izan zen Retolaza, agerpen horietan hustuz berak zuenik hoberena: Euskal Herri euskaldunaren asmoa; euskaldun abertzale baten mezu garbi eta zorrotza. Hor geratzen dira aldizkaria bera, era askotako liburuxkak... Hor geratzen da, batez ere, agerian ikusten ez dena: orduko haurrengan, gaur egun gizon eta emakume gazteak direnengan, opa-orein zuen herrigintzako eta euskalgintzako hazia.

Horren ondorioz, pertsona eta berak sorturiko pertsonaia bat eginik geratu ziren betiko; horregatik, *Kili-kili eta biok* du izenburua autorea hil ondoren argitaratu den lan autobiografiko bikainak. Retolazaren bizitzaren bestelako kontuak ere izan ditu gogoan: gerra garaiko oroitzapenak, Seminarioko bizimodua, Arrazolan apaiz ibili zeneko garaia, Madrileria Psikopedagogia ikastera joan zenekoa eta abar.

Xabier Aranburu euskaltzain urgazlearen hilberri txostena Jose Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak prestatu badu ere, bera Txilen dagoenez gero, Xabier Kintana idazkariak irakurri du.

J. M. Iriondok prestatuturiko idatziak, hildako euskaltzain urgazlearen bizitzaren joan-etorrien kontu emateaz batera, bere izaeraren ezaugarriak eta euskal kulturari eginiko ekarpenak hizpide izan ditu. X. Aranburu kazetaria izan zen eta Donostiako *La Voz de España* egunkarian egin zuen lan. Iriondoren arabera, denetarik egin zuen: nazioarteko saila zaindu, egunkariak herrietan zituen korrespontsalen kronikak bildu eta txukundu, kultura sailerako jasotzen zituenak bateratu... Euskal gizarteaz eta kulturaz egunero zutabe bat idatzi nahi zuela eskatu zion behinola zuzendari jaunari, eta hark: «Baina nahiko gai izango al duzu gero zutabe hori betetzeko?» Ez zuen asko ezagutzen.

1976tik 1977ra, Donostiako Radio Nacional irratian, arrantzaleei buruzko irratsaio bereziak egin zituen. 1976an, *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkaria sortu eta sustatu zuen taldeko kide izan zen. 1977an, ostera, *Deia* egunkaria sortu zen eta Gipuzkoako ordezkari eta erredaktoreburu izendatu zuten. Harrezkero, leku askotan jardun zuen (Donostiako Nazioarteko Zinemaldian prentsa arduradun; Zinemaldiaren aldizkariaren zuzendari; Gipuzkoako Kazetarien Elkarteko presidente; Euskaltzaindiak Iruñean (1984) egin zuen X. Biltzarreko prentsa bulegoko arduradun eta abar). Joxe Mari Iriondoren hitzetan, «garai bateko jendeak nekez ahaztuko du Aranburu langile porrokatuaren arrastoa euskal kazetaritzan».

Ekitaldia, musikak lagunduta, bukatutzat eman aurretik, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza. Gaur gogora ekarrikoen ekarpenak, nekeak eta konpromisoa izan ditu gogoan, bai eta euskara indarberritzeko halako testigantzei, halako ahaleginei segida emateak daukan garrantziaz ere ohartaraziz.

Ander Berrojalbiz eta Maider Lopez musikariek beste pieza bat jo ostean, 14:00etan bukatutzat eman da Ageriko bilkura.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Gasteizen, Goiuri jauregian

2015eko otsailaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,

zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Xarles Videgaini (10:00-12:30); Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari (11:30-14:30); Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdai ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Gasteizen, Goiuri jauregiko Pedro Lopez de Ochandiano gelan hasi da, goizeko 10:10ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren otsaileko Osoko baztarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko programa azaldu du. Goizean bete behar diren egitekoak kontuan harturik, Oso-

ko batzarreko aztergaiak hamabiak laurden gutxiagotan etengo dira. Ondoren, hamabietan, Martin de Salinas gelan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* seigarren tomoaren aurkezpena egingo da. Horretarako, euskaltzainak aurkezpen-aretora joango dira, eta behin ekitaldi hori amaitu eta gero, berriz ere lehengo aretora itzuliko dira, batzarrari segida emateko.

1. Osoko bilkurarako (2015-01-30) bilera agiria onartzea hala erabakiko balitz

2. orrialdeko 3.1. aztergaiko lehenbiziko paragrafoko lehenbiziko sei lerroak beste hauengatik ordeztzea proposatu du Andres Iñigo euskaltzainak:

«M. Zalbide *alde anitzeko* hitzaz mintzatu da eta M. Azkaratek ere horren alde egin du. A. Iñigok proposatutako *aspertsio* hitza dela eta, Tx. Peillenek *ihinztatze* forma nahiago duela adierazi du. A. Iñigok eta A. Sagarnak, aldiz, *aspertsio*-ren alde egin dute, *h. ihinztatze* gehitu gabe eta horrela onartu da. P. Uribarren *artotza* eta *arto-saila* hitzen arteko ezberdintasunez mintzatu da. *Alde anitzeko* onartu da, eta *alde egon* ere bai». Oharra onartu da Osoko bilkuran.

Horiek horrela, bestelako oharrik egin ez denez, 2015eko urtarrilaren 30eko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika

2.1. **Ekialdeko antzinateko herriak: *filistear* / *filistiar*.** Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkaria batzar-aretora sartu eta bertan bildutakoak agurtu ondoren, Onomastika gaiak azaltzen hasi da. Aurreko bileratik erabakitzeke gelditu zen *filistear* / *filistiar* hitzen arteko zalantza azaldu du. Izan ere, Ekialde Hurbileko Antzinateko herrien zerrendan, *filistiar/filistear* bikotea aurkeztu zitzaion Osoko bilkurari bi formen artean erabakitzeko. Euskaltzaindiak, Donostian, 2011ko urriaren 28an eginiko Osoko bilkuran, *Filistia* forma onartu zuen, eta, hartatik, *filistiar* forma eratortzen da. Hala ere, *Elizen arteko Biblian filistear* aldaera agertzen denez, salbuespena egin behar ote den galdetu zion Exonomastika batzordeak Osoko bilkurari. Erabaki gabe gelditu zenez, Exonomastika batzordeak bere proposamena zehaztu du: *filistiar* proposatu du, *Filistia* arautuarekin bat etorrazteko, kontraesanik ez izateko eta Europako hizkuntza gehienek bidetik jotzeko. Euskaltzainek hala onartu dute.

2.2. «Europako Antzinateko herriak: herri barbaroak». **Aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz.** Exonomastika batzordeak Andres Iñigo euskaltzainak eginiko oharra, bai eta aurreko Osoko bilkuran izaniko

eztabaida kontuan hartuz, aurreko Osoko bilkuran aurkezturiko araugaiari oharrak egin dizkio. Horiek horrela, Andres Iñigok arauaren aurkezpeneko proposatutako zehaztapena onartzeaz batera, onarturiko herrien zerrendan *langobardo*, *latino*, *liguriar*, *asturiar* eta *bendo* izenen ondoan, baliokide moduan, *lombardiar*, *latindar* (*Euskaltzaindiaren Hiztegian* jada onartua), *ligur*, *astur* eta *wendo* formak ere eranstea proposatzen du, horien erabilera ezberdina eta esangura-ñabardurak kontuan izanda, erromatarren garaiko herri horien izen etnikoa eta gaur bertan bizi diren herrien egoera ez baita berdina. Bukaerari dagokionez, uste du, gainera, *ligur* eta *astur* hitzen kasuan oin-ohar bat jartzea komeniko litzatekeela hitz berezi horiek deklinatzean azken *-r* hori biguna dutela azaltzeko (*asturak*, *ligurak* eta abar. *Asturias* eta *Liguria* bezala). A. Sagarnak forma horien deklinatze-berezitasuna *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* azaldu beharko duela esan du.

P. Goenagak eta M. Zalbidetik ez dituzte kultismo horiek begi onez ikusten. Tx. Peillenek, *latino* / *latindar* bikoteaz mintzatzean, horrelako bereizketak hizkuntza guztietan egiten direla gogorarazi du, eta sinonimo bakoitzak esangura berezi bana izaten duela, *erromatar* eta *erromaniko*, adibideak emanez. B. Atxaga aspaldion inolako jatorritasunik ez duten hitz eta esaera batzuen aurka mintzatu da, *juntadizoa* edota batzuen artean aspaldian modan jarri den *eguerdi on*, adibidez. A. Arejitak ere lokalismo hertsien kontra hitz egin du. P. Uribarrenek proposamenean gauzak ondo azaldu beharko direla esan du, bere kasuan bereizketak egiteko aukera garbi utzirik.

Eztabaidaren ondoren, *lombardiar*, *latino* eta *wendo* formak eranstea eta *liguriar* eta *asturiar* kentzea erabaki da. *Astur* eta *ligur* gehitzearen inguruan adostasunik egon ez denez, euskaltzainek gaia botoetara eramatea erabaki dute, emaitza ondorengo hau izanik: 13 gehitzearen alde, 6 kontra eta zuri bat.

2.3. Jatorri germanikoa duten pertsona-izenen grafia, aurkeztu. A. Mujikak jatorri germanikoa duten antzinako pertsonaia historiko batzuen zerrenda aurkeztu du, grafiaren arabera izen horiek taldeka eskaini eta ereduak emanez. Horietan, orain arte latindar eta greziar jatorriko izenekin onartu zen irizpide bera erabili du batzordeak. *-f*, *-t*, *-d*, *-k* bukaerakoei *-o* erantsiz (*Alariko*, *Teodoriko*, *Leonardo*, *Gerardo*, *Turismundo*, *Bohemundo*, *Rekaredo*, *Godofredo*, *Atanagildo*, *Rezsvinto*, *Kindasvinto*, *Ataulfo* eta *Bernardo*). Salbuespentzat, gure artean erabilera urria dutelako, eskandinaviar izenak utzi dira, inguruko hizkuntzetan egiten denez: *Erik*, adibidez.

Izenaren *kh* hasperenduna adierazteko, latinez *ch*-z idazten ziren izen germaniarrei dagokienez, grezieratikoekin bezala jokatu da (*Achiles* > *Akiles*, *Archimedes* >

Arkimedes, Plutarchus > Plutarko...), eta horrela erdal grafiako *Chindasvinto, Childeberto edo Chintila* euskaraz *Kindasvinto, Kildeberto* edo *Kintila* gisa letraldatu dira, jatorrizko fonemari ahalik eta gehien hurbiltzeko, alemanek, italiarrek edota katalanek hobetsi duten bideari segituz. Gogoan izan behar da, *ch*-dun izen hauek oso gutxi direla, eta jatorrizko izenaren iturburuko *kh*-rako, hain euskarazko eta markatua den *tx* grafia erabiltzea, haien jatorrizko fonetikatik erabat urruntzeaz gaine-ra, izenoi halako euskal janzkera faltsua eskainiko litzaiekeela.

Segismundo, Chindasvinto edo *Humberto* moduko izenak erdaratik jaso ditugula gogoratu du M. Zalbidetik eta bere ustez ez ginatkeela horietatik gehiegi urrundu behar. Tx. Peillenek euskaldunon artean tradizio ezberdinak izan direla gogoratu du, izen horiek sarritan ez baitira berdin irakasten Iparraldeko eta Hegoaldeko ikastegietan. X. Kintanak esan du, gure testuinguru kulturala ahantzi gabe ere, ez zaiola bidezko iruditzen, Euskaltzaindiak honelako gauzetan umil-umilki «Erdaltzaindiaren» esanen meneko otzan agertzea, eta are gutxiago, erdal erabakiak euskararen nortasunerako gaizki helduak direnean. Bera erdal neokolonialismoaren kontra dagoela esan du.

A. Mujikak gogorarazi du Goi Erdi Aroko pertsonaiez ari garela, ez oraingoz (*Adolf Hitler*) eta Exonomastika batzordeak orain arteko irizpideari segitu diola. A. Sagarnak esan du egoki litzatekeela erabilera historikoarekiko kontrakarrean ez aritzea. B. Atxagaren ustez izena irudia da eta gordetzea komeni da. M. Azkaratek orain artekoari eustearen alde agertu da.

Ohar idatziak egiteko azken epea martxoaren 23an amaituko da.

3. *Hiztegi Batua*. Zerrenda osagarriak (famiaren inguruko saila. Izen propioetatik eratorriak eta -(t)ar osaerakoak), aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz

Miriam Urkiak aurreko Osoko bilkuran banaturiko «*Hiztegi Batua 2*. itzulua: familia loturak» izenburua eta 10 orrialde dituen dokumentua baliatu du. Idatzi honetan, ohargilea, aztergaiko sarrera, proposamena, arrazoiak eta *Hiztegi Batua* lantaldearen iritzia ageri dira. Halaber, familia loturei buruz informazio gehigarria ere banatu da. Gaurkoan, lehenbiziko bost orrialdeak aztertu dira.

Ohargileei beren iritzia eskertu dizkie, eta ondoren horiek komentatu ditu, famiaren inguruko senide-lotura eta abarrik garrantzitsuenak azpimarratuz. Bilduriko izen batzuk semantika hutsetik harago doazela aipatu da, mundu afektiboa ukitzen dutelako eta. Jasoriko oharrekin, senideen eskema logiko eta koadro sime-trikoak antolatzen ahalegindu dira.

Kontu berezia agertu da egitura lexikal batzuk ezarri edota onartzeko orduan, hizkuntzaren edo hiztunen jokabidea ez baitator beti bat logika abstraktuarekin. Hortaz, A. Arejitak esan du, *aita-ama ponteko* moduko egiturak ez direla, besterik gabe, hiztegi-jartzeak. Horri erantzunez, A. Sagarnak esan du gramatikaren eta erabileraren arteko muga ez dela erraz bereizten, ofizialtasuna eta erabilera sendotu arte bederen.

Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamen gehienak onartu dira. *Atautxi* hitza sartu ala ez eztabaida egon da. Adostasunik egon ez denez, azkenean botoetara eraman da. Hamahiru boto jaso dira sartzearen alde, hiru sartzearen kontra eta beste bost zuri.

Anaikide hitza dela eta, Andoni Sagarnak kontsultatu ahal izan duenez, *anaidia* erabilia izan dela adierazi du. Ondorioz, *anaidia-ri Zah.* marka gehitzea onartu da. Halaber, *birraitita-n Biz.* marka mantendu ala ez erabaki ahal izateko, datuak ekarriko ditu Hiztegi Batuko lantaldeak.

Denbora faltaz, gaurkoan aztertzeko utzirikoak, bai eta dokumentuaren seigarren orrialdetik hamargarrenerako tarteetakoak ere, hurrengo Osoko bilkurarako uztea erabaki da.

4. Euskaltzain urgazle berriak izendatzeko irizpideak finkatzea, aurkezpena

Honi buruz bi txosten aurkeztu eta banatu dira paperean, biak Zuzendaritzak begi onez ikusiak. Lehena, P. Uribarrenek prestatua, berak irakurri du. Horretan euskaltzain urgazle berriak izendatzeko baldintzak aztertu ditu, irtenbideak ere aipatuz, Arabako egoerari bereziki behatuz. Ondoren, beste txosten bat aurkeztu du idazkariordeak. Horretan, azken hogeita bost urteotako datuak eskaini ditu, euskaltzain urgazleen jatorria eta hautatze-datak emanez.

B. Atxagak Euskaltzaindiaren aurkako joerak nabaritu dituela esan du, eta hor bazuetan presio-taldeak agertzen direla, euskaltzainen artean generoa behar bezala ez dela kontuan hartzen argudiatuz. X. Videgainek, aldiz, Ipar Euskal Herrian ageri den adin problema azpimarratu du, eta kezkatu dagoela oraingo euskaltzainen ordezkapenez. Ongi dago, bere ustez, orain artekoen lana goraiatu eta saritzea, baina Euskaltzaindiaren iraupenerako, premiazoena etorkizunerako langileak erakartzea da. A. Arkotxak uste du Ipar Euskal Herrian askok ez dutela Euskaltzaindia ikusten, aspaldian zokoratua da eta. Batzuk Euskaltzaindira erakarri beharraz ere mintzatu da.

Euskaltzain urgazleak izendatzeko, prozesuari ekin aurretik, irizpideei buruzko oharra egitea eskatu zaie euskaltzainei, horretarako epea ere jarritz, martxoaren 23a, astelehena.

5. Eskuarztekoak

5.1. 2015. urteko Euskadi literatura Sariak, euskarazko literatura itzulpena, Euskaltzaindiak izendatu beharreko epaimahaikidea. Paskual Rekalde euskaltzain urgazlea eta itzultzailea izatea proposatu du Zuzendaritzak, 2015eko otsailaren 24an eginiko bilkuran. Eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.2. Gaur banatuko den liburua. Gaur aurkezturiko *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VI.* tomoa banatuko zaie hala eskatu duten euskaltzainei.

5.3. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetzea. Martxoaren 3an, asteartean, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren egoitzan erakunde bion arteko urteko lankidetzaren hitzarmena izenpetuko da. Egun berean, Blanca Urgellek paraturiko Axularren *Gero-ren* edizio kritikoa ere aurkeztuko da.

5.4. Hurrengo bilkurak. 2014ko azaroaren 29an Markina-Xemeinen erabakitako egutegia kontuan hartuz, EAE / RSBAP erakundearen 250. urteurrena dela eta, hurrengo Osoko eta Ageriko bilkurak Azkoitian egingo dira, Intsausti jauregian. Argibideak aurrerago emango dira.

6. Azken ordukoak

Mikel Zalbide euskaltzainak jakinarazi duenez, Euskararen Historia Soziala egitasmoan diharduen Nick Gardner-en aita hil da. Horiek horrela, Euskaltzaindikoko lankideari, bai eta haren senideei ere doluminak adieraztea erabaki da.

Eta besterik ez dela, 14:15 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Azkoitia, Intsausti jauregian

2015eko martxoaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejitak ahala Jabier Kaltzakortari (13:00etatik aurrera); Miren Azkara-

tek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Azkoitian, Euskalerriko Adiskideen Elkartearen egoitzan, Intsausti jauregian hasi da, goizeko 10:10ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren martxoko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko programako gaiak gogorarazi ditu.

1. Osoko bilkuraren (2015-02-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

A. Iñigok bi ohar egin ditu: batetik, 2.2. ataleko azkeneko paragrafoan, «*latindar, liguriar eta asturiar* kentzea erabaki da» dator. Nolanahi ere, *latindar* ezin ken dai-teke, lehendik onartua dagoelako. Hala ageri da *Hiztegi Batuaren* 3. argitaraldian; bestetik, 3. ataleko laugarren paragrafoan, *aitatxi* hitza jarri beharrean *atautxi* hitza jarri behar da, *atautxi* izan baitzen proposatu eta onarturikoa.

Bi oharrak onartu dira Osoko bilkuran. Horiek horrela, bestelako oharrak egin ez denez, 2015eko otsailaren 27ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika

2.1. Jatorri germanikoa duten pertsona-izenen grafia. Aurkezturiko iruzki-nak aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz. Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkaria batzar-aretoa sartu eta bertan bilduak agurtu ondoren, ohar bakarra jaso dela adierazi du. A. Iñigo euskaltzainak aurkezturiko oharrak zera dio: «Proposatutako irizpideak argiak iruditu zaizkit eta aplikatzeko modukoak. Zalan-tza bakarra 10. orrialdean proposatzen den *chi-/k(h)i-* elementua duten izenekin sortu zait. Irizpidea oso logikoa bada ere, iruditzen zait erabakia hartu aitzinetik birkontsideratu beharko litzatekeela erabileran egindako bidea. Izan ere, eranski-naren 9. eta 10. ataletan (dokumentuaren 14. orrialdean) emandako informazioa-ren arabera, euskal tradizioan, egungo literaturan, entziklopedietan eta eskola-li-buruetan erabat nagusi da *txi-* aldaera. Horregatik, egindako bidearen ondotik, orain *ki-*dun formak arautzeak euskararen normalizazioari zailtasuna ekarriko lio-keelakoan nago eta ez ote den beranduegi». M. Zalbidek ere kezka bera agertu du eta, besteak beste, irizpide soziolinguistikoak aipatuz, bai eta orain arte eginiko bi-dea kontuan hartuz ere, proposatutakoak erabiltzaileengan nahastea sorraraziko lukeela gaineratu du.

X. Kintana Exonomastika batzordeburuak bisigodoen hizkuntza zaharreko fone-ma *k* hasperenduna zela, eta alemanek *kh*, eta italiar eta katalanek *k* gisa ebakitzen dituztela argitu du. Germaniar izen zahar horiek euskal grafema moderno batekin janztea gehiegizko aldaketa iruditzen zaiola gaineratu du eta, bere ustez, hobe litza-teke, antzinateko izen klasikoan kasuan bezala jokatzera, *k*-rekin utzirik. M. Zalbi-dek ingelesek, aldiz, *ch*-rekin letraldatzen dutela gogorarazi du.

Adostasunik ez dagoenez, azkenean, gaia botoetara eramatea adostu da, emaitza ondorengo izanik: *tx* mantentzearen alde hamaika boto eman dira, *k* letraren alde bat, eta hamar boto zuri. Beraz, latinez *ch-z* idatziriko izen germaniko horietarako euskaraz *tx* grafia onartu da. Gainerakoan proposamena, lehenago, greziar eta la-tindar izen historiko eta mitologikoetarako jada erabilia, ontzat eman da.

2.2. Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta izenlagun erreferentzialak sortzeko irizpideak. «Atzerriko leku-izenetatik herritar-izenak eratzeko gidalerroak» txostena aurkeztu eta irakurri du A. Mujikak, eta toponimoen bukaeraren araberrako kasuistika egin du, kasuan kasuko adibideekin, Euskal Herriko toponimoetatik eratorritako herritar-izenetan ageri diren joera nagusietan oinarrituz proposamena, hau da, analogiaz jokatu. Exonomastika batzordeak aurkezturiko txostenean ongi azaldurik agertu dira bukaera ezberdinetako hitzak, bai eta bakoitzari normalenik dagozkion *-tar*, *-dar* edo *-ar* atzizkiak ere.

Aurkezturiko txostena dela eta, arau ala gomendio gisa onartu behar den galde-tu du A. Mujikak. Honi dagokionez, gomendio gisa onartzea ikusi da Osoko bilkuran. Amaitzeko, aurkezturiko txostenari idatziz oharrak egiteko azken eguna maia-tzaren laua, astelehena, izatea erabaki da.

3. Hiztegi Batua. Zerrenda osagarriak (famiaren inguruko saila, izen pro-pioetatik eratorriak eta *-(t)ar* osarakoak), aurkezturiko iruzkinak aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz.

Miriam Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua batzar-aretora sartu eta bertan bildurikoak agurtu ditu. Datuak aztertu ondoren, aurrekoan gaurko Osoko bilku-rarako utziriko *birraitita* hitza *Bizk.* markarekin mantentzea proposatu du lantal-deak. Halaxe egitea erabaki da.

Ondoren, famiaren inguruko sailarekin amaitzeko, aurreko Osoko bilkuran aztertzeko utziriko (dokumentuaren seigarren orrialdetik hamargarrenerako tartee-takoak) hitzak banan-banan aztertzen jardun du, horretarako lantaldeak erabiliriko arrazoiak-eta eman. Horiek horrela, lantaldeak eginiko proposamen ia guztiak onartu dira. Proposatutakoetatik aldaketak edo zehaztapenak izan dituztenak on-doko hauek izan dira (azterturiko ordenaren arabera): *ezkonsenide* hitza isiltzea erabaki da; *haur besoetako*, berriz, sartzea erabaki da; *herengusu* eta *herengusina* mar-karik gabe sartzea erabaki da; *seme-alabatza* hitza sartzea erabaki da (lehendik araututa zeuden *semetza* eta *alabatza* formekin batera); *alabaizun* forma arau-tuari kategoria (iz.) eta definitzailea ('alabaordea') gehitzea erabaki da, bileran ber-tan onartu den «semeizun iz. "semeordea"» sarrerarekin parekotasuna mantentze-ko; lehendik araututako *seme nagusi* formari *Bizk.* marka kentzea erabaki da.

Puntu honekin bukatzeko, M. Urkiak X. Videgain euskaltzainak azken orduan beste ekarpen bat egin duela adierazi du. X. Videgainek, *familia*, *senide*, *jendaki* eta halakoen ondoan *askazi* hitza sartzea proposatu du. Eginiko proposamena jada *Hiz-tegi Batuan* (*ahaidea* eta *leinua*) datorrenez, bere horretan utzi du Osoko bilkurak.

Ondorioz, familiaren inguruko saila egintzat eman da Osoko bilkuran. Honi dagokionez, familia-loturen behin betiko bertsioa bidaltzeko eskatu dute euskaltzainek, beraz, halaxe egingo da Idazkaritzatik. Hurrengo Osoko bilkurarako izen propioetatik eratorriak eta *-(t)ar* osaerakoak laga dira.

4. Euskaltzain urgazle berriak izendatzeko irizpideak. Bidaliriko iruzkinak aurkeztu, aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz

E. Osa idazkariordeak aurreko Osoko bilkuran eskatutakoari kasu eginez, urgazleen batez besteko adina (oro har eta lurraldeka), bai eta batzordeetan, lantaldeetan eta egitasmoetan urgazleen partaidetza jasoz, aurrekoan aurkezturiko txostena osatu eta berriz aurkeztu du. Ondoren, P. Uribarren euskaltzainak prestatuturiko txostena kontuan hartuz, irizpideei buruz irekiriko gogoeta aldian, M. L. Oñederra eta A. Urrutia euskaltzainek ekarpen bana aurkeztu dutela adierazi du. Bi ekarpenak banatu eta irakurri dira Osoko bilkuran.

M. L. Oñederrak «Euskaltzain urgazleak txostenaz oharrak» deituriko idatzian, besteak beste, «euskaltzain urgazle berriak atzerriko hizkuntzalarien artean» barik, «bertoko zein atzerriko hizkuntzalarien artean» jarri beharko litzatekeela uste du. Era berean, lau multzoko bi zerrendak antzekoak izan arren, ez dira gauza bera, eta bere aburuz, «egoki litzateke elkarren artean nola lotzen diren eta zertan bereizten diren» agertzea. 2. orrialdeko zerrendako 2) paragrafoko azken esaldian («Beraz, zuzendaritzak bere kabuz nahiz euskaltzain oso, batzorde eta lantaldeen eskariak bideratuz...») azpimarratutakoa gehitzea eskatzen du, hobeki ulertzeko. Bigarren orrialdekoazken-aurreko paragrafoan aipatzen den adin baldintza kentzea edo biguntzea eskatzen du. Azkenik, txostenaren estatusarekin loturiko kontu formal batzuk bileran eztabaida daitezkeela dio.

A. Urrutiak bere ekarpenean lau puntu hauek proposatu ditu, P. Uribarren euskaltzainak aurkezturiko testua praktikan jartzeko baliagarri izan daitekeelakoan:

- a. Urgazleak lurraldez lurralde hautatzea, lurralde bakoitzaren premien arabera.
- b. Hautatzeko ordena hauxe izatea: lehenik Araba, hurrengoa Nafarroa, gero Bizkaia eta Gipuzkoa (bi-biak batera), gero atzerriko euskalariak eta Ahoskera batzordetik izendatu beharrekoak. Azkenik, Iparraldekoak.
- c. Egutegiari eta kopuruari dagokienez, uda aurretik Araba (3), uda ostean Nafarroa (3); urtearen bukaeran edota datorren urtearen hasieran Bizkaia (3) eta Gipuzkoa (3); atzerriko euskalariak (2) eta Ahoskera batzordekoa (1); 2016ko udaberrian Iparraldea (3).

- d. Izendapenak egin aurretik hautagaien profilak zehaztu beharko lirateke, eta hautagaiekin mintzatu, haiekin adostasuna lortzeko.

P. Uribarrenek esan du azken aldian aldaketa demografiko handiak izan direla, Araban batez ere. Urgazleak aukeratzean hori kontuan harturik, bere ustez, Arabarako, 5-6 urgazle izendatu beharko lirateke. Euskaltzainburuak, aurretik, Arabako eta Nafarroako euskaltzainekin biltzea proposatu du, horiekin aurrelana egiteko, hortik behar direnak proposatu ahal izateko.

P. Goenagak esan du ezer baino lehen galdetu beharko litzatekeela ea zertarako diren urgazleak, orain arte ez baikara haietaz baliatu behar bezala. A. Arkotxak postu horiek gazteei eskaini behar zaizkiela esan du. X. Videgainek, ordea, galdetu du zenbat urgazle izan diren eta noiz izendatu diren. Azpitik ez dela mugarik jarri behar pentsatzen du. Badira, halaber, kanpoko euskalariak ere. Horiekin zer egin, zer eskatu... eskaintza erakargarriak egin behar zaizkiela azpimarratu du.

P. Uribarrenek Euskaltzaindiaren Arautegiko eta Barne-erregelatako artikulua batzuk irakurri ditu. Ez dio batzordeetan egon behar dutenik, euskararen alde lan egitea baino. Uzten al diegu parte hartzen? Arautegia eta Barne-erregelak bete behar ditugula gaineratu du. Tx. Peillenek dio kanpotarrak ere kontuan hartu behar ditugula. M. L. Oñederrak etxeko hizkuntzalariak kanpokoak bezala kontuan hartzea nabarmendu du, horien artean jende egokia dagoenean. P. Uribarrenek hautagaiak adostasunez izendatzea nahiago luke.

A. Urrutiak aurrean bat egin daitekeela uste du: izendatzeko profila prestatuz eta eztabaidan jarriz. Eztabaidaren amaiera gisa, hobetsi da Zuzendaritzak lurralde bakoitzeko euskaltzainekin hitz egin ondoren, euskaltzain urgazlegai berriak Osoko bilkurara ekartzea. Hasi, Arabatik hasiko da, ondoren, gainerako lurraldeetako proposamenei ekiteko.

5. Batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2014. urteko errendapenak eta 2015. urteko planak, aurkezpena

Idazkariordeak batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2014. urteko errendapenak aurkeztu ditu, bai eta 2015. urteko ardatzak eta planak ere. Banaturiko idatzian, batzordeek, lantaldeek, egitasmoek eta zerbitzuek aurkezturiko errendapenak eta planak jaso dira. Aurkezpenaren ondoren, ekarpenak-eta egiteko aldia ireki da, apirilaren 14an 12:00etan amaitzen dena.

6. 2014. urteko balantze ekonomikoaren aurrerapena eta 2015. urteko aurrekontua, aurkezpena.

S. Aleman diruzainak hitza hartu du. Iaz Euskaltzaindiak jarririko helburuak bete izan direla esan du. Bere ustez aurrekontu orekatuak izan dira eta, beraz, Euskaltzaindiaren ekonomia kudeaketa ondo bideratzen ari da. Ondoren, J. Zabaleta kudeatzaileari hitza eman eta beronek paperean aurkezturiko 2014. urteko balantze ekonomikoaren aurrerapena irakurri du. Jarririko helburua, hots, aurrekontuak orekatzea lortu izan da, azken lau urteotan bezala, eta xeheki azaldu ditu. Oro har, gauzak ondo joan dira, uste baino diru gehiago jaso dugulako. Ondoren, 2015eko aurrekontuari dagokionez, berau ere, bere ustez, ondo joango zaigu. Datu orokorrak eman eta gero aurrekontuak prestatzeko irizpideak xeheki ere azaldu ditu.

A. Arkotxak aurrekontu-proposamenean ageri diren izen batzuei buruzko argibideak eskatu ditu, eta programa-kontratua moduko terminologia, bere ustez nahasgarria dela iritzita, terminologia aldatzea proposatu du. Halaxe egitea erabaki da.

A. Urrutia euskaltzainburuak adierazi du Zuzendaritzak Osoko bilkurari 2015. urteko behin-behineko aurrekontuei behin-behineko onarpena ematea eskatzen duela adierazi du. Kontrako iritzirik ez dagoenez, ontzat eman da eskaera hori. Ondoren, aurkezturiko aurrekontuei iruzkinak-eta egiteko aldia ireki da, apirilaren 14an 12:00etan amaitzen dena.

7. Eskuartekoak

7.1. Espainiako Sari Nazionalak. Literatura Ikerketa batzordeak, bai eta Zuzendaritzak ere, epaimahaietako kide izateko proposatzen dituenak honako hauek dira:

- Premio Nacional de las Letras Españolas: A. Toledo eta A. Iñigo.
- Premio Nacional de Literatura (Poesía): S. Gartzia eta M. Billelabeitia.
- Premio Nacional de Literatura (Poesía Joven «Miguel Hernández»): K. Bijueska eta A. Jauregizar.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Infantil y Juvenil): J. Manuel Lopez Gaseni eta A. Agiriano Altuna.
- Premio Nacional de Literatura (Narrativa): K. Agirre eta J. Kortazar.
- Premio Nacional de Literatura (Ensayo): P. Urkizu eta M. Azkarate.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática): J. Valverde eta A. Olaizola.
- Premio Nacional a la Mejor Traducción: X. Kintana eta S. Aleman.
- Premio Nacional a la Obra de un Traductor: X. Kintana eta S. Aleman.
- Premio Nacional de Periodismo Cultural: A. Arejita eta P. Kaltzada.

Eginiko proposamenak berretsi dira Osoko bilkuran.

7.2. Ramón Rubial Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzak.

Lankidetzak-hitzarmena izenpetu da Bilbon, 2015eko martxoaren 23an. Hitzarmenaren helburua Ramón Rubial Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzarako oinarri nagusiak ezartzea da. Hala, euskara hedatu eta indartzeko jarduerak antolatzea izango da bi erakundeon xedeetako bat. Era berean, Fundazioa eta Akademia elkarlanean arituko dira, bereziki, euskararen normalizaziorako proiektuak garatzeko, eta Ramón Rubial Fundazioaren barruan eta beronen bitartez Euskaltzaindiak euskarari buruz emandako arauak edo gomendioak zabaltzeko.

7.3. Gaur banatuko diren liburuak.

 Honako hauek:

- Blanca Urgellek paraturiko Axularren Geroren edizio kritikoa (Mendaur bilduma VI), martxoaren 3an Iruñean aurkeztu zena.
- B. Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren 8. zenbakia. Bilbon, egoitzan, martxoaren 26an aurkezturikoa.

7.4. Hurrengo bilkurak.

 Onarturiko urteko egutegiaren arabera, ondoko hauek:

- Osoko bilkura Bilbon egingo da, egoitzan, apirilaren 24an, 09:30ean.
- XIX. Barne Jardunaldiak, Bilbon egingo dira, egoitzan, apirilaren 24an, 12:00etatik aurrera.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta besterik ez dela, 14:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Azkoitian, 2015eko martxoaren 27an

Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrena gogora ekartzeko.

Azkoitian, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen egoitzan, arratsaldeko 17:00etan, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrena gogora ekartzeko, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Antonio Campos eta Maite Idirin.

Euskaltzain urgazleak: Jesus Maria Etxezarreta eta Koro Seguroa.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Juan Bautista Mendizabal Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako presidentea, bai eta elkarte honetako hainbat kide ere.

Urrategi Alberdi Azkoitiko alkatea eta zinegotziak.

1764an sortu zen Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen urteurrena ospatzeko, zenbait ekimen antolatu dira, horien artean, gaur egin den Euskaltzaindiaren Ageriko bilkura. Urrategi Alberdi Azkoitiko alkateak eman dio hasiera ekitaldiari, hurreratu diren guztiak agurtuz eta ondoan izan dituen bi erakundeek ekarpena, biiek Euskal Herriarekiko erakutsiriko konpromisoa, azpimarratuz. Era berean,

haien zereginetan segitzeak eta arrakastarik handiena izateak daukaten garrantzia azpimarratu ditu.

Ondoren, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Gipuzkoako presidentek, Juan Bautista Mendizabalek, Azkoitiko Udalari eta Euskaltzaindiari elkartearen esker ona adierazi die. Euskararen Akademiari dagokionez, laster mendea betetze-ra doala-eta, eginikoaren aitortza eta bi elkarten artean partekatu dituzten egitasmoak ekarri ditu gogora. Haren hitzetan, eginiko bidean urratsak ematen segitzea garrantzi handikoa da Euskal Herriaren gizarte eta kultur garapenerako. Bere mintzaldia bukatzean, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide gisa dagokion ezaugarria erantzi eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide ere baden A. Urrutia euskaltzainburuari jarri dio.

Euskaltzainburuak Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen gonbita eskertu du. Bere mintzaldian, Euskal Herria gizartetik ehuntzen eta garatzen laguntzen duten kultur erakundeen garrantzia eta gizartearen partaidetza goraiatu ditu, horiek guztiak bere etorkizuna eskuan hartu nahi duen gizarte bizi baten adierazgarririk behinenak dira eta.

Ondoren, urteurrena baliatuz, Bergarako hainbat musikarik eta artistak egindako Peñafloredako Kondearen *Mozkorra barregarri* operaren zati batzuk eskaini dituzte. Kantariak, Gorka Unamuno, Marije Ugalde, Julen Alberdi, Karlos Etxaniz eta Fran Martinez izan dira, eta Leo Juaristi, piano jotzailea; Jose Migel Elkorok egin ditu aurkezpen lanak.

Ekitaldiari amaiera emateko, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarreak eta Euskaltzaindiak opari bana egin diote elkarri. Akademiak Elkarteari hiru liburu eman dizkio, bere bibliotekarako: Axularren *Gero* liburuaren ale bat eta Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* argitalpenaren bi ale. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarreak, aldiz, erakundearen Estatutuen lehenengo artikulua jasotzen duen oroigarri bat eman dio Euskaltzaindiari.

Hurreraturiko guztiak zutitu direla, *Agur jaunak* abestu eta arratsaldeko 17:45ean bukaera eman zaio Ageriko bilkurari.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urutiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza

2015eko apirilaren 24an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia
Arkotxak ahala Xarles Videgaini;
Jean-Baptiste *Battittu* Coyosek ahala

Andres Urrutiari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Osoko bilkura Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan hasi da, goizeko 09:45ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren apirileko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

Lehenik, E. Osa idazkariordeak Osoko batzarrak 11:45 arte iraungo duela gogorarazi du, ondoren XIX. Barne Jardunaldiei ekiteko.

b) Osoko bilkurako (2015-3-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

P. Goenagak bilera-agiriko 4. orrialdean jasotako «P. Goenagak galdetu du ea urgazleak zertarako behar ditugun» esaldia beste honengatik ordeztea eskatu du: «P. Goenagak esan du ezer baino lehen galdetu beharko litzatekeela ea zertarako diren urgazleak». Izan ere, bilera-agiri proposamenean datorrenak ez du ondo islatzen berak esanikoa. Eginiko zuzenketa onartu da Osoko bilkuran.

M. L. Oñederrak bi ohar egin ditu: 3. orrialdean, 4. puntuaren bigarren paragrafoan, «hitz horiek azpimarratzea» esaldiaren ordezkari «azpimarratutakoa gehitzea» jasotzea; laugarren orrialdean, bosgarren puntuaren azken-aurreko paragrafoan, «M. L. Oñederrak ez dakusa zergatik etxeko hizkuntzalariak baztertu behar diren kanpokoaren fabore» «M. L. Oñederrak etxeko hizkuntzalariak kanpokoak bezala kontuan hartzea nabarmendu du» esaldiagatik ordeztea eskatu du. Eginiko bi oharrak onartu dira Osoko bilkuran.

Horiek horrela, bestelako oharrak egon ez denez, 2015eko martxoaren 27ko Osoko bilkuraren bilera-agiria onartu da.

c) *Hiztegi Batua. Zerrenda osagarriak (izen propioetatik eratorriak eta -(t) ar osarakoak). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki*

A. Sagarna eta M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek adierazi dutenez, hitz-multzo horri M. Azkarate, P. Uribarren eta X. Kintana euskaltzain osoek egin dizkiote oharrak.

Atala jorratzeko, hiru dokumentu baliatu dituzte. Lehenbiziko txostenaren –«*Hiztegi Batua 2*. itzulua: izen propiotikoak (zerrenda osagarriak)»– lehenengo hiru orrialdeetan, besterik gabe onartzeko proposatzen diren laurogeita hamalau forma jaso dira; laugarren orrialdean, lehendik araututako forma osatua izanik Osoko bilkurak besterik gabe onartzeko forma bat ageri da; laugarren orrialdetik zazpigarren orrialdera (biak barne) besterik gabe isiltzeko proposaturiko hiru-rehun eta hamar formak ageri dira; zazpigarren orrialdetik hamazazpigarrenera (biak barne) euskaltzainek oharretaturiko ehun eta laurogeita hamazazpi forma ageri dira. Azken hauek, hogeita bat orrialde dituen eta izenburutzat «*Hiztegi Batua 2*. itzulua: izen propiotikoak» daraman txostenean xeheago landu dira. Izan ere, bertan, jasotako oharrak, eginiko proposamenak, lantaldearen datuak eta proposamenak jasotzen dira; hirugarren txostenak, hogeita lau orrialde dituenak, «Izen propiotikoak (informazio osagarria)» du izenburutzat eta oharretaturiko hitzei buruzko informazio osagarria eskaintzen du, eztabaidan lagungarri gerta daitekeena.

Oharrik jaso ez duten hitzei buruz lantaldeak eginiko proposamenak onartu dira Osoko bilkuran. Ondorioz, «*Hiztegi Batua 2*. itzulia: izen propiotikoak» txostenaren lehenengo zazpi orrialdeak oinarritzat hartu eta oharrezaturiko hitzak aztertu dituzte euskaltzainek. Gauzak horrela, lantaldeak eginiko proposamen ia guztiak onartu dira. Proposatutakoetatik aldaketak edo zehaztapenak izan dituztenak ondoko hauek izan dira (azterturiko ordenaren arabera): *-ismo*, *-ista* eta *-filo* bukaera duten formak direla eta, horietako batzuk, erabiliak, sartzea onartu da (*arianismo*, *bizantinismo*, *bonapartismo*, *bonapartista*, *fauvista*, *germanismo*, *germanista*, *hispanista*, *jakobinismo*, *krausismo* eta *krausista*; isildu egin dira *anglofilo*, *frankofilo* eta *germanofilo*); *adonis* forma onartu da (*adoni* baztertuz); *Akilesen orpo* ('(norbaiten) alderdi ahula' adieran), *arabesko* (Art. markarekin), *Arkimedesen printzipio*, *putzu artesiarrak* (*artesiarrak* putzuren kaltetan), *browndarra* (*higidura browndarra* adibide gisa), *camembert*, *cardan* (*Cardan giltzadura* adibide gisa), *chantilly*, *charleston*, *cicerone*, *curaçao*, *curie*, *daltoniko*, *drakoniarrak* (*drakoniano* baztertuz), *emmental*, *Eustakioren tronpa*, *Fahrenheit gradu*, *Falopioren tronpa* (*Fallopio* moldatuz), *gruyere* (diakritikoa isilduz), *hanburger*, *hanburgesa* (Heg. markarekin), *hawaiiar*, *helenistiko*, *hispaniko*, *homeriko*, *jacuzzi*, *jerez*, *juliotar* (*juliar* isilduz), *kafkiarrak* (*kafkar* eta *kafkiano* isilduz), *kanario* (lehendik arautua zuzenduz), *kartesiarrak* eta *kaxmir* onartu dira; *hamiltondarra* teknizismoa baztertu egin da; zientzia-unitateak aztertzean berrikusiko dira aztergai honetan erabaki gabe utzi diren *dekanewton*, *gigaelektronvolt*, *gigahertz*, *hektopascal*, *henry* eta *kilohm* unitateak.

Honenbestez, aztergaia bere horretan utzi da, hurrengo bilkuran aztertuko dira zortzigarren orrialdetik aurrera azaltzen diren formak.

d) Batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2014. urteko errendapenak eta 2015. urteko planak. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki

E. Osa idazkariordeak hiru ohar jaso direla adierazi du, batetik, M. L. Oñederra euskaltzainak bera buru den Ahoskera batzordearen planari zehaztapen batzuk gehitu dizkio, aurkezturiko plangintzan aurreikusiriko helburuak eta aldatzen ez dituztenak, beraz, bere horretan jaso dira; Onomastika batzordeak aurkezturiko errendapenean, ondo jaso dira lehen zenbait argitalpeni bai eta irizpen batzuei buruz jaso gabe utzirik aipamenak. Zehaztapenak direnez, bere horretan jaso dira; amaitzeko, A. Iñigok, Sustapen batzordearen plangintzan, Euskal Herriari buruzko arau zenbakia oker jaso dela adierazi du, beraz, hori ere zuzendu da.

Bestelako oharrak egon ez denez, batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen 2014. urteko errendapenak eta 2015. urteko planak onartu dira Osoko bilkuran.

e) 2014. urteko balantze ekonomikoaren aurrerapena eta 2015. urteko aurrekontua. Aurkezturiko iruzkinak azertu eta erabaki

S. Aleman diruzainak adierazi duenez, ez da inolako oharrik edo iruzkinik jaso. Horiek horrela, 2014. urteko balantze ekonomikoaren aurrerapena eta 2015. urteko aurrekontua onartu dira Osoko bilkuran.

f) Eskuaratekoak

5.1. Iruñeko Udalak urtero antolaturiko Euskarazko Haur Literaturako Lehiaketa. Iruñeko Udalak antolatzen duen lehiaketa horretan epaimahaiko kide bat izendatzeko Euskaltzaindiari eginiko eskabidea kontuan hartuz, Zuzendaritzak Juan Jose Zubiri Luxanbio euskaltzain urgazlea proposatzea erabaki du, 2015eko apirilaren 21ean eginiko bilkura.

Zuzendaritzak eginiko proposamena berretsi da Osoko bilkuran.

5.2. Sarako Azokan aurkeztu eta gaur banatuko diren liburuak. Ondoko hauek banatuko dira:

- *Bahnar deitu Salbaiak*. Pierre Dourisbourek 1870ean idatzi zuen *Les Sauvages Bahmars* eta 1929an Jean Elissalde «Zerbitzari»-k itzuli zuen. Orain Henri Duhauk edizio berri bat prestatu du, garai hartako beste testu batzuk erantsiz.
- *Mongongo Dassanza: Albaitaritzako idazlanak (1692-1892)*. Txomin Peillenek paratua.
- *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942*. Natalia Zaïkak idatzia.

5.3. Hurrengo bilkura. Osoko bilkura Donostian egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundian, maiatzaren 29an, goizeko 10:00etatik aurrera.

g) Azken ordukoak

Azken ordukorik ez da egon.

Eta besterik ez dela, 11:45 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian

2015eko maiatzaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Jean-Baptiste *Battittu* Coyosi; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari.

Osoko bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian bildu da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren maiatzeko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

1. Aurreko Osoko Batzarraren (2015-04-24) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik egon ez denez, bilera-agiria bere horretan onartu da.

2. Exonomastika

2.1. Kanpoko herritar-izenak sortzeko irizpideen dokumentu osatua aurkeztu eta iritziak jaso. Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria batzar aretora sartu eta, Euskaltzaindiak aurretik erabakia daukanaren bidetik, kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta izenlagun erreferentzialak osatzeko irizpideak finkatzeko txostena aurkeztu du, Exonomastika batzordeak, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikerlanean, 2015eko maiatzean eginiko batzarrean osatu eta onarturiko testua proposatuz. Testua, paperean idatzia, euskaltzain osoen artean banatu da.

Lehenik pertsonen jatorria eta erlazio-adjektiboak azaldu ditu, *-tar*, *-dar*, *-ar* atzizkiekin toki horietako herritarrek (*italiarrak*, *austriarrak*...) zein izenlagun erreferentzialak (*txinatar jatetxea*, *europar literatura*, *arabiar arkitektura*...) eratzen direla aipatuz. Era berean, erreferentzia hori ez dela tokira mugatzen esan du, bertako izaera, kultura, hizkuntza eta abarrera baizik (*frantziar literatura*, *erromatar galtzadak*, adibidez).

Halere, atzizki horiekin moldaturikoez gainera, euskaraz toki horietako pertsonak zein gauzak adierazteko *-ko* atzizkiarekin baliatzeko ohitura zahar eta jatorra ere badela gogorarazi du: *Valentziako laranja*, *Espainiako Konstituzioa*, *Nafarroako Gobernua*, *Asturiasko mendigunea* adibidez. Halere, *-ko* atzizkia ez da erabiltzen zerbait 'nongo' ez baina 'noren edo noren mendekoa' den adierazi nahi denean: *Polinisia Frantsesa*, *Kongo Belgikarra*, adibidez.

Horren hurrengo, jatorri-adjektibo edo herritar-izen konposatu jasoak eratzeko modua azaldu du, hor lehen elementua *-o*-rekin amaituriko erro jaso eta aldaezintzat harturik: *afro-*, *arabo-*, *austro-*, *erruso-*, *franko-*, *greko-*... horien kasuistika xeheki azaldu eta etsenplu ugari emanaz, bai eta salbuespen kasu nabarmenenak ere, kakofonia baztertzeko.

Azkenean, bokalez zein kontsonantez bukatutako leku-izenetatik eratorririko izen eta adjektiboak eskaini ditu, amaiera ezberdinen arabera, hor ere kasu salbuestiak azpimarratuz. Sailkapena egiteko, kontuan hartu ditu orain arteko praktika eta euskal herrietako ohiturak, idazkera arrotz eta bitxiko formak, ahal denean, saihestuz.

Elkarrizketa eta galderen aldian, P. Zabaletak itzultzeko era ezberdinek aldean izan dezaketen esangura-ezberdintasuna aipatu du. Hori argitzeko, *Nafarroako Gobernua* eta *nafar gobernua*, *Madriko Gobernua* eta *madrildar gobernua* moduko etsenpluak jarri ditu, bereizketa batzuk kontuan hartzekoak direlako.

M. Zalbidek A. Mujikaren lanari oso ondo iritzi dio eta horrelako zerbait kale-ratzea jendearentzat oso mesedegarria litzatekeela gaineratu du. Zenbait kasutako abusua ere azpimarratu du, hitz batzuei behar ez duten eranskinak jartzen zaizkie-lako: (euskal) baserria, Frantziar Estatuko / Frantziako, Zumaia aldeko (euskal) kosta, adibidez. Dudazko kasuetan posibilitate guztiak aukeran uztea hobe dela pentsatzen du. Era berean, bere aburuz, euskaraz maiz jatorrago eta normalagoa da toponimoei ohiko *-ko* eranstea, *-tar* baino.

A. Arejitak A. Mujika zoriondu du, kanpoko izenen kasuistika bildu eta arau-tzeko egindako ahaleginagatik. Bera ere ez dator bat *-tar* / *-dar* kalifikatu beharre-ko hitzaren aurrean beti ipini beharrekin, hor, azken buruan, *izena + izena* lotura dagoelako, eta hitz erreferentzial horiek jarrera bietan onargarriak direlako, aurrean zein atzean.

M. Azkaratek zorionak eman dizkio A. Mujikari, eta bere txostena jendartean zabaltzea merezi duela gaineratu du, xehetasunak azpimarratuz.

A. Iñigo *-tar* atzikia erabiltzearen alde agertu da, eufonia eta kakofonia kasue-tan, eta ildo horretatik *calahorzar* baino egokiago ikusten du *calahorzar*. Era be-rean, *-ts* eta *-tz* amaieradunei, kasu guztietan, salbuespenik gabe, *-star* eta *-ztar* eranstea komeni dela aipatu da, Euskal Herriko izenekin egin ohi den bezala, hots, *Saigots* > *saigostar*, *Zarautz* > *zarauztar* gisa.

M. L. Oñederrak ere A. Mujikari zorionak eman eta oharrak idatziz egingo di-tuela iragarri du.

Gauzak horrela, ekarpenak, iruzkinak edota oharrak egiteko ekainaren 19ra ar-teko aldia ireki da.

2.2. «Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Izen germanikoak. Irizpideak eta per-tsona-izenen zerrenda» araugaia aurkeztu. Ondoren, A. Mujika germaniar jatorriko izenetara igaro da. Honetan ere txosten idatzi luzea ekarri du, bere argudioen indar-garri. Hasieran, era honetako izenen historia egin du, eta Erromatarren Inperioa ahul-tzen hasi eta barbaroen eraginez amildu arte gure kontinentera heldu edota Europa-ren iparraldetik hedaturiko jende berrien izenak aipatu ditu. Horietako batzuk, hain zuzen, aurreko zerrendetan Euskaltzaindiak jada bilduak izan dituela gogorarazi du: santu, errege eta pertsonaia historikoenak, eta horien kasuistika azaldu du.

Orain arte bildu gabeko izenekin era berean jokatzeko saiatu da Exonomastika batzordea, eta 66. eta 76. arauen bidetik *-o* bukaera hobetsi da germaniar izenetara-ko ere, aspaldion idazleek, eskola-liburuek eta komunikabideek onartu dutenez.

Hori dela eta, *-rik* bukaera duten izenetan *-riko* forma uztea proposatzen da: *Alariko*, *Euriko*, *Roderiko*, *Sigeriko*, *Teodoriko*, *Witeriko*... adibidez. Salbuetsirik gelditzen dira eskandinaviar jatorrikoak, *Erik* gisakoak adibidez, duela gutxi gureganatuak, eta *-o*-ren egokitzapena egiten duten gainerako hizkuntzetan ere (gaztelania, italiara, portugesa) salbuespen berarekin onartuak.

3.5. Hatzen izenak. Oharrik gabe onartu dira lantaldeak proposatutako hatzen izenak, baina *eri* osaerakoak gehitzeko proposatu du X. Videgain euskaltzain osoak. Datuak bildu dira eta Osoko bilkuran aurkeztu, baina Iparraldeko euskaltzainen esku utzi nahi izan da erabakia, proposamena aurkeztu bada ere (*eri potots*, *eri erakusle*, *eri nagusi*, *eraxtun eri* eta *eri ttipi*). Beñat Oihartzabalek *NolaErran*-eko corpuseko datuak bilduko ditu eta horren argitan hartuko da erabakia urriko Osoko bilkuran.

3.6. Karten izenak. 8 formari egin zaizkio oharrak, eta 22 berri proposatu dira. Lehendik arautuei kartei dagozkien informazioa gehituz onartu dira batzuk: «**altxaldi** 1 iz. 2 iz. (kartetan)», «**andere** 1 iz. *Ipar.* “andrea”. 2 iz. *Ipar.* (karta)», «**hirusta** 1 iz. *Trifolium sp.* 2 iz. (kartetakoak): *dama hirusta.*», «**kartak moztu**» (azpisarrera s.u. *karta*, lantaldeak proposatua zuena) eta «**palo** iz. *Heg.* (karta-jokoan)». Lehendik zeuden bezala utzi dira **paso** eta **tanto** sarrerak (eta honen aldaera *ttanto* ez sartzea erabaki da), eta **esku izan** eta **eskutik irabazi** azpisarrera proposatuak. Onartu diren forma berriak: «**belot** iz. *Ipar.* (karta-jokoa)», «**bridge** iz. (karta-jokoa)» eta «**ipurdi zikin** iz. (karta-jokoa)» (azpisarrera s.u. *ipurdi*). Azkenik, hauek dira isildu direnak: *burra*, *duble*, *flor*, *gerla*, *gezur-joko*, *gezurka*, *keimu*, *kuentxe*, *manila*, *mintza*, *mistigri*, *mus!* (*Euskaltzaindiaren Hiztegiak 2.* adiera gisa jaso du eta hori aski da),

piñet, plegu, pleka, tira, tomate, triunfo, xizeta, xazpiterdia (aski baita *xazpi* sarrerako azpisarrera gisa jaso dagoen *xazpi eta erdian*).

4. Exonomastika. Ekainaren 26ko Osoko bilkuran aurkezturiko dokumentuaren («Kanpoko herritar-izenak sortzeko irizpideak») 10. orrialdeko adibidea eta 11. orrialdeko oin-oharra: zuzenketa.

Ekainaren 26ko Osoko bilkuran, Baionan, kanpoko herritar-izenei buruzko gomendioa onartu zen. Hala ere, Txomin Peillenek ohartarazi zuen akats bat zegoela *Irkuts* grafian, *Irkutsk* baita. Exonomastika batzordeak, akatsa zuzentzeko asmoz, oker zegoenaren orde, 157. arauan ageri den *Txerepovets* Errusiako hiriaren izena erabiltzea proposatu du.

Exonomastika batzordeak eginiko proposamena onartu du Osoko bilkurak. Ondorioz, «Kanpoko herritar-izenak sortzeko irizpideak» zuzendu egingo da.

5. Eskuartekoak

5.1. Jan Braun ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri eta hilberri txostena. Hizkuntzalari poloniarra ekainaren 29an zendu zen, baina orain arte ez dugu izan haren heriotzaren berri. Izan, 89 urte zituen eta ohorezko euskaltzaina zen, 2000ko urriaren 27an izendatua. Zuzendaritzak hilberri txostena Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak prestatzea proposatzen du, 2015eko irailaren 23an harturiko erabakiaren arabera. Berak zeregin hori onartu du, baina, txostena osatzeko, gainerako euskaltzainei eskertuko lieke zenduari buruz dakizkiten datuak-eta ematea, urruntasunagatik ez baita asko haren bizitzaz dakiguna.

5.2. Suzuko Tamura ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Suzuko *Ainhoa* Tamura ohorezko euskaltzain japoniarra 2015eko abuztuaren 3an hil zen, Sho Hagio euskaltzale japoniarrak jakinarazi duenez. Zuzendaritzak hurrengoan proposatuko du hilberri txostena nork irakurri.

5.3. Joshua Fishman ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena. Zuzendaritzak ohorezko euskaltzain honen hilberri txostena Mikel Zalbide euskaltzain osoak prestatzea proposatu du, 2015eko irailaren 23an harturiko erabakiaren arabera. Osoko bilkurak eginiko proposamena onartu du.

5.4. Xalbador eguna. Fernando Aire *Xalbador* Ipar Euskal Herriko bertsolari zenaren omenezko eguna aurtengo urriaren 10ean eta 11n egingo da Urepelen. Eta harekin batera Ximun Ibarra *Zubikoa* eta Juan Joxe Eizmendi *Errezil* bertsolariak ere gogoratuko dira. Antolatzaileak Deiadarra elkartea eta Euskaltzaindia dira.

5.5. P. Larzabalen jaiotzaren mendeurrena. Urriaren 16an Literatura Ikerketa batzordeak Jardunaldia antolatuko du Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Baionako Campuseko Tesien gelan. Euskaltzainei jardunaldiko egitaraua eskuratu eta Ana Toledo Literatura Ikerketa batzordeburuak aurkezpena egin du.

5.6. Ahoskera batzordeak antolatutako jardunaldiaren aurkezpena. Ahoskera batzordeak urriaren 23rako jardunaldia antolatu du Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikerkuntzaren. Horiek horrela, jardunaldiko egitaraua banatu da. Era berean, M. L. Oñederra Ahoskera batzordeburuak egitarauaren nondik norakoak aurkeztu ditu.

5.7. Hiztegi juridiko eta parlamentarioa biltzeko lantalde suntsikorren osaera. Zuzendaritzak Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren barruan, hiztegi juridikoa eta parlamentarioa biltzeko eta bateratzen saiatzeko, lantalde suntsikorra eratzea proposatzen du, 2015eko irailaren 23an harturiko erabakiaren arabera. Era berean, Zuzendaritzak lantalde horren koordinatzailea Gotzon Lobera Revilla eta idazkaria, berriz, Eneko Oregi euskaltzain urgazlea izatea proposatu du. Lantalde suntsikorra eratzea, bai eta koordinatzailearen eta idazkariaren izenak onartu dira Osoko bilkuran.

Ondoren, Nafarroako Parlamentuak, Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek izendatu dituzten pertsonen berri eman da. Ondoko hauek:

Erakundea	Ordezkariek
Eusko Legebiltzarraren ordezkariera	Jesus Maria Agirre Berezibar
Nafarroako Parlamentuaren ordezkariera	Ander Irizar Apaolaza, Parlamentuko itzultzaile-interpretea
Eusko Jaurlaritzako, Herri Administrazio eta Justizia sailaren ordezkariera	Maite Imaz, IVAPeko itzultzaile eta terminologoa
Bizkaiko Batzar Nagusien ordezkariera	Juan Luis Derteano
Gipuzkoako Batzar Nagusien ordezkariera	Miren Irigoien Aizarna, titularrak; Aitziber Eizagirre Arin, ordezkoa
Arabako Batzar Nagusien ordezkariera	Ainhoa Sagardui, Batzar Nagusietako legelaria; Xabier Zalbide Etxeberria, itzultzaile-interpretea

5.8. Gotzon Lobera Revilla Sustapen batzordeko kide. Sustapen batzordeak eskatuta, batzorde horretako kide izatea erabaki du Zuzendaritzak, 2015eko iraila-

ren 3an harturiko erabakiaren arabera. Curriculumuma Idazkaritzak dauka, eta, beraz, norbaitek eskuratu nahi badu, euskarri informatikoan bidaliko zaio.

5.9. Andres Alberdi Corpus batzordeko kide. Corpus batzordeak aurkeztutako eskariari erantzunez, batzorde horretako kide izatea erabaki du Zuzendaritzak 2015eko irailaren 3an eginiko bileran. Curriculumuma Idazkaritzaren eskuan dago eta, beraz, norbaitek eskuratu nahi izanez gero, euskarri informatikoan bidaliko zaio.

5.10. Azaroko osoko eta ageriko bilkurak

- Urriaren 30ean, Donostian, 10:00etan Osoko bilkura egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundian.
- Urriaren 30ean, Donostian, 12:00etan, Koldo Mitxelenaren jaiotzaren mendurrena dela eta, Ageriko bilkura egingo da Gipuzkoako Foru Aldundian, 2014ko azaroaren 29an eginiko Osoko bilkuran onartutakoaren arabera.

6. Azken ordukoak

6.1. Joan Mari Torrealdai euskaltzain osoaren egoeraren berri. Andoni Sargarna euskaltzainak J. M. Torrealdai euskaltzainaren osasun egoeraz azalpenak eman ditu, eta izandako terapia egoki baina, aldi berean, gogorraren ondorioz, onera egin duela azaldu du. Terapia horrek zati baterako ahuldu duenez, aldi batean bakarturik eta bisitarik gabe egon beharko duela azaldu du.

6.2. P. Xarritton euskaltzain osoaren egoeraren berri. Txomin Peillen euskaltzainak azaldu duenez, P. Xarrittonek azkenaldian bere osasunean beherakada izan du, mintzatzeko gogorik ezean nabarmendua.

6.3. Iratzeder euskaltzain osoari omenaldia Donibane Lohizunen. Azkenik, Jean-Baptiste *Battittu* Coyos euskaltzainak esan du urriaren 3an *Iratzeder* euskaltzain izanikoari omenaldia egingo zaiola Donibane Lohizunen, eta ospakizun horren eskuorria banatu eta xehetasunak eman ditu.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da. Segidan, euskaltzainek 2015eko Nafarroa Oinez antolatzen ari den Baztango ikastolaren bi eraikinetan ikasleak, irakasleak eta gurasoak bisitatu dituzte.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Elizondon, 2015eko irailaren 25ean

Nafarroa Oinez 2015 eta Mariano Izeta ohorezko
euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena

Elizondon, Arizkunenea Kultura Etxean, arratsaldeko 16:30ean, Nafarroa Oinez 2015 eta Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena direla eta, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Andres Iñigo, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain ohorezkoak: Maite Idirin.

Euskaltzain urgazleak: Patxi Iñigo, Michel Itçaina, Peio Jorajuria, Paula Kasares, Daniel Landart, Iñaki Martinez de Luna, Rosa Miren Pagola eta Paskual Rekalde.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea.

Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren alabak eta senideak.

Mikel Arregi Euskarabideko zuzendaria; Mikel Belasko eta Josu Reparaz Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariak; Elena Zabaleta Baztan Ikastolako presidentea; Josune Ortega Baztan Ikastolako zuzendaria; gurasoak, irakasleak eta ikasleak.

Elena Zabaleta Baztan Ikastolako presidenteak Ageriko bilkurari hasiera eman dio. Esker oneko hitzak izan ditu Euskaltzaindiarentzat Osoko bilkura Elizondon egin duelako, Baztan Ikastola bisitatu duelako, bai eta Ageriko bilkura antolatu duelako ere.

Ondoren, Mariano Izetaren jaiotzaren mendeurrenaren karietara antolatu den ekitaldian Paskual Rekaldek hitza hartu du. Mariano Izetaz gain, Baztango bi euskaltzain urgazle gogora ekarri ditu: Joxe Azkarate Etxandi eta Blas Fagoaga Ariztia.

Joxe Azkarate (Aniz, 1878 – 1957) «gizon polifazetikoa izan zen: abeltzaina, politikaria, idazlea, pilotazalea eta ongilea. Eta guzien gainetik euskaltzale sutsua». Baztango Udaleko EAJren zinegotzia 1936 bitarteko azken urteetan. Napar Buru Batzarreko kidea ere izan zen 1931tik 1933ra. Rekaldek esan duenez, Azkaratek biziki maite zuen bere sorterria. «1910ean bere etxe bat eskola izateko utzi zuen –1955a arte izan zen herriko eskola, urte hartan egin baitzen ikastetxe berria–. Urte batzuk geroago, 1928an, alor bat utzi zuen herriko pilotalekua egiteko –Mendiarte izenekoa– eta bere sakelatik ordaindu zituen pilotalekuko paretak-eta goititzeko lanak. Ez horrekin aski eta lixiba egiteko tokia ere utzi zuen eta herriko urak ere ekarri zituen». Polikarpo Iraizokoaren hitzetan, Azkarate idazlari trebea zen, ez bakarrik pilota gaietan, baita bertze zernahi alorretan ere, erraterako, euskarari, Euskal Herriko ohituretan, euskal dantzetan, mendiko gaietan, Baztango diru kon-tuetan eta abarretan.

Blas Fagoaga Ariztia (Erratzu, 1897 – Iruñea, 1966). Iruñean apaiztu eta Apaiz-gaitegian bertan filosofia eta euskara irakatsi zituen; liburutegiko arduraduna ere izan zen. Paskual Rekalderen esanetan, «euskarazko hitzak irakasten zizkien ikas-leei. Berak prestatutako koadernotxo batean bildu zituen mila hitz inguru, horietatik gehienak toponimoak. Hitz horien erran-nahia eta jatorria (etimologia) ikasara-zen zizkien ikasle guztiei, bai eta euskararen Nafarroako lekukotasun historiko garrantzitsuenak ere. Horietaz gain, etxetik euskara zekitenei alfabetatze klaseak ematen zizkien». Era berean, Nafarroako Foru Aldundiko euskarazko katedra lortu zuen. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzi zuen. Euskal hiztegi gintzan ere lan aipagarri bat egin zuen: «Azkueren iztegi berri eta osoturako. Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitaratu gabekoetatik ateratako itz saila» (1959).

Ondoren, Mariano Izetaren *Dirua galgarri* eleberria izan du hizpide. Gogoan izan du Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak berrargitaratu zutela liburua, urte honen hasieran. 2015eko edizio honetan, bi artikulua bildu dira: bata, «Mariano Izeta, zertzelada biografikoak», Jon Abrilek idatzitakoa, eta bertzea, «Idazlanaren gaineko ohar zenbait», Rekaldek berak prestatua. Horretaz gainera, Rekaldek jatorrizko testua euskara batura egokitu du.

«Mariano Izetaren euskara, euskara batua eta euskalkiak *Dirua galgarri* eleberrian» gaia jorratu du jarraian. Bere hitzetan, «ezbairik ez da Marianok bere idazla-

nean Baztango euskara nolakoa zen erakutsi nahi izan zuela, baina ez zen horretara bakarrik mugatu. Erdialdeko euskalkietako (gipuzkerazko) eta nafar-lapurterako hitz eta egitura batzuk maisuki erabili zituen (literatura klasikoa ere ezagutzen zuen). Komatxo artean bada ere, frantseseko hitz bat edo bertze ageri dira bere lanean».

Izetak *Dirua galgarri* idatzi zuenean euskara batua lehen urratsak egiten ari zela esan du. Horrela, euskara batuaren eta euskalkien arteko elkarbizitzaz eta orekaz mintzatu da: «Maiz erran izan da Akademiak ez dituela euskalkiak gustuko, euskalkiak ukatzen dituela. Hori ez da egia. Nahitaez bete beharreko bi baldintza ezarri ditu: bata, idatzian, ortografia bakarra onartzea batuan nahiz euskalkietan, euskara hizkuntza bakarra delako, ez hizkuntza anitz, eta bertzea, idatziz eta ahoz, hizkuntzaren (euskararen) oinarri bakarraren arabera jokatu beharra beti».

Horren ostean, *Dirua galgarri* eleberraren zenbait ezaugarri linguistiko –fonetika-fonologia, morfologia, lexiko eta sintaxi ataletakoak– izan ditu hizpide.

Paskual Rekalderen mintzaldiaren ostean, «Mariano Izetaren kontuak gure ikasgelan» deituriko kontakizuna aurkeztu dute Baztan ikastolako ikasleek, eta aurtengo festaren kanta ere abestu dute.

Ekitaldiarekin amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu, Baztan Ikastola osatzen duten guztiei eginiko harrera eskertu eta, euskara sustatzeko eta indarberritzeko eguneroko zereginean Euskararen Akademia beti izanen dutela bidelagun adierazi die.

Ondoren, arratsaldeko 17:30ean, Ageriko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia

2015eko urriaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo
Arejita ahala Andres Urrutiari; Jabier

Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari;
Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari;
Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni
Sagarnari.

Osoko bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian hasi da, goizeko 11:50ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren urriko Osoko batzarri hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2015-09-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ez da oharrik egin eta, beraz, akta ontzat eman da.

2. Hiztegi Batuaren 2. itzulia

2.1. Zerrenda osagarriak

2.1.1. Hatzen izenak: iraileko bileran eztabaidatua eta urriko bileran berrikustekoa. A. Sagarna eta M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek gogorarazi dutenez, iraileko Osoko bilkuran *Hatzen izenak* atala bukatu gabe utzi zen, Beñat Oihartzabalek *NolaErran*-eko corpuseko datuak agindu baitzituen, horien argitan berrikusteko. Hala egin da, eta *eri potots, eri erakusle, erdiko eri, eraxtun eri* eta *eri tipi* formak jaso dira, guztiak ere *Ipar. markarekin*.

2.1.2. Musika-notak. Euskaltzainek ez diote oharrrik egin aztergai honi, baina Hiztegi Batuko lantaldeak berak bi proposamen (**klabe** *Heg.*, eta sostenidu* **e. die-se**, araua aldatzeko eskatuz) eta beste bi forma berri proposatu ditu (**krako** eta **krako bikoitz**).

Atala jorrazteko, hiru dokumentu baliatu dira. Lehenbiziko txostenaren –«*Hiztegi Batua 2.* itzulia: musika notak (zerrenda osagarriak)»– lehenengo orrialdean, aurretik arauturiko hamaika forma ageri dira; lehenengo eta bigarren orrialdeetan, aurretik araututako forma osatuak eta Osoko bilkuran besterik gabe onartuak diren hamaika forma azaltzen dira; bigarren orrialdean, besterik gabe onarturiko bost forma ageri dira gehi F markarekin utzi eta oharrrik gabe jasotako forma bat, bai eta lantaldeak egindako proposamen berri bat ere. Bigarren txostenean, Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenak azaltzen dira. Hirugarren txostenak, «*Hiztegi Batua 2.* itzulia: musika notak. Informazio gehigarria» du izenburutzat eta Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenei buruzko informazio osagarria eskaintzen du.

F markarekin utziriko **klabe** eta lantaldeak eginiko proposamena eztabaidatu dira Osoko bilkuran. Izan ere, gainerako proposamenak bere horretan onartu dira. Horiek horrela, adostasunik egon ez denez, euskaltzainburuak lantaldearen proposamena botoetara eraman nahi den galdetu eta halaxe egitea erabaki dute euskaltzainek, emaitza honakoa izanik: lantaldeak proposatutakoaren alde 12 boto eta 8 zuri. Kontrako botorik ez da eman. Ondorioz, erabaki gabe utzitako **klabe** forma onartu da, *Heg. markarekin* eta *giltza* forma arautua definitzaile gisa jasota: «**klabe** iz. *Heg. Mus.* “giltza”». Lehendik baztertua zegoen *sosteniduren* ordez *sostenitu* berreskuratzea proposatu da, eta hala onartu: «**sostenitu** iz. *Heg. Mus.* “diesea”».

Iparraldean *kortxea* eta *kortxeaerdi* onartuak ezagutzen ez direnez, *krako* eta *krako bikoitz* proposatu dira, eta onartu: «**krako** iz. *Ipar. Mus.* “kortxea”», eta azpissarrerara gisa «**krako bikoitz** iz. *Ipar. Mus.* “kortxeaerdi”».

2.1.3. -TAN bizialdia. Atala jorrazteko, bi dokumentu baliatu dira. Lehenbiziko txostenaren –«*Hiztegi Batua 2.* itzulia: -TAN bizialdia, ondorioak (2015-07-

15)»– lehenengo orrialdean, aurretik arauturiko hamazortzi forma ageri dira, bai eta besterik gabe onarturiko beste sei ere; bigarren orrialdean, besterik gabe isilduriko hamar forma ageri dira gehi F markarekin utzi eta oharririk gabeko forma bat (**nagusitan**) ere. Azken hau, beste dokumentu batean («*Hiztegi Batua* 2. itzulua: Informazio osagarriak») jorratu da.

Lantaldeak proposatuari ez zaio oharririk egin eta, beraz, aurkezturikoa ontzat eman da. Baina *nagusitan* forma zalantzan utzia zegoen eta berriro aurkeztu da, sartzeko proposatuz, berria dela jakinda, Hego Euskal Herrian gaur erabili egiten delako. Adostasunik egon ez denez, euskaltzainburuak lantaldearen proposamena botoetara eramanez nahi den galdetu eta halaxe egitea erabaki dute euskaltzainek, emaitza honakoa izanik: lantaldeak proposatutakoaren alde 15 boto, 1 kontra eta 4 zuri. Ondorioz, onartu egin da *nagusi* sarrerako azpisarrera gisa «**nagusitan** adlag. *Heg.*» sartzea.

2.1.4. Zodiakoa. Atala jorratzeko, dokumentu bat aurkeztu da («*Hiztegi Batua* 2. itzulua: Zodiakoa. Zerrenda osagarriak. Ondorioak»). M. Urkiak argitu duenez, 173. arauak jaso zuen zodiakoa eta *Hiztegi Batura* ekarri da, aldaerak sinonimo gisa aipatuz eta sarrerak osatuz. Oharririk ez da egin, beraz, gaia bere horretan jasotzea erabaki da.

2.1.5. Zientzia-unitateak. Atala jorratzeko, bi dokumentu baliatu dira. Lehenbiziko txostenaren –«*Hiztegi Batua* 2. itzulua: zientzia unitateak (zerrenda osagarriak)»– lehenengo lau orrialdeetan, lehendik arauturiko berrogeita hamasei forma ageri dira; laugarren eta bosgarren orrialdeetan, lehendik araututako forma osatuak, Osoko bilkuran besterik gabe onartuak diren hogeita bat forma jaso dira; bosgarren orrialdetik zortzigarren orrialdera, besterik gabe onarturiko laurogeita hamar forma ageri dira; zortzigarren orrialdean, izen propiotikoen sailean atal honetan aztertzeko utziriko bederatzita forma ageri dira; zortzigarren eta bederatzigarren orrialdeetan, besterik gabe isilduriko hirurogeita hamazazpi forma ageri dira.

Bigarren txostenean, «Zientzia unitateak» izenekoan, izen propiotikoen saila aztertzean, sail honetan berrikusteko utziriko formak ageri dira (**dekanewton**, **gigaelektronvolt**, **gigahertz**, **hektopascal**, **henry**, **kilohm** edo **kiloohm**, **maxwell**, **miliampere** eta **pikofarad**). Horiek horrela, forma hauek Bigarren Hezkuntzan arruntak direnez, guztiak sartzea onartu da aurretik proposatutako guztiekin batera.

2.1.6. Mineralak. Atal honi X. Videgain euskaltzain osoak ohar bat egin dio (**aguamarina**). Gai hau aztertzeko hiru dokumentu baliatu dira; batetik, «*Hiztegi Batua* 2. itzulua: mineralak (zerrenda osagarriak)»; bestetik, X. Videgainen oharra jasotzen duen txostena; eta azkenik, horren inguruko informazio gehigarria.

Lehenbiziko txostenaren lehenengo eta bigarren orrialdeetan, aurretik arauturiko hogeita bederatzita forma ageri dira; bigarren eta hirugarren orrialdeetan, aurretik araututako forma osatuak, besterik gabe onartuak diren sei forma jaso dira; hirugarren orrialdetik seigarrenera, besterik gabe onarturiko berrehun eta hogeita lau forma; seigarren orrialdean, besterik gabe isilduriko hogeita bederatzita forma; seigarren eta zazpigarren orrialdeetan, F markarekin utzi eta oharrak gabeko hamahiru forma; amaitzeko, zazpigarren orrialdean, 3. itzulirako utziriko hamahiru forma ageri dira.

Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenak onartu dira. Lantaldeak erabaki gabe utzitako *aguamarina* forma dela eta, datuak ikusita, **akuamarina** forman jasotzea onartu du Osoko bilkurak.

Honekin 2. itzulia osatzeko zerrenda osagarriak erabat landuta utzi dira. Exonomastika batzordeari bidaltzeko dokumentua prestatuko du Hiztegi Batuko lantaldeak eta Xabier Kintana batzordeko buruari helaraziko dio. Bestalde, Euskaltzaindiak 173. araua («Astroen izenak») kaleratu zuenean, «Alfabeto grekoaren letrak eta letren izenak» eranskina ere eman zuen argitara. Horietako gutxi batzuk jasoak ditu *Hiztegi Batuak*, baina ez guztiak. Lantaldeak *gamma* forma aztertzean, horiek guztiak jasotzea komenigarria zela aipatu zuen, eta horixe da Osoko bilkurari gaur eskatu diona: forma araututzat jotzen diren forma horiek *Hiztegi Batuan* ere integratu ahal izatea. Eginiko eskaria onartu da bileran, baina letren izenekin batera letrak berak jasotzea eskatu da, eta halaxe egingo da.

2.2. ZTHB vs Hiztegi Batua: Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak bateratzea. Aurkezpena. ZTHBk aztertu eta Osoko bilkurak onartutako Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak *Hiztegi Batuarekin* bateratzeko saio bat egin dute bi lantaldeetako kideek. Bilkuran aldaketa-proposamenak aurkeztu dira. Horiek horrela, aurkeztutako bi zerrendei oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 16an amaitzen dena.

3. Euskaltzaindiaren 2016. urteko egutegia aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren 2016. urterako egutegia aurkeztu du. Behin-behinekoa den dokumentu honetan, Osoko eta Ageriko bilkuretarako datak eta tokiak proposatzen dira. Era berean, gogoan har daitezkeen euskaltzainak, pertsonak, bai eta argitalpen esanguratsuak zerrendaturik ageri dira. Horiek horrela, aurkeztutako egutegiari iruzkinak zein oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 16an, astelehenean, amaitzen dena.

4. Esku artekoak.

4.1. Ikerketarako Estatutuaren garapena. EHUren eta Euskaltzaindiaren artean akordioa izenpetu da, besteak beste, graduondoko lanak, tesiak zein praktikak Euskaltzaindiaren ordezkaritzetan, Luis Villasante Euskararen Ikergunean edota egoitzan egin ahal izateko, bai eta Euskaltzaindiaren askotariko funtsak baliatzeko eta euskaltzain osoek, ohorezkoek zein urgazleek, tesiak zuzentzeko modua izateko ere. Akordio honen garapen gisa, bi erakundeen artean argitalpenak sustatzeko aukera indartuko da. Zuzendaritzak lankidetzak-hitzarmen hori Ipar zein Hego Euskal Herriko bestelako unibertsitateekin izenpetzeko ahaleginak egingo ditu.

4.2. Hurrengo bilkurak. Hurrengo bilkuretarako xehetasunak eman dira.

- Azaroaren 20an XX. Jagon jardunaldia egingo da Bilbon, egoitzan. «Hedabideak euskararen sustapenean» izango da jorratuko den gaia. Xehetasunak datorren astean emango ditu Idazkaritzak, Sustapen batzordea bildu ondoren.
- Azaroaren 27an Osoko bilkura egingo da Bilbon, egoitzan, goizeko 10:00etatik aurrera.

5. Azken ordukoak.

5.1. X. Videgainen iruzkina azkenaldian egin diren jardunaldiei buruz. Buruordeak, hiru jardunaldi hauek izan ditu hizpide. Batetik, *Iratzeder* euskaltzain emeritu zenari Donibane Lohizunen eginiko omenaldia; bestetik, P. Larzabal euskaltzain oso zenaren jaiotzaren mendeurrenaren harira, urriaren 16an Literatura Ikerketa batzordeak Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Baionako Campuseko Tesien gelan, antolaturiko jardunaldia; eta, azkenik, Ahoskera batzordeak urriaren 23an, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean antolaturikoa. Omenaldi eta jardunaldiak ondo joan direla eta parte hartze zabala izan dutela azpimarratu du. Ondoren, A. Toledo Literatura Ikerketa batzordeko buruari eta M. L. Oñederra Ahoskera batzordeko buruari zorionak eman dizkie.

5.2. Jose Luis Lizundia euskaltzain emerituaren egoeraren berri. Idazkariordeak adierazi duenez, J. L. Lizundiak behazuneko ebakuntza bat izan zuen urriaren hasieran, Usansoloko erietxean. Hasiera batean, gauzak ondo joan baziren ere, osasun egoerak okerrera egiten zuela ikusita, senideak larritu eta eskaner bat egin ondoren tumore bat aurkitu zioten buruan. Ondorioz, Barakaldoko Gurutzetako erietxera eraman zuten ebakuntza egiteko eta harrezkero larrialdi gelan egon da. Nolanahi ere, badirudi ondo bidean doala eta laster, berriz, Usansoloko erietxera

eramanen dutela. Gelara eramaten dutenean, idazkariordeak oharra igorriko die euskaltzainei, hala nahi dutenek bisitatzeko modua izan dezaten.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2015eko urriaren 30ean

Koldo Mitxelena euskaltzain osoaren jaiotzaren
mendeurrena

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, goizeko 10:00etan, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena hizkuntzalari, kulturegile eta euskaltzaina omendu du, haren jaiotzaren mendeurrenean.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Larkarra, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Koldo Artola, Antonio Campos, Ana Maria Etxaide, Maite Idirin eta Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Jose Agustin Arrieta, Jacinto Iturbe, Joxe Mari Iturrealde, Elixabet Perez Gaztelu, Miriam Urkia eta Patri Urkizu.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia; Denis Itxaso Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko foru ahaldu; Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako foru ahaldu; Marisol Garmendia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru ahaldu eta Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusia.

Rafael Mitxelena Koldo Mitxelenaren semea eta Damiana Elizalde Rafael Mitxelenaren emaztea.

Ekitaldiari hasiera Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak eman dio. Bilkura horretan egotea «ohorea» dela esan ostean, Koldo Mitxelenaren bi ezaugarri nagusi azpimarratu ditu: «bere konpromisoa bere herria eta bere hizkuntzarekin, batetik, eta Euskal Herrian bere irudiak ikasgai franko dakartzala, bestetik». Ondoren, Mikel Zalbide eta Joseba Lakarra euskaltzainak izan dira Koldo Mitxelenak utzi digun ondare aberatsa aztertu dutenak. Zalbidek «Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola» mintzaldia eman du eta Lakarrak «Koldo Mitxelena, euskalaria euskaltzaleen artean» izenekoa.

Mikel Zalbidek ikuspegi globaletik heldu dio gaiari. Bere esanean «ez gara munduan bakarrak, ahulduriko egoera horretan gaudenak eta, hizkuntza bizirik gordeko badugu, konponbideren bat asmatu, zehaztu, adostu eta aplikatu behar dugunak... Mende luzea daramagu euskaldunok euskara nola indarberritu aztertzen. Aztertzen eta, ahal izan denetan, diagnostiko bateratura iritsi eta elkar hartuz adostutako egitasmoak osatzen». Eta honako hau erantsi du gero: «Gure etxerako ego-kia den irtenbide zuhurrena bilatu, zehaztu, adostu eta aplikatu beharrean gertatu gara horregatik, behin eta berriro, XX. mendean. Eztabaida-iturri luze, sarritan mikatz eta ia beti unagarria bihurturik dugu, horrexegatik, “euskara nola indarberritu?”, eta “bere gizarte-indarra zer neurritaraino jaso?” galdera-parea». Hala, bada, zertan mamitzen dira bi galdera horien erantzunak, Mitxelenaren argitan? Hona emaitza, Mikel Zalbideren esanean: «Euskararen lekua bihar-etziko gizartean: euskara nora eraman nahi dugu? Mitxelenaren ustez, diglosia kontuarekin ez zen nola hala jardutea komeni: aho biko ezpata izanik zen diglosia, mende luzez, guretzat eta gurea bezalako beste hainbat hiztun-elkarterentzat. Bera ez zen euskal elebakartasun territorial hutsaren aldeko».

Ohar hauekin eman dio Zalbidek bere azalpen-saioari amaiera: «Gizon zentrala izanik da Mitxelena, goren mailako linguistaz gainera, Euskal Herriaren 1950 eta 1987 arteko panorama soziokulturalean; hizkuntza-soziologiaren esparruan gure artean inork gutxik bezalako formazio akademikoa izanik du: Parisen, unibertsitatean, soziolinguistika-irakasle izanik da; formazio akademiko sendo horrezaz gainera euskara-erdaren historia sozialari buruzko ezagutza sakona, inork baino sakonagoa, zuen errenteriar maisuak; euskara-erdarek XX. mendeko gizarte-bizitzan ageri zituzten moldaera berezi, desorekatu eta egonezinekoen jakitun zen oso, kontu horretan bidelagun askotxo zuelarik bertako euskaltzale zintzo eta eragileenen artean; kanpotik eskuratutako jakituria teorikoa eta bertako jardue-

nean lortutako ezagutza praktikoa oso era pertsonal eta berezian uztartu zituen Mitxelena».

Aurretik ere beste askok egin duten bezala, Joseba Lakarra euskaltzainak ere argi utzi du: «Koldo Mitxelena izan da, zalantzarik gabe, euskalari gorenena... Artean ez zuten mailara eraman zituen euskal linguistika eta filologia, hainbat lan bikain osatuaz». Bereziki hiru lan azpimarratu ditu: *Fonética histórica vasca* (1961/1977), *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964) eta, guztien oinarri den, *Lenguas y protolenguas* (1963).

Lakarraren hitzetan, «bere burua linguistika historiko zientifikoa sortu zuten neogramatikoen jarraitzailetzat aitortu zuen eta Antoine Meilletek (1925) eskatu bezala, eskura zitezkeen teoria linguistiko hobereana eta filologiarik finena elkartu ziren haren jardunean». Era berean, Joseba Lakarrak gogora ekarri du K. Mitxelena Euskaltzaindiaren unerik latzenetan (1950-) erakundearen gidari ukaezina izan zela heriotzara arte (1987), *Orotariko Euskal Hiztegia* abiatu utziaz. Azkueren Hiztegia ordezkatzeko Erakundeak 50. urtearen erdialdera Mitxelena egindako eskaria, haren hainbat hamarkadatarako ikerketaren ondorioz –eta Ibon Sarasolak gidatu talde-lan eraginkorraren bidez– Euskaltzaindiaren izenari lotua dabilen ikerketa-lan erraldoi eta oparoena bilakatu zen.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ere *Orotariko Euskal Hiztegia* aipatu du eta Euskaltzaindiak Errenteriako hizkuntzalariari «zor dizkion» lanen artean kokatu du. «Koldo Mitxelena -esan du- dugu euskaltzain oso hori, bere baitan bildu zituen euskara, unibertsitatea eta akademia, garai latz eta gogorretan. Izan ere, gerra osteko euskalgintzaren barruan loratu zen Mitxelena, gerra zibilaren partaide izan eta horren ondorio mingotsak pairatu ondoren».

Era berean, Andres Urrutiak Villasante, Satrustegi, Haritschelhar, Knörr, Aresti... euskaltzainak ekarri ditu gogora. «Belaunaldi oso bat», esan du: «Gaurko omenaldiak aukera ederra ematen digu Koldo Mitxelena zenarekin batera belaunaldi hori ere agurtzeko eta eskertzeko, horiek izan zirelako, besteak beste, euskararen batasuna ahalbidetu eta abiarazi zutenak. Eskerrak, beraz, Mitxelena maisuari, jakin izan zuelako Euskaltzaindiaren bizimoduan bere burua barruratzen eta konprometitzen, zeregin akademiko desberdinetan, karguetatik hasi eta ikerketa lanetan amaitu».

Ekitaldian zehar, Antton Valverde kantariak abesti batzuk interpretatu ditu. Antonio Valverde bere aitak egin zuen Mitxelena erretatuaren aurrean, pozik agertu da: «Nire aita ere orain 100 urte jaio zen, eta Mitxelenaekin mila lekutan

egon zen, eta mila gauza konpartitu. Besteren artean, bere herriarekiko eta bere hizkuntzarekiko maitasuna».

Ekitaldia amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Markel Olano ahal-dun nagusiak Diputazioaren beiratearen irudia duen oroigarria eman diote Koldo Mitxelena zenaren Rafael semeari. Honela dio: «Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren jaiotzaren mendeurrenean. 2015-10-30».

Antton Valverdekan kantaturiko beste kanta batekin, 11:45 direnean ekitaldia bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan

2015eko azaroaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Goenaga, Patxi,
Lakarra, Joseba,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegotzien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak:

Miren Azkarate, Jean-Baptiste *Battistu* Coyos, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen eta Xarles Videgain.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Xabier Kintanari, iritsi bitartean; Andres Iñigok ahala Patxi Zabaletari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutia-

ri; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari.

Osoko bilkura Bilbon, egoitzan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren azaroko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak Osoko bilkura, 11:30ean eten egingo dela gogorarazi du, «Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboaren funtsak. Webguneko katalogoa» euskaltzainei eta hedabideei aurkezteko. Euskaltzainek ondoren, Osoko bilkurarekin jarraituko dute.

1. Osoko bilkurako (2015-10-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Idazkaritzara aurretiaz ez da oharririk iritsi. A. Urrutia euskaltzainburuak norbaitek Osoko bilkuran oharririk egin nahi duen galdetuta, inork ez du iruzkinik egin; beraz, akta ontzat eman da.

2. *Hiztegi Batua 2.* itzulia. ZTHB vs *Hiztegi Batua*: Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak bateratzea. Aurkeztutako oharrak-eta aurkeztu, aztertu eta erabaki

Urriko Osoko bilkuran ZTHB (Matematika, Fisika eta Astronomiako zerrendak) *Hiztegi Batua*rekin bateratzeko eta kontraesanak sailhesteko egindako saioaren emaitzak eta proposamenak aurkeztu zituzten bi lantaldeetako kideek. Bi zerrenda aurkeztu ziren: a) «ZTHB eta HB bateratzea» izenekoa, modu errazean eta arazo handirik gabe konpon zitezkeen formak biltzen zituena (30 forma); eta b) «ZTHB eta HB bateratzea [ohardunak]», azalpen zehatzagoak eta informazio gehigarria behar zituena (8 forma), proposamenek *Hiztegi Batuan* aldaketak ekar zitzaketan-eta. Oharrak egiteko, azaroaren 16ra arte irekiriko aldian, inork ez die zerrenda horiei iruzkinik egin. Horiek horrela, A. Sagarna *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradunak*, txostena prestatu duten bi lantaldeen izenean, ZTHB eta *Hiztegi Batua* bateratzeko eginiko proposamenak onartzea eskatu du. Kontrako iritzirik egon ez denez, Osoko bilkurak onartu ditu eginiko proposamenak.

Hiztegi Batuan egingo diren aldaketak hauek dira, besteak beste, ZTHBko zerrendetako forma konplexuen oinarri ere izango direlako kasu batzuetan. Sarrerako grafia osatu-moldatu da kasu batean (*alde-berdin* forma arautuari *aldeberdin* gehituz), sarrera berriak jaso dira (*eskaleno*, *ireki 2*, *itxi 3*, *lerro zuzen*, *oszilatorio*), lehendik baztertuak edo isilduak berreskuratu dira (*aleatorio*, *aurora*, *determinante*, *ekilatero*, *esklusio*, *handipen*, *indeterminatu*, *inklinatu*, *inklinazio*, *kondukzio*, *lagindu*, *likatasun*, *poluzio*), lehendik araututako bi forma isildu dira (*likatsutasun*, *likatasunen mesedetan*, eta *konika*, *konikoren mesedetan*). Beste hainbat kasutan azalpenak, adierak, kategoriak eta espezialitate-markak osatu edo moldatu dira (*aberrazio*, *aldekide*, *area*, *argi(-)urte*, *azalera*, *dezimal*, *distributibo*, *hamartar*, *infinitesimal*, *inflazio*, *isoszele*, *izar(-)laino*, *izar(-)multzo*, *karratu*, *koadro*, *kolapso*, *konformazio*, *koniko*, *konsstelazio*, *lika*, *minor*, *nebulosa*, *oszilatzaile*, *planetario*, *sublimatu*, *talka-uhin*, *trantsitu*). ZTHBn ere irizpide horien arabera moldatuko dira sarrerak eta barruko informazioa. Osoko bilkurara eraman ez diren hainbat forma egokitu ditu ZTHBk, lehendik *Hiztegi Batua*k arautuak zituenak eta bat ez zetozenak, bai eta akatsak ere. Horiek arazorik gabe bateratu dira, Osoko bilkurara eramateko beharrik gabe.

Euskaltzainek egindako galderei erantzunez, hiztegiaren arduradunak esan du hiztegi berritua datorren urtean argitaratuko dela eta 40.000 hitz baino gehiago edukiko dituela. Halaber, esan du argitalpena paperean eta euskarri elektronikoa, besteak beste, mugigarrietatik-eta kontsultatzeko eran egotea aurreikusita dagoela. Era berean, idazkariordeak adierazi du Matematika, Fisika eta Astronomiako hiztegiak egokitu eta, ahalik lasterren, erabiltzaileen esku jarriko direla.

3. Exonomastika. «Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta izen-lagun erreferentzialak sortzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa». Puntu bat eranstea

A. Mujika, Exonomastika batzordearen idazkaria, bilera-aretoa sartu da. Gomendioa argitaratu aurretik, Exonomastika batzordeak puntu bat eta ohar bat eranstea proposatu du. Banatu den dokumentuan zehaztuta daude proposatutako aldaketak.

Puntu berrian, lehendik jaso gabeko kasu batzuk sartzea proposatzen da: leku-izenaren amaiera *g, j, p, q* edo *w* denean, nola osatu herritar-izena (atzizkiaren *-tar* aldaera eranstea). Onartu egin da.

Ohar berriaren helburua gomendioaren hasieran aipatzen den puntu bat amaieran berriro gogoraraztea da. Honela dio: «Berez, edozein leku-izenetatik erator daiteke herritar-izena. Baina, askotan, ez da beharrezkoa, eta ohikoagoa da leku-genitiboa erabiltzea. Adibidez, *Nire laguna newyorktarra da; haren senarra, berriz, telavivtarra* esaldia zuzena eta egokia da, baina ohikoagoa da *Nire laguna New Yorkkoa da; haren senarra, berriz, Tel Avivekoa* esatea eta idaztea». Onartu egin da.

Bi aldaketa horietaz gainera, beste bi onartu dira. Batetik, M. Zalbidek adierazi du gomendioaren 8. adibidea («Nafar Gobernuak euskarazko hedabideei emandako diru-laguntzak») ez dela egokia, *nafar* hitza ez delako <LEKU-IZENA + -AR> egiturakoa. Adibide hori kentzea onartu da. Bestetik, S. Alemanek adierazi leku-izenaren amaiera *-ng* denean *-dar* aldaera proposatzea eta *-g* denean *-tar* proposatzea irizpidean konplexutasuna sartzea dela. J. Lakarrak adierazi du S. Alemanekin ados dagoela eta *-dar* aldaera dela, berez, salbuespena; alde horretatik, *-ng* amaierarako *-dar* ez erabiltzea proposatu du. Onartu egin da. Beraz, leku-izenaren amaiera *-g* zein *-ng* izan, atzizkiaren *-tar* aldaera erabiltzea onartu da.

Gomendioaren gaiari zuzenean ez badagokio ere, A. Mujikak adierazi du, bide batez, Euskaltzaindiak deklinabidea arautu zuenean ez zuela zehaztu nola jokatu behar zen kanpoko izenekin, eta, beraz, hor badagoela arautu gabeko eremu lauso

txiki bat eta jendeak hori galdetu izan duela, adibidez, itzultzaileen foroetan. Hau da, laburbildurik, gaia: adibidez, nola deklinatu *Shakespeare* izena genitiboan? Letrari erreparatuta (*Shakespeareren*) ala ahoskerari erreparatuta ([*xekspirren*]): *Shakespeare(-en)*? Eta, bestalde, nola deklinatu, adibidez, *bungalow* inesiboan? *bungallowean* ala *bungallowan*?

Erantzunetan aipatu da letrari erreparatuta deklinatzea dela ohikoena edo logikoen (Lafitteren, La Fontaineren...), baina egia dela hori ez dagoela esplizitatuta, eta amaierako *w* letrarena ere ez. Eta komeniko litzatekeela hori argitzea. Exonomastika batzordeak horrelako kasuak eta adibideak badituenez, A. Mujikak adierazi du Exonomastika batzordeak aurrean bat egin lezakeela gaia azaltzeko, zedarritzeko eta ebazpen-zirriborro bat prestatzeko, gero Osoko bilkurara ekarri eta aztertzeko, hala, Osoko bilkurak, txostena aurrean duela, egoki deritzona erabaki dezan: onartu edo aldatu eta argitaratu, baztertu edo beste norbaiti iritzi edo ebazpen-proposamen osagarriak eskatu. Osoko bilkurak oniritzia eman dio prozedura horri.

4. Euskaltzaindiaren 2016. urteko egutegia. Aurkeztutako oharra, aztertu eta erabaki.

Idazkariordeak adierazi duenez, egindako proposamenari idatziz ez zaio oharrik egin. Programa hilabetez hilabete irakurri du. Halere, A. Urrutiak oraindik aldaketa batzuk egon daitezkeela eta inork bestelako proposamen osagarririk egin nahiko balu, horretarako denbora badela esan du. A. Toledok adierazi du Literatura Ikerketa batzordeak Jose Antonio Loidi Bizkarrondo idazlearen jaiotzaren mendeurrena dela eta, omentzeko asmoa duela. J. Lakarrak, berriz, datorren urtean, Manuel Larramendi hil zela berrehun eta berrogeita hamar urte betetzen direla eta, omenaldia egitea gustatuko litzaiokeela azaldu du. E. Osak begi onez ikusi ditu proposamenak baina, ekitaldi horien antolaketa modu egokian, lurraldetasunaren ikuspegitik ahalik orekatuenean, eta era koordinatuan egiteko, horiek garaiz erabaki behar direla azpimarratu du.

M. Zalbidek zerrendan Gaizka Barandiarani buruz datorren aipua ezabatzea eskatu du. Hala egitea erabaki da Osoko bilkuran.

Horiek horrela, Euskaltzaindiaren 2016. urteko egutegia onartu da.

Horren ondoren, 11:20 direnean, «Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboaren funtsak. Webguneko katalogoa» euskaltzainei eta hedabideei aurkezteko, Osoko bilkura etetea erabaki da.

12:10 direnean Osoko bilkurari berrekin zaio.

5. Esku artekoak.

5.1. Euskera agerkariari buruzko azken berriak, informazioa ematea. 2014. urtean, bikaintasun-agiria erdiesteko asmoz, FECYT erakundeari *Euskera* agerkaria ebaluatu zezan eskatu zitzaion. Agerkariak aldizkari zientifiko baten oinarritzko ezaugarriak zituela adieraztearekin batera, bikaintasun-agiria lortzeko zer gabezia zeuzkan adierazi zuten. Horietako bat zen nazioarteko datu-base esanguratsuetan indexatua ez egotea. Arazoari aurre egiteko asmoz, *Euskera* agerkariaren Idazketa batzordeak, 2014ko apirilaren 28an, zera onartu zuen:

- Web of Science (Thompson and Reuters) datu-basean *Euskera* agerkaria integratzeko eskaria egitea. Web of Science-ren erantzuna: gai eta hizkuntza aniztasuna eta eremu geografiko zabalena biltzeko asmoz, plataforma berri bat sortu dute: Emerging Sources Citation Index (ESCI). Bertan integratu dituzte oinarritzko baldintzak betetzen dituzten aldizkari zientifikoak, tartean *Euskera*. Horrekin batera, *Euskera* agerkaria Web of Science-ko beste plataforma batzuetan (*Social Sciences Citation Index* eta *Arts & Humanities Citation Index*) txertatzea aztertuko dute.
- SCOPUS (Elsevier) datu-basean *Euskera* agerkaria integratzeko eskaria egitea. Scopus-en erantzuna: agerkaria ebaluatua izateko jarraibide etiko batzuk argitaratzea eskatu zitzaion Euskaltzaindiari. Akademiaren webgunean argitaratu ziren eta ebaluazioarekin jarraituko zutela adierazi ere. Azken berria da prozesuaren bukaeran daudela eta laster adieraziko diotela Euskaltzaindiari harturiko erabakia.

5.2. Gaur banatuko diren liburuak. *Euskera* (ikerketa zenbakia eta ohiko zenbakia) eta *Erlea* aldizkariaren 9. zenbakia. Harreran jaso ahal izango dituzte euskaltzainek.

5.3. Hurrengo bilkurak.

- Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, B. Etxepareren liburua-
ren bertsio eleaniztun berria aurkezteko, bai eta Koldo Mitxeleneri gorazarre
egiteko ere, ekitaldia egingo da Eusko Legebiltzarrean, goizeko 09:00etatik
aurrera.
- Abenduaren 18an Osoko bilkura egingo da Bilbon, Udaletxean, goizeko
10:00etatik aurrera. Egun horretan, Bilboko Udalak harrera egingo die eus-
kaltzainei. Egun berean, orobat, Euskaltzaindiaren eta Frisiako Akademiaren
artein lankidetzaren hitzarmena izenpetuko da.

5.4. Ipar Euskal Herria: euskal irakaskuntzari buruzko ekimena. Frantziako Hezkuntza Ministerioak ezarri nahi duen kolegioen erreformak kezka sortu du Ipar Euskal Herriko euskarazko irakasleen artean. Horiek horrela, Zuzendaritzak adierazpen bat egitea onartu du. Adierazpena *Plazaberrin* eta Ipar Euskal Herriko zenbait hedabidetan argitaratu da.

5.5. Euskaltzain urgazleak direla eta, Nafarroan bizi diren euskaltzain osoen idatzia. S. Aleman, A. Iñigo, P. Salaberri eta P. Zabaleta euskaltzain osoek Zuzendaritzak aztertzeko idatzi bat igorri dute. Idatzi horretan, Nafarroan bizi diren euskaltzainek Zuzendaritzari eskatzen diote lurralde horretan ere urgazle berriak proposatzeko prozedura abian jartzea komeni dela eta, Araban erabilitako irizpideen arabera, izenda litezkeen bospasei hautagaien proposamena abian jartzea, betiere Nafarroako ezaugarriak kontuan izanik. Horiek horrela, Zuzendaritzak, 2015eko azaroaren 10ean eginiko bilkuran, bi erabaki hartu ditu: batetik, Nafarroan bizi diren euskaltzainekin biltzea, prozesuaren urratsak zehazteko; bestetik, honen berri Osoko bilkurari ematea.

6. Azken ordukoak.

6.1. B. Oihartzabal euskaltzain osoaren egoeraren berri. Berriki iktus bat izan du eta gorputzaren alde bat mugitu ezinda geratu da. Une honetan Kanbon dago, erietxe batean. Dituen osasun arazoei buelta emateak luze joko duela esan da.

6.2. A. Arkotxa euskaltzain osoaren egoeraren berri. Erorikoa izan du eta belauna gaizki dauka. Horiek horrela, onera etorri bitartean, etxean dago, medikuek hala aginduta.

6.3. Nafar Telebistaren euskarazko katearen emankizuna abenduaren 3tik aurrera. P. Zabaleta eta S. Aleman euskaltzainek jakinarazi dutenez, telebista hau euskaraz igortzen hasiko da abenduaren 3tik aurrera.

6.4. EHUren omenaldia Koldo Mitxelenari. J. Lakarrak jakinarazi duenez, EHUK omenaldia egingo dio Koldo Mitxelenari abenduaren 2an, arratsaldeko 18:30ean, unibertsitate honek Abandon duen egoitzan, Bizkaia aretoan. Era berean, abenduaren 3an eta 4an jardunaldia egingo da Gasteizen. Gauzak horrela, gonbita luzatu die euskaltzainei hurreratu daitezen.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:50 direnean, Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Udaletxean

2015eko abenduaren 18an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailbu-
rua,

Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Mi-
ren Azkarate, Jose Irazu «B. Atxaga»,
Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Joan
Mari Torrealdai, Xarles Videgain eta
Mikel Zalbide.

Ahalak: Jose Irazu «B. Atxaga»k
ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagar-
nak ahala Andres Urrutiari; Patxi Sala-
berrik ahala Andres Urrutiari; Joan
Mari Torrealdaik ahala Andres Urru-
tiari; Xarles Videgainek ahala
Jean-Baptiste *Battitu* Coyosi; Mikel
Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Osoko bilkura Bilbon, Udaletxean
hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko
zutabearen ageri diren euskaltzainak ber-
tan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guz-
tiak agurtu eta etorririkoen zerrenda
eta berorien ahalak irakurri ditu, eta
quoruma badela egiaztatu ondoren,
Euskaltzaindiaren abenduko Osoko ba-
tzarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak Osoko bilku-
ra 12:00etan amaituko dela gogorarazi
du, Izan ere, ordu horretan Fryske
Akademy-ren eta Euskaltzaindiaren
artean lankidetzeta-hitzarmena izenpe-
tuko da.

1. Osoko bilkurako (2015-11-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Bi ohar egin dira. Batetik, Jean-Baptiste «Battittu» Coyosek ezin etorria adierazi zutenen artean bere izena falta dela adierazi du. Bestetik, A. Toledok 4. puntuari ageri den Jose Loidi Bizkorondoren izena gaizki dagoela eta Jose Antonio Loidi Bizkarrondo behar duela adierazi du.

Bi zuzenketa horiek eginda, bilera-agiria ontzat eman da.

2. Exonomastika: *Bizantziar inperioko pertsona-izenak*

A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretora sartu eta, euskaltzainak agurtu ondoren, Exonomastika batzordeak prestaturiko txostena aurkeztu du. Idatzian, enperadore eta Bizantziar garaiko beste pertsona nabarmen batzuk jasotzen dira.

2014ko Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu dituzte Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak

Martxoaren 18an Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan 2014ko Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu zituzten Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak. Bi erakundeok antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusia.

Sariok Gorka Martinez BBK Fundazioko buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zituzten.

Urtero bezala, honetan ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, betiere Euskaltzaindiak izendatuta. Hauek izan ziren epaimahaikoak:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan: Joseba Butron, Amaia Jauregizar eta Jabier Kaltzakorta.

Hauek izan ziren 2014ko saridunak:

A MAILAko sariak:

Narrazioaren alorra

Lehen saria: *Zergatik Panpox?*. Egilea: **Maddi Aiestaran** (Beasain - Gipuzkoa). Loinazpe-Beasain Institutua. Laguntzailea: Aloña Santa Cruz

Bigarren saria: *Irriño baten bila*. Egilea: **Naia Aiestaran** (Beasain - Gipuzkoa). Loinazpe-Beasain Institutua. Laguntzailea: Iker Zarraga

Hirugarren saria: *Pianoaren zuri-beltzean*. Egilea: **Nerea Erdozain** (Bilbo - Bizkaia). Bilboko Gabriel Aresti Institutua.

Maila honetan, epaimahaikoak ondoko lana argitaratzeko gomendioa eman du:

Arranoaren hegaldia. Egilea: **Arantxa Bastida** (Azpeitia – Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua

Olerkiaren alorra

Lehen saria: *Zure izenaren....* Egilea: **Mikel Labaka** (Errezil - Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua

Bigarren saria: *Baldin eta ez balitz*. Egilea: **Ane Azpiazu** (Azpeitia - Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua.

Hirugarren saria: *Maitasunaren bidaia*. Egilea: **Leire Eizmendi** (Errezil - Gipuzkoa). Azpeitiko Urola ikastola. Laguntzailea: Mikel Sarasua.

B MAILAko sariak:

Narrazioaren alorra

Lehen saria: *Corrado Maccarinelli*. Egilea: **Oihane Gurrutxaga** (Legazpi - Gipuzkoa). Legazpiko Haztegi ikastola. Laguntzailea: Aitor Gurrutxaga.

Bigarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.

Hirugarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.

Olerkiaren alorra

Lehen saria: *Itzalen hitzak*. Egilea: **Johanna Ramirez** (Lesaka - Nafarroa). Berako Toki-Ona Institutua. Laguntzailea: Axun Almandoz.

Bigarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.

Hirugarren saria: Sari hau eman gabe geratu da.

Euskaltzaindia Azkoitian, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrenean

Martxoaren 27an Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen 250. urteurrena zela-eta, Azkoitian izan zen Euskaltzaindia. Udalarekin batera, elkartearen omenezko ageriko bilkuran parte hartu zuen Akademiak. Bertan, Urrategi Alberdi Azkoitiko alkatea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Juan Bautista Mendizabal Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako presidentea mintzatu ziren.

Ageriko bilkuran, bi erakundeok elkarren arteko errespetua eta aitortza adierazi zioten elkarri, Azkoitiko alkatea ondoan zutela.

Ondoren, Bergarako hainbat musikaririk eta artistek egindako Peñafloredako Kondearen *Mozkorra parregarri* operaren zati batzuk eskaini zituzten. Kantariak Gorka Unamuno, Marije Ugalde, Julen Alberdi, Karlos Etxaniz eta Fran Martinez izan ziren, eta Leo Juaristi piano jotzailea; Jose Migel Elkorok egin zuen aurkezle lana.

Ekitaldiari amaiera emateko, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak eta Euskaltzaindiak opari bana egin zioten elkarri. Akademiak Elkarteari hiru liburu eman zizkion: Axularren *Gero* eta Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren ale bi: batak, jatorrizko testuaz gain, gaztelaniazko, frantsesezko, ingelesezko, alemanezko eta italierazko itzulpenak biltzen ditu; bestean, katalanez, galizieraz, errumanieraz, arabieraz, kitzuaz eta txineraz ere irakur daiteke Etxepareren lana. Biak argitaratuak ditu Euskaltzaindiak, Eusko Legebiltzarrarekin batera.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, aldiz, erakundearen Estatutuen lehenengo artikulua jasotzen duen oroigarri bat eman zion Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindia 19. Korrikan

Euskaltzaindia 2015ean egin zen Korrika euskararen aldeko lasterketan izan zen. Martxoaren 29an 19. Korrika Bilbora heldu zen eta bost orduko ibilbidea egin zuen -orotara 45 kilometro- Enekuritik Areatzaraino. Akade-

miak lekukoa eraman zuen 2.498. kilometroan, Hurtado Amezaga kalean hasita.

Adolfo Arejitak, Xabier Kintanak eta Erramun Osak eraman zuten lekukoa, erakundearen izenean. Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko kideen eskutik hartu zuten, eta Ikastolen Federazioko ordezkariari eman zieten. Ondoren Kontseiluak hartu zuen, eta, beti bezala, AEK-k egin zuen azken kilometroa.

Lekukoaren barruan zegoen mezua Lorea Agirre *Jakin* aldizkariko zuzendariak egin zen, eta berak irakurri zuen Bilboko Areatzan.

Euskaltzaindia liburu azoketan

Sara

2015eko apirilaren 6an, Pazko astelehenean, Sarako Idazleen Biltzarra egin zen. Euskaltzaindiak hiru liburu aurkeztu zituen: *Bahnar deitu Salbaiak*. Pierre Dourisbourek 1870ean idatzi zuen *Les Sauvages Bahnars* eta 1929an Jean Elissalde *Zerbitzarik* itzuli zuen. Azokan Henri Duhauk prestatutako edizio berria aurkeztu zen; *Mongongo Dassanza: Albaitaritza idazlanak (1692-1892)*. Txomin Peillenek paratua; eta *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942*. Natalia Zaïkak idatzia.

Aurkezpen ekitaldian hauek izan ziren: Henri Duhau, Txomin Peillen eta Xarles Videgain, azken hau Natalia Zaïkaren lana aurkezten eta Euskaltzaindia ordezkatzeko. Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea den Frantxua Maitia ere mahaian izan zen.

Bilbo

Euskaltzaindiak parte hartu zuen Bilboko Liburu Azokan. Ekainaren 4tik 14ra bitartean Areatzan egin zen Azokan, saltokia jarri zuen Akademiak eta urte osoan argitaratutako liburuak izan zituen salgai.

Euskadiko Liburu Ganbarak antolatzen du Azoka. Urtero legez, ekimenaren koordinatzailea den Asier Muniategik Euskaltzaindiari gonbita luzatu dio bere saltokia izan dezan. Aukera baliatuz, erakundeak azken nobedadeak eta bestelako lan batzuk jarri ditu salgai.

Durango

Urtero legez, azken 50 urteotan gertatu bezala, 2015ean ere Euskaltzaindia Durangoko Azokan izan zen.

Azokak urteurren biribila ospatu zuen: 50 urte. Horietan guztietan, Euskaltzaindia Durangon izan da eta hala egin zuen 2015ean ere. Beste zenbait argitalpenez gain, Akademiak nobedadeak izan zituen salgai: besteak beste, *Erlea* aldizkariaren 9. zenbakia eta *Euskera* argitalpenaren azken bi zenbakiak. Azoka abenduaren 4tik 8ra arte egin zen.

Gerediaga elkartearen eta, horrenbestez, Durangoko Azokaren sortzaileak -«eurak izan ziren Gerediagako eta Azokako lehenengo hazia landatu zutenak»- omendu zituen 50. Azokak eta Argizaiola saria eurei eman zien. Saridunen artean Jose Luis Lizundia euskaltzain emeritua zegoen.

Bestalde, 50. Durangoko Azokari hasiera emateko, ekitaldi berezia egin zen abenduaren 4an, San Agustin Kulturgunean. Besteak beste, Gerediaga elkarteko bazkideak, Azokako guneen arduradun eta erakundeetako ordezkariak batu ziren ekitaldian. Euskaltzaindiaren izenean, Xarles Videgain buruordeak hartu zuen hitza.

Orotariko Euskal Hiztegiaren laugarren argitaraldia sarean

Apirilean Orotariko Euskal Hiztegiaren laugarren argitaraldia sarean jarri zuen Euskaltzaindiak. Argitaraldi berri horretan, lan nagusia Auspoa bildumatik ateratako corpus bateko adibideekin OEH osatzea izan zen. Izan ere, arruntzat eta egunerokotzat jotzen ziren hitz, esapide edo egitura gramatikal batzuen lekukotasun eskasaz konturaturik, hainbat hutsune betetzeari ekin zitzaion.

Auspoa bildumaren digitalizazioak eskaintzen duen ondareaz baliatuz, herri literaturako adibideei OEH-n sarrera handiago emateko asmoa hartu zuen Euskaltzaindiak. Honetarako, 26 liburuko corpus bat osatzea erabaki zen, gehienbat herri kutsuko eta XX. mendeko obrez osatua, baina zaharra- goei ere (hala nola Frantziako Iraultzari edo Frantsesesteari buruzko bertsoei) tartea eginez.

Berrikuspen horren ondorioz, sarrera, azpisarrera edo adiera berri asko (guztira 1.310) daude argitaraldi honetan; gainerakoak ere adibide berriz aberastu direlarik, horien artean asko lehenago testuetatik ateratako leku-kotasunik ez zutenak (azken hauek guztira 362).

«Denon esku dago euskara biziaraztea» mintegia

Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren ekimenez, apirilaren 17an «Denon esku dago euskara biziaraztea» mintegia egin zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Mintegiaren xedea euskararekiko zenbait alderdi aztertzea izan zen, XIX. mendeko azken aldetik abiatuta.

2015ean bete ziren 150 urte Sabino Arana jaio zela. Hori dela eta, XIX. mendearen amaiera eta XX.aren hasiera kontuan hartu zituzten antolatzailleek, eta bitarte horretan zeuden gure hizkuntzarekiko aurreiritzi eta jarrerak aipagai izan zituzten. Era berean, euskarak «orain dituen ahultasun eta mehatxuak nahiz irekitzen zaizkion aukerak» ere hizpide izan ziren.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioko presidentek eta Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak azaldu zuten mintegiaren helburua.

Ondoren, mintegia egin zen. Hizlariak honako hauek izan ziren:

- Joseba Agirreazkuenaga: «Euskararen aldeko eta aurkakoak, hizkuntza ofizialen garaian (1794-1919). Euskal hiztunen paradisua mu-seoan».
- Igone Etxebarria: «Sabino Arana eta euskara: ideia ardatz batzuk».

- Mikel Zalbide: «XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan».
- Xabier Kintana: «Euskararen batasuna XXI. mendean indarberritzen segitzeko antzematen diren ahuleziak, mehatxuak eta aukerak».

Euskaltzaindia Izen Geografikoen batzorde espezializatuak antolatutako IV. Jardunaldian

Apirilaren 14an, Euskaltzaindiaren ordezkari-tza izan zen Izen Geografikoen batzorde espezializatuak (Comite de Expertos en Nombres Geográficos) «Toponimia gaur egun» izenburupean antolatutako IV. jardunaldian, Valladoliden. Akademiaren aldetik, Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuaren arduradunak hartu zuen parte eta ahozko bilketaren inguruko azalpenak eman zituen.

Goiburuak berak azaltzen zuen bezala, toponimiaren alor banaezinak aztertu nahi ziren jardunaldian, kulturala eta praktikoa, alegia.

Alde batetik, toponimiak balio kulturala du eta horrela aitortu diote Nazio Batuek. Beste alde batetik, administrazio desberdinek datutegietan duten geo-erreferentziatutako informazioa ere bada.

Toponimoak ondare ez-materiala dira eta hizkuntzen zati izateaz gain, hizkuntzen historia ere gordetzen dute bere baitan. Era berean, historiaren lekuko dira eta informazio baliagarria ematen diete historialariei. Europako INSPIRE direktibak zehazten du toponimiak datutegi informatikoetan txertatu behar direla metadatuaz lagunduta, egitura amankomun batean.

«Euskara ibiltaria» erakusketa Beasainen eta Portugaleten

Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) ezagutzaraztea helburu, «Euskara ibiltaria» erakusketa egin zen 2015ean Beasainen eta Portugaleten.

Beasainen, Udalarekin eta Laboral Kutxarekin batera antolatu zuen Euskaltzaindiak eta maiatzaren 28tik ekainaren 5era arte egon zen zabalik, Igartza Jauregian. Inaugurazio ekitaldi bi egin ziren: goizean, Aritz Abaroa eta Amaia Jauregizar EHHako teknikariek bi hitzaldi didaktiko eskaini zizkieten Beasaingo ikastetxeetako ikasleei eta arratsaldean, inaugurazio ekitaldi nagusian, erakusketa antolatu duten hiru erakundeotako ordezkariak parte hartu zuten: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Adolfo Arejita EHHaren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain EHHaren arduradun teknikoak; Laboral Kutxarenean, Xabier Egibar Negozio Garapenaren Areako zuzendariak; eta Beasaingo Udalarenean, Koldo Agirre alkateak.

Ekitaldian, egitasmoa hasieratik bultzatu duen Laboral Kutxako Juan Cidek argizaiola jaso zuen euskaltzainburuaren eskutik. Izan ere, Cidek erretiroa hartu zuen; hori dela-eta, urteetan egindako lana eskertu nahi izan zioten Akademiak eta Laboral Kutxak.

Portugaleten, aldiz, erakusketa azaroaren 17tik abenduaren 17ra bitartean egon zen zabalik, Santa Klara Kulturtegian, Akademiaren, Laboral Kutxaren eta Portugaleteko Udalaren ekimenez. Inaugurazio ekitaldian honako hauek hartu zuten parte: Euskaltzaindiaren izenean, Adolfo Arejita EHHaren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain EHHaren arduradun teknikoak; Laboral Kutxarenean, Pello Ugalde Laboral Lurralde zuzendariak; eta Portugaleteko Udalarenean, Estibaliz Freije Kultura zinegotziak.

Erakusketak iraun bitartean, Portugaleteko ikasleekin hainbat bisita gidatu egin zituzten Aritz Abaroa eta Amaia Jauregizar EHHako teknikariek.

Euskaltzaindiaren urteroko bilkura Ipar Euskal Herrian

Ekainaren 11n Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herrian bilkura egin zuen. Bileran hau urtero egiten da, Frantziako Estatuko Elkarte-legeak dioena bezela, eta Iparraldeko euskaltzainek -oso, ohorezko eta urgazleek- parte hartzen dute. Iparraldeko euskaltzainez gain, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak joaten dira.

Bilkura Akademiaren Baionako ordezkarietan egin zen.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman zion bilerari. Ondoren, 2014ko ekitaldien txostena aurkeztu zuen Xarles Videgain Iparraldeko ordezkariak, baita Iparraldeko berariazko egitasmo eta argitalpena ere. Bestalde, Joseba Zabaleta kudeatzaileak 2014ko kontuen txostena eta 2015eko aurrekontua aurkeztu zituen. Azkenik, Michel Fagoagak 2014. urteari dagokion aditegi txostena aurkeztu zuen.

Txosten guztiak aho batez onartu ziren.

Bingen Ametzagaren idazlan guztien bertsio digitalaren dohaintza Euskaltzaindiari

Bingen Ametzaga idazle eta euskaltzain urgazlearen idazlan guztien bertsio digitalak dohaintzan eman zizkion Euskaltzaindiari Xabier Ametzaga Iribarren bere semeak, iazko ekainean. 298 lan biltzen dituzten bederatzi dokumentu nagusik osatzen dute dohaintza. PDF formatuan daude. Hamargarren dokumentua ere bada, lan osoaren xehetasunak eta aurkibidea azaltzen dituena. Lan guztiak Azkue Bibliotekaren Katalogoan txertatu dira.

Bingen Ametzaga Algortan (Bizkaia) jaio zen, 1901ean, eta Caracasen (Venezuela) hil, 1969an. Getxoko zinegotzi hautatu zuten 1931n eta Hezkuntza ministro izan zen Lehen Eusko Jaurlaritzan. Gaztetan ikasi zuen euskara.

Espainiako Gerra Zibila piztu zenean Ingalaterra, Argentina eta Venezuelara erbesteratu zen. Zuzenbidean lizentziaduna, Caracas eta Montevideoko unibertsitateetako irakasle izan zen.

1957ko uztailan Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen, euskara eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik.

Ipuin, poesia eta narrazioak idatzi zituen eta *Euskal-Esnalea*, *Euzko Gogoa* eta *Egan* aldizkarietan argitaratu. Hala ere, itzulpengintzan nabarmendu zen. Besteren artean, Oscar Wilderen *Reading baitegiko leloa*, William Sha-

kespeareren *Hamlet*. *Danemark'eko Erregegaya*, Plinioren *Plini gaztearen idazkiak*, Eskiloren *Prometeu burdinetan*, Juan Ramon Jimenezen *Platero eta biok* edota Goetheren *Lur-miña* obrak euskaratu zituen.

Pertsona itsuentzat egokitutako liburuak aurkeztu dituzte ONCEk eta Euskaltzaindiak

Inprimatu zen euskarazko lehen liburua, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* eta *Erlea* aldizkariaren azken bi zenbakiak, pertsona itsuentzat edota ikusmen urritasunak dituzten pertsonentzat egokituta. Horiek dira Euskaltzaindiak eta ONCEk iaz sinatu zuten hitzarmenaren lehen emaitzak eta ekainaren 24an aurkeztu zituzten Bilbon, Akademiaren egoitzan.

Aipatu lanok bi euskarritan eskaintzen dituzte: Braille alfabetoan eta audio bidezko Daisy sisteman. Horiek dira, hain zuzen ere, itsuek edo ikusmen urritasuna duten pertsonen liburuak irakurtzeko dituzten bi moduak.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Xabier Kintana Euskaltzaindikoko idazkariak, Basilio San Gabriel ONCEko lurralde-ordezkarriak eta Iñigo Arbiza komunikazioburuak egin zuten aurkezpena. Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea ere bertan izan zen. Izan ere, Legebiltzarra eta Euskaltzaindiak *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren bi edizio kaleratu dituzte, lankidetzan. Horren ondorioz, euskaraz gain, hamaika hizkuntzatan irakur daiteke: gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, alemanez, italieraz, katalanez, galizieraz, errumanieraz, arabieraz, kitxuaz eta txineraz.

Ekitaldiaren amaieran, Etxeparek 1545ean idatzitako hitzei ahotsa jarri zien Ander Cornejo mutil itsuak: «Euskara, jalgi hadi kanpora». Lehenbiziko aldiz, Braille alfabetotik mundura atera ziren hitzok. Andres Urrutiak honela laburbildu zuen unea: «Nik uste dut ahalik eta modurik egokienean, bete dela Etxeparek agindu ziguna, hau da, euskara mundura, plaza eramateko».

Sei euskaltzain urgazle berriren izendapena

Uztailaren 17an, Donostian eginiko Osoko bilkuran, Euskaltzaindiak 6 euskaltzain urgazle berri izendatu zituen. Hona hemen zerrenda, ordena alfabetikoan: Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Roberto González de Viñaspre, Karmele Jaio, Iñaki Martínez de Luna, Patxi Salaberri Muñoa eta Blanca Urgell.

Arabako Foru Aldundiaren harrera

Uztailaren 22an Ramiro González Arabako ahaldun nagusiak eta Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak harrera egin zioten Euskaltzaindiari. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Adolfo Arejita Iker sailburua, Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea izan ziren.

Bileran, bi erakundeen arteko lankidetzak izan zuten mintzagai. Araban hizkuntza babesteko eta sustatzeko beharrezkoak diren ekintzei buruz hitz egin zuten.

2015eko Xalbador Eguna

Ohi den legez, Urepelen (Nafarroa Beherea), ospatu zen Xalbador Eguna, Fernando Aire *Xalbador* oroitzeko. Urriaren 10ean eta 11n izan zen ekimena, eta urtero legez, Xalbadorrekin batera, beste pertsona bat omendu zuten, kasu honetan bi: Ximun Ibarra *Zubikoa* eta Juan Joxe Eizmendi *Errezil* bertsolariak.

Xalbador Eguna antolatzen duten Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak egitarau oparoa prestatu zuten. Kalakan taldearen kontzertuarekin hasi zen Xalbador Eguna, urriaren 10ean. Igandean, aldiz, Xalbadorren etxolara mendi ibilaldia egin zuten eta gero meza nagusia izan zen; bertan, omenduekin batera, Emile Larre ere izan zuten gogoan. Ondoren, Zubikoa eta Errezil bertsolariak buruz mahai-inguru bat egin zen. Bertso saioan,

Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Juan Joxe Eizmendi *Loidisaletxe* eta Jose Luis Gorrotxategi aritu ziren.

Urepeleko Herriko Etxearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadi Irratiaren laguntzarekin antolatu zen egitaraua.

Nafarroa Oinez dela eta Euskaltzaindia Baztanen izan da

Urtero bezala, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festarekin bat egin, eta irailaren 25ean Baztanen izan zen Euskaltzaindia. Goizetik hasita, hainbat ekitaldi egin zituen: goizean, Euskaltzaindiaren Osoko bilkura egin zen, Baztango Udaletxean, Elizondon. Alkateak eta zinegotziek harrera egin zieten euskaltzainei. Ondoren, euskaltzainek ikastolako bi egoitzak bisitatu zituzten. Arratsaldean, Mariano Izeta idazle, bertsozale eta ohorezko euskaltzaina omendu zuten, bere jaiotzaren mendeurrenean.

Mariano Izeta omentzeko ekitaldia Euskaltzaindiak eta Baztan Ikastolak elkarlanean antolatu zuten eta Arizkunenea Kultura Etxean egin zen.

Elena Zabaleta Baztan ikastolako lehendakariak hasiera eman zion ekitaldiari eta ondoren Paskual Rekaldek hartu zuen hitza. Mariano Izetaren jaiotzaren mendeurrenaren karietara antolatu zen ekitaldian, Izetaz gain, Baztango bi euskaltzain urgazle gogora ekarri zituen: Joxe Azkarate Etxandi eta Blas Fagoaga Ariztia.

Bion aipamena egin ondoren, Mariano Izetaren *Dirua galgarri* eleberria izan zuen hizpide, «Mariano Izetaren euskara, euskara batua eta euskalkiak *Dirua galgarri* eleberrian» hitzaldiaren bitartez. Besteren artean, gogoan izan zuen Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak berrargitaratu zutela liburua, urtearen hasieran. 2015eko edizio honetan, bi artikulu bildu ziren: bata, «Mariano Izeta, zertzelada biografikoak», Jon Abrilek eginda, eta bertzea, «Idazlanaren gaineko ohar zenbait», Rekaldek berak prestatua. Horretaz gainera, Rekaldek jatorrizko testua euskara batura egokitu zuen. Baztango Udaleko Kultura eta Euskara zinegotziak eta euskaltzainburuak hitzaurre bana idatzi zuten.

Amaitzeko, «Mariano Izetaren kontuak gure ikasgelan» deituriko kontakizuna aurkeztu zuten Baztan ikastolako ikasleek, eta aurtengo festaren kanta abestu zuten.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzek amaiera jarri zioten ekitaldiari.

Euskaltzaindia 2015eko Ondarearen Europako Jardunaldietan

Urtero legez, 2015ean ere Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak. «Burdina» izenburupean, ekitaldi ugari egin ziren urrian, Bizkaiko herri askotan. Euskaltzaindiak «Burdina eta euskara» izeneko hitzaldi zikloa antolatu zuen.

Euskaltzaindiak hiru hitzaldi antolatu zituen: urriaren 20an Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduraduna burdinak gure geografian utzi duen lorratzaz mintzatu zen: meategiak, burdinolen izenak... Hitzaldiaren izenburua «Burdinaren lorratza euskal toponimian» izan zen.

Bigarren hitzaldia hilaren 22an izan zen. Egun horretan, «Olak eta burdingintza euskal literaturan» hitzaldia eman zuen Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoak. Burdinak euskal literaturan izan duen eragina eta utzi duen arrastoaz hitz egin zuen.

Urriaren 29an zikloaren azken hitzaldia izan zen, «Norteko ferrokarrila: tren bertsolarien ahotan» izenburupean. Mikel Aizpuru UPV/EHUko irakasleak bertsolariek nola ikusten zuten trenbidea aztertu zuen, Oihana Iguaran bertsolariaren laguntzarekin.

«Euskal literatura XX. mendean. 25 urte» erakusketa Euskaltzaindian

Urriaren 2an «Euskal literatura XX. mendean. Jon Kortazar. 25 urte» izeneko erakusketa zabaldu zen Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilboko Plaza Barrian.

2015ean 25 urte bete ziren Kortazarrek izen bereko liburua plazaratu zuenetik eta urteurrena ospatzeko, Mundakako idazle, irakasle eta euskaltzain argazlearen lanari buruzko erakusketa antolatu zen.

Literatura vasca: siglo XX liburua 1990ean argitaratu zen, gaztelaniaz, eta 2000. urtean euskaraz, *Euskal literatura XX. mendean* izenarekin. 25 urte hauetan, 7 edizio kaleratu dira eta horien guztien aleak erakutsi ziren.

Jon Kortazarren lanaren beste alderdi batzuk ere izan ziren ikusgai: beste liburu batzuen aipamenak, itzulpenak, Lauaxetari buruz egindako ikerketak eta argitalpenak, argazkiak, oroigarriak edota objektu batzuk -Kortazarrek irabazitako Rosalía de Castro eta Lauaxeta Sarien ikurrak, Jose Hierro poetak Kortazarri egindako karikatura- besteak beste.

Bestalde, erakusketa hobeto ulertze aldera, liburuxka bat argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Bertan, Xabier Etxaniz eta Kirmen Uribe idazleen artikulu bana bildu ziren, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Erakusketak Mungiatik Bilborako bidea egin zuen. Izan ere, martxoan egon zen ikusgai Bizkaiko herri horretan. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiak Mungiaiko Udalaren laguntza izan zuen bere egoitzara ekartzeko, eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Kutxa Fundazioak eta Mundakako Udalak ere beren laguntza eman zuten.

Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa egingo duen lantaldea eratu da

Urriaren 14an Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa egingo duen lantaldea eratu zen Eusko Legebiltzarrean. Taldeak parlamentu-lexikoa bateratzea du xede, ondoren Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa osatu ahal izateko. Hiztegi horretan zuzenbide parlamentarioaren alorrean erabiltzen diren terminoak jasoko dira.

Lantaldea Euskaltzaindiak koordinatuko du eta Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko, Eusko Jaurlaritzaren IVAPeko eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietako zenbait kidek osatuko dute. Esan bezala, Legebiltzarrean burutu zen egitasmoa landuko duen taldea eratzeke

ekitaldia, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea buru zela. Andres Urrutia euskaltzainburua ere bertan izan zen.

Lantaldearen partaideak hauek dira: Gotzon Lobera, koordinatzailea; Eneko Oregi, idazkaria (IVAP); Jesus Mari Agirre (Eusko Legebiltzarra); Mikel Iriarte (Nafarroako Parlamentua); Maite Imaz (IVAP); Juan Luis Derteano (Bizkaiko Batzar Nagusiak); Miren Irigoien eta Aitziber Eizagirre (Gipuzkoako Batzar Nagusiak); Ainhoa Sagardui eta Xabier Zalbide (Arabako Batzar Nagusiak); eta Miriam Urkia, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldeko burua.

Lantaldeak bi fasetan egingo du bere beharra: batetik, erakundeetako ordezkariak aurkeztutako datu-glosarioekin egingo du lan eta horretarako Euskaltzaindiak behar duen laguntza teknikoa eskainiko die; bestetik, adituen proposamenak aztertuko ditu eta horren gaineko erabakiak hartuko ditu.

Hori eginda, oinarrizko hiztegi juridiko eta parlamentarioa egingo da eta Euskaltzaindiaren Osoko bilkurari aurkeztuko zaio. Azkenik, Euskaltzaindiak onartu ondoren, hiztegia aurkeztuko dute eta argitalpen elektronikoko bitartez hedatuko dute.

UPV/EHUko ikasleek master amaierako lanak eta doktorego tesiak Euskaltzaindian egin ahal izango dituzte

Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK lankidetzaren hitzarmen berria sinatu zuten urrian. Hitzarmen horren bitartez, bi erakundeon arteko elkarlanean esparru berri bat zabaltzen da, Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiako master eta doktorego programan matrikulatutako ikasleen master amaierako lanak edo doktorego tesiak zuzentzeko xedearekin.

Hala, bi erakundeon arteko engaiamenduari esker, Euskaltzaindiak Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia master eta doktorego programako ikasleak hartuko ditu, praktikak eta ikerketak egin ditzaten bere zentroetan, hots, Bilboko egoitzan, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta gainerako ordezkarietan.

Izan ere, indarrean dagoen arautegiaren arabera, masterretan kolabora dezakete unibertsitateko irakasleak ez diren profesional edo ikertzaileek, betiere masterreko Batzorde Akademikoak gainbegiratzen badu eta ikertzaileek erakundearen baimena lortuta. Horrek esan nahi du, sinatu den hitzarmenaren ondorioz, Euskaltzaindiko kideek parte hartu ahal izango dutela ikasle edo doktoregaien prestakuntza jardueretan.

2010eko maiatzean Euskaltzaindiak Euskampus proiektuari atxikitzeko hitzarmen bat sinatu zuen. UPV/EHUK, Tecnalia eta DIPCK bultzatutako proiektu horrek Nazioarteko Bikaintasun Campus kalifikazioa dauka, Espainiako Hezkuntza Ministerioak emana, eta gaur egun haren garapena Euskampus Fundazioaren ardurapean dago. Fundazioa Euskampus proiektuari atxikitako erakundeen bizkarrezurra da, eta lehendik zeuden lankidetzak harremanak sendotzeaz gain, elkarlanerako esparru berriak ere eratzen ditu. Testuinguru horretan kokatzen da, beraz, Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK abian jarritako elkarlanerako esparru berria.

Euskaltzaindian euren lana egin nahi duten master eta doktorego ikasleek bi erakundeotako ordezkari banarekin egin beharko dute lan: batetik, UPV/EHUKo tutore akademikoarekin, eta bestetik, lanaren zuzendaria izango den Euskaltzaindiko kidearekin.

Era berean, Euskaltzaindiak erakundeari loturiko begirale bat izendatuko dio ikasle bakoitzari, eta hark antolatuko ditu prestakuntza jarduerak, praktika programaren arduradunarekin eta ikaslearen tutorearekin ados jarrita.

Hitzarmena Iñaki Goirizelaia UPV/EHUKo errektoreak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuten. Eurekin batera Nekane Balluerka UPV/EHUKo Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea eta Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Iker sailburua izan ziren.

***Euskera* agerkaria «Web of Science»ren ESCIko datu-basean indizatuko da**

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala *Emerging Sources Citation Index*eko (ESCI) datu-basean indizatzen da. ESCI Thomson Reuters en-

presaren *Web of Science* plataformaren edizio berria da eta azaroan jarri zen abian.

Prestigio handiko agerkariez gain, gai aniztasuna eta esparru geografiko zabala ahalbidetzen duten aldizkariak indizatzen ditu ESCIk. Nazioarteko hainbat aditu eta ebaluatzailek, edizio berri honetarako esparru eta gai desberdinetan esanguratsuak diren agerkariak hautatu dituzte.

Web of Science plataforma, jakintzaren edozein diziplinari buruzko zientzia-argitalpenen (zientifiko, teknologiko, humanistiko eta sozialen) bibliografia-datu, aipamen eta erreferentzien bilduma handi batez osatuta dago.

Euskera aldizkaria indizatzeak, bestek beste, datu-base hauetan sartzeko aukera emango dio: *Science Citation Index Expanded*[™]; *Social Sciences Citation Index*[®]; eta *Arts and Humanities Citation Index*[®]. Horretarako ebaluazio zehatzago bat pasatu beharko du.

Euskaltzaindiaren artxibo-funtsen katalogoa sarean

Euskaltzaindiak zaintzen dituen artxibo-funtsen katalogoa guztion esku-
ra jarri zuen azaroan. Katalogo horretan hiru motako funtsak biltzen dira:
erakundearen beraren administrazio artxiboa (1919-1970); hainbat euskaltzain
edo euskaltzaleren artxibo pribatuen funtsak; eta ikus-entzunezko
artxiboaren funtsak. Guztiak sarean kontsulta daitezke Akademiaren web-
gunean, Azkue Biblioteka eta Artxiboa atalean.

Akademiaren funtsak Azkue Biblioteka eta Artxiboan zaintzen eta ku-
deatzen dira.

Azaroaren 27an Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Pruden Gartzia
Azkue Biblioteka eta Artxiboko zuzendariak aurkeztu zuten Artxiboaren
Katalogoa. Edukien garrantzia ez eze, Euskaltzaindiaren asmoa ere nabar-
mendu zuten: izan ere, funts horiek guztiak publiko egitean, Akademiaren
eta gizartearen arteko harremana sendotu nahi da.

Esan bezala, Euskaltzaindiaren Artxiboaren Katalogoa hiru adar nagusi-
tan antolatzen da:

Erakundearen beraren administrazio artxiboa

Erakundearen dokumentazio administratiboa jasotzen du (1919-1970). Erakundeak berak sortutakoa da. Erakundearen sorreratik elikatu da euskarari buruzko hainbat dokumenturekin, administrazioari dagozkienak eta euskararen arautze eta bultzatze lanetan Euskaltzaindiak eskuratu dituenak.

Garai horretan Euskaltzaindiak, berezko lanez gain, euskal kulturaren hainbat ekitaldiren antolatzaile gisa jardun zuen. Bereziki frankismo garaian egindakoek, euskal kultura eta hizkuntzaren egoera islatzen dute: literatura-lehiaketak, bertsolari txapelketak, ikastolak, alfabetatze taldeak, eta abar. Horiek guztiak kontsulta daitezke.

Kontsultak egiteko, ondorengo erara sailkatu da: Euskaltzain osoak eta Zuzendaritza; Batzorde Akademikoak, Biltzarrak eta Jardunaldiak; Egiturazko Batzordeak; Harreman instituzional eta protokolozkoak; Ordezkaritzak; Kudeaketa eta administrazioa; Zerbitzuak.

Artxibo historikoa

Zenbait euskaltzain edo euskaltzaleren artxibo pribatuetako dokumentazioa jasotzen du. Une honetan hamabost dira, eta artxibo berriak eskuratu ahala, gehitzen joango dira.

Euskaltzaindiak, sorreratik eskuratu zituen euskararen historia iturriak ikertzeko hainbat dokumentu, baina lehen dohaintza garrantzitsua Resurreccion Maria Azkueren heriotzan gauzatu zen, 1951n, berak testamentuan utzitako liburutegia eta artxiboa eskuratu baitzituen erakundeak. Horrela hasiera eman zitzaion artxibo propioetik at berezitako funtsak eskuratzeari. Hala, bada, garrantzia handikoa izateaz gain, Azkuerena da Artxibo Historikoaren abiapuntua.

Azkueren funts horren gai nagusiak honako hauek dira: musika herrikoia eta folklorea, hiztegegintzako corpusak, berak sortuak edo Euskaltzaindiarentzat eginak, 1.080 igozleren gutunak, literatura, itzulpengintza lanak eta hizkuntzalaritza. Hiztegegintzako corpusak osotasunean funts honen barnean gorde dira.

Gutuneriari dagokionez, Azkueri 1.080 igorlek zuzendutakoak eta sail batean ordenaturik zeudenak errespetatu dira. Azkuek berak igorritakoak nagusiki senide eta lagunei zuzendutakoak dira. Harreman garrantzitsuak mantendu zituen bere garaiko hainbat pertsonaia esanguratsuekin, besteak beste: Hugo Schuchardt, C. C. Uhlenbeck, Jakob Jud, Julien Vinson, Antoni Griera, Edward S. Dodgson, Karl Bouda, Alfredo Trombetti eta Eugenius Frankowski hizkuntzalariekin; Julio Valdés, Jose Antonio Donostia-koa, Vicente Goikoetxea eta Jesus Guridi musikagileekin; Charles Bordes, Higinio Anglès, Michel Flément musikologoekin; edota Pierre Broussain, Julio Urkixo, Damaso Intzakoa, Arturo Campion eta Pierre Lhande euskaltzainekin.

Azkueren funtsa jaso ondoren, ondorengo funts hauek eskuratu ziren: Seber Altube, Odon Apraiz, Pierre Broussain, Jon Etxaide, Juan Carlos Guerra, Andima Ibinagabeitia, Jose Maria Jimeno Jurio, Georges Lacombe, Pierre Lafitte, Jose Mari Satrustegi, Norbert Tauer, Antonio Tovar eta Jokin Zaitegi. Orobat, bi bilduma berezi: erakundearena (ABC) eta Euskal Herriko Unibertsitatearena (UPV/EHU). Horiek guztiak interesatu guztien eskura jarri dira.

Artxibo historikoaren funts bakoitzak ibilbide propioa izan du, horregatik, funtsen deskribapenean adierazten da noiz eta nola eskuratuak izan diren. Bestalde, funts bakoitzaren edukia zein den esaten da.

Ikus-entzunezko artxiboa

Erakundearen ekitaldiei, euskaltzainei edota euskaltzaleei dagozkien irudiak, soinu-zuko grabaketak eta bideoak jasotzen ditu, beste zenbait grabaketa dialektalekin batera. Neurri handi batean erakundeak bere jardunean bildutakoak dira. Materialak nagusiki Euskal Herriko eremu geografikoan eta euskararekin edo euskalgintzarekin lotutako bi alor nagusitakoak dira: zeregin akademiko edota publikoetan sortutako argazki, soinu-zuko material eta bideoak, eta baita ere edozein arrazoirengatik hainbat euskaltzalek emandako materialak.

Bost funtsetan dago banatuta, horietatik hiru orokorrak: argazkiak, soinuzko dokumentuak eta bideoak, eta beste bi bereziak: Iraleren eta Xipri Arbelbideren soinuzko bildumak.

Kontsultak egiteko

Aurkezpenean azaldu bezala, kontsultak eta bilaketak era askotara egin daitezke, Internet bidez atzitzen den edozein artxibo-katalogotan egin daitezkeen bezala.

Baina berriz ere azpimarratu dute Azkue Biblioteka eta Artxiboko teknikariak ikertzaileen eta, oro har, hiritarren zerbitzura daudela edozein argibide emateko; beraiekin harremanetan jartzea, buruz buru, telefonoz edo e-postaz, da biderik onena informazio osoa eta zehatza lortzeko.

Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak «Euskara... Plazan!» ekitaldia egin dute abenduaren 3an

Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak «Euskara... Plazan!» ekitaldia egin zuten abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean. Bertan, bi erakundeok beste sei hizkuntzetara (poloniera, hebreera, finlandiera, nederlandera, georgiera eta errusierara) ekarri duten Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua aurkeztu zuten eta Koldo Mitxelenerari gorazarre egin zitzaion.

Ekitaldia EITBren laguntzaz gauzatu zen Eusko Legebiltzarrean eta zuzenean eskaini zen ETBtik.

Antton Valverderen musikaren laguntza zutela, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana euskaltzain eta Etxepareren liburuaren edizioaren arduradunak hartu zuten hitza.

Ondoren, «Kontrapas» poema irakurri zuten liburuak bildu dituen hizkuntzetan: nederlanderaz, finlandieraz, georgieraz, errusieraz, polonieraz eta

hebreeraz. Ellen Elfrink, Joseba Ossa, Gotxa Todua, Irakli Akhvlediani, Dorota Krajewska eta Rachel Fuks Feinstein izan ziren ahotsa jarri zutenak. Euskaraz Ander Cornejo mutil itsuak egin zuen eta Braille alfabetoan argitaratuta dagoen liburuan irakurri zuen, 2015eko ekainean Euskaltzaindiak eta ONCEk kaleratu zutena.

Bestalde, ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutiak eta Bakartxo Tejeriak Eusko Legebiltzarraren ikurraren irudia duen oroigarria, Nestor Basterretxeak egindakoa, eman zioten Koldo Mitxelena zenaren Rafael semeari. Ondoren, irudi batzuk eta bi bideo ikusi ahal izan ziren: Mikel Urretabizkaiak Koldo Mitxelenari buruz zuzendutakoa, EiTBk propio egina ekitaldirako, eta Imanol Epeldereren *Etxepare Rap* proiektuaren *Linguae Vasconum Primitia*eren hitzaurrearen rap abestiaren bideoa.

Eugenio Arotzenaren antzerki-bilduma dohaintzan eman dio Oiartzungo Udalak Euskaltzaindiari

Eugenio Arotzenaren antzerki bilduma herritarren eta, bereziki, ikertzaileen esku ipintzea xede, Oiartzungo Udalak Eugenio Arotzenaren antzerkiaren inguruko funtsak dohaintzan eman dizkio Euskaltzaindiari.

Arotzenaren bildumak euskarazko antzerkiari eta antzerki unibertsalari buruzko 2.800 erregistro baino gehiago ditu eta liburu, aldizkari, artikulua, kartel edota argazkiak biltzen ditu.

Abenduaren 16an sinatu zuten dohaintza jasotzen duen dokumentua bi erakundeotako ordezkariak. Oiartzungo Udalaren aldetik, Jexux Leonet alkateak eta Josune Cousillas Kultura zinegotziak parte hartu zuten ekitaldian; Euskaltzaindia, aldiz, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Erramun Osa idazkariordeak ordezkatu zuten. Eugenio Arotzena bera ere ekitaldian izan zen.

Oiartzungo Udalak 2005ean erosi zion Eugenio Arotzenari bere antzerki-bilduma. Bildumaren tamaina eta ezaugarriak kontuan hartuta, egoki kudeatzeko gaitasuna duen erakunde baten eskuetan uztea erabaki zuen Udalak.

Hala, dohaintzaren bidez, antzerki-artxibo horri erabilera publikoa eman nahi izan dio Oiartzungo Udalak, herritarren eta ikertzaileen eskura jarritz, euskal antzerkigintzaren hedapenean eragiteko. Hitzarmenak jasotzen duen legez, «bilduma herritarren eta ikertzaileen esku ipintzeaz hauxe ulertu behar da: funts horiekiko erreferentzia bibliografiko edo artxibistikoak katalogo estandarretan integratzea, erabiltzaileek horien bidez eskuratu ahal izan dezaten». Horretarako gaitasuna duen erakundea da Euskaltzaindia.

Datozen bi urteetan, Euskaltzaindiak Arotzenaren bilduma katalogatuko du eta, batez ere, komunitate zientifikoaren esku jarriko du materiala.

Bilboko alkatearen harrera Euskaltzaindiari

Abenduaren 18an Juan Mari Aburto Bilboko alkateak eta Koldo Narbaitza Euskara zinegotziak harrera egin zioten Euskaltzaindiari.

Euskaltzainei ongietorria eman ostean, Bilbo euskalduna aldarrikatu zuten alkateak eta euskaltzainburuak.

Akademiak Bilboko Udaletxean egin zuen Osoko bilkura. Gero, eguerdian, hitzarmena sinatu zuen Frisiar Akademiarekin.

Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak Europa mailako hizkuntza gutxituen akademien arteko sarea bultzatuko dute

Abenduaren 18an Euskaltzaindiak eta Fryske Akademyk (Frisiar Akademia) lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Bilboko Udaletxean. Europa mailako hizkuntza gutxituen akademien arteko sarea sortzea da hitzarmenaren xedeetako bat.

Frisiar Akademiaren izenean Hanno Brand zuzendariak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Gainerako euskaltzainak ere izan ziren ekitaldian, egun horretan Bilboko Udaletxean egin baitzuen Euskaltzaindiak abenduko Osoko bilkura.

Esan bezala, Europara begira daude bi akademiak. Europako hizkuntza aniztasunaren inguruko ezagutza eta errespetua sustatzea helburu, hizkuntza gutxituen akademiaren arteko elkarlana bultzatu nahi dute. Era berean, Europar Batasuneko erakundeei, sare horretako partaideen ordezkaritza onar dezaten eskatu nahi diete.

Bestalde, euskara eta frisiara hedatu eta indartzeko jarduerak antolatzea izango da bi erakundeon bigarren xede nagusia.

Testuinguru horretan, sinatutako hitzarmena zabaldu nahi dute bi erakundeok. Horretarako, Europa mailako gainerako eremu urriko hizkuntzen akademiak dokumentuarekin bat egin dezaten bultzatuko dute.

Horiek horrela, bi erakundeon arteko lankidetzak euskal eta frisiar hizkuntzen eremuan gauzatuko da: Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak lankidetzak proiektuak sustatu eta garatu nahi dituzte, euskararen eta frisiararen aldeko sustapena bultzatzeko. Hitzarmenaren bidez bi erakundeok hizkuntzen ikerketari nola heltzen dioten ezagutu nahi da; hau da, hizkuntza bien garapenean erabiltzen dituzten teknika eta prozedurak zeintzuk diren eta nola erabiltzen dituzten ezagutzea da helburua.

Bestalde, bi erakundeok lankidetasun-politika bultzatuko dute, ikastaroak, mintegiak, kongresuak eta sinposioak elkarrekin antolatuz eta gauzatuz. Euskararen eta frisiararen egoerari eta bilakaerari buruzko txostenak landu eta sustatuko dituzte.

Era berean, Euskaltzaindiak eta Frisiar Akademiak elkarrekiko lana bultzatuko dute, bietako batek, edota biek batera eginiko argitalpenei laguntza emanez.



Omenaldiak

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



2015ean omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Bernardo Atxagaren Xolaren abenturen ingelesezko edizioak Marsh saria irabazi du

Bernardo Atxagaren Xola txakurraren abenturen ingelesezko edizioak (*The Adventures of Shola*, Pushkin, 2013) Marsh saria irabazi zuen 2015ean, itzulitako haur eta gazte literaturaren alorrean. Atxagaren ingelesezko argitalpen guztietan bezala, Margaret Jull Costa izan da itzultzailea. Marrazkiak Mikel Valverderenak dira, Euskal Herriko edizioan bezala.

Marsh Sariak aurreko bi urteetan ingelesera egindako itzulpen-lanik onena saritzen du, haur eta gazte literaturaren alorrean. 2015eko edizioan, sei finalista izan ziren; horien artean, Xola txakurraren abenturak kontatzen dituen liburua aukeratu zuen epaimahaik, urtarrilaren 22an jakinarazi zuenez.

Euskaraz, lau dira Xola txakurraren abenturak bildu dituzten liburuak: *Xolak badu lehoien berri* (1995, Erein); *Xola eta basurdeak* (1996, Erein); *Xola eta Angelito* (2004, Erein), eta *Xola eta Ameriketako izeba* (2011, Erein). Ingelesez, liburu bakar batean batu eta argitaratu ziren, 2013an, *The Adventures of Shola* izenburupean.

Henrike Knörr-en omenezko liburua plazaratu du UPV/EHUk

2015. urte hasieran Henrike Knörr zenaren omenezko liburu bat argitaratu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak. *Eridenen du zerzax kontenta: Sail-*

kideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008) du izenburua eta EHUko Euskal Filologia Saileko hainbat kidek egindako hogeita hamabost artikulu biltzen ditu. Maria José Ezeizabarrena eta Ricardo Gómez izan ziren argitaratzaileak.

Liburuan bildutako artikuluek honako alorrak lantzen dituzte: filologia, dialektologia, literatura, onomastika, hizkuntzalaritza sinkroniko eta diakronikoa, hizkuntzalaritza aplikatua, konputazionala eta psikolinguistika. Henrike Knörren bibliografia ere jaso da.

Felipe Juaristik Espainiako Kritikaren Saria irabazi du, euskarazko poesia arloan

Felipe Juaristi idazle eta euskaltzain urgazleak irabazi zuen 2015eko Espainiako Kritikaren Saria, euskarazko poesia arloan. *Piztutako etxea* liburua-gatik jaso zuen saria.

Piztutako etxea Erein argitaletxeak eman zuen argitara, 2014an. Honela zioen Juaristik berak, argitaletxearen webgunean: «Piztutako etxea nire lanik sakonena da. Gogoeta egiten dut, esperantzaz, izuaz, desiraz, maitasunaz eta pasioaz, besteak beste. Abiapuntua da bizitzak bere arauak dauzkala eta, seguru asko, ez ditugula sekula santan guztiak ezagutuko, bizi garen bitartean bizitzaz ez beste ezertaz arduratzen garelako».

Bestalde, Unai Elorriagaren *Iazko hezurrak* (Susa, 2014) euskarazko narritabaren atalean saritu zuten.

Sariok Espainiako Literatura Kritikarien Elkarteak ematen ditu.

Bernardo Atxagak QIA saria jaso du Italian

Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzainak Quaderni Ibero Americani aldizkariak ematen duen 2015eko QIA saria jaso zuen Italian, bere jardun literarioarengatik. Ekainaren 4an eman zioten, Erroman izandako ekitaldi batean.

Saria jasotzeaz gain, Erroman izan zen bitartean hainbat ekitalditan parte hartu zuen. Hala, ekainaren 5ean, beste hainbat idazlerekin batera, irakurketa publiko batean izan zen.

Joan Mari Torrealdairi 2015eko Manuel Lekuona saria eman diote

Joan Mari Torrealdai idazle, kazetari, soziologo eta euskaltzain osoari eman zioten Eusko Ikaskuntzaren 2015eko Manuel Lekuona saria.

Epaimahaiak euskararen eta euskal kulturaren alde egin duen lana goretzi zuen, gizarteari egin dion ekarpena «erreferentea» eta «eredugarria» dela nabarmenduz. Torrealdairen hautagaitza Euskaltzaindiak aurkeztu zuen eta, besteren artean, «euskararen eta euskal kulturaren alde hainbat proiektu, ekimen eta plataforma, sortzeko, lideratzeko eta etengabeko lanaren bitartez sostengatzeko bizi osoan egindako lan mardula» kontuan hartu zuen Akademiak.

Erabakia irailaren 28an jakinarazi zuen Eusko Ikaskuntzak. Besteren artean, Torrealdairen kultur ekoizpena goratu zuen epaimahaiak, eta bere curriculumak sariaren filosofiarekin bat egiten duela nabarmendu zuen: «Manuel Lekuonaren kezka ez zen bakarrik izan euskara eta euskal kultura ikertzea, baizik eta biziartzea, hau da, gizartean merezi duten lekua ematea, eta horrekin bat egiten du Torrealdaiak».

Iratzeder poeta omendu dute Donibane Lohizunen

Urriaren 3an Donibane Lohizuneko Kultura Zerbitzuaren eta Euskal Kultur Erakundearen ekimenez, Jean Diharce «Iratzeder» poeta eta euskaltzaina omendu zuten Donibane Lohizunen. Ekitaldian Jean Louis Davant euskaltzainak «Iratzeder poeta» hitzaldia eman zuen.

Omenaldian, Iratzederren inguruko olerki liburua aurkeztu zuten. Ondoren, Diabolo taldeak, Ikastolako, St Thomas d'Aquin eta Dona Maria kolegioetako ikasleek Iratzederren olerkien irakurketa eta kantua eskaini

zituzten. Amaieran, Peyuco Duhart Donibane Lohizuneko auzapezak eta Iratzeder zenaren arrebak Iratzederren omenezko plaka bistaratu zuten Paul Jovet baratze botanikoan.

Joxe Azurmendiren *Historia, arraza, nazioa* liburuari eman diote Saiakeraren Euskadi Saria

Joxe Azurmendi filosofo, idazle eta ohorezko euskaltzainak irabazi zuen euskarazko saiakeraren 2015eko Euskadi Saria *Historia, arraza, nazioa* liburuagatik. Lan horretan nazioaren kontzeptu alemaniarren eta frantse-saren nondik norakoa aztertu du Azurmendik. Bereziki, Ernest Renan pentsalari bretoiaren idatziak arakatu ditu, baita XIX. mendeko intelektual frantses eta alemanen arteko polemikak ere. Elkar argialetxeak eman zuen argitara.

Epaimahaiak esan zuenez, «beste Europa bat pentsatzeko atea zabaltzen digu liburuak: obraren dokumentazio lan sakonak biziki aberasten du nazionalismoaren inguruko egungo gogoeta, eta sarritan falta zaion berme akademikoa ekartzen dio».

Juan Garziak irabazi du Itzulpengintzako Euskadi Saria *Sonetoak lanarekin*

Juan Garzia idazle, itzultzaile eta euskaltzain urgazleak irabazi zuen Itzulpengintzako Euskadi Literatura Saria 2015ean, William Shakespeareren *Sonetoak* euskaratzeagatik. Liburua bi CDrekin batera argitaratu zen, Aztarna argialetxearen eskutik, Mikel Laboa Katedrak bultzaturik.

Juan Garziak itzulitako 154 sonetoez gain, kaleratu zen lanak bestelako ekarpenak biltzen zituen: Joxan Goikoetxea musikariak kanta bihurtu zituen sonetoetariko batzuk, eta euskal kantari multzo ezagun batek jarri zien ahotsa, Goikoetxearen beraren musika moldaeraz eta haren gidaritzapean. Bestalde, Koldobika Jauregi artista arduratu zen liburu-diskoaren alderdi plastikoaz.

Nafarroako Urrezko domina Jimeno Juriori

Jose Maria Jimeno Jurio historiagile, idazle, etnografo eta ohorezko euskaltzainari hil ondorengo Nafarroako Urrezko Domina eman zion Nafarroako Gobernuak 2015ean, «haren lan historiko, etnografiko eta toponimi-koen bidez Nafarroako kulturari egindako ekarpenagatik». Horrela adierazi zuen Foru Gobernuak urriaren 21ean onartutako foru dekretuan.

Folklorearen eta hizkuntzaren defentsan ere aritu zela azpimarratu zuen Nafarroako Gobernuak. Oro har, Jimeno Jurio «intelektual ezohiko eta errepikaezina» izan zen.

Abenduaren 3an, Elena Aranguren alargunak eta Roldan Jimeno semeak jaso zuten saria, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko egoitzako klaustroan egindako ekitaldian.

Jimeno Jurio 2002ko urriaren 3an hil zen. Saria jaso ostean, Jose Maria Jimeno Jurioren senideek hitz egin zuten. Gizon xume baten moduan oroitu zuten -«ez zinen pertsona harroa, ez zenuen saririk nahi»- eta haren biografiaren berri eman zuten. Besteren artean, memoria historikoaren alorrean egin zuen lana ekarri zuten gogora: «Zure ikerketek emaitzak ematen jarraitzen dute, eta zenbait pertsonen beren senideak berreskuratu ahal izan dituzte zuk egindako lanari esker».

Ekitaldian, Andres Iñigo eta Sagrario Aleman euskaltzainak izan ziren.

Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena omendu du

Urriaren 30ean, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena hizkuntzalari, kultur-gile eta euskaltzaina omendu zuen, haren jaiotzaren mendeurrenean.

Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundian egin zen; amaieran, bi erakundeon izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Markel Olano ahaldun nagusiak Diputazioaren beiratearen irudia duen oroigarria eman zioten Koldo Mitxelena zenaren Rafael semeari. Honela dio: «Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenaren jaiotzaren mendeurrenean. 2015-10-30».

Mikel Zalbide eta Joseba Lakarra euskaltzainak izan ziren Koldo Mitxelenak utzi digun ondare aberatsa aztertu zutenak. Zalbidek «Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola» mintzaldia eman zuen eta Lakarrak «Koldo Mitxelena, euskalaria euskaltzaleen artean» izenekoa.

Hasierako hitzak Markel Olanorenak izan ziren eta ekitaldiari amaiera ematekoak Andres Urrutiarenak.

Ekitaldian zehar, Antton Valverde kantariak abesti batzuk interpretatu zituen. Antonio Valverde bere aitak egin zuen Mitxelenaren erretratuaren aurrean, pozik agertu zen: «Nire aita ere orain 100 urte jaio zen, eta Mitxelenarekin mila lekutan egon zen, eta mila gauza partekatu. Besteren artean, bere herriarekiko eta bere hizkuntzarekiko maitasuna».

Andres Urrutiak 2015eko Leizaola saria irabazi du

Andres Urrutia notario eta euskaltzainburuak eta David Mota ikertzaileak «Jesus Maria Leizaola 2015» saria irabazi zuten *ex aequo*.

Saria Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) sortu zuen 1990ean eta euskal autonomiarekin lotutako gaietako buruzko ikerketak egiten edota aztertzen dituzten ikertzaileen lanak sustatzea eta ezagutaraztea du xede.

Andres Urrutiak aurkeztutako lana honako hau da: «Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privados. Análisis desde la perspectiva del euskera en el Derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea».

Saritutako beste lana, David Motaren «Un sueño americano. El Gobierno Vasco en el exilio y Estados Unidos (1937-1979)» da.

Argizaiola saria Jose Luis Lizundiari

Duela 50 urte Durangoko Azoka sortu zutenek jaso zuten 2015eko Argizaiola saria eta horietako bat izan zen Jose Luis Lizundia euskaltzain eme-

ritua. Bere izenean, Leiore alabak eta Joanes bilobak jaso zuten saria, abenduaren 5ean San Agustin Kulturgunean eginiko ekitaldian.

Jose Luis Lizundiarekin batera, honako hauek izan ziren omenduak: Rosario Astola -honek ere ez zuen joaterik izan-, Jesus Astigarraga, Koldo Alzibar, Leopoldo Zugaza, Carmen Miranda eta Arrate Salazar. Hauetaz gain, jada gure artean ez dauden gainerako Gerediagako sortzaileak ere gogoratu zituzten: Jesus Maria Astola, Bixente Kapanaga, Julian Berriozabalgoitia eta Salvador Solaegi. Guztiei, honela esan zien Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentek: «Argizaiola zuentzat, sasoi ilunetan argia izan zinetelako».

Ekitaldian, Karrika Antzerki Taldeak Durangoko Azokaren historia laburbiltzen duen antzezlan bat eskaini zuen.

Joan Martí ohorezko euskaltzaina Tarragonako seme kutun izendatu dute

2015ean Joan Martí i Castell ohorezko euskaltzain katalana Tarragonako seme kutun izendatu zuten. Ekitaldi ofiziala abenduaren 21ean, San Tomas egunean, egin zen, Tarragonako Udaletxeko batzar aretoan.

Martí Tarragonan jaio zen, 1945ean. Bartzelonako Unibertsitateko eta Erromako La Sapienzako Unibertsitateko doktorea (Filologia Erromaniakoan eta Lingue e Letterature Staniere-an, hurrenez hurren). Hizkuntzalari-tza Diakronikoan, Hizkuntzen Historia Sozialean eta Soziolinguistikan eta Lexikografian aditua.

Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitatearen sortzailea, bertako lehen errektorea izan zen, eta baita Filologia Katalanaren saileko zuzendaria ere. Kataluniako eta Italiako beste hainbat unibertsitatetan ere irakasle aritu da.

Institut d'Estudis Catalans-eko kide osoa da, eta 2002tik 2010era bertako Secció Filològicako burua izan zen. 30 liburu baino gehiago argitaratu ditu, katalan hizkuntzaren historia, gramatika eta erabilerari buruz, eta baita artikulu ugari ere. Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Pri-*

mitiae liburua katalanera itzuli du (2013ko abenduan, Eusko legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak aurkeztua).

Hainbat sari jaso du, besteren artean Tarragona Hiriko domina, eta hiri bereko Rovira i Virgili Unibertsitatearena ere. 2014an ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Hilberri txostenak

Euskera. 2015, 60, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Emile Larrereren hilberria (1926-2015)

JANBATTIT, Dirassar
Ohorezko euskaltzaina

Jaun-andereak, agur bero bat denei.

Hemen gaude beraz, Andres Urrutia euskaltzainburuaren itzulian bilduak, ohoratzeko iragan urtean mundu honetarik joan zaizkigun lagun eta adiskideak. Horiatarik izaki Emile Larre baigorriar apeza, euskaltzale guziz suharra, euskaltzain kartsua eta luzaz izana *Herria* astekariaren zuzendari. Emilek aurten beteko zituen, urtarrilaren 3an, bere 90 urteak. Iaz, maiatzaren 30a zen, larunbata, berria burrustan hedatu zelarik, Emile pausatu zela. Denak inarrosi gintuen berri horrek baina nehor ez hainbat harritu haatik, bagenekien egunetik egunerat ahultzen ari zela. Baigorriko elizan ukan zituen ehorzketa batzuk jendetsuak bezain hunkigarriak, esker oneko kantu ozen baten parekoak...

Galdetua izan zait ene lekukotasunaren agertzea baina iruditzen zait, Emileren harat-honatak aipatu behar-eta, nihauren baitarik erraten ahal ditudan guziak baino gehiago balio dutela Emile Larre zenak berak zabaldu idazkiek. Utzia digu, alabaina, besteak beste altxor bat zinez paregabea, euskara eder batean landua, bere bizi guziari behako sarkor bat emanez, ez espantuka ariz, ez baitzuen segur gisa hartako jitea, baina xeheki, lañoki eta lasaiki kontatuz nolako urratsak eman dituen Euskal Herriaren eta Elizaren zerbitzari leial eta kartsu. Denbora berean bistan ezarria zigula bazter guzietan mende erdiño bat barne izan den itxuraldatze ikaragarria. Altxor hori da *Ene artzain-etxolak* liburu guziz argia, Auspoa sailean plazaratua duela 15 urte. Euskararen aldetik ere mirezgarria. Peio Jorajuria adiskideak aitzinso-

lasean azpimarratu duen bezala, liburu horretan gaitzeko itzulia egiten da Euskal Herrian gaindi gehienik, gertakariz gertakari, baina kasu eginez ere, eta nola, gauza xume-xume batzuei. Dena begi eta dena beharri ibiliz, plazaz plaza eta xokoz xoko.

Emile Baigorri sortua zen, Bastida auzoaldeko Belarrea baserrian. Han zituen bere erroak. Eta nolako erroak! Sanoak eta azkarrak. Bere bizi guzian erro haiei atxikia egon da. *Ene artzain-etxolak* liburuan badira orotarar 357 orrialde eta lehen ehunetan Emile kasik alde bat zertaz da mintzo? Bere haurtzaroz eta gazte denboraz. Horretarik ere ageri da zernahi oroitzapen bazituela gogoan barna hartuak, ezin ahantziak beraz... Eta zoin poliki ez ditu kondatzen, irakurleari iduritzen ahal baitzaio bera ere han ibilki dela Emileren aldean. Zure aitzinean dituzu Bastidako bidexka eta errekek, hango etxe, landa, pentze eta larreak, bai eta azkenean Baigorri guzia... Egiten duzu ere anitz jenderen ezagutza, Emileren familia, haren auzoak, eskolako lagunak, Miel eskalapoigilea, Beñat espartingilea, eta zonbat holako...

Bulta bat har nindazke oraino, ahantzia bezala, oroitzapenez oroitzapen Emileren haurtzarora gogoan. Baina badugu oraino ainitz bide egiteko eta goazen aitzinago...

Gure bastidar gaztea segi dezagun lehenik Uztaritzeko seminario ttipirat. Apez egin behar zuela, gisa hartako deia entzuna-eta, bide horretako lehen urratsa hori zuen, Uztaritzerat joatea. Han, Emile tanpez sartu zen arrunt mundu berri batean. Eta mundu berri hortan, batzuk bada euskaldunak, eta euskaradunak, beste batzuk ez hala. Dena den, Emile laster jarri zen bere bizi berriari eta bada gauza bat aldi bat baino gehiago azpimarratu duena, nola han berehala kausitu zituen euskara gero eta gehiago maitarazi nahiz ari ziren irakasle batzuk. Besteak beste, Etienne Salaberry heletarra eta, oroz gainetik, Piarres Lafitte denbora hartan ez zena oraino *Herria* astekariaren zuzendari baina ezagutua ordukotz euskalgintzan alde bat lan eta lan plantatua zelakotz... Piarresekin Emile azkarki berotu zen euskaldungoaren alde. Gero jin ziren Baionako seminario handian iragan behar urteak. Lehen urtean berean, gertakari berezi batekin, gertakari bat ustegabeko ondorioak ukan zituena gure Emilerentzat. Aita Candau bearnesa zen orduan Baionan zuzendari eta bat-batean, irakasleak eskas zirela asko tokitan, urte batentzat

Emile, seminario handian hartzeko partez, igorri zuen Mauleko kolegiorat, irakasle lagun bezala. Baionan urte batez gibelatuko zaizkiola bere ikasketak baina bestalde ez zela hain galtzaile izanen, Mauleko egonaldi horretan gauza franko ikasiko ere zuela. Gauza franko ikasiko zuela Emilek, zer ote zuen gogoan seminarioko zuzendariak? Hori ez dakigu baina dakiguna da Emilek ezagutu zuela orduan Zuberoa, ordu arte ez zuena kasik batere ezagutzen, eta hango ohitura bereziak, hango bazterrak, hango jende asko, eta hori azkarki preziatu zuela bixtan da.

Urte baten buruan, jo beraz Baionako seminariorat. Bost urterentzat baina artean soldadugoa eginez, orain ez da gehiago egiten baina orduan bada, eta Emilek egin zuen erizain zerbitzu batean, lehenik Bordeleko ondoan eta gero Tolosan.

1951ko ekainaren 29a, egun handia Emilerentzat. Baionan apez ordenatua izan zen eguna. Apez berri haietan, Emileren lagun handiak, Jean Hiriart-Urruty hazpandarra eta Joseph Camino arnegitarra.

Apeztu-eta, ondoko urrian apezpikuak Emile izendatu zuen Hazparnerat bikario. Bizikletaz joan zen Hazparnerat larunbat arratsalde batez... Harat orduko, Justin Mirande zuberotar erretore xaharrak erran zion Omia Santuko meza nagusian, zombait egun bakarren buruan hain xuxen, predikua haren gain izanen zela... Emile laster laketu zen Hazparnen.

Bai, Emile laster jarri zen Hazparneko bizimoldeari. Hazparnen bazen denetarik, laborari, ofiziale, zapatagin langile eta nagusi. Denek beren sail berezia eramaki. Denek ongiatorri goxoena egin zioten bikario berriari. Emile hangotu zen denbora guti barne. Hango hitz berezi batzuk ere laster sartu zituen bere hiztegian. Hala nola elizaren aitzineko plazari «karkana» erraten ziotela. Denboran, noizbait, karkana ezartzen baitzen plaza hartan, auzitegi batean gaizkile bezala zigortuak denen aitzinean atxikitzeko, orenak eta orenak berdin, taula batzuen artean gurutzefikatuak bezala. Beste hitz bat ere ikasi zuen baina bere liburuan ez du deblauki sartu, ez zeukalako hain polita orobat, baina nik salatzen ahal dizuet haatik batere beldurrik gabe. Hauxe idatzi du Emilek: «Hazparneko elizan bazen lehen galerian herriko kontseiluko enkorotegia, buruzagien errespetuzko lekua, beste izen bat ere baduena omen, baina bego horretan». Bai bego horretan Emilek ez baitzuen

idatzi nahi zein zen delako izena. Eta zoin zen bada izen hori ? Hazpandarrrek, halako trufa aireño batekin, hautetsien aulkitegi berezi hori deitzen zuten...astotegia!

Horiek hola, Emile ez zen luzaz egon Hazparden. Bi urte bakarrik. Apezpikuak igorri zuen Donibane Garazirat, laborantza eskola bat behar zela han ireki. Frantsesenea deitu zutena. Apezpikuak ez zuen hautu hori ustegabetarik egin. Bazekien Emile biziki atxikia zegoela laborantzari eta laborarieri. Zonbait denboraren buruan, bideko istripu batean franko handizki kolpatua izanik, Emilek utzi zuen Frantsesenea Urruñarat joateko bikario kondu.

Han ere lan ederrik akulatu zuen. Euskal antzerkiaren sustatzeari ere azkarki lotu. Gero eta kar gehiago agertuz ere bertsugintzaren sail guziz balios horretan. Eta bai, luzaz eta luzaz Emile izana da bertsutzale guziz suharra. Saio frankotan partzuer, edo gaiemaile, edo epaimahaian berdin... Dela Nafarroako txapelketan, hamar bat urtez, dela Euskal Herriko txapelgo nagusian, lau aldiz, azkenik 1982an. Zazpi urteren buruan, Emilek segida berri bat hartu behar. Denbora hartan baziren Hazparden misionestak, ez Afrikarat edo Jainkoak daki norat joaten ziren (eta diren) horietarik baina hemen berean herriz-herri ibiltzen zirenak. Sail hori ere zazpi urtez berea ukanen du Emilek. Eta horra nun izendatzen duten Aiherrako erretore. Hor ere, bere bertute nasaia agertuko du. Herritarren zerbitzuko baina ere partaide Bibliako, mezako eta beste eliza-testu frankoren euskaraz ezartzeko lan guziz ederrean. Aiherra biziki maitatu duela, ez dugu dudarik. 1980an plazaratu ere baitzuen liburu balios bat, *Aiherra, Nafarroaren leihoa*. Aiherran 11 urte egonik, Emile joanen da Irisarriat, Suhuskune ere bere gain. Oroitzapen on franko atxiki du-eta Irisarriko egonaldiaz. Frango egonaldi luzea, 15 urte iraun duena. Gero, joan zen Donibane Garazirat, laguntzaile bezala, eta azkenik, ahultzen ari-eta, Kanboko Arditeia xahar-etxerat.

Bere apez-lan guzien artetik, bertsularitza ere sustatuz, ja erran dudan bezala, pilotatzale erne eta kartsu agertuz bestalde -bera ere hein bat gazte zeno pilotan ari izana arras polliki- Emile ez genuen segur aireari so egoten diren horietarik baina alde bat lan eta lan aritzen diren xinaurri baten parekoa. Idazle fina, biziki fina. Lan batzuk argitaratuak *Gure Herria* aldizkarian bai eta Iker sailean. Batzuetan Sokorri izenordea baliatuz. Sari asko

ukanak. Pilotarien Biltzarrak omendua, Euskal-Herriko Idazleen Elkarteak ere bai. Besteak beste. Eta nola ez gain-gainetik gorets *Herria* astekariaren zuzendari bezala ereman duen saila. Kargu hori, baina erraten ahal genuke ere karga hori, bizkarrean hartu zuen 1969an. Atxiki du 34 urtez, 2003ko biltzar nagusia arte, ez baita guti! 2009ko martxoan, *Herriak* atera zuen bere 3.500. zenbakia. Ordu arte egin bideari behako bat ematen geniola, Emile Larre deitu genuen gure «zuzendari txapeldun». Handi eta iraunkor izan da zinez Emileren eragina. *Herriaren* zuzendaritzan bai eta aipatu ditugun sail askotan. Bai, Emile izan da maisu eta eredu. Euskaltzaindiak urgazle ohortu zuen 1967an, euskaltzain oso hautetsi handik zazpi urteren buruan, René Lafon-en segida hartzen zuela. Egun, Donostian, esker onezko omenaldi bat eskaintzen diogu haren mereximendu handiak denek gogoan ditugula.



Juan Garmendia Larrañagaren hilberria (1926-2015)

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari
Euskaltzain urgazlea

Iazko urtarrilaren 8an euskaltzale jakintsu bat hil zen Tolosan. Euskaltzale eta jakintsu Tolosan aurretik ere izan dira banaka batzuk: Ixaka Lopez Mendizabal, Antonio Labayen, adibidez. Baina bi nolakotasun horiei gehitzen badizkiet eskuzabal, bihotz on, adiskideen adiskide, hiztun neurtu eta jori, ikertzaile aspergaitz, idazle trebe, irakurle nekaezin, txantxa (eta txantxo) zale, eszeptiko samar, isekari eta batzuetan ironiko samar, erromantiko ... eta abar eta abar, garbi dago Juan Garmendia Larrañaga tolosar peto-petoaz ari naizela.

Zorte ikaragarria izan nuen Juanekin topo egitean. Gutxitan ezagutu dut hain ondo beste inoren bizitza Juanen kasuan egin nuen bezala. Hori posible izan zen komunikazio jario aberats eta jarraikia ireki zelako bion artean. Bere eskuzabaltasunaren onuraduna izan nintzen. Hainbat eta hainbat gauza erakutsi zidan eta ezingo dut sekula berarekiko nire zorra kitatu. Hogei urtez bizitzako katedratik ikasgai magistralak eskaini zizkidan, euskal kultura bere orokortasunean ikuspegi desberdin batetik neurtzen irakatsiz.

Juanen nortasun tinko eta erraldoiak ni bezala beste lagun asko ere inpregnatu zuen. Juan hiritarra, Juan etnologoa, Juan dibulgatzailea, Juan euskalduna, Juan euskaltzalea. Nortasun alderdi desberdinek Juan bakarra osatzen zuten eta bakoitza argi bereziz nabarmentzen zen osotasunean, Juanek jakin baitzekien bereizten arlo diferenteetako esparrua, bakoitzean ari zela. Eta euskal gizartera irradiatu zuen bere jakintza, bere maisutasuna. Maisua izan zelako. Ikasgelarik gabeko maisua, hori bai, nahiago izan bai-

tzuen haize libreko ikastola hormen arteko unibertsitate enkortsetatua baino.

Juani ez zitzaizkion ortodoxiak interesatzen eta zurrunkeriatik ihes egiten zuen, «ismo» kamustaille eta antzuetan ez erortzeko. Ezaguna egin zuen bere «*ez naiz inoren artzain ezta ardi ere izan*». Ideia horrek gidatzen zuen bere lana. Eta horregatik heldu zen hain urruti. Euskal kulturako inork gutxik lortu duen maila erdietsi zuen bere obrari buruz. Sentimenduz eta jakitez biribildutako lan mardul eta aberatsa utzi zigun.

Juan Garmendia Larrañaga 1926ko uztailearen 12an jaio zen. Gurasoak Ignazio eta Antonia izan ziren. Bikotearen seme bakarra gertatu zen, aurretik jaiotako bi anai-arreba txikitxo hil baitziren. Herriko Jesusen Alaben ikastetxean, lehenik, eta gero Jesusen Bihotzaren Anaienean ikasi zituen oinarritzko gaiak eta hamahiru urterekin Oronozeko maristengana bidali zuten. Urtebete bakarrik iraun zuen ikastetxe hartan, bertako diziplinari gehiegizkoa baitzerizkion.

Hortxe dugu Juanen aurreneko nortasun-zehazkizun garbia. Gaztetatik, beraz, aurre egin zion bizitzari bere berezko postulatuetatik. Askatasuna maite zuen, era guztietako lotura zurrunei muzin eginez.

Merkataritza ikasketak egin zituen Donostian eta lanean hasi zen familiaren negozioan. Eta Tolosako denda haren ingurura biltzen ziren pertsona eta materialetan oinarrituta ekin zion Juanek bere karrera paregabeari. Sendi jatorriaren deiari adituz, Txindokiko magaletara jo zuen, bere heriotzara arte egingo zuen legez, eta hastapenetako argizariak, zurezko lanabesak, baserritarrak eta iraganerako lotura ahalbidetzen zion guztia mundu zoragarria bihurtu zitzaion poliki-poliki. Eta Juanen irudia erraldoitzen joan zitzaigun, oinarri sendoko lanari esker.

Ikerketa lan zabal eta sakonak bata bestearen atzean etorri ziren. Eta zientziaren soloko urrats sendoak lagun, goi ikasketetara hurbildu zen, eta 1984an doktoregoa lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, bere «Euskal lexiko etnografikoa»-rekin. «Bikain cum laude» atera zuen. Epaimahai-burua Koldo Mitxelena zen eta tesiaren zuzendaria, berriz, Julio Caro Baro-

ja. Ez zituen maisu kaskarrak izan, ez alajaina! Azkenaren hitzak dira ondokoak:

... Hizkuntza egoera larri baten ez ezik, mendez mende metatu den tradizioaren, behin betiko desagertzeko zorian edo jada guztiz desagertu diren usadio eta ohituren azken ordezkariengandik jaso du lexikoa. Egoera agoniko hori hautemateko halako sentiberatasuna erakusteagatik Juan Garmendia Larrañaga nire aspaldiko adiskide maiteari, lehengo z gainera, meritu hau eman behar zaio.

Baina ez dezagun baieztapen horrekin ikuspegia okertu. Juan Garmendia Larrañagak ez zuen euskara agonikoa nahi. Bizia, baizik. Dakusagun:

Ramos Azkarate tolosarraren esaera bere eginez, Juanek Madrilen emandako hitzaldi batean zeruan jai egunetan euskaraz egiten dela adierazi zuen. «*Ramos Azkaratek hori baieztatzeke bere arrazoiak izango zituen ezta?*» gaineratuz.

Behin galdetu nion zein euskara mota erabiliko den zeruan eta erantzun zidan horrek bost axola ziola, euskara baldin bazan. Eta ohiko bere diplomaziaren adibidea eman zidan ondoko hitzekin:

On Manuel Lekuona adiskide handia neukan eta nik banekien berak euskara batuari buruz zeukan jarrera eta nirea ez zetozela bat. Baina bere sentimenduetan ez mintzearren isilik geratzen nintzen eztabaida sortzean. Gabriel Arestirekin ere gauza bera gertatu zitzaidan, nire etxera etorri zen arratsalde batean. Nire ideiekin bat ez zetozen argudioak erabili zituen euskara batuaren alde. Baina Aresti nire etxean zegoen, nire gonbidatua zen, eta ezin niezaiokeen kontra egin.

Euskara bizia nahi zuen, kalean ikusi gura zuen, ume eta nagusien arteko kohesioa ahalbidetuz.

Euskarak kalea irabazi behar du, eta elkarteak, eta lantegiak ... Batzuetan esaten zaigu txikiegia dela horretarako. Txikiegia? Noiztik neurtzen da indarra tamainarengatik? Ez al da guztion baitan zentzu apurrik piztuko? Inork uste al du, benetan, euskarak kalte egin diezaiokeela espainierari? Eta frantsesari? Kalte? Gezurtiak desenmaskaratu behar ditugu!

Euskararen aldeko Juanen lanarengatik Euskaltzaindiak saritu egin zuen (ala Juanek saritu zuen Euskaltzaindia?) euskaltzain urgazle izendatuz, 1975eko ekainaren 27an. Geroago, 2002ko azaroaren 29an Ohorezko euskaltzain egin zuen Akademiak.

On Jose Migel Barandiaranek idatzi zuen behin Juan Garmendia Larrañagak ez zuela aski izakien edo gauzen azaleko ikuspegiarekin. Bakoitzaren egintzak eta bere inguruko harremanak zorrotz aurkezten zituela azpimarratu zuen idazki hartan.

Nik ere antzerako modu batekin amaitu behar dut nire gaurko jarduna. Juan Garmendia Larrañaga adiskidearen gain aritu naiz, azalkiro, In memoriam batek behar duen eran. Juan Garmendia Larrañagaren egintza eta lorpenez jabetzeko, ordea, bere obran egin behar dugu murgil. Eta, zinez, gomendagarria da ariketa.

Joshua A. Fishman-en hil-berria (1926-2015)

ZALBIDE, Mikel

Euskaltzain osoa eta Euskararen Historia Soziala egitasmoaren zuzendaria

New York-en, laurogeita zortzi urte zituela, hil zitzaigun iazko martxoaren 1ean Joshua A. Fishman. Nahigabea sortu zuen hil-berriak Euskaltzaindian: Akademia honen ohorezko kide genuen. Euskaraz ez zekien Joshuak, baina euskararen gizarte-dimentsioaz, eta egungo egoera onbideratzeko aukerabide posibleez, gutxik bezalako ezagutza metaturik zuen. Ezagutza teorikoa batetik, eta hainbat ebidentzia enpiriko bestetik. Unibertsitate- eta ikerketa-alorreko gogoetagine sakona izanik da Fishman mundu zabalean: zerbaitegatik deitu zion Ofelia Garciak, bere hil ondoko *in memoriam* argian, «a beloved teacher and influential scholar». Erdiz erdi asmatu zuen horretan, gure ustez, Ofeliak. Bere jakituria sakonaren perspektiba teorikoak eta zenbait analisi enpirikok nabarmen aberastu izan du mundu zabaleko hainbat ikertzaile, irakasle eta ikasle. Baita ahuldutako hizkuntzak indarberritzen saiatzen diren kontinente guztietako *language loyalist* edo hizkuntza-zale saiatuak ere. Ezin egokiago azalduz dago hori esaldi honetan: «thousands of students throughout the world (..) have learned much from him about sociology of language, the field he founded, and also about the possibility of being a generous and committed scholar to language minority communities»¹. Euskaltzainok ez ezik euskaltzaleok ere badugu hortaz zorra, eta ez nolana hikoia, berarekin: atzerritarren artean Joshuak erakutsi digu inork baino argiago, zientzia-arauz ordura arte landu-arin zegoen alor hori perspektiba teorikotik nola joratu. Ekarpene handia egin digu, horri eskerrak,

¹ Ofelia Garciaren hitzak dira horiek.

langintza horretan ari garen guztioi. Hori aski ez bailitzan, beste motibo bategatik ere biziki estimatua dugu Fishman: euskaltzaleoi eta language-loyalist guztioi gizabide zabal eta orbanik gabea, bihotzez eskertzen zaiona, erakutsi izan digu beti. Mundu zabaleko hitzun-herri txikionganako onginahia eta errespetua, jakinduria teoriko sakonaren pare, nortasun-seinale argiak izanik ditu bizialdi osoan.

Jatorriz judu genuen Joshua A. Fishman. Europako ekialdetik, beste askoren pare, Estatu Batuetara joandako familia judu batean jaio zen Filadelfian, 1926an. Arbasoen *Jiddish* hizkuntza Kontinente Berrian bizirik gordezen gogor saiatzen zen familia-giroan eta ingurumen hurbilean hazia dugu, nolana ere, bere haurtzaro-gaztaroetan. Egunero galdetzen omen zien aitak, Joshuari eta bere arrebari, artean neska-mutil zirelarik: «zer egin duzue gaur gure hizkuntzaren alde?» Uriel Weinreich linguista famatua lagun mina izan zuen, bide batez esanik, gaztetan eta geroxeago, unibertsitariotzara. Ikasketak amaiturik unibertsitateko irakasle, ikertzaile, aholkulari eta argitaratzaile nekaezin izanik da gero, urte luzez. Hizkuntza-soziologiaren sortzaile eta bide-urratzaile nagusien artean kokatu ohi da maiz, arrazoi handiz, Joshua A. Fishman. Zenbaiten esanean berak emana-edo da, Estatu Batuetan, jakintzagai horri buruzko lehen kurtso unibertsitarioa. Kronologiaren aurrelari izateaz gainera, hizkuntza-soziologiaren alorreko hainbat kontzeptu giltzarri sortzen, osatzen, birmoldatzen edo zehazten saiatua da bizialdi akademiko aberatsean.

Erreferente argi izanik da, orobat, jakintza-alor horretako hainbat ekarpen argitaratze-bidean jartzeko orduan: bai bere liburu-artikuluak, eta bai beste hainbatenak, zabaltzen eta jakitera ematen gutxik bezalako urratsak eginik ditu 1965 ingurutik aurrera. Autore edo bilduma-prestatzaile gisa paratu dituen liburu ugarien artean hor daude, esate baterako, ondoko hauek: *Language Loyalty in the United States* (1966), *Language problems of developing nations* (1968), *Bilingualism in the Barrio* (1968/1971), *The Sociology of Language: an interdisciplinary social sciency approach to language in society* (1972), *Language & Nationalism: two integrative essays* (1972), *Advances in language planning* (1974), *Bilingual education: an international sociological perspective* (1976), *The Rise and Fall of the Ethnic Revival* (1985), *Reversing Language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*

(1991), *In Praise of the Beloved Language; The Content of Positive Ethnolinguistic Consciousness* (1997), *The Multilingual Apple: Languages in New York* (1997), *Can Threatened Languages Be Saved?* (2000), eta *Do Not Leave Your Language Alone: The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy* (2006).

Artikulu arras ugarietan, berriz, hainbat ekarpen eginek du ondoko gai hauetaz:

- a) hizkuntza-soziologia teorikoaren egitura nagusia, bai perspektiba deskriptiboan eta bai dinamikoan, inork gutxik bezala landu izan du urte luzez. Azterbide deskriptiboari dagokionez, bere «who speaks what language to whom and when» funtsezko mugarri da orain ere, lehenengoz formulatu zuenetik 50 urte beteko direlarik laster²; diglosiari eskaini zion formulazio zabaldua³ eta diglosia/elebitasun aukera-marko laukoitzaren ekarpena, era berean, Fishman-en muin-muineko oinarri kontzeptual dira. Bada Joshuak bere traiektoia intelektualean, eta bere hobespen diziplinario-metodologikoetan, aho batez aitortzen zaion oinarri-oinarriko ezaugarria: arras perspektiba linguozentrikora makurturiko ikuspegitik perspektiba soziozentriko(ago)ra eramán nahi izan du beti bere ikerbidea eta bere konstruktu teorikoen egonarria⁴.

² Koldo Mitxelena badu, orientazio soziolinguistikozko bere lanetan, Fishman-en «who speaks what language to whom and when» horren oihartzunik.

³ Diglosiaren formulazio zabaldu horretan, Joshuak berak argi eta leial aitortu izan duenez han-hemen, ez zen hutsetik abiatu: John A. Gumperz-en ekarpenak oso kontuan izan zituen filadelfiarrak. Ez, egia esateko, diglosia kontuan bakarrik: Gumperz-en eta Dell Hymes-en *Ethnography of communication* azterbidea ere aski kontuan izanik du Joshuak, *interactional sociolinguistics* barne delarik, bere hainbat formulaziotan.

⁴ Azken urteetan, lehen hizkuntza-soziologiarekin bezala, hizkuntzaren eta erlijioaren arteko harremanez ere arduraturik ibilia dugu. Hor ere, 40 urte lehenago hizkuntza-soziologiarekin bezala, funtsezko hautapen soziozentrikoa egin zigun berak. Hona, horri buruzko atalean, hitzez hitz zer dioen: «I suggest that we must do today in the sociology of language and religion that which we tried to do before in the sociology of language: find a theoretical parental home for ourselves. Only those who have a parental home can mature and leave it to build one of their own! Relative to other orphans, we are fortunate in only one respect: we can adopt a parental home rather than

- b) Hizkuntzaren eta hartaz baliatzen den gizataldearen arteko lotura-moldeak ere berariaz landurik ditu Fishman-ek, artikulu batean baino gehiagotan. Sarri azpimarratu izan duenez, etnizitatearekin⁵, erlijioarekin⁶, ideologia⁷ politikoekin⁸ eta hizkuntzen aldeko mugimenduekin⁹ hertsiki loturik egon ohi da hizkuntza. Lotura horiek maiz aztertu izan ditu Fishman-ek, bai oro har eta bai hiztun-herri txikien alorrean.
- c) Hizkuntzen corpus- eta status-plangintzan ere aurrelari izanik da. Hizkuntzen corpus-plangintzaren sailean ondoko puntuok arakatuak ditu, besteak beste: corpus-plangintzak status-plangintzaren xedeak

needing to wait to be assigned to one by others (such as happened in the assignment of sociolinguistics to linguistics). For me, the parental home that I would like to adopt is one that consists of a sociology of language that is richly informed by sociology proper. I have reason to hope that such a combination will provide a nurturing point of departure. This is so not only because I am convinced that any disciplinary point of departure is better than none, but because both of the above mentioned prospective «parents» (sociology and the sociology of language) have already provided much evidence of the stimulation that they could provide for our fledgling enterprise.» (Tope Omoniyi eta Joshua A. Fishman editore, 2006: *Explorations in the Sociology of Language and Religion*).

⁵ Lan ugari, eta aski sakonik, eginik du Fishman-ek alor honetan: hiru adibide baizik ez ematearren demagun, batetik, 1985eko *The Rise and Fall of the Ethnic Revival: perspectives on language and ethnicity*. Berlin eta New York: Mouton; ikus, bestetik, 1988ko *Language and Ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Clevedon, Multilingual Matters; demagun, azkenik, 1999ko *Handbook of Language and Ethnicity*.

⁶ Ikus adibidez, Tope Omoniyi eta Joshua A. Fishman editore, 2006ko *Explorations in the Sociology of Language and Religion*. Amsterdam: John Benjamins.

⁷ Demagun bere 1987ko *Ideology, Society and Language: The Odyssey of Nathan Birnbaum*. Ann Arbor: Karoma Publishers.

⁸ Bere *Language and Nationalism* atalbikoa funtsezko ekarpena da egungo egunean ere, abertzale-tasunaren eta hizkuntzaren arteko lotura-bideak aztertu nahi dituen edonorentzat. Baita gure arteko kontu askotxo argitzen lagundu dezakeen *nationalism* eta *nationism* arteko bereizbide zorrotza ere.

⁹ Gogoratu, lehenagoko eta beranduagoko iturrietara jo gabe, 1966ko *Language Loyalty in the United States* erraldoia.

nola islatzen dituen¹⁰; albo-hizkuntza indartsutik urruntzeko ahaleginak (*Ausbau*-saioak)¹¹, garbizaletasuna¹², hizkuntza klasikorantz hurbiltzeko ahaleginak, pan-mugimenduak; idazteko sistemen sorrera¹³, estandarizazioa eta berrikuntza; hizkuntza-plangintzarako akademien eta antzeko agentzien jarduera. Status-plangintzari dagokionez, bestalde, aparteko lekua eskaini izan die han-hemengo kasuei (tartean, nola ez, Yiddish-ari). Larri ahuldutako hiztun-herrien indarberritze-saio askok bere erronka nagusia non duen behin eta berriro gogorarazi izan du: *revernacularization*-xedean edota, egoera hain larria ez denean, belaunez belauneko transmisio naturala bermatzeko lanetan.

- d) Hezkuntza elebiduna. Estatu Batuetako hezkuntzari eskainia dion berariazko arretaz gainera leku askotako hezkuntza-sistema elebidunak aztertu nahi izan ditu: bai sistema publikoak eta bai hiztun-elkarre txikiek beren kabuz antolatutakoak. Egoera elebidunetan nork bere hizkuntza bizirik gordetzeko egiten diren ahaleginak bereziki izan ditu gogoan: bai jatorrizko hiztunen ezaguera aberastea helburu duten saioak eta bai bertako beste hizkuntza irakastea xede dutenak. Aztergai izan ditu, orobat, praktika eta jokabide horietarako justifikazioak eta ideologiak. Aurrez aurre aztertuak ditu, azkenik, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko asmoz eskola-alorrean egiten diren

¹⁰ Demagun 2006ko «*Do Not Leave Your Language Alone: The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy*». Lawrence Erlbaum Associates.

¹¹ Heinz Kloss-ek 1929ko eta 1952ko *Abstand- und Ausbausprachen* kontzeptu-multzotik jasoa du Fishman-ek, behin eta berriro argi aitorturik digunez, *Ausbau*-saioen perspektiba teorikoa eta aukera terminologikoa.

¹² Era askotara azaldu izan du Fishman-ek garbizaletasun-saioen ingurumen soziokultural eta soziopolitikoa. Baita era guztietako corpus-plangintza saioen ikuspegi ximpleegiaz diharduten «aditu»-en oinarri-oinarritzko hanka-sartzea ere. Ikus, adibidez bere «*Modeling Rationales in Corpus Planning: Modernity and Tradition in Images of the Good Corpus*», in Cobarrubias eta Fishman editore, 1983: *Progress in Language Planning*.

¹³ Ikus, adibidez, 1977ko 1977 *Advances in the creation and revision of writing systems*. The Hague: Mouton.

ahaleginak eta, oro har, eskola bidezko indarberritze-lan gehienek dituzten berezko mugak¹⁴.

Guztia ez da halere, Fishman-en kasuan, jakitun erraldoiaren jarduera bakartia izan. Aparteko ekarpena eginik du, horrezaz gainera, jakintza-adar berria esparru akademikoan ezagutarazten eta, lankide- zein ikertzaile-talde zabala eratuz, zurkaizten. Hor dago, batetik, Mouton de Gruyter-en bidez argitara emandako *Contributions to the Sociology of Language (CSL)* liburu multzo zabala, 200 aletik gora doana. Ekarpenerik sendoena, horrekin batera eta agian horren gainera, beste hau du ordea: *International Journal of the Sociology of Language (IJSL)* aldizkari famatua. Berak fundatua da IJSL eta, *General Editor* gisa, hil arte berak zuzendu izan du etengabe, berrogei bat urtez kaleratuz. Aldizkari horrek bizirik dirau egungo egunean ere.

Hiztun-elkarte txiki bateko kide izanik, ahuldutako hizkuntzen gainbehera eta bizirik irauteko nekea argiro ulertzen saiatu izan da Fishman: gorago azaldu dugunez bere arbaso-hizkuntza, *Jiddish* delakoa, gaztetatik saiatu zen babesten eta, lagungarri teorikoz zein oinarri enpirikoz, indartzen. Helduarora iritsi ahala, horrezaz gain, berariazko ikergai bihurtu zuen Jiddish-aren alorreko hezkuntza elebiduna, soziologia eta historia soziala. Geroxeago, etxeoaz gainera, han-hemengo hiztun-herri txikiak ere aztergai izanik ditu. Mundu zabaleko hiztun-elkarte ahul edo txiki askoren egoera aztertzen saiatu da horretarako: Zelanda Berriko maori-ak, frisiarrak, katalanak, irlandarrak, galesak, New York-eko puertoricarrak eta Ipar Amerikako navajoak, besteak beste, maitez eta ardura handiz arakatuak ditu.

Euskal Herria eta euskara ere berariaz aztertu zituen. Hainbat harreman izan zuen, horretarako, euskaldunokin. Iker-bisitaldiak 1980ko hamarkadan egin zituen, Eusko Jaurlaritzaren era bateko edo besteko eskariz. Hizkuntza-plangintzazko jardunaldian¹⁵ (1986), II. Euskal Mundu

¹⁴ Ikus, adibidez, Bilbon 1989an ingelesez irakurri zuen eta gero (1990ean) euskaraz eman genuen «Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan» in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*.

¹⁵ Juan Cobarrubias irakasle amerikarraren eskutik, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi (gero sailburuorde) zen Mari Karmen Garmendiaren eskari ofizialez, egin zuen Fishman-ek lehenengo bisita hura. Euskara indarberritzeko ahaleginez ematen genizkion iritzi-azalpenak egonari handiz entzun ohi zituen, eta ohar sakon, zorrotz eta argigarriak eskain-

Biltzarrean¹⁶ (1987) eta Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresuan¹⁷ (1989) jardundakoa da, besteak beste¹⁸. Lehentasunak non jarri behar genituzkeen, eta non ez, esanik digu behin baino gehiagotan, hitzez eta idatziz. Hori guztia dela medio, euskararen egoerak oihartzun ozena jaso du bere hainbat argitalpenetan. Bereziki, arestian aipatutako *Reversing Language Shift* liburuan. Kapitulu osoa eskaini zion bertan frasieraren eta euskararen arteko konparazio soziolinguistikoari. Berak zuzentzen dituen elkarlanean argitalpenetan ere gure kasua lantzeko aukera eskaini izan du sarri: hor dago, esate baterako, *Can Threatened Languages Be Saved?* ezaguna. IJSL aldizkariaren ale bat, bestalde, euskararen egoera soziolinguistikoa deskribatu eta eztabaidatzeari emana dago ia osorik: ikus *The case of Basque: from the past, towards the future*. Liburuki-kidea izanik du argitalpen horrek gure artean: *The case of Basque: Past, Present and Future* (2006).

Azken urteotan, gorago azaldu denez, ohorezko euskaltzain izan dugu Joshua A. Fishman. Bistan da zergatik izendatu zuen Akademiak ohorezko euskaltzain: aparteko ekarpenak eginik zituen euskararen oraingo egoera sozialaz eta, belaunaz belauneko transmisio-jarraipena ardatz izanik, berau indarberritzeko aurrerabide posibleez. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio posibleak perspektiba teorikotik lantzen saiatu zen bere ekarpen horietan, lehentasunak non ezarri behar genituzkeen seinalatuz argi: arnaguneen berariazko garrantzia Fishman-en lehentasun-eskema horren muin-muinean dago. Berak fundaturiko jakintza-esparruan, genezakeen apurretik eta genezakeen heinean, aurrera egin nahi genuenoi onginahia, maisu-laguntza eta atxikimendu argia erakutsi zigun maiz, horrezaz gainera. Bazen beraz motibo

tzen zizkigun ordainetan. Gomendio-idazki espresa ere eskaini zigun egonaldi haren amaieran. Era berean egin zuen II. Euskal Mundu Biltzarreko parte-hartzea ere.

¹⁶ Hizkuntza-soziologiaren aztergai zabala jorratu zuen II. EMBko bere txostenean: zein gizar-te-faktorek iragartzen du sendoen mundu zabaleko estatuen hizkuntza-homogeneotasuna edo heterogeneotasuna?

¹⁷ Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan eskolak zertan lagundu dezakeen, eta zertan ez, azaldu zuen berariaz Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresuan.

¹⁸ Eusko Jaurlaritzarekin izandako lankidetzaren harremanen ildotik, Bourhis eta Tabouret-Keller irakasleekin batera 1991ko inkesta soziolinguistikoaren diseinuan ere parte hartutakoa da, oker ez bagaude.

sakonik, axaleko edergailu distiratzailuez gainera, ohorezko kide izendatzeko. Euskaltzain-diploma bere etxean, New York-eko Bronx-en, eskuratu genion. Familiaz eta unibertsitate alorreko adituez inguraturik egin zigun harrera, bere emazte Gella Schweid Fishman eta seme-ilobak alboan zituela. Edadean aurrera eginik zen ordurako, baina buru-argi agertu zitzaigun: esker onez eta, ohiko moduan, begitarte arraiz. Lagunarte jantzi-maitakorrean jardun genuen arratsalde hartan, *huntaz eta hartaz*, ilunabarrera arte. Asko estimatu zuen Euskaltzaindiaren ohorezko izendapen hura.

Ez da gaurko hau, inondik inora, etsipenezko lantu-jotzerik egiteko tenorea. Bai, aldiz, esker onez eta miresmen zabalez bere esan-eginak goraiatzeko unea. Hor gelditzen da maisuaren uzta, bere emaitza erraldoia. Erraldoia da kopuruz, lehenik eta behin: ehun liburu inguru eta mila artikulutik gora kontabilizatu dizkiote berrikitan. Erraldoia dugu, bestalde, landu dituen esparruen ugariagatik eta, oso bereziki, esparru bakoitzean utzi duen arrasto sakonagatik. Hizkuntza-soziologiaren oinarri teorikoak eta, aplikazio-alorrean, ele biko hezkuntza, hizkuntza-plangintza, hizkuntza eta abertzaletasuna, hizkuntza eta erlijioa edota beste hainbat alor nekez landu litezke gaur bere azalpen zehatzak, paradigma nagusiak eta aurkikuntza jakingarriak alde batera utziz. Ezinbesteko erreferentzia dira horiek, mundu zabalean: ezinbesteko erreferentzia dira eta, iragarle-lanak huts egiten ez badu, luzaroan ere halatsu izango direla esango genuke.

Gurea bezalako hiztun-herri txikiek, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena nahi baino mehatxatuago daukatenez, badute maisu handiari zer eskertu. Milaka gara mundu zabalean, ez hiruzpalau edo bospasei, egoera horretan gauden konstelazio etnokulturalak. Egoera horren analisi intelektualari aurrez aurre heltzen asmatu izana ez da, bere merezimendu zabalen artean, gure ustez meharrena. Hori egiterakoan ez du, gainera, «han-hemengo bitxikerien» datu-bilketa izan helburu. Hilzorian dagoen «gaixo galdu»-aren kontua ez, berri-berria den eta berri-berria izaten jarraituko duen fenomeno global zabala baizik, ikertu du maisukiro. Fenomeno zabal, alde anitzeko eta multikausal hori egoki ulertzen, eta bere arazoak zentzuz onbidatzen, lagundu nahi izan digu Joshua Fishman-ek. Objektibotasuna gidari izanik beti, eta ahularen gaitasun estimu-errespetua oinarri hartuz, inork baino neurri zabalagoan eraiki du jakintza-eremu berria. Intelektual gutxiagatik esan liteke horrenbeste. Eskerrik asko, maisu.

Eranskina: Joshua A. Fishman-ek gure artean izandako oihartzuna

Bost ataltxotan bildu dira oihartzun inprimatuak. Hona bostok, hurrenez hurren:

1. Euskal Herrian emandako hitzaldiak:

- a) Fishman J. A. (1990) Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua, Estudios y Documentos* 9 (1990: 127-140). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Artikulu berbera agertzen da, bestalde, in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua/Primer Congreso de la Escuela Pública Vasca*, 1. tomoa, (1990: 181-188). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [Gaztelaniazko bertsioa liburu berberetan jasota dago, honako izenburu honekin: Limitaciones de la eficacia escolar para invertir el desplazamiento lingüístico (IDL). Lehenengoan: 127-141; bigarreanean: 1, 189-196.]
- b) Fishman J. A. eta Solano F. R. (1988) *Societal Factors predictive of linguistic homogeneity/heterogeneity at the inter-polity level in II. Euskal Mundu-biltzarra: Euskara biltzarra/Congreso de la Lengua Vasca* (1988: 185-202). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

2. Euskararen egoerari buruz idatzitako dokumentu nagusia

Fishman J. A. (1991) *Reversing Language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*, VI. kapitulua, 149-186. Clevedon/Filadelfia: Multilingual Matters.

3. Euskararen egoera soziolinguistikoaren berri emateko bertako zenbait adituk ingelesez azaldutakoak

- a) Azurmendi, M.-J., Baxok, E. eta Zabaleta, F. (2001) «Reversing Language Shift: the case of Basque» in Fishman J. A. (ed) *Can Threatened*

Languages Be Saved?: Reversing Language Shift, Revisited: A Twenty-First Century Perspective, 234-259. Clevedon/Filadelfia: Multilingual Matters.

- b) 2005eko uztaileko *International Journal of the Sociology of Language* (174 zkia.). *The case of Basque: from the past, towards the future*.
- c) Soziolinguistika Klusterra, 2006: The Case of Basque: Past, Present and Future. *IJSL* aldizkariak 2005ean kaleratutako «*The case of Basque: past, present and future*» ale monografikoaren jarraipen eta garapen moduan argitara emana. Orri-kopuru handiagatik lehenengoan sartu ezin ziren artikulua bigarrean jasorik daude.

4. Artikulu garrantzitsu baten euskarazko itzulpena

Fishman J. A. (1988) «Hizkuntz hedapena eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntz politika», *Jakin*, 48, 5-21.

5. Fishman-en ikuspegi soziolinguistikoaz, euskaraz

- a) Erize, X. (1999) «Joshua Fishmani elkarrizketa» in *BAT*, 32. (Eskura Interneten: <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/820>)
- b) Hualde, J. I. (1987) «Elkarrizketa: Joshua Fishman» in *Zutabe*, 15:85-101.
- c) Izenik gabea (2000) «Joshua A. Fishman: 'Bi hizkuntza inoiz ez dira egongo oreka osoan komunitate bakarrean'.» in *Administrazioa euskaraz*, 27, 10-11 (Eskura Interneten: <http://www.ivap.com/admeusk/ae27.pdf>)
- d) Zalbide, M. (2004) «Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE» in www.erabili.com (sei zatitan argitaratua).

Josep Kaminoren hilberria (1927-2015)

ARBELBIDE, Xipri

Ohorezko euskaltzaina

Non sortu zen Josep Kamino? Arnegin? Arnegi aspalditik Luzaideko auzoa izan da eta lehen eliza 17. mendekoa baizik ez da, muga finkatu zenekoa. Gaur egun oraino arnegitarrek arreba, aitona edo izeba Luzaidekoa daukate. Eta alderantziz. Añex, ama, Arnegi Argaraiko alaba zen. Gehexan, aita, Luzaide Harginaineko semea, «mugaz» bestaldekoa! Muga zer den ez dakitelako konfirmazioa : aita Wyomingerat joan zen 1906an, gero Martin seme zaharrena, Denise alaba gazteena bezala, biak beti han baitaude.

Lehenagoko istorioak horiek denak. Aita 1913an Argarairat ezkontzea bezala, bizi behar baita 400 metro gorako gain haietan, Arabako zelaiekin deus ikustekorik ez duten malda xutetan, legartxunentzat eginak eta ez traktoreentzat. Josepek ikusi ditu etxean sartzen ura, argindarra, telefonoa, beribilentzat ibilgarri den bidea (1962an)... Ordu arte, ala mezarat, ala eskolarat joateko oren baten bidea oinez. Hoberenean, astoz.

Lehenagoko istoriokoa ere 14 haurridetako etxea, horietarik bost Euskal Herritik urrun joanak. Argairako aitama horiek eman 342 haur, arrahaur eta hauen haur badira nonbait mundu zabalean. Mundualizazioan sartuak dira. Baina Arnegitar geldituz : 266 bildu ziren 2007an... Garazin.

Lehenagoko munduan, lehenagoko erlijio. Lanak izan zituen Josep apez gazteak Iholdiko erretorearenganik erdiesten, anaia larunbatarekin ezkontzeko baimena: mezarat joanen ote ziren gero, biharamunean, igandekari? Gutiz ez utz! 1947an ez zuen arreba baten ezkontzarat joateko baimenik erdietsi, apezgaiek ez baitzuten deus egitekorik ezkontzetan! Moda zaharre-

ko apezak baziren oraino 1974an: Hazparnen Kornu gaztea ordenatzeko, misionesten kapera baizik ez zuen izan apezpikuak, Eliza nagusia Besta Berriko elizkizunentzat behar zuelakotz jaun erretoreak! Ondoko urtean sartu zen Kamino Hazparneko erretore.

Dena den, hortik aterara da Josep apeza, haurren arduradun, bikario, erretore, elizbarrutiko bikario nagusi, artean seminario handiko buru egon ondoan.

Elizaren zerbitzuko, Elizaren ibilbide bera egin du. Eliza gorenean ezagutu du 4.000 gazte bildu zirelarik Hazparnen *Euskaldun Gazteriaren* urteko bestan (1953), Parisen zeuden 400 gazteri arrats oroz predikatu zielarik St. Honore elizan aste batez (1954), 300 ikasle gazterekin oinez egin zuelarik Lurdako beilan azken eguna (1956-1963). *ELB, Laborantza Ganbara, Idoki* eta beste sortu dituztenak ez ote dira *Euskaldun Gazteriaren* umeak? Zer sortu dute euskal mundutik urrun, hirietan formatu gazteek?

Argaraiako luzaidarrak ez zitezkeen frantsesez mintza. Uraren bi aldeetan euskara zen errege, errepublika izanagatik. Arnegiko euskara landu zuen emeki emeki. Hazparneko kolegioan «Gaxtelu» zuzendariak eman zion euskal kantuen amodioa: kantu txapelketak antolatzen zituen. Baina, 1937an oraino, *anti*¹ deitu ziria martxa zen kolegioan! Gero Uztaritzen, dantza taldea sortu zuten eta Euskal Herri bat bazela ikasi Lafitteenkin. Honek Arnegin barnatua zuen euskara: oporrak bederatzi urtez han iragan zituen apezgai zelarik eta nola Jean Baptiste Dassance, «*Burrumba*» deitu erretore famatuak² ez zuen katiximarik batere egiten urtean barna, Lafittek betetzen zuen hutsa udako egun guziez, euskaraz prefosta!

Seminario handian predikatu behar zen, euskaraz ere. Ikasi zuen bere Arnegiko euskaraño hura behar bezala idazten, hitzen erdiak jan gabe. Xarriton, Hiriart Urruti eta beste zenbaitekin beren lanak agertzen zituzten *Chimicht* deitu kaierrean. Orduan zion lehen artikulua igorri *Gazte* hilabete-kariari.

¹ *Anti* = euskaraz mintzo zenari ematen zioten ziria. Eguna bururatzean eskutan zeukana gaztigatua zen.

² Ikus : *Herria maitez, Eliza maitez*, J. Camino, 2008, 84-88 or.

1946an Narbaitz kalonjeak sortu zituen, *Euskaldun Choriak*, euskarazko lehen udalekuak. Beste zenbaitekin 120 mutikoren begirale izan zen Kamino. Denek jakin behar zituzten oinarrizko 99 kantu bildu zituen Narbaitzek *Charamela* liburutxoan.

Apez

1951n apeztu zen. 1953an, urte haietan sortu Haurren Ekintza Katolikoaren arduradun izan zen apez gaztea: nexkak ere sarrarazi zituen. 3.500 haur euskaldun bildu ziren 1963an Donibane Lohizunen egin zuten haurren besta handian.

Haur horientzat *Pan Pin* hilabetekaria sortu zuen 1960an: lau koloretan atera zituen 8 orrialde Valverde inprentak, osoki euskaraz, Espainiako gobernuaren baimena erdietsirik baldintza batekin: *dar preferencia a personas y hechos españoles*. Dakizuen bezala, arnegitarrak txapeldun mugaz gaindikako harremanetan! Xabier aipatu zuten beraz lehen zenbakian. *Pan Pin*-en zituen plazaratu Manex Pagolak, bera ere begirale zelarik, xorientzat sortu lehen kantuak. 1963a arte, 24 zenbaki atera ziren 2.000 aletan bakoitza. *Pan Pin* izan da «x»-ek «ch» ordezkatu duen lehena Iparraldean, ondotik *Gaztek* bide bera hartzen zuela.

Gazte zen, Idieder apezak 1945an sortu hilabetekaria *Euskaldun Gazte-ria*-rentzat; bizi berri bat eman zion Xarritonek. *Gazte* ere gorenean zen: 1956tik 1964rat 70 zenbaki atera ziren. Zabaltzen ziren 4.000 aleetarik 400, Aljeriako soldaduei igortzen ziren. Mixel Itzainak haientzat sortu zuen *Euskalherria* aldizkaria, osoki euskaraz; soldaduek igorri gutunek betetzen zuten. Zoazte orain beren gutunak euskaraz idatz litzaketen 300 gazteren bila!

Santandreko bikario zelarik, misioneak muntatu zituen euskaraz 1952an eta 1953an, galderak egiten zizkiotela predikariari jendeen artetik. Entzuleak ez ziren lokartzen! Ondoko urtean hasi zuen eliza horretan, geroztik bizi den euskaldunen meza.

Ordukoa da ere liturgiaren euskaratzea eta kantuen berritzea. Koralak sortu ziren parrokietan kantu berrien ikasteko eta Koralen Biltzarraren buru

izendatu zuten Kamino: Seminario handian kantu arduraduna izana zen. 1969an 600 kantari bildu ziren koralean lehen egunean Hazparnen.

Beherapena

Buru zen Hazparneko misionesten taldea, desegin zuten 1976an *apez eskasagatik*. Gailurrerat heldu eta ala Elizak, ala euskarak, elgarrekin hasi zuten beherapena. *Gazte* eta *Pan Pin*, biak isildu ziren irakurle eskasez eta *Euskaldun Xoriak*, emeki-emeki *erdaldun* bilakatu.

Lehenagotik hasia bazen beherakada eta Liturgiaren euskaratzea honekin egin bada ere, ez dezakegu ahantzi, Vincent apezpikuarekin izan zela Eliza eta euskal munduaren arteko haustura. Gose grebalariak katedralean jarri zirelarik 1971n, Telesforo de Monzoni kanpoa manatu zion, urte oroz Lurdan ikusten zuelarik gaixoen beilan. Ez zuen Loiolarako gomita onartu Aita Saindua etorri zelarik 1982an! GAL ari zelarik erail eta erail, isiltasuna izan zen apezpikutegian.

Apezen aldetik ere gauzak ez ziren argi. Apez-gogoeta talde bat baldin bazen ere euskal gaiak aipatzeko, zer egin zezakeen? Apezetan, haustura ez zen bakarrik bearnes eta euskaldunen artean; euskaldunen beren artekoa nabari zen, Euskal Herria zelarik jokoan *bakotxa bere alde, besteen erranaz axolatu gabe* idatzi izan du. Lehenago ere izanak ziren gatazkak: Euskaldun Gazteria eta Nesken 'kongregazioa', Algeria frantsesa eta independientea, apez langile eta «normal» eta nik dakita beste zeren alde eta kontrakoen artean.

1987an seminarioko buru izendatu zutelarik 18 apezgai ziren... bost diosesatakoak, bakar bat euskaraduna... 170 zirelarik bere apezgai urteetan, denak Baionakoak. 1962an, 60 urtez petikako 645 apez bazelarik diosesan, 42 baizik ez ziren 50 urte berantago. Zergatik horrelako beherakada?

Euskarak bezala, Elizak beherapena jasan du urte beretan. Herri berean, hiltzorian izan ondoan euskarak bizi berri bat hasia du ikastola, gau eskola, irrati eta gaineratikoekin. Elizan ere lehen pindarrak agertzen ari ote dira hauspetik? Seminarioan apaizgai bakar batean zeudelarik duela sei urte,

25etara hupatu dira. Hazparnen erretore zelarik haur guziak bataiatuak baitziren eta denak katiximan ibiltzen, aurten erdiak dabiltza katiximan. Baina kasik urte oroz bat edo bestek bataioa eskatzen du. Artetan, heldu zenbait. Gorapenean, biak elgarrekin egundainokotan, euskara eta Eliza? Lasto ala egur sua? Geroak erranen.

Euskararen militanteek frogatua dute zilo batetarik atera daitekeela. Ez ote litezke noizbait gogoeta sakonak egin beharko lehenagoko Ekintza Katolikoaren *ikusit, epaitu eta egin* leinari jarraikiz, ikusteko zergatik ez garen gu ere gorapen bidean euskararen hein berean? Bainan apez biltzar batean, hori aipatu nuelarik entzun nuen: *On n'a pas de question à se poser.*



Suzuko Tamura (1934-2015) gogoan

HAGIO, Sho

Tokyo University of Foreign Studies unibertsitateko irakaslea

2015eko abuztuaren 3an joan zitzaigun Suzuko Ainhoa Tamura. 81 urte zituen. Aspalditik ezagutzen genuenoi bere heriotzaren berria goizegi heldu zela iruditu zitzaigun, nabaria baitzen haren barnetik agertzen zen bizitasunaren distira, aurpegi irribarretsuarekin batera. Tamura andrea ez zen inoiz ere bolizko dorrean ezkututzen, eta beti egoten zen prest norahirekin solas egiteko, inor baztertu gabe.

Agian toki berezia da berea hizkuntzalari deskribatzaile japoniar bezala akademikoen artean. Izan ere, Suzuko Tamura andrearen garaian, Japoniako akademiko gehienek hautatzen zituzten Mendebaldeko hizkuntza handietako batzuk, haien espezialitateak garatzeko, hizkuntza horietan oinarritzen den «zibilizazio unibertsala» bereganatzeko asmoz, edo lanpostu hobe bat lortzeko nahiarekin. Baina Tamurari hizkuntza eranskariak interesatu zitzaizkion, besteak beste, japoniera, ainuera, inuitera, euskara etab. Euskararekiko interesa bere bizitzaren azken erdian etorri zitzaion arren, euskal munduarekiko bihotzezko atxikimendua mantendu zuen bitzita osoan.

